

Liolako Iñigo euskaldun eta santuaren bizitza idazteko banuen apalddanik gogo. Liolakoa seme hau da: "Euskal Herriak eman duen gizonik garaiena" (Miguel Unamunok). "Hamaseigarren gizaldiko fededunik handiena" (Jose de Artetek). "Euskaldunik unibertsalena" (Beste norbaitek). "Iñigo eta Jesusen Lagundia izan dira Euskal Herriak historiari eskaini dizkion emaitzik baliotsuenak".

Euskerarik errazena erabili nahi izan dut gure hizkuntzan irakurtzeko ohiturarik ez dutenek ere, ahalegin apur bat eginez, Euskal Herriko seme ospetsu Iñigo Loiolakoaren bizitza samurrago irakur dezaten.

Iñigo Loiolakoa · I. Goikoetxea



IÑIGO LOIOLAKOA

Iñaki Goikoetxea

KIMU saila

Udal Liburutegia / Amorebieta-Etxano

Iñigo Loiolakoa

GOIKOETXEA, Iñaki

929 GOI iñi



3170349


929
LOI
goi

GERO



9 788427 117006


IÑAKI GOIKOETXEA



IÑIGO
LOIOLAKO A

GERO 
EDICIONES MENSAJERO

KIMU saila



*Iñaki izena ipini eusten
nire aita Eleuterio,
eta ama Gileruari,
maitasun oroigarritz.*

HITZ-AURREA

Loiolako Iñigo euskaldun eta santuaren bizitza idazteko banuen aspaldidanik gogo.

Loiolako seme hau da:

«Euskal Herriak eman duen gizonik garaiena». Migel Unamunok.

«Hamaseigarren gizaldiko fededunik handiena». Jose de Artetxek.

«Euskaldunik unibertsalena». Beste norbaitek.

«Iñigo eta Jesusen Lagundia izan dira Euskal Herriak historiari eskaini dizkion emaitzik baliotsuenak».

Eta abar eta abar.

Ni Iñigo Loiolakoaren bizitza bera izan zen gizon eta santuaren iduri egiazkoa irakurlearen begien aurrean jartzen ahalegindu naiz, adierazpen edo komentarioak irakurlearen baitan itziz. Horretarako ahal izan dudan guztian Iñigok berak kontaturiko autobiografiaz baliatu naiz. Nork hobeto agertuko Loiolako semearen bizitza Iñigok berak baino? Honetan

eskerrak eman beharrean nago nire lagun Patxi Ola-riagari, honek euskarara itzulitako «Erromesaren bi-dea»k asko lagundu didalako.

Azkenez, euskararik errazena erabili nahi izan dut gure hizkuntzan irakurtzeko ohiturarik ez dutenek ere, bizkaitarrak batez ere, ahalegin apur bat eginez, Euskal Herriko seme ospetsu Iñigo Loiolakoaren bi-zitza samurrago irakur dezaten.

Irakurle:

Iñigo Loiolakoaren bizitza hau irakurtzeak on egin diezazula.

Iñigo Loiolakoaren jaiotzaren 500. urtean.

Loiola. 1991. urtea.

Iñaki Goikoetxea, S.J.

EUSKALDUNEN ERLIJIOA

Euskal Herria —mitoak alde batera utzirik— Europako herririk zaharrena da, eta Pirineo mendi-etan babesturik Kantauri itsasora begira dago. Eus-kara, euskaldunen hizkuntza, Indoeuropeoak Europa-ra etorri aurretik, euskal artzain eta arrantzaleen ahotan entzuten zen mintzaera zen.

Erromatarrek ekarri zuten zibilizazioa Euskal Herrira, baita Kristoren erlijio berria ere.

Bi sarbide izan zituen kristautasunak Euskal He-rrian:

1. Tarragonatik, Zaragozan zehar, Tutera eta Iruñeako bidea.

2. Bordeletik (Burdeos), Baiona eta Orreagako mendatean zehar, Iruñeara doan galtzara.

Hirugarren gizaldian egin ziren kristau Nafarroa aldean lehen euskaldunak, baina VIII. gizaldira arte euskaldun guztiak kristau ziren ezin da esan.

Askok kostako zitzaien, noski, antzinako euskaldu-nei erlijio zaharra utzi eta berria hartzea, baina be-hin hartu zutenean, benetan hartu zutela esan behar.

Zer da euskal kristautasunaren ezaugarri berezia?

Erlijio-sikologoen diotenez: euskaldunen erlijioa «benetakoa» da, ez folklorista, eta «sakona», ez azalekoa... Euskaldunak Jainko «zuzenari» gehiago begiratzen dio, Jainko «errukitsuari» baino.

Euskaldunak «Gerokoari» garrantzi handia ematen dio.

Iñigo Loiolakoaren garaian erlijioak, etxeak, kaleak, udaletxeak, jolasak eta lanak betetzen zituen.

Euskal Herriko Eleiza

Hasieran Euskal Herriko lurralde guztiak Iruñeko eleiz-barrutian bilduta zeudela, uste dute historialari askok.

Erdi Aroan, eta guk historiatzen dugun garaian, ordea, Euskal Herria lau eleiz-barrutietan banatuta azaltzen da:

1. Baiona: Euskal Herriko Iparralde osoa, eta Hego aldeko Ondarribi, bost hiriak (Lesaka, Etxalar, Aranatzte, Bera, Igantzi), eta Baztango harana.

2. Iruñea: Nafarroako zatirik handiena, baita Gipuzkoako erdi aldea ere, Donostiatik Deba ibairaino. (Azpeitia barnean dela).

3. Kalagorri (Calahorra): Araba osoa eta Bizkaiako zatirik handiena, baita Gipuzkoako mendebal aldea ere Deba ibairaino.

4. Burgos: Balmaseda eta Enkarterriak.

Nafarroako Erreinuan, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, monastegi ospetsuak eraiki ziren: Leire, Oliba, Irantzu, Iratxe, Orreaga eta abar. Frailetxe

hauek Euskal Herriko kristautasuna kulturatu, zabaldu eta indartu egin zuten.

Gipuzkoa

Loiolako Iñigoren lehen 30 urtetako arazoak nolabait ulertzeko Gipuzkoako historia, gain gaineratik behintzat, jakin beharrean gaude.

1000. urtean Euskal Herri osoa Nafarroako Errege Santxo III. Handiaren babespean bat eginda aurkitzen zen. Baina, 1200. urtean, zergatik eta nola garbi ez dakigu, Gipuzkoa, Nafarroako erregearen mendetik alde eginik, Kastillako erregearekin alkartu zen, baina autonomia edo foruak galdu gabe. Alegia: Kastillako erregea Gipuzkoako Jauntzat hartu zuten.

Ez dezagun ahaztu Gipuzkoako lurraldea garai hartan oso pobrea zela, eta ezin ziela bere seme gutxiei jaten eman. Kastilla, ordea, garai hartan aberatsa zen, eta gainera Ameriketako lur zabal oparoak, zati handi baten behintzat, bereak zituen.

Gipuzkoari Kastillaren lagun izatetik abantail handiak zetozkion, eta Kastillarentzat ere, Gipuzkoa Frantziako Erreinuko muga zenez, ate hori ondo zaindurik eukitzea beharrezko zen. Honegatik gipuzkoarrek beti Kastillara begira zeuden, eta Kastillak ere gipuzkoarrei lagun bezala begiratzen zien.

Gipuzkoarrentzat, ordea, nafarrak, odolez anaiak izan arren, Frantziaren aldeko zirenez, politikaz etsaiak ziren. Eta hain benetako etsaiak, zoritxarrez, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugari —Berastegi, Gorriri— han gertatzen ziren lapurreta, erreketak eta borrokengatik, «gaizkileen muga» deitzen zioten.




LOIOLA DORRE-ETXEA

Loiolako dorre-etxea Gipuzkoako erdigune den Azpeitia eta Azkoitiako hirien bitartean dago, Iraurgi deritzan haranean, Izarraitz haitzaren oinetan.

Iñigo bizi zela Loiola ikustera etorri zen kastillako batek —A. Pedro Tablaresek— eskutitz baten margo zoragarritz pintatzen digu Iñigoren jaioterri eta dorre-etxea.

«Gipuzkoa osoak baratze eder bat dela dirudi. Zure begiak inguruko alde guztietara zabalduz, dena berde eta mardul ikusiko duzu. Paradisuaren antzeko dela esango zenuke. Eta Loiolako dorre-etxea lur honetako tokirik politenean kokaturik dago. Azpeitia eta Azkoitiako hirien arteko zelaian zoroz inguraturik ikusiko duzu... Loiolako etxea frutadun

zuhaitzen artean ezkutaturik aurkituko duzu... Etxea dorre tankerako horma oso lodi, har-landuz egina da».



Loiola izena

«Loiola» izenari buruz etimologia bitxiak asmatuak izan dira.

Loiolako armarria: pertza bat laraztetik zintzilik, bi otso ezker eta eskuin dituela da. Hau dela-eta, norbaitek irudimerari egaz egiten utzirik, latinetik zetorrelakoan, etimologia bitxi hau asmatu zuen: Loiola = lupus in olla = otsoa pertzan...

Euskaldunentzat, ordea, Loiolaren esanahia ez da zaila asmatzen: loi = lokatza, eta ola = toki-izena. Loiola = lokatza den tokia.

Badira Euskal Herrian Loiola izena duten toki gehiago: Donostia ondoan bat, eta Gernika ondoko Arrazuan beste bat, behintzat.

Gipuzkoako Gizartea

Gipuzkoako gizartea nola osotzen zen jakitea ere behar beharrezko zaigu loiolatarren bizitza, pentsa-era eta jokabideak ulertzeko.

Jatorriz gipuzkoar ziren guztiak Gipuzkoako legeen aurrean berdinak ziren. Gipuzkoako legeek ez zuten Europako beste lurralde askotan bezala, (noble, plebeyo, siervo), holako gizarte mailarik onartzen. Baziren Gipuzkoan, nola ez, aberatsak eta pobreak, jakitunak eta ez-jakinak, baina jatorriz gipuzkoar ziren denak gizon askatuak eta berdinak ziren. Kastillako pentsakeraz «hidalgo» mailakoak ziren. Ez zen Gipuzkoan (markes, konde edo duke) holako noblezia titulorik onesten. Berdintasun eta askatasun hau Gipuzkoako Batzarre Nagusiek ahalgin eta indar guztiz beti defendatu zuten. Hau da gipuzkoarren (eta bizkaitarren) «Orotako Noblezia» edo «Nobleza Universal» deitzen zaiona.

Ahaide Nagusiak

Gipuzkoar guztiak legearen aurrean berdinak izan arren, ba ziren, esan dugun bezala, aberatsen eta pobreen arteko ezberdintasunak. Familia aberatsek besteak menderatu nahi zituzten. Sendi aberats hauek 24 ziren Gipuzkoan, eta «Ahaide Nagusiak» esaten zieten. Loiolatarrek «Ahaide Nagusiak» zirenez gero gizatalde honen argazki egitea egoki zaigu.

Honetarako Pablo Gorosabel tolosarrari jarraituko diogu:

«Ahaide Nagusiak» ziren, antzinatetik lurralde zabal, baserri, ola eta erroten jabe zirenak. Hau da:

Euskal Herriko aberatsak; Euskal Herriko lehen arbasoen ondorengo zirela uste zutenak».

«Familia hauek Gipuzkoan bi bandotan zatiturik zeuden: oinaztarrak eta ganboatarrak. (Loiolatarrak Oñazen aldekoak ziren). Bi bando hauen zatiketa honetatik izan zela uste dugu: «Nor gehiago izan» edo «Nor gehiago balio» edo «Nork gehiago agindu»-gatik.

(«Nor gehiago» edo latinez «magis» delako hau, Iñigoren santutasunaren ezaugarri berezi bat bezala eten gabe agertuko zaigu: halako santuak hau edo hori egin zuen, bada, nik «gehiago»...)

«Ahaide Nagusiek lur eta ondasun askoren jabe zirenez, euren mende jende asko zuten, eta hauekin bando biek euren artean gerrak, borrokak eta hilketak egiten zituzten. Bestetan euren artean alkartu ziren hiri bilduen aurka euren indarra erakutsi eta gerra egiteko».

«Bazituzten euren dorre-etxeetan gartzelak eta kateak ere. (Loiolako dorre-etxean ez zen gartzelarik ezagutu). Parrokia askotako eraikitzaile eta ardura-dun zirenez, parrokoak eta apaizak jarri eta kentzeko eskubidea ere hartua zuten, baita, ahal zutenean, herriko alkate eta agintariak izendatzeko ere. Hitz gutxitan, Gipuzkoako Ahaide Nagusiak, euren inguruan beldurra sortzen zuten jauntxo berezi, ahaltsuak ziren».

«Euren inguruko lurraldearen jaun eta jabe zirelako, harroak eta aginte-zaleak ziren. Bando biak euren artean hain etsaiak ziren, jantziak ere ezberdinak erabiltzen zituzten: oinaztarrek buru gaineko penatxoa eta montera ezkerretara, eta ganboatarrek eskuinetara zeharkaturik eramaten zuten».

«Bi bando hauek Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan 300 urtetan zehar erreketak, odol-isurtze eta hilketak ikaragarriak egin zituzten».

«Gipuzkoako hiriek ahaide nagusiak gorroto zituzten, eta hauen harrokeria makurtzeko «Hermanadad» edo «Anaidi» talde armatuak sortu zituzten, eta piskanaka herriko kargu guztietatik aldendu zituzten. Ezin ziren Gipuzkoako Batzarre Nagusian diputatu izan, ezta herrietako alkate ere...»

«Azkenean ahaide nagusien ausardi eta harrokeriaz asperturik Gipuzkoako herriak, Enrique IV.ak lagundurik, hauen dorre-etxeak lurrera bota eta suntsitu zituen».

«Geroago, herriko jendeak kultura gehiago eskuratzeko aukera izan zuenean, ahaide nagusiak ere beste edozein gipuzkoarren berdintasunera etorri ziren».

Iñigo ahaide nagusien etxeko izanik, ez zen, askotan idazten den bezala, beste gipuzkoarrak baino «nobleagoa», ezta «noble» Kastillan edo Europan hitz hori ulertzen den bezala, baina bai etxe aberatsagoa eta ospe gehiagokoa.

IÑIGOREN SENDIA

Aspergarri ez izateko, antzinateko loiolatarrak alde batera utzirik, Iñigoren aiton-amonengandik historia hau hasiko dugu.

Aitaren aldetiko aitona eta amona

Joan Loiolakoa zuen aitona izena, eta Santxa Iraeta-koarekin ezkondu zen. Joan Oñaztarra eta Santxa Ganboatarra, Ahaide Nagusi legez etsaiak izanik, maitasunarentzat ez da mugarik.

Loiolako Joan gerrazale harroa zen, eta bere bandoko beste norbaitzuekin alkarturik, 1456. urtean, Azkoitiako eleiz-atean desafio papera hirien aurka jositako utzi zuen: «Gure dorre-etxeak erre, gure etxeak hil eta gure ondasunak lapurtu dituzuelako, zuei, Azkoiti, Azpeiti, Deba, Mutriku, Getari, Tolosa, Ordizia eta Segurako hiriei gerra gorria egingo dizuegu zuen pertsonak eta ondasunak suntsitu arte»... Hainbesteko ausardiaz nazka-nazka eginik hiri hauek ahaide nagusien dorre-etxeak erre eta suntsitu zituzten, eta haien jabeak, gerra nahi bazuten, mairuen aurka bo-

rrokatzera Andaluziara bidali zituzten. Joan Loiola-koak Kadiz aldeko Ximena herrira deserriturik joan behar izan zuen... Handik hiru urtetara Erregearen amnistiaz baliaturik euren etxeetara itzultzeko baime-na eskuratu zuten, baita euren etxe eroriak ber-erai-kitzeko baietza ere, baina ez berriz dorre-etxe beza-la, horma lodi eta sendoz, adrilyuz baizik, gerra egite-ko balio ez zezaten. Horregatik gaur Loiolako dorre-etxea erdi harrizko eta erdi adrilyuzko ikusten da... Iñigoren aitona Tolosan hil zen bapateko heriotzaz, zein urtetan guk ez dakigu. Santxa amona 1473. ur-tean hil zen.

Amaren aldetiko aitita eta amana

Aitita Martin Likona-koa, lege gizona zen, eta be-re jaioterria Ondarru zelako «dokto-re Ondarru» dei-tzen zioten. Valladolizko bizkaitarren txanzilerian entzule eta Errege Katolikuen kontseilari izan zen... 1459an Azkoitiako ahaide nagusien Balda etxea erosi zuen, eta azkoitiarren artean beti «bizkaitarra» ize-nez ezagutua izan zen.

Iñigoren amana, Martinen emaztearen berri gar-birik gutxi dakigu. Nongoa zen? Noiz jaio zen? Nola zuen izena? Markese? Grazia? Maria Zarautz-koa? Historilarien artean zenbat buru hainbat aburu.

Aita

Beltran Loiolakoa 1467. urtean Marina Likona-koarekin ezkondu zen, eta 13 seme-alaba izan zituen.

Urte batzuk Enrike IV. erregearen zerbitzuan jar-dun zuen, eta 1474ean Enrike hil zenean, Kastillako

erreinua norentzat izango gerra sortu zenean, bizkai-tarrak eta gipuzkoarrak, «La Beltranejaren» aurka, Isabelen alde jarri ziren. Beltranek Toro eta Burgos-ko setioan aurrengo lekuan jokatu zuen, baita gero Hondarribiko gazteluaren defentzan ere. Azkenez An-daluziako lurraldeetan mairuen aurkako gerrari izan zen, 1492an Boadil erregea Afrikara bidali arte.

Zerbitzu hauengatik Isabel eta Fernando errege-ak Beltrani loiolatarrek antzinatik zeukaten Azpei-tiako parrokiako zaindaritza edo patroitzat, bere ha-marrenakin, bir-onartu zioten. Norbaitek esan du, Loiolako etxea Azpeitiako parrokiaren «gotzain» txiki bat bezala zela: parrokoa eta apaizak izendatu, ha-marrenak kobratu, eleizako kultoa zaindu... Loiolako etxearen ardurapean zegoen.

Ama

Marina Likonakoa. Iñigoren amari buruz, tama-lez!, gauza askorik ez dakigu. Ondarrutarra zela bai, eta Azkoitian bizi izan zela ere bai. Baita, esan du-gunez, 1467. urtean Loiolako Beltranekin ezkondu ze-la. Iñigok bere autobiografian eta eskutitzetan ez du inoiz ere bere ama aipatzen, ziur aski Iñigo txiki zela hilko zen.

Koinata Madalena

Madalena Araotz-tarra, Martinen emaztea. Ema-kume maitagarri honek bete zion Iñigori amaren zu-loa. Bergarakoa zen, eta gazte zela ezkondu arte Isa-bel erregearen «dama de honor» izan zen. Okañan

Loiolako Jaun Martinekin ezkondu zenean, erreginak Andre Mariaren koadro eder bat opari eman zion.

Iñigok dio, Madalena beti Jainkoaren zerbitzari leiala izan zela. Asko maite zuen Loiolako seme txikiak bere koinata: Erroman Iñigori nobizio gazte batek bere gurasoetaz asko gogoratzen zela aitortu zionean, Loiolak bere bihotzeko ezkutuki isil bat irerki zion, esanez: nik ere neure errezu liburuan koinataren antz handia duen estampa bat daukat, eta hari begiraturik neure errezuetan nahasi egiten naitenez, paper batekin estaltzen dut.

Madalena Martinekin ezkondu zenean, Iñigok 7 urte besterik ez zituen. Iñigok bihotz berritzean irakurri zituen Jesusen Bizitzaren eta Santuen bizitzen liburua Madalena Loiolara ezkondu zenean ekarritakoak ziren. Bihotz oneko emakume hau Iñigo Erroman bizi zela, 1539an hil zen.

Senideak = Neba-arrebak

Loiolako Beltran eta Marinaren seme-alabak 13 izan zirela, eta Iñigo zela txikiena ziur dakiguna da. Baina historilariak seme-alaben izenak ematerakoan ez datoz bat. Guk, denei entzun ondoren, zerrendarik zuzenena honelako hau dela esango genuke:

1. Joan Loiolakoa

Anaietan zaharrena. Etxaguntza eskubideak bere anaia Martinen eskuetan utzi, eta bere itsasontziarekin Italiako lurraldera «El Gran Kapitan» zenaren agindupean gerra egitera joan zen. Napolesen hil zen 1496. urtean. Bi seme utzi zituen: Andres sasi-semea, eta Beltran legezkoa.

2. Martin Oñazkoa

Loiolako Jauna. Bergarako Madalena Araoztarra-ekin ezkondu zen 1498an. Fernando Katolikua Nafarroaz jabetu zenean Martin beste gipuzkoar askorekin Nafarroako erregearen aurka gerra egitera joan zen, eta Belateko borrokaldian 1512an parte hartu zuen. Bederatzi urte geroago bere anaia Iñigo eta beste 50 azpeitiar arma gizonekin Iruñeako gaztelua defenditzera joan zen. Iñigo, ikusiko dugunez, borrokaldi hartan zauritua izan zen, baina Martin borroka hasi aurretik bere mendekoekin etxera itzuli zen, Iruñeako defentzan «berak merezi zuen hainbateko kargurik» eman ez ziotelako.

Urte hartan bertan Martin Hondarribiko gaztelua defendatzen gartsu jokatu zuen, azkenean menderatuak izan baziren ere...

Loiolako etxean hil zen 1538. urtean, 61 urte zituela. Lau seme eta lau alaba legezko utzi zituen, eta bi sasiko.

3. Beltran Loiolakoa

Gaztetan batxiler ikasi zuen, baina gero gogoia aldatuz bere anaia zaharrena bezala Napoles aldera soldadu jokatzera joan zen, eta han hil zen.

4. Otxoa Loiolakoa

Bizitza irabaztera Flandes aldera gerrari joan zen, baina handik itzuli, eta Kastillako erregin Joanaren gudarostean izena eman zuen. Azkenean Loiolako jaiotetxean 1510. urtean hil zen.

5. Hernando Loiolakoa

Honek Ameriketako bidea hartu zuen 1510. urtean, eta Panama lurraldean laster hil zen.

6. Joan Beltran. Sasikoa

7. Pero Oñazkoa

Eleiz-gizon egin zen. Iñigori gaztetako okerkeria eta zorakerietan lagundu zion. Hiru aldiz joan zen Erromara Azpeitiako parrokiaren gain uste zituen eskubideak defendatzera. Hirugarren bidaietan etxerantz zetorrela Bartzelonan 1529an hil zen. Bi ondorengo utzi zituen: Beltrantxo eta Potentziana.

8. Iñigo Loiolakoa

Gure santua. Bere inude Garingo Mariak dioenez 1491. urtean jaio zen. Eta Erroman hil zen 1556. urteko uztailearen 31. egunean.

9. Joaneiza

Alaben artean zaharrena. Azpeitiako notari zen Joan Alzaga-koarekin ezkondu zen. Idazten ez zekien.

10. Madalena

Antzuolako notari zen Joan Galaztegi-koarekin ezkondu zen. Erromatik Iñigok eskutitzekin batera jainkotiar oparitxoak bidaltzen zizkion, maitasunaren ezaugarri.

11. Maria Beltran

San Migel ermitako serora izanik, Domingo Arraio-koarekin ezkondu zen. Sasi-alaba zen.

12. Petronila

Elgoibarko Pedro Arriola-koarekin ezkondu zen.

13. Santxa

Txikitan hil zelako edo, honen berririk ez da agertzen.

Loiola Aberatsa?

Loiola dorre-etxea Azpeitian 4 etxeren jabe zen, baita herritik kanpora burnina egiteko bi ola ere bereak zituen, baita errota bat ere. Oñazko etxaguntzak 7 baserri eta Loiolakoak 9 baserri hartzen zituen... Gainera zoroak, larreak, zelaiak, sagardiak, basoak eta abar.

Guzti hauen urteroko errenta asko jota.	300 dukat.
Handik eta hemendik jasotakoak	200 dukat.
Azpeitiako parrokiako hamarrenak	700 dukat.

Guztira 1.200 dukat.

Baina parrokiako hamarrenetatik parroko bat eta zazpi apaiz mantendu behar zirenez, kopuru honi zati eder bat kendu behar zaio.

Kastillako jauntxo eta handikien errentak 10.000 eta 20.000 baita goragokoak zirela jakinik, Loiolako etxea oso aberatsa zenik ezin da esan. Gipuzkoa guztia oso pobrea zenez gero, Loiolako etxeak aberatsa goa zela, ematen zuen. Historilari batek Loiola etxea zorpean bizi ote zen susmoa ere usaintzen du, eta ez arrazoirik gabe. Dena dela errenta hori ez zen gehiegia 13 seme-alaba mantentzeko.

Iñigo Loiolakoa

Harrigarria da, baina Iñigok berak ere noiz jaio zen ez zekiela ematen du. Nahiko buru hauste izan dituzte historilariak urteen zenbaki desberdinak batera jartzen. Horretarako Azpeitiako parrokiako bataio liburueta ezin jo, bada, 1515ean sute baten erre egin ziren.

Azkenean Iñigo txikitan hasi zuen Garingo Maria inudearen eritzia zalantzarik gabe nagusi irten da: Iñigo Loiolako seme txikiena ziur-ziur 1491. urtean jaio zen, zein egunetan ez dakigun arren.

Garai hartan ohitura zenez hurrengo egunean parrokiara bataiatzera eramango zuten, Iñigo izentzat jarriz. Izen hori Euskal Herrian aski ezaguna zen... VIII. gizaldian Iruñeako lehen erregeak Eneko edo Iñigo Arista zuen izena... XI. gizaldian baita Bizkaiako Jaun Iñigo Ezkerrak ere... Nafarroako errege Santxo III. Handiak Oñako fraide etxean nagusi jarri zuen gizon santuak ere Iñigo zuen izena, eta dokumentu zaharretan Ennecus izenaz azaltzen da.

Oraindik ume txiki zela Iñigok, tamalez, bere ama galdu zuen. Horregatik Loiolako seme txikiena nola-bait umezurtza izan zela esan dezakegu. Loiola ondoko Egibar baserrian bizi zen Maria Garingoak eman zion umeari bularra. Emakume jator hau Herrazti abizeneko errementariarekin ezkondata zegoen. Egibarko burdin-olan hazi eta koskortu zen Iñigo mailu hots, sutegei eta burni gogorren artean. Mariaren ahotik ikasiko zituen Iñigok lehen otoitzak, eta Herraztiko burni-arotzaren sutegei ondoan gogortuko zuen bere izaera tinkoa.

Aldi hartako beste handikien semeei bezala apai-zen batek irakatsiko zion irakurtzen eta idazten, baita gaztelaniaz piska bat mintzatzen ere.

Hamabi urtekin Jaunartze Handia Done Bastian Azpeitiako parrokiari egingo zuen, eta eleiza horren zaindaritza loiolatarrena zenez, Iñigok, noski, patrioaren semeak, eleizan aparteko lekua izango zuen.

Iñigo gaztetxoak aurrezkua ondo dantzatzen ikasi zuela badakigu, baita etxeko eta besteen baratzeetan, beste umeen antzera, igali heldu gabeak harra-patzen ere. Iñigo ermitetako kanpai-hots eta festetako txistu alaien artean hazi eta koskortu zen. Loiolako txikiena ez zen beste umeak baino ez hobea, ez eta gaiztoagoa ere.

Iñigo gaztea

Iñigo mutikoa 15. urte ingurura heldu zenean, Loiolako Beltran Jauna bere seme txikienari zer-nolako bizibide emango ote zion, pentsatzen jarriko zen.

Gipuzkoarrek garai hartan bizitza irabazteko lau motatako irtenbide zituzten begien aurrean: Eleiz-gizon, arma-gizon, jauregi-gizon edo Ameriketako bidea. Hiru anaia arma-gizon ziren, Hernando Ameriketara joan zen. Perok eleizako bide hartu zuen. Iñigok zer?

Beltranek bere semerik txikienarentzat eleiz-bidea aukeratu zuela, ematen du. Iñigo «koro txikidun» eleiz-gizon izatera iritsi zela ere ziurtzat jo daiteke. Dena dela, Iñigok azkenean bere bizitzeko helburutzat jauregi-gizon izatea aukeratu zuen. Erre-

ge edo jaun handiki baten zerbitzuan jardungo zuen, honen itzalean ahal zuen gorengo mailaraino igo arte.

Iñigo gazteak 15 edo 16 urte izango zituen bere etxeko eta lagunei azken agurra eginik, zaldi gainean erdi triste erdi amets, bi morroik lagundurik, jaioterriko lur berdeak baina pobreak utzirik, Kastilla aldeko lur lehor baina aberatsetara abiatu zenean.

Loiolako gazte ameslarien jo-muga ez zen hainbestean dirua edo aberastasun ugariak eskuratzea, mundutarren aurrean ospe, ohore eta izen handia irabaztea baizik...

Iñigo Loiolakoaren gaztetako bizitzaren gora-beherak agertzen hasi aurretik, Rikardo G. Villosladak esaten duena guk ere errepikatu nahi dugu. Iñigoren bizitza ondo asko zehaztu duen historigile honek aitortzen du: «Behin eta berriz esan behar da Iñigo ez zela inoiz ere Espainiako armadako soldadu izan. Ez zen inoiz ere kapitain edo honen antzeko graduren batera iritsi... Iñigok ez zuen bere gerrako egite harriarriengatik ezer saririk kobratu... Iñigok ez zuen soldadu bezala borrokatu, zaldun bezala baizik».

Euskalduna eta Loiolatarra

Iñigo Loiolakoak bere bizitzan zehar izan zituen asmoak, eritziak, ikusbegi eta jokabideak ondo, garbi eta sakon-sakonetik ulertzeko, Kandido Dalmases historilariak adierazten duen azalpen hau, inoiz ahaztu gabe, beti gogoan euki behar dugu:

«Iñigok, bere gurasoen etxetik irten zenean, 15 edo 16 urte izango zituen. Zer da adin honetara arte bere etxe eta herriko giroak Iñigoren ariman josirik utzi zuena? Graziak jatorriak emandakoa hondatzen

ez duenez gero, ondorio hau jalki behar da: Iñigo bere bizitza guztian Euskalduna eta Loiolatarra izan zela. Pertsona baten izaera moldatzean psikologiak jatorrizko izakerari eta lehen urtetako bizitza giroari garrantzi handia ematen dio. Biografia iturriek zehaztasun ugari eskaintzen digute Iñigo santuak bere bizitza guztian bere lurraldeko jendeen ezaugarri bereziak gorde zituela adierazteko».

Pedro Leturiak Iñigoren euskal zuzterretik datoze-la uste du: «Loiolatarraren barne aztertze sakona, gauzak aurretik ondo eta sakon pentsaturik egitea, hitz gutxi baina zehatzak mintzatzeari, eta hauen ondorio bezala Iñigoren nahimen sendo ikaragarria».

Simon Rodrigues portugaldarrak bere aberkide Gonzales da Kamarari idazki baten esaten dio: «Zuk ba dakizu Iñigo gure aita gizon on eta santua dela, baina euskalduna da, eta gauza bat erabaki duenean...». Eta Erroman Karpi kardinalak, Jesusen Lagundiaren lagun handiak esaten omen zuen: «Iñigok hiltzea josi du», esan nahirik: «josi badu ez du inork aterako...». Baina ez ditzagun gauzak gehiegi aurreratu.

Gipuzkoarrak beste euskaldunak baino gozoagoak eta diplomatikoagoak direla, diote; hau egia bada, Iñigok honetan ere euskaldun gipuzkoarra zela sarri erakutsi zuen.



AREVALO

(1506 - 1517)

Eta zergatik Arevalora?

Joan Velazkez de Kuellar, erregeen diruzain nagusia, gizon ospetsu eta aberatsa, Maria Belasko-koarekin ezkondu zen, eta andre honen ama Maria Gebarakoa, jatorriz arabarra, Likona sendiarekin odolez bat eginda zegoen. Henaok Maria Gebarakoari Iñigoren «izeba» deitzen dio.

Gauzak honela, Arevaloko jaun-andreak Loiolako jaunari seme bat eskatu zioten euren jauregian seme bezala bizi eta hazteko. Eta Beltran jaunak bere semerik txikiena aukeratu zuen Arevaloko jaun-andreari atsegin emateko...

Gasteiz, Miranda, Burgos, Valladolid, Medina del Kanpo zeharkatu, eta Avilara heldu baino lehen Arevaloko hiri aberatsa Iñigoren begien aurrean agertu zen, eta hiriko muino baten gainean harro asko Joan Velazkezen gaztelu buru-jaikia.

Azpeitiako ingurutik ordurarte irten ez zen loilarrarentzat lur berri bat eta bizi berri bat hazten zen, amets eder eta liluramenduz betea. «Ongi etorri» atsegina egingo zioten Iñigo gaztetxoari Maria izebak, eta gazteluko beste bizilagun guztiek.

Arevaloko gazteluaz gainera bazuen Joan Velazkezek hirian bertan Joan II. erregearen bizileku izan zen jauregi eder, zabal, zoragarri bat ere. Errege-etxe hori handikien jauregien antzera lujo guztiz horniturik zegoen.

Isabel erreginak hil aurretik Joan Velazkez bere testamentu betetzailer bezala izendatu zuen, eta erreginak utzitako gauza balio handiko asko Velazkezek berak erosi zituen: urrez eiotako tapizak, marfilezko iduriak, urrezko eraztunak, zilarrezko edergailuak, koadro baliotsuak, urrutitik ekarritako usaingarri garestiak, rubi eta diamaztez jositako gurutzeak... eta batez ere erreginaren meza liburua 500 perla ederrez apaindua... Gauza eder guzti hauek Joan Velazkezen gaztelu eta jauregian ikus zitezkeen. Hitz gutxitan esateko: Arevaloko gaztelu eta jauregiak jaun handi baten erreinu txiki bat zela, ematen zuen.

Arevaloko Jaunak sei seme eta sei alaba Iñigoren adinekoak zituen, eta hauek lagundurik loiolatarrak jauregiko ohiturak laster ikasiko zituen. Loiolako semea Arevalon ezagutu zutenek honela pintatzen digute: «gazte mardul eta apaina zen, oso jantzi dotore zalea. Ile hori ugaria sorbaldarainokoa zuen. Bi ko-

lorezko jantziak, buruko gorria luma luzea goraka, eta ezpata gerrian...»

Isabel erregina hil ondoren Fernando, 53 urte zituela, Frantziako errege Luis XII.aren iloba Germana de Foix 18 urteko neska gazte politarekin ezkondu zen. Erregin gaztea festa-zale handia zen, eta Belasko-ko Mariaren lagun mami egin zen. Ezin omen zen Germana erregina Maria gabe bizi. Hori dela-eta, Fernando eta Germana Arevaloko nagusien etxera sarri joaten ziren atsedean hartzera. Orduan, bai, esan beharrik ez dago, Jauregiko nagusiek bazkari, jolas eta jai handiak errege-erreginaren ohoretan prestatzen zituztela. Hango desfile, zaldun-gudu, eta norgehiagoketan ez zen Loiolako semea ziur azken izango.

Bestetan Kastillako diruzain nagusiak, bere karriak eskatzen zionez, Burgos, Valladolid eta Sevillaino ere joaten zenean, zalantzarik gabe, Iñigo «zerbitzari leiala» berekin eramango zuen.

Asti aldietan, arma erabilketan trebetzen, Kastillako hizkuntza hobetzen, kaligrafia txukuntzen, soinugailuak jotzen, baita bertsoak egiten ere, ematen zuen denbora. San Pedroren omenez bertso pilo bat ere egin zuen gaztekeraz. Hitz neurtu horiek ez dira gureganaino heldu, baina, ez dut uste munduak horregatik asko galdu duenik, bada, norbaitek esan duenez, erdaraz hitz lauz hain nekez idazten zuenak, hitz nehurtuz nola egingo ote zuen? Iñigok hizkuntza berriak ikasteko ez zuen erraztasunik.

Loiolako semeak, euskaldun zenez, musika asko maite zuen, eta norbaitek dionez «laud» izeneko soinugailua jotzen ere aski ondo ikasi omen zuen.

«Zaldun liburuak» irakurtzen ere ordu luzeak ematen zituen. Nobela hauetan «Amadis de Gaula» eta honen antzeko beste heroe gizandiak, amets hu-

tsezko borrokak, jokoak eta egite harrigarriak, ezin sinestekoak, burutzen agertzen dira. Emakumeak ere euren zaldun zerbitzarien omenaldiak hartzen ia jainkoaren pareko agertzen dira. Badute gainera liburu txoro hauek halako erlijio itxurazko kutsu edo «zer» bat, gaztetxoek bihotzak erakartzen dituen. Gezurrezko sasi-heroe hauek hartu zituen eredutzat gipuzkoar gazte malezi-gabeak Arevaloko jauregi itzal handikoan.

Urtero, aste batzuk behintzat, bere etxekeekin igarotzera etortzen zen Iñigo Loiolara. 1507. urtean hil zen Beltran Loiolako Jauna. Izan ote zuen Iñigok Arevalotik Loiolara azkar etorri eta bere aitari azken agurra egiteko betarik?

Iñigo bekatari

Hamaika urte egin zituen Loiolako semeak Arevaloko jauregian. Noiz eta nola hasi zen Iñigo bere bizitzako moral bidean irrist egiten?

Zahartzaroan Iñigok Gonzales da Kamara jesulagundikoari bere gaztetako okerbide guztiak zehatz-mehatz kontatu zizkion, baina honek ez zituen papelean idatzita utzi, eta horregatik guk gure jakin nahia ezin dugu ase. Baina handik eta hemendik, honek eta horrek esandakoa loturik, zerbait jakin dezakegula, uste dut. Nik lekuko-testiguen hitzak ezer erantsi eta kendu gabe hona ekarriko ditut, irakurleak gero bere eritzia argi ahal dezan.

Iñigok bere autobiografian kontatzen du:

«Hogeita sei urte bete arte munduko huskerien atzetik ibili nintzen. Arma jokoak betez ere maite ni-

tuen, eta izen handia irabazteko gogo bizi eta handinahia nuen».

Polanko Iñigoren lagunak dio:

«Hogeita sei urterarte fedeari eutsi bazion ere, ez zen fedeak eskatzen duen bezala bizi, eta bekatuengatik axola gutxi. Oso bihurria zen joko eta emakume gauzetan, baita arma borroka eta beste hola-koetan ere... Baina bazituen berezko beste birtute asko ere: gogo sendo eta kementsua zuen. Gauza handiak egiteko beti prest aurkitzen zen. Bihotz handi eta zabala zuela ere askotan erakutsi zuen. Ez zuen inoren aurka gorrotorik gorde, eta Jainkoaren aurka ere ez zuen inoiz biraurik esan».

Lainezek, Iñigoren beste lagun batek, dio:

«Iñigo gazte burutsu, zentzudun, kementsu eta sutsua zen. Arma zalea, eta beste honelako okerkerietara makurtua. Haragizko bekatuak zirikatua eta menderatua».

Iñigoren ahaide zen Araotz bergatarrak esaten digu:

«Armen joko eta borrokara joan aurretik Andre Mariari otoitz egiten zion, eta ostiraletan, Jesusen heriotzearen omenez, eta larunbatetan Andre Mariaren ohorez, ez zuen musikarik jotzen».

Eta Iñigoren beste lagun batek, Nadalek dio:

«Ez zuen erlijioan eta Jainkoagan ezer ere pentsatzen».

Bere izeba Maria Gebarakoak, gero moja sartuko zenak, behin esan omen zion: Ai, Iñigo!, berna hezur bat hautsi arte ez haiz bide onera etorriko!

Iñigo Arevalotik Loiolako bere etxera etortzen zela, esan dugu. 1515. urteko ihauterietan, behintzat, Loiolan aurkitzen zen. Jai horietako jolasen artean Iñigok eta bere anaia Peruk «gauaz, asmo txarrez,

eta aurretik elkar harturik, isilpean eta azpikeriaz gaiztakeria izugarrizko bat egin zuten». Iñigok bildurturik Iruñeara ihes egin behar izan zuen, eta han «eleiz-gizon» zenaren aitzakiaz gotzaitegiko auzitegira jo zuen, herriko espetxea baino bigunagoa bait zen. Gipuzkoako herri agintariek eta Iruñeako eleizakoek eztabaida gogor eta luzeak elkarren artean izan zituzten, Iñigo benetako eleiz-gizon zen ala ez garbitzeko. Auzi hau nola amaitu zen ez dakigu, baina Iñigok izu-ikara gogoangarria igaro zuela bai.

«Izugarrizko gaiztakeria hori» zer izan ote zen? Heriotzeko gauzarik ez behintzat. Holakorik gerta balitz ez zion Iruñeara ihes egiteak balioko. Ez eta txantxetako gauza ere, Loiolako Jaunaren semea garzelara eraman ahal izateko. Gehiago ezin jakinean, bego horretan.

Velazkezen izarra itzali

Hurrengo urtean, 1516an, Fernando erregea hil zen, eta Kastillan agintari berri bat Karlos jarri zen errege, eta honek, bera kanpoan zegoen bitartean, Zisneros kardinala jarri zuen ordeko.

Karlos errege berriak Arevalo, Madrigal eta Olmedo hiriak Joan de Velazkezi kendu, eta Germana de Foix erregin gazte alargunari eman zizkion. Velazkezek erregearen agindua ez zuen onartu, eta bere jendearekin Arevaloko bere eskubideak armaz defendatzeko prestatu zen. Zisneros kardinalak Velazkez bere kargutik kendu eta Madrileraz baztertu zuen. Bere zoritxarra ezin eramanez eta zorrez beterik han hil zen hurrengo urtean Joan Velazkez, bakartade gorrrian, Iñigoren bigarren aita bezala izan zena. Hone-

kin Loiolako semearen izarra itzali zen, eta bizitzan nora jo jakin gabe geratu zen.

Kaskarreko ederra hartu zuen 26 urteko Loiolako gazteak bere nagusia hain goitik hain beheraino erori zenean. Geroztik Jainkoarengana zuzen zuzenean begira jarri ez bazen ere, bizitza zentzuago eta benetago begiratzen jarri zen.

Maria Belasko Velazkezen alarguna Iñigorekin oso bihotz-zabal agertu zen: 500 eskudo eta bi zaldi emanenez, Naxerako Duke eta Nafarroako errege-orde zen Antonio Manrike de Lararen zerbitzuan bizimodu berri bat hasteko aukera eman zion... Gero Maria Torresillasera Joana «la loca» erreginari laguntzera joan zen, eta erregin honen alaba Katalina Austriakoak, Portugaleko errege Joan III. arekin ezkondu zenean, Maria Velasko ere «camarera mayor» karguarekin Lisboara berarekin eraman zuen. Eta hil baino lehen 1540an Arevaloko gazte bihurri hark Jesusen Lagundia fundatu zuela jakin izan ahal zuen.

Zoritxarrak bakarrik ez baina taldeka etortzen omen dira, eta egun triste haietan Iñigo gazte harroari sudurrean pikorta edo zuldar antzeko gaitz bat sortu zitzaion, eta hain usain txarra edatzen zuen, lagunak ere ondoan ezin egoteraino. Osagile askori dei eginik ezin zuten sendabiderik aurkitu... Azkenean, bera mediku, uraz garbiketak eginik, besterik gabe, usain txarreko zuldar itsusi hura desagertu zen.

NABARRETE, NAXERA, IRUÑEA

(1517 - 1521)

Iñigoren Nagusi berria, Antonio Manrike de Lara, Naxerako duke, Trebiñoko konde, Nafarroako errege-ordea, gizon leial eta bake-zalea zen.

Hiru bizileku zituen garai hartan: Logroño ondo-ko Nabarreten, Errioxako Naxeran, eta Nafarroako errege-orde zenez, Iruñean.

Baina datozen gertakariak nolabait ulertzeko historiaren urak goragotik hartzea egoki zaigu.

Nafarroako erreinu txikia, Frantzia eta Kastillako erreinu ahaltsuen erdian, ezin zen alde batera edo bestera erori gabe, luzaro zutik egon. Egia zen Biako printzeak esan ohi zuena: «Nafarroako erreina alde bietatik zakurrak jaten ari diren hezurra da». Gainera, eta hau gaiztoena, nafarrak euren artean Agramont eta Beaumont bi bandotan zatiturik zeuden: beaumontarrak Kastillaren alde, eta agramondarrak Frantziaren alde. Kanpoko eta barrengo etsaien artean orekan irautea ez zen lan erraza.

Kastillako erregina Isabel hil zenean —1504— Joana «La Loca» honen alaba, Felipe «El Hermoso» Autriakoarekin ezkondu zegoena, jarri zen Kastillan agintari, eta orduan Fernando Katolikua Aragoiko bere erreinura baztertu behar izan zuen.

Orduan Nafarroako erregeek —Joan de Albret eta Katalina de Foix— Kastillarekin adiskidetasun hitzarmen bat egin zuten... Aragoiko errege Fernando honegatik haserre bizian jarri zen...

Felipe «El Hermoso» hil zenean —1506— eta honen emaztea erotu, berriz ere Fernando Kastillako agintari jarri zen, eta Nafarroa begitan hartu zuen.

1512. urtean Kastilla eta Frantziaren artean gerra sortu zenean, Fernandok, bere armada Nafarroatik Frantziara igarotzeko aitzakiaz, Nafarroako erregeari sei gaztelu, eta Lizarra, Amaiur eta Donibane Garaziko hiriak eskatu zizkion. Nafarroako erregeak, bazeukala Gipuzkoatik Frantziarako bidea adieraziz, ezetza eman ez erantzun zionean, Duke de Alba, Fernandoren aginduz, 15.000 arma-gizonekin Iruñearen aurrean agertu zen. Nafarroako erregeek Pirineo mendien beste aldera ihes egin behar izan zuten, eta Nafarroa osoa laster Fernandoren eskuetara erori zen.

Urte hartan bertan Nafarroako erregearen armada, Joan de Albret-i zor zitzaion erreinua bir-eskuratzeko Iruñea ondoraino sartu zen, baina hiriaz ezin jabeturik esku hutsik itzultzerakoan Belateko mendilepoan guztiz hondatua izan zen. «Etsaiari» kendutako kanoiak gero Gipuzkoako armarrira pasa ziren. Han borrokatu zuen Fernando Kastillakoaren alde Iñigoren anaia Martin Loiolakoak, beste gipuzkoarrekin batera.

1516. urtean Fernando hil zenean nafarrek berriz ere euren legezko erregea Iruñeara ekartzeko ahale-

ginak egin zituzten, baina Erronkariko haitzarteetan berriz ere garaituak izan ziren.

Orduan Zisneros regenteak nafarrak gehiago jaiki ez zitezten, Villalba koronel ankerraren bidez, Nafarroako gazteluak lurreraino bota, zoroak eta alorrak erre, eta Albreten aldekoak erbestera bidali zituen.

Gogorkeria hauek ikusirik, Kastillaren aldeko beaumontar asko ere, gogoa aldatuz, Enrique Nafarroako errege berriaren alde jarri ziren.

Kastillako erregeak Nafarroako erreinua euren errege-ordekoen bitartez gobernatzen hasi ziren. Agintari berri hauek atzerritarrak zirenez eta atzerritarrak jarriak, nafartar askok biziki gorroto zituen. Baita zeharka bederen gipuzkoarrak ere Kastillaren aldeko zirelako.

Giro garratz honetan joan zen Iñigo Loiolako gipuzkoarra Naxerako duke eta Nafarroako errege-ordeko Antonio Manrike de Lara zerbitzera.

Gerra giro gori honetan Iñigori Iruñeako kaleetan gertatutakoa erraz da ulertzen. Ikusi zuen batek honela kontatzen du: «kale estu batetik jende pila bat zihoala Iñigorekin aurkitu zen, eta horma kontrara baztertu zuen. Iñigok ezpata eskuan kalean behera jarraitu zien, eta norbaitek gelditu arazi ez balu, edo bateren bat hilko zuen, edo hila izango zen».

1518an Karlos V. Flandestik Valladolidera etorri zen, hiri honetan Kastillako errege bezala koroiatua izateko. Errege berriaren omenez jai handiak egin ziren. Hara joan zen Naxerako Dukea bere zerbitzari leial Iñigorekin, baita Martin Loiolako nagusia ere. Anaia biak han alkartuko zirela ez da esan beharrik.

Bi urte geroago —1520— Karlos erregeak Flandestik ekarri zituen atzerritarren aurka, eta euren

lego eta ohitura zaharren alde, Kastillan «komune-roak» armatan jaiki ziren. Beste gertakari askoren artean, Naxeratarrak ere dukearen aurka altxa ziren. Dukearen zerbitzari bat hil, besteak gartzelan sartu, hauen ondasunak eta etxeak erre, eta hiriko bi gazteluaz jabetu ziren.

Iruñean zegoen dukeak matxinada honen berri jakin zuenean, bere arma gizonekin Naxera setiatu eta hiria asaltora hartu zuen, eta gero «gerrako ohitura» zenez, hiria harrapaka lapurtua izan zen.

Iñigok, dio Polankok, Naxera hiria berriz eskuratzean aurrengoan artean borrokatu zuen, eta nahi izan balu, besteak bezala hango harrapakinekin aberastu zitekeen, baina hala ere «ez zuen ezertxo ere ukitu nahi izan, hiritarrak hola larrutzea beretzat egite itsusia eta ohore gabea zela iruditzen zitzaialako».

Gipuzkoan bake-egile (1520)

Orain agertu dugun Gipuzkoako arazo larri hone-tan iñigok bake egile bezala lan ederra egin zuela badakigu, bere lan bereziaren zehaztasun gehiegirik ez dugun arren.

Kastillako errege-ordeari Gipuzkoan «Korregidore» esaten zioten. Gipuzkoako foruak lurralde hone-tako korregidorea Kastillako erregeak izandatzea eskatzen zuen, baina aurretik Gipuzkoako Batzarre Nagusiaren eritzia entzunik. Baina Kastillako garai hartako Regenteak, Adriano de Utrecht-ek, Gipuzkoako Batzarre Nagusiari aurretik ezer adierazi gabe, Vazkez Akuña Jauna Korregidore kargurako aukeratu zuen.

Gipuzkoako hiri gehienek, Hernani eta Azpeitia buru zirelarik, «kontra-foru» zelako, ez zuten korregidore berria onartu nahi izan. Donostiak, ordea, beste hiri gutxikin, baietza eman zion.

Etorri zen Akuña Donostiara, eta gipuzkoarrak beldurrez menperatuko zituelakoan, matxinoen aurka heriotz-epaia eman zuen, baita hauen etxeak erreak eta zoroak gatzetz estaliak izan zitezela agindu ere. Gizon honen eritziz Gipuzkoako matxinoak Kastilla-ko komuneroekin bat eginik omen zeuden.

Matxinoak Korregidoreari gogor egiteko 6.000 arma-gizon bildu eta Donostiaren aurka joan ziren.

Kinka larri honetan Nafarroako errege-ordeak, Gipuzkoa galtzen bazuen Nafarroa ere arrisku handian jartzen zela ikusirik, Gipuzkoara bere fidantzako lagun batzuk bakeak egitera bidali zituen. ...Halako lagun bat Iñigo izan zela badakigu.

Hernanikoak Nafarroako errege ordekoaren epaia onartzeko gertu zeuden, baina Vikuña kanpora bidaltzekotan. Donostiakoak ere, beldurrez edo, hartara jarri ziren.

Iñigok eta beste fidantzako lagunek gipuzkoarrei arrazoi eman ez zuten auzia honela garbitu zuten:

1. Akuña Gipuzkoatik kanporatua izango zen.
 2. Akuñak emandako heriotz-epaiak indarrrik gabe, eta hauen agiri paperak sutan erreak izango ziren.
 3. Nafarroako Errege-ordeak Kastillako Regente-ari epai hau onartu zezala eskatuko zion.
- Epai honekin Gipuzkoako lurraldera bakea etorri zen, eta Kastilla-ko komuneroek dena galdu bazuten ere, Gipuzkoako «matxinoek» nahi zutena iritsi zuten.

Gerra giroa

Estu eta larri ari ziren Kastillako agintari nagusiak komuneroen matxinada ezin menderaturik. Arazo honegatik Nafarroatik arma-gizon talde hoberena Kastillara eramana izan zen... Iruñea defendatzeko 1.000 gizon bakarrik geratu ziren. Egia da janariak ugari zituztela, baita 19 kanoi handi ere, baina soldaduen artean borrokarako kemena falta zen... Hura zen Enrike de Albrotek, bere aita Joanek galdu zuen erreinua berriz eskuratzeko garai egokia.

Horretarako Frantziako errege Frantzisko 1.ak Kastillakoari Nafarroako erreinua bere legezko jaunari itzultzeko agindu zion. Honen ezetza hartu zuenean Erronkari, Orreaga eta Amaiur aldetik 12.000 oinezko, eta 800 lantza-gizon, 29 kanoi handiekin Nafarroara sartu ziren. Armada honen agintari Andres de Foix, Asparrosko Jauna, zetorren, gazte sutsu eta kementsua, baina arma arazoetan oraindik gutxi ikasia.

Askatasun egunsentia ikusita nafar gehienak —bea-mondar asko ere bai— euren legezko erregearen alde armetan altxa ziren... Laster aurkitu zen Asparrosen armada Iruñeako harresien aurrean.

Naxerako dukea egun gutxi aurretik Kastillara joana zen Iruñea defendatzeko arma-gizonen bila. Iñigo ere azkar asko Gipuzkoara bidali zuen ahal zituena arma-gizon guztiak lehen-bait-lehen biltzera. Kin-ka larri honetan Gipuzkoako Batzarre Nagusiak Kastillako agintariei «muga gabeko leialtasuna» eskaini zien.

Iñigo eta bere anaia Martin Loiolakoa gerra-gizon talde handi batekin —ez dakigu zenbat— azkar arin Iruñearantz abiatu ziren.

Martin eta Iñigo gipuzkoarrekin hirira heldu zirenean dena zen estu eta larritasuna hango defentzaileen artean. Errege-ordeak alde egin zuenez geroztik nork agintzen zuen hirian? Hiria 1.000 gizonekin bakarrik nola defendatu? Kastillako laguntzarik itxaron zitekeen?

Martin Loiolakoak hango buruei adierazi zien berak hiriko defentsaren agintea hartzen bazuen bere gipuzkoarrekin hiriari eutsiko ziola. Loiolako nagusiak bere eskakizuna baztertua ikusi zuenean, bere mutilekin Gipuzkoara itzuli zen. Baina Iñigo «zaldia lauoinka» gaztelura sartu zen.

Bien bitartean Iruñeako diputaduak hiritik irten eta Billabara joan ziren Asparrosen bidez Enrike erregeari leialtasun-zina eskaintzera.

Asparrosen gizonak borrokarik gabe sartu ziren hirian, eta Iruñearrek ongi etorririk beroenarekin hartu zituzten. Dena zen gora eta poza kaleetan nafar-frantzes armadaren omenez.

IÑIGO BERE BIZITZA KONTATZEN HASI

Hemendik aurrera gu ez, baina Iñigo bera hasiko zaigu bere bizitza kontatzen... Iñigok Erroman, hiru urte hil aurretik, bere bizitzako zehaztasun guztiak Luis Gonzalves da Kamara Portugaleko jesulagunari agertu zizkion, eta honek Iñigoren ahotik entzundakoa hitzez-hitz paperean jaso zuen, guretzat honela testigantzarik baliotsuena utzirik.

Nola gertatu zen Kamara berari entzun diezaiogun:

«1553. urtean (Iñigo 1556an hil zen) ostiral goiz baten, abuztuaren lauean, Edurretako Andres Mari bezperan, Aita (Iñigo) baratzean zegoela ni neure ari-mako gauza batzuk kontatzera joan nintzaion. Handik ordu betera edo, bazkaltzen ari ginela, gure Aita (Iñigok) esan zuen, lagundiko zenbaitek askotan gauza bat eskatu ziotela, baina ez zela hori egitera behin ere jarri...».

«Nirekin hitzegin ondoren, bere gelan bildu zenean, bere bizitza kontatzeko gogoia etorri zitzaiola esan zidan, eta horregatik bere bizitzan ordurarte gertatutako guztia norbaiti agertzea erabaki zuela, eta norbait hori ni nintzela».

«Aita (Iñigo) garai hartan oso gaiso zegoen, eta behin ere ez zion bere buruari egun bateko bizitza agintzen. Eta norbaitek: hau hemendik hamabost edo zortzi egun barru egingo dut, esaten zuenean, Aitak harriturik esaten zuen: Jesus, hain luzaro biziko zarela uste al duzu? Baina orain, hala ere, bere bizitza osoa kontatu arte hiru lau hilabeteko bizia Jainkoak emango ziola uste zuela, esan zidan».

«Hurrengo egunean, ea bere bizitza kontatzen hasi nahi zuen, galdetu nion. Eta berak horretarako sa-soi egokia etorri arte egunero gogarazi niezaiola eskatu zidan...».

«1553ko irailean, zein egunetan ez naiz gogoratzen, Aitak dei egin eta bere bizitza osoa, gaztetandiko bihurrikeria guztietatik hasita, niri kontatzen hasi zen. Gero hil horretan hiru lau bider gehiagotan dei egin zidan... Aitak hara hona paseatuz kontatzen zuen. Eta Aitaren kontakera, beste gauza guztietan bezala, hain bizia da, gertatutako guztia begien aurrean jartzten duela, ematen du. Eta horregatik nik ez nion ezer galdetu beharrik, bada, jakingarri zirenak esateko ondo moldatzen zen Aita».

«Nik entzundakoa, Aitari ezer esan gabe, berehala laburki neure eskuz idatzi egiten nuen, gero luzeago orain dagoenez idazteko... Aitaren ahotik entzundako hitzak, ezer kendu eta gehitu gabe, jartzen ahalegindu naiz, eta honegatik zenbaitetan huts egin ote dudan ere beldur naiz, bada, Aitaren hitzetatik ez okertzearren, baliteke hitz batzuen indarra behar bezala ezin adierazi ahal izatea».

Iñigok autobiografian bere buruari «Erromesa» edo «El Peregrino» deitzen dio. Nik bere izena «Iñigo» jarriko diot.

Baita noizean behin —oso gutxitan— Iñigoren esanahia hobeto ulertzeko tartetan argibide laburren bat sartuko dut.

Iñigo Loiolakoak bere zahartzaroko autobiografia honetan darabilen hizkuntza erraz, berezko, gozo honak, gure euskal aitonen neguan sutondoko kontaktaren antza handia duela, ezin ukatu.



IRUÑEAN ZAURITUA

(1521)

Iñigo autobiografian bere Iruñeako zauritzea honela hasten da kontatzen:

«Frantziarrek (nafarrekin batera) erasotzen zuten Iruñeako gazteluan nengoela, eta denek, biziak salbatzekotan, errenditzea onartzen zutenean, argi ikusten bait zuten ezin zirela defendatu, nik halako arrazoiak eman nizkion Herrera gaztelu-buruari, azkenean defendatzeko erabakia har arazi nion, zaldun guztien aurka ere, eta hauek nire adorea eta keme-naz borrokarako azkartu ziren».

«Eta kanoiak jotzen hasiko ziren eguna heldua zela uste zenean, ni nire armalagun batekin aitortu nintzen. Eta kanoiak sei orduz jo eta ke jardun ondoren, bonbarda batek berna batean jo ninduen, guztia hautsiz, eta pilota berna bien artetik igaro zelako, bestea ere gaizki zauritua izan zen».

«Eta hala, ni erorita, gaztelukoak berehala errenditu ziren frantziarren eskuetan, eta hauek gazteluko jabe egin ondoren, ni zaurituta nengoela ikusirik, oso ondo hartu ninduten, gizon eta lagun bezala nirekin jokatu».

1521. urteko maiatzak 20 egun zituen, eta Pentekostes hurrengo astelehena zen.

Iruñeatik Loiolara

«Eta Iruñean lehen sendaketak egiteko hamabi edo hamabost egun egin ondoren, esku-ohetaren baten neure lurraldera eramanez ninduten».

Eramaileetako bat Zuastiko Esteban nafarra izan zen, Xabierko Frantziskoren lehengusua.


Iñigo zaurituak Iruñean bere etsai izandakoei hain gizonki eta ongi berarekin jokatu zirelako, esker onez, bati bere erredola (eskudoa), beste bati saskakoa (punala), hurrengoari bere koraza, oparitzat eman zizkien.

Iruñeatik Loiolara mendiz mendi bide zuzenez 80 kilometro inguru dira; baina zaurituaren egoera larriagatik baliteke eramaileek —zortzi gizon launako bi txandatan— bide luzeago baina erosoagoa hartu nahi izatea. Badakigu behintzat zortzi egunez non-

baiten geldi egon beharra izan zutela. Antzuolan bere arreba ezkondu Madalenaren Etxenagusian gau bat igaro omen zuen...

Bideko hainbeste klinki-klanka eta neke ondoren zauritua bere jaiotetxera heldu zenean, Loiolako dorre-etxean bere ezkon-arreba Araotz-ko Madalena, etxeako arduratsu, maitagarria, bere seme-alabekin, aurkituko zuen. Madalenatxo alaba zaharrenak osaba zauritua zaintzen bere amari lagunduko zion. Beste seme-alabak, Maria, Beltran, Joan eta Milan txikiegiak ziren oraindik osabari ezertan laguntzeko.

Iñigok ez zuen, agian, Loiolara etorri zenean, bere anaia Martin etxean aurkitu. Loiolako Jauna, behar bada, Hondarribiako gazteluan Gipuzkoako muga armaz zaintzen zegoen.



LOIOLAN

(1521 - 1522)

«Baina ni osasunez oso gaizki aurkitzen nintzen, eta inguru guzti haietako osagile eta zirujano guztiei dei eginik, hauen eritzia zen, berna hezurak berriz ere askatu egin behar zirela, eta hezur bakoitza bere lekuan jarri, bada, edo lehen gaizki jarri zituztelako, edota bideko gora-beherekin, euren lekutik aterata zeudelako, eta honela ezin nintzela sendatu».

«Eta berriz ere sarraski hori egin zen. Eta hone-tan, lehen Iruñean eraman nituen, eta gero eramango nituen sendaketa mingarrietan bezala, ez nuen hitz bat ere ahotik atera, ezta beste minen ezaugarri-rik eman, ukabilak gogor estututzea besterik».

«Baina ni geroago eta gaizkiagora nindoan, ezer ezin janez, eta heriotze aurretik gertatzen diren halako beste zantzuekin».

«Eta San Joan eguna heldu zenean, ekainak 24, osagileek, ni sendatuko nintzenik konfiantza gutxi zutenez gero, aitortzeko aholkua eman zidaten; eta orduan eleizakoak hartuta San Pedro eta San Paulo bezperan —ekainak 28— esagileek esan zuten, gauerdirako ez banuen hoberakorik egiten nireak egin zuela».

«Nik aspalditik Pedro Santuari lege handia nion, eta gure Jaunak hala nahi-ta, gauerdi hartan bertan hobera egiten hasi nintzen, eta hain azkar hobera egiten hasi nintzen, eta hain azkar hobera egin ere, handik egun batzuetara heriotzeko arriskutik irten nintzela uste izateraino».

«Baina hezurak bata bestearekin lotu zirenean, belaun azpian hezur bat bestearen gainean gelditu zitzaidan, eta honegatik hanka hori laburragoa geratzen zen, eta leku hartan hezurra hain gora jasoa gauza itsusia zen. Eta nik hori eraman ezinik, munduaren atzetik joateko erabakia hartuta bait nengoen, eta hezur harek itsusi jarriko ninduela pentsatuz, zirujanuei ea hezur hura moztu zitekeen galdetu nien. Eta haiek baietz erantzun zidaten, moztetokan moztu zitekeela, baina minak ordurarte sufritutako guztiak baino handiagoak izango zirela, hezur hura osatuta zegoelako, eta mozteko lekua behar zelako».

«Eta hala martiritza hura neure borondatez sufritzea erabaki nuen, nire anaia zaharrena ikaratu egiten bazen ere, esanez, bera ez zela honelako minik inolaz ere sufritzen ausartuko... Baina nik hori betiko kemenaz eraman nuen».

«Eta han gainean zeuden haragi eta hezurra moztu ondoren, zango hura laburragoa gelditu ez zedin sendabideak hartu nituen, gantzualdi asko emanez, eta eten gabe tresnekin luzatuz, egun askotako martiritza eman zidaten. Baina gure Jaunak astiro astiro osasuna eman zidan, eta laster hain ongi aurkitzen nintzen, beste gainontzekoan sendatuta nengoen, baina zango baten gainean ezin nintzen ondo finkatu, eta honela ohean egotera beharturik nengoen».

«Eta liburu munduzale eta zuzterbakoak —zalduenenak alegia— irakurtzeko zaletasun handia nuela, ongi aurkitu nintzenean, halako batzuk eskatu nituen, denbora pasatzeko, baina Loiolako gure etxean irakurtzeko ohitura nuen halakorik bat ere ez zen aurkitzen, eta honela «Vita Christi» edo «Kristoren bizitza», eta erdarazko «Santuen bizitza» zeritzan beste liburu bat eman zizkidaten».

«Liburu horiek, behin eta berriz irakurriz, han idatzitakoaz zerbait gozo hartzen hasi nintzen, baina irakurri ondoren, batzutan irakurritako gauzak pentsatzen geratzen nintzen, eta bestetan lehenago ohi nituen mundukoak gogoratzen».

«Eta burura etortzen zitzaizkidan beste gauza hutsal askoren artean, batek zeukan nire bihotza hain osoro hartuta, hartan pentsatzen bi, hiru eta lau ordu, ohartu gabe, liluratuta egoten nintzen, alegia: andre baten zerbitzuan egingo nituen gauzak asmatzen, eta hura zegoen lurraldera joateko hartuko nituen bideak, eta zer-nolako izen eder, eta hitz politak esango nizkion; haren zerbitzuan zer-nolako arma egintza harrigarriak egingo nituen... Eta honekin hain liluratua nengoen, zein lortu ezineko gauza zen ez nuen ikusten; bada, andre hura ez zen edo-

zein leinargiko, ez kondesa, ez dukesa, hauek baino maila goragokoa zen».

Nor ote zen Iñigo zaldunaren buru-bihotzak hain zoro egin zituen emakume liluragarri hori? Galdera honi erantzun nahirik hiru eritzi desberdinak agertzen dira loiolatarraren historigileen artean.

1. Iñigoren ametsetako emakume hori ez zen benetako hezur-mamizko pertsona bat, Loiolako zaldun ameslariak asmatutako irudi huts bat baizik, Danteren Beatriz, edo On Kixoteren Dultzinearen antzeko norbait. Egia esan, bazuen Iñigok bere gazte aro honetan gauza bat baino gehiagotan On Kixote Mantxakoaren antz handirik. Zaldunen liburu zuzterbakoak irakurtzeko zaletasun handia nuen, esan digu berak.

2. Germana de Foix, Frantziako Errege Luis XII. aren iloba, Fernando Katoliko Erregearen bigarren emaztea. Emakume polita omen zen eta festa zalea, eta Iñigok Arebalon askotan ikusiko zuen Fernando Erregea hiri hartara bere emazte gaztearekin joaten zenean.

3. Austriako Infanta Katalina, Karlos V. enperadorearen arreba txikiena. Garai hartan 14 urte zituen, eta bere ama «Jauna la Loca»ren mendean, Tordesilasko gaztelu zaharrean, lagunik eta pozik gabe, bahituta bezala bizi zen. Haren miresleek «munduko umerik politena» zela zioten. Geroago Portugaleko Erregearekin ezkonduko zen. Infanta polit, triste honen egoera latzak ez ote zuen Iñigo zaldun gazte ameslariaren bihotza maitasun samurrez eta errukiz beteko? Hala ere Infanta honek 14 urte bakarrik zituen eta Iñigok hogeita hamar...

«Hala ere gure Jaunak laguntzen zidan pentsamentu hauen ondoren beste batzuk, irakurritako gauzetatik sortuak, gogora ekarriz. Bada, gure Jaunaren eta santuen bizitzak irakurritz, pentsatzen jarri nintzen eta neure buruan erabiltzen: zer litzateke Frantzisko Santuak egin nuen hau nik ere egingo banu, eta Santo Domingok egin zuen beste hori? Eta nire ustez onak ziren gauza asko erabiltzen nituen buruan, eta beti gauza zailak eta astunak jartzen nizkion aurrean neure buruari, eta hauek gogoan hartuz, erraz burutuko nituela, uste nuen».

IRUÑEATIK AZPETIRAINO
DELAKO BIDE LUZEA,
GERTA ZITZAION IÑAZIORI
ZAURI HAIK GAIZTOTZEA.
HOGEI ETA HAMAR URTE ZITUEN,
ORAINDIK ZEGON GAZTEA.
AMETS BAKARRA ZUEN BURUAN,
GUDARAKO SENDATZEA.

JOAN BASURKO.

«Bada, nire gogoeta guztiak neure buruari esatea zen: Domingo Santuak hau egin al zuen? Bada, nik ere egin behar dut. Frantzisko Santuak hau egin al zuen? Bada, nik ere egin behar dut. Pentsamentu hauek ere luzaro irauten zuten, eta tartetan beste gauzak jarri ondoren, gorago esandako mundukoak etortzen ziren, eta hauetan ere luzaro geratzen nintzen. Eta pentsamentu hain desberdin hauek, joan eta etorri, luzaro iraun zidaten, etortzen zen pentsamentu bakoitzean luzaro egonez; batzutan egin nahi nituen munduko eginkari handi haietan, bestetan neure burura etortzen ziren Jainkozko irudipen haietan... noizbaiten nekatuta utzi urte... Eta orduan beste gauzetara jotzen nuen».

«Eta hala ere, pentsamentu batetik bestera desberdintasun hau zegoen: mundukoetan pentsatzen nuenean, atsegin handia hartzen nuela, baina nekatu ondoren uzten nuenean, lehor eta pozik gabe aurkitzen nintzela. Eta Jerusalemenera oinutsik joatea, eta belarrak besterik ez jatea, eta nik ikusitako santuak egindako beste laztasun guztiak nik ere egin behar nituela gogoratzean, pentsamentu haietan nengoela soilik ez nintzela pozten, baita utzi ondoren ere, pozik eta alai gelditzen nintzela».

«Baina ez nuen honetan begiratzen, eta desberdintasun hau ere ez nuen gogotan hartzen, halako batean nire begiak zabaldu ziren arte. Orduan halako desberdintasunez harritzen hasi nintzen, eta honi buruz arretaz hausnartzen, ikusita ikasiz, pentsamentu batzuetatik triste gelditzen nintzela eta besteetatik alai. Eta honela pixkanaka elkarrekin borrokan ari ziren espirituen desberdintasuna ezagutzera etorri nintzen, alegia: bata debruarena zela, eta bestea Jainkoarena».

«Eta ikasbide honetatik ez argi gutxi irabazirik, igarotako nire bizitzaz ardura gehiagoz pentsatzen jarri nintzen, baita nire bekatuengatik penitentzia egiteko nolako beharra nuen. Eta orduan santuek egindakoak nik neuk ere egiteko gogoia etortzen zitzaidan, beste ezeri begiratu gabe, hauek egin zutena nik ere Jainkoaren graziaz egingo nuela neure buruari hitzemanetz».

«Eta gehien nahi nuena, sendatu ondoren, Jerusalemenera joatea zen, gorago esanda dagoenez, halako zigor gogor eta halako barauldiekin, Jainkoagan piztutako gogo sutsu batek egin lezakeenez».

«Eta oraingo gogo santu hauekin, lehengo munduko pentsamentuak ahazten joan zitzaizkidan, eta ikustaldi batekin nigan sendotu ziren, era honetan.

Behin gauez itzarririk nengoela Andre Mariaren irudi bat Jesus Haurrarekin garbi garbi ikusi nuen, eta ikustaldi honekin aski luzaro neurritz gaineko pozaldia hartu nuen, eta igarotako bizitzaz hain nazka eginik geratu nintzen, eta batez ere haragizko gauzaz, lehen ariman pintaturik neuzkan irudipen guztiak handik kendu zitzaizkidala uste nuen. Eta honela, ordu hartatik gaur arte (62 urte zituen Iñigok hau kontatu zuenean) ez diot inoiz ere haragizko gauzei lekurik txikienik ere eman. Eta ondorio honengatik gauza hura Jainkoarena izan zela pentsa daiteke, baina ni ez naiz hori erabakitzen ausartzen. Nik esandakoa hala izan zela, besterik ez diot».

«Baina nire anaia, eta beste etxeko guztiak ere, nire kanpoko itxuratik, nire arimaren barruan egin zen aldaketa ezagutzera etorri ziren. Eta nik, beste ezeri begiratu gabe, neure irakurgaietan eta neure asmo onetan jarraitzen nuen, eta etxekoekin hizketan ematen nuen asti guztia jainkoazko gauzetan zen, eta honela haien arimetan on egiten nuen».

GAUEZ ITZARRIRIK NENGOELA
ANDRE MARIAREN IRUDI BAT JESUS HAURTZOAREKIN
GARBI GARBI IKUSI NUEN
ETA IKUSTALDI HONEKIN
ASKI LUZARO NEURRIZ GAINEKO POZALDIA HARTU
NUEN.

«Eta liburu haiek oso atsegin izanik, burura etorri zitzaidan Kristoren eta Santuen bizitzetako gauza nagusien batzuk laburki idatzita ateratzea. Eta honela ardura handiz 200 orrialdeko liburu baten idazten hasi nintzen, —ordurako, bada, etxe barruan pis-

ka bat jaikitzen hasia nintzen— Kristoren hitzak tinta gorritz, eta Andre Mariarenak urdinez... Eta pape-
ra labaindua eta marrakin lerrokatua zen, eta nik
hizki ederrez idatzia, luma ederrekoa bait nintzen.
Denbora zati bat idazten ematen nuen, eta beste za-
ti bat otoitz egiten. Eta pozik handiena zerura eta
izarrei begiratzeak ematen zidan, eta hori askotan eta
luzaro egiten nuen, honekin, bada, gure Jauna zer-
bitzeko indar handia nigan somatzen nuen. Eta neu-
re erabakiaz asko pentsatzen nuen, ea noiz guztiz
sendatuko nintzenaren gogo handiz, gero bidean jar-
tzeko».

«Eta Jerusalemik etorrita gero, beti penitentzian
bizitzeko zer egingo nuen kontuak eginez, Sevillako
Kartujan sartzea burura etorri zitzaidan, nor nin-
tzen esan gabe, gutxiagotzat euki nazaten, eta han
belarrak besterik ez nuen jango... Baina, munduan
zehar egin nahi nituen penitentiak nire burura
etortzen zirenean, kartujarako gogoa hoztu egiten zi-
tzaidan, neure buruaren aurka sortutako gorrotoa
han ezin ase izango nuenaren beldurrez. Hala ere,
Burgosera zihoan etxeko bati kartujako bizimodua
nolakoa zen jakiteko agindua eman nion, eta han-
dik ekarri zuen argibidea ontzat hartu nuen. Baina,
gorago esandakoagatik, eta Jerusalemgo bidaia laster
egiteko asmoa buruan oso sartuta neukalako, eta bes-
taldetik, kartujakoa handik etorri arte erabaki behar
ez zelako, ez nuen hain gogotan hartzen».

«Eta neure burua nahiko indartsu aurkitu nuene-
an, bidean jartzeko garaia zela pentsatu nuen, eta
anaiari esan nion: Jauna, Naxerako Dukeak, daki-
zunez, sendatua naizela badaki. Egoki litzateke ni Na-
barretera joatea, han bait zegoen orduan Dukea».

«Anaiak gela batera eramanez, eta gero
beste batera, eta harridura handiz nire etorkizuna ez
hondatzeko, hasi zitzaidan eskatzen, esanez, zer itxa-
ropen handia zeukan jendeak nigan jarrita, zein gau-
za handietarako balio nuen, eta hauen antzeko hi-
tzak... Denak nik neukan asmo onetik okertzeko go-
goz. Baina nire erantzuna, egiatik aldendu gabe, ba-
da, dagoeneko beti egia esateko ardura andia nuen,
hala holakoa izan zen. Eta nire anaiarengandik nola
hala ezkutatu nintzen».

Iñigo zaurietatik sendatzen zen bitartean bere
anaiak pozez kontatuko zion, nola Asparros eta Na-
farren armada Ekainaren 30ean, San Pedro hurrengo
egunean, Noingo lurraldean garaitua izan zen. Kar-
los Enperadoreak Iruñean zauritutako bere zerbitza-
ri leialari goi-mailako karguren bat emango zion.
Baina ordurako Iñigo zaldunak beste Jaun Ahaltsua-
go bat zerbitzeko asmoa hartua zuen.



ARANTZAZUN

1522. urteko otsailaren azken egunak ziren.

«Eta honela, mando baten gainean, etxeko bi morroi lagun nituela, Oñatira nirekin joan nahi zuen nire anaia Pero apaizarekin bidean jarri nintzen. Eta honi bidean Arantzazuko Andre Mariaren eleizan gau-beila egiteko gogo sartu nion. Eta han nire biderako indar berriak lortzeko otoitz egin nuen, eta nire arimak on aski hartu zuen».

1469. urtean gutxi gora behera, Arrasateko historigile ospetsu Garibaiko Estebanek kontatzen digunez, Aloña-mendiko hegaletan Baltategi baserriko

Errodrigo mutikoa bere etxeko ahuntzak zaintzen zegoela, larunbat batean, menditik behera zetorrela Birjiña Mariaren iduri txiki bat ikusi omen zuen elorri baten gainean, bere seme ederra eskuetan zeukala, eta kanpai bat, arran antzekoa ondoan. Uda zen. Mutikoa harriturik gelditu zen, eta «Agur Mari» bat eta beste otoitz batzuk errezatu ondoren, adarrekin iduri santua estali zuen, eta iluntzean bere ahuntzekin etxera itzuli zen. Han gertatutakoa kontatu zuen, eta Oñati herriko jendetza handia eleiz-gizonekin batera bildurik, Errodrigotxo aurretik zutela, aldapa gora nekez igo ziren, eta elorri baten gainean iduri santua aurkitu zuten, eta bertan Jainkoaren Amari ermita bat eraiki zioten. Iñigo erromes joan zenean frantziskotar fraileak zeuden Arantzazuko Andre Mariaren eleizatxoa zaintzen, eta Gipuzkoa osotik erromesak asko joaten ziren Andre Mariaren omenez gau-beila egitera.

Gau-beila hauetan erromes batzuk burdinezko ka-teekin euren oinak lotzen zituzten, beste batzuk gurutze astun bat euren bizkar gainean harturik gurutze bidea egiten zuten. Beste talde batzuk bertso-kantuan ari ziren edo errosario santua errezatzen zuten. Beste askok, ordean, puntadun zartailuak hartuz euren haragiak odola isurtzeraino zigorkatzen zituzten.

Badakigu Iñigok, Arantzazun egonez gero, gauero bere haragiak lazki zigortzeko ohitura hartu zuela.

Gau zoragarri hartan Iñigo bere bihotzeko amets berria zen Ama Birjinaren zerbitzuan bizitza guztirako jarri zen, Jainko Ahalguztidunari bere gorputzeko garbitasun osoa zinitz edo promesaren bidez eskainiz.

Nabarretera

«Eta nire anaia Oñatin, guru arreba baten etxean utzita, ni morroi biekkin Errioxako Nabarretera abiatu nintzen. Eta Dukearen etxean dukat batzuk zor zizkidatela gogoraturik, haiek jasotzea ondo iruditu zitzaidan, eta hortarako txartel bat diruzainari idatzi nion; eta honek ez zuela dirurik esanez, Dukeak hori jakin zuenean, beste inori dirua falta arren Loiolarentzat ez zedila falta, esan zuen; eta niri kargu on bat eman nahi zidan, hartu nahi banuen, lehenago irabazitako izen onagatik».

«Eta diruak jaso nituen, eta behartuta nengoela uste nuen pertsona batzuen artean banatzeko agindu nuen, eta zati bat gaizki atonduta zegoen Andre Mariaren iduri batentzat, hura atondu eta oso ondo apain zedin, eman nuen».

«Eta hala, nirekin zihoazen bi morroiei agur eginik, ni Nabarretetik Montserrat aldera abiatu nintzen».

MAIRUAREKIN

«Eta bide honetan gertatu zitzaidan gauza bat idaztea egoki litzateke, gure Jauna, oraindik itsu zegoen arima honekin nola ari zen ulertzeko, ahal nuen guztian hura zerbitzeko gogo handiz egon arren. Eta hala, penitentzia handiak egitea erabakitzen nuen, nire pekatuengatik ordaintzea hainbestean begien aurrean jarri gabe, Jainkoari poz eta atsegin ematea baizik».

«Eta hala santuek egindako penitentziaren bat gogoratzen nuenean, nik gauza bera egitea erabakitzen nuen, eta are gehiago. Eta pentsamentu haue-tan neukan poz guztia, barrengorik ezer begiratu gabe, zer zen apaltasuna jakin gabe, ezta maitasuna, ezta pazientzia, ezta birtute hauek legepean jarri eta neurtzeko zer zen zuhurtzia ere. Nire asmo guztia, ordea, ikusten ziren holako gauza handiak egitea zen, santuek Jainkoaren aintzarako hala egiten zituzte-lako, beste xehetasun gehiagori begiratu gabe».

«Hala bada, nire bidean nindoala, Zaragoza aldean edo, mairu bat bidean elkartu zitzaidan mando gainean, eta biok hizketan gindoazela, Andre Maria aipatzera etorri ginen, eta mairuak esaten zuen,

berak ontzat hartzen zuela Birjinak gizonik gabe sortzea, baina semea izan eta birjin gelditzea hori ezin zuela sinetsi, eta honetarako berak ikusten zituen naturazko arrazoiak ematen zituen. Eta nik hari kontrako arrazoi asko eman nion arren, ezin izan nuen haren eritzia aldatu».

«Eta hala, mairuak arin arin aurea hartu zidan, eta nik begipetik galdu nuen. Eta ni orduan mairuarekin gertatutakoaz pentsatzen jarri nintzen. Eta honetan, nire arima kezka betetzen zuten gogapen batzuk etorri zitzaizkidan burura, nire eginbeharra ez nuela ondo bete pentsatuz. Eta gogapen hauek mairuaren aurka gorrotoa sortzen zidaten, Andre Mariaren aurka halako gauzak esaten mairu bati utzi niolako gaizki egin nuela-ta; baita Andre Mariaren izen ona garbitu beharrean aurkitzen nintzela ere».

«Eta hala, gogoak mairuaren atzetik joatea ematen zidan, eta esan zuenagatik punal sastakaz jostea. Eta pentsamentu hauekin nire barnean luzaro borrokatu ondoren, azkenean zalantzan gelditu nintzen, zer egin behar nuen ezin jakinik».

«Aurea hartu zuen mairuak esan zidan, bide hartan bertan aurreratxoago zegoen herri batera zihola, erregebidetik oso hurbil, baina erregebidea ez zela bertatik igarotzen».

«Eta orduan, zer egitea on litzatekeen aspertu gabe aztertu ondoren, nora jo ziur ez jakinik, zera erabaki nuen egitea, alegia: mandoari aho-ugalak lasa emanda bide gurutzeraino joaten utziko nion, eta mandoak herriko bidea hartzen bazuen, ni mairuaren bila joango nintzen eta punal sastakadaz josiko nuen, eta herriko bidea ez bazuen hartzen, erregebidea baik, bakean utziko nion».

«Eta pentsatu bezala eginez, gure Jaunak hala nahi izan zuen, herria hogeita hamar edo berrogei pausotara besterik ez egon, eta harako bidea oso zabal eta oso ona izan arren, mandoak erregebidea hartu zuela eta herrikoa utzi».

MONTSERRATEN

(1522, Martxoa, 21-25)

«Eta Montserratera baino lehen herri handi batera heldu nintzenean, Jerusalemenera soinean eramane behar nuen jantzia erosi nahi izan nuen, eta honela zakuak egiteko erabiltzen den kalamuzko oihala erosi nuen, gutxi ehundua eta zakar asko zituena, eta harekin oinetarainoko jantzi luze bat egiteko agindu nuen. Eta gero, bordoi eta kuiatxo bat (erromesen makila eta kalabazatxoa), baita abarketa batzuk ere erosi nituen, eta bat bakarra jantzi nuen, zango bat oraindik bendakin lotuta neukalako, eta ez guztiz sendatua; bada, zaldi gainean joan arren gau bakoitzean handituta aurkitzen nuen, eta honegatik eskuineko zangoa oinetakoekin zaindu beharra nuela, uste nuen. Eta gauza guzti hauek zaldiaren basta gainean ipini nituen. Eta Montserrateko nire bidean jarri nintzen, Jainkoaren maitasunagatik burutuko nituen egite harrigarrietan, beti ohi nuenez, pentsatzen».

Euskaldunek garai hartan lege handia zioten Montserrateko Andre Mariari. Gipuzkoako Junta Nagusi-

ak, Katalunyako komentu hari egindako mesede bategatik, zera eskatu zion: Montserrateko santutegian beti bi fraile euskaldun egon zitezela, hara zihozazen euskaldunek euskaraz aitortzeko aukera izan zezaten.

«Eta nire burua «Amadis de Gaula» eta antzeko liburuekin bete neukanez, haien antzeko gauzak nik ere egitea gogora etorri zitzaidan, eta honela gau osoan arma-beila egitea erabaki nuen, eseri eta etzan gabe, batzuetan zutik, bestetan belauniko, Montserrateko Andre Mariaren aldare aurrean, eta nire jantziak ere han lagatzea, eta Kristoren armakin jaztea erabaki nuen».

«Honela, bada, oihala erosi nuen herri hartatik irten, eta, ohitura nuenez, nire erabakietan pentsatzen bidean nindoan. Eta Montserratera heldu nintzenean, otoitz egin ondoren, konfessorearekin alkar harturik, bekatuak paperean idatzita, bizitza osoko aitortza egin nuen, eta aitortzak hiru egun iraun zuen».


Iñigo pekatariaren konfesorea Dom Joan Chanon, bertako lekaide beneditar frantziarra izan zen, jainkozale eta zentzu handiko gizona.

«Eta konfesorea eta biok honetan gelditu ginen: mandoaren bila norbait etorriko zela, eta ezpata eta sastakaia (punala) eleizan Andre Mariaren aldarean zintzilikatu-eskegiko zirela. Lekaide hau izan zen nire erabakia agertu nion lehen gizona, bada, ordurarte ez nion beste inongo konfesoreri ezer agertu».

«Eta martxoko Andre Mari bezperan, hilak 24, 1522. urtean, ahalik eta isilenean behartsu batengana joanda, nire jantzi guztiak erantzirik, pobre hari

eman nizkion, eta ni hain maite nuen soinekoz jantzi nintzen. Gero Andre Mariaren aldare aurrera belaunikatzera joan nintzen. Eta batzutan belauniko, bestetan zutik, erromesen bordoia eskuan neukala, gau osoa eman nuen».

Montserraten aldi hartan Iñigo penitentzizalea ezagutu zuen lekaide beneditar batek, bertako Aita Abatari honelako hau aitortu zion: «Erromes hark —Iñigok— Kristogatik burua galdua zuen».



MANRESAN

(Martxo, 25, 1522 - Otsaila 17, 1523)

«Eta egunak argitu zuenean ezagutua izan ez nendin Montserratetik alde egin nuen, eta joan nintzen, ez Bartzelonako bide zuzenetik, bada, ezagutuko eta ohoratuko nindutenak aurkituko nituen, baizik Manresa deritzan herrira baztertu nintzen, han, bada, egun batzutan ospitaleren batean egoteko erabakia hartuta neukan, baita ere ondo gorderik neraman eta poz handia ematen zidan liburuan gauza batzuk idatziz nahi nituelako».

Montserrateko Andre Mariari ikustalditxo bat egin ondoren Manresara zihoazen lau emakumek hau kontatzen digute:

«Gu, lau emakumeok, bidea hizketan gindoazela, gizon pobre bat, erromes jantziekin, hurbildu zitzaigun, gorputzez ez handia, aurpegi zurigorritzka, begitarte zintzo eta itxura onekoa, eta batez ere begirakun oso apalekoa, ez zituen begiak lurretik jasotzen... Oso nekaturik zetorren, eskuineko zangoa errenka... Gizon honek ea inguru hartan ospitaleren bat aurki zezakeen egun batzuk han igarotzeko galdetu zigun. Ines Paskualek esan zion nahi zuen hori Manresan aurki zezakeela, eta gurekin batera bide egiteko. As-totxo bat eskaini genion gainera igotzeko, baina ez zuen holako laguntzarik hartu nahi izan».

Hain zuzen lau emakume haietako bat Jeronima Klavera Santa Luzia ospitaleko zaintzailea zen, eta Iñigori egun batzuetarako bere txiroetxea eskaini zion.

Eta Manresarantz emakume haiekin bidean zihola honako hau gertatu zitzaion Iñigori, berak kontatzen duenez:

«Montserratatik lekua bat edo (bost kilometro) aldendu nintzanean gizon bat atzetik korrika etorri zitzaidan, eta galdetu zidan, ea nik behartsu bati jantzi batzuk eman ote nizkion, pobreak berak zioenez. Eta nik baietz erantzunik, negar malkoak irten zitzaizkidan begietatik, jantziak emandako behartsuaz errukiturik, lapurtu zituelakoan gaizki erabili zutela-eta».

Gertakari honekin harriturik lau emakumeok euren artean hasi ziren pentsatzen: nor ote dugu bere soineko ederrak pobreei eman eta zakuz jantzitako gizon santu hau? Zein etxe aberatsetako seme ote dugu berau? Bidean gertatutakoa emakumeen ahotik

laster zabaldu zen Manresako herrian. Honegatik Iñigok bere autobiografian dio:

«Baina nik ohoreetatik ahalegin guztiz alde eginik ere, ezin izan nintzen Manresan luzaro bizi jendeak nigatik gauza handiak esan gabe... Eta gero fama hori handitu egin zen, egia zen baino gehiago esateraino, alegia: halako errentak utzi nituela eta abar».

Lehen hilabetetan Iñigok Santa Luzia ospitalean aurkitu zuen bizilekua, baina geroago dominikarren komentuan eman zioten txoko bat han bizi izateko... Baina bakartadean Jainkoarekin bakean lasai otoitz egiteko, Kardoner ibai ondoko hartzulo batetara baztertzen zen.

«Eta Manresan egunero limosna eskatzen nuen. Ez nuen haragirik jaten ezta ardorik edaten, emanda ere. Baina igandetan ez nuen baraurik egiten, eta ardo pitin bat ere edaten nuen, ematen bazidaten».

«Eta ilea apaintzen oso txukuna izan nintzelako, garai hartako ohitura zenez, —eta nik ile ederra nuen— orraztu eta moztu gabe, bere gisara, zetorren bezala, uztea erabaki nuen, gau eta egun estali gabe. Eta arrazoi beragatik oinetako eta eskuetako hatzazalak ere hazten utzi nituen, honetan ere oso txukuna izan nintzelako».

Tankera zakar honetan Manresako mutikoek Iñigo ikusirik «l'home del sac» edo «zakudun gizona» deitzen zioten, baina herriko jende helduek, Iñigoren kanpoko itxurari baino honen bizitzari sakonago begiratuz, «l'home sant», edo «gizon santua» deitzen zioten.

«Ospitale honetan nengoela askotan egun argitan nire ondoan airean gauza bat ikustea gertatu zitzaidan, eta honek atsegin handia ematen zidan, guztiz ederra bait zen. Zer-nolako gauza zen ez nuen garbi ikusten, baina nolabait suge baten antza zuela ematen zuen, eta begiak antzera dizdiz egiten zuten gauza asko zituen, begiak ez baziren ere. Nik gauza hura ikusiz atsegin eta poz handia hartzen nuen, eta zenbat eta gehiagotan ikusi, hainbat eta gehiago nire poza handiago egiten zen. Eta gauza hura ezkutatzen zenean atsekabe ematen zidan».

Geroago ikasiko zuen Iñigok Jainkoaren eta deabruaren agerpenak bereizten, eta orduan argi aski jakingo zuen «suge antzeko begi askodun» ikuskizun hura, ez zela Jainkoagandikoa, etsaiarena baizik.

Iñigok, Manresan egin zituen hamar hilabete luzeetan, hiru egoera oso desberdinak izan zituen bere ariman:

Lehen egoera: pake gozo eta atseginezkoa.

Bigarrena: arimako kezka, beldur eta borrokazkoa.

Hirugarrena: goi argitasun eta jainkozko dohain bikainezkoa.

Lehen egoera: Pake gozo eta atseginezkoa

«Ordurarte beti barrengo egoera ia berean jarraitzen nuen, pozezko berdintasun handiz, barrengo espirituzko gauzarik bat ere ezagutu gabe. Suge antzeko ikuskizun hark iraun zuen bitartean, edota hasi baino pixka bat lehentxoago, neke handia ematen zi-

dan pentsamentu zakar etortzen zitzaidan burura, nire bizitza berriko zailtasunak aurrean jarriz, nire ari-maren barrenean esango balidate bezala: eta nola jasan ahal izango duk bizitza hau hi biziko haizen hirurogeita hamar urtetan?... Baina nik, etsaiarena zela jakinik, honi nire barrenean indar handiz erantzuten nion: maltzur horrek! urte beteko bizitza ere hik agindu ahal diezadakek? Eta honela tentaldi hura garaitu nuen, eta baketu nintzen».

«Eta hau eleiza batean sartzerakoan gertatu zitzaidan, han entzuten bait nuen egunero Meza Nagusia, baita Bezperak eta Konpletak ere, denak kantuan, eta honekin atsegin handia hartzen nuen. Eta gehienetan mezatan Nekaldia irakurtzen nuen, beti nire barren giro berdinean jarraituz».

Iñigok, euskalduna zenez gero, kantua asko maite zuen, eta «laud» izeneko soinugailua ere Arevalon zerbait jotzen ikusi omen zuen. Eleiz-liturji musika entzunez atsegin handia hartzen zuen; hala ere berak sortuko zuen Lagundian ez zuen koruko kanturik jatorriko, berak ikusten zituen goragoko arrazoien-gatik.

Bigarren egoera: Barrengo kezka eta borrokak

«Baina, gorago esandako tentaldiaren ondoren, nire ariman gora-behera handiak izaten hasi nintzen, batzuetan hain gozo-gabe aurkituz, ez nuen gozorik aurkitzen, ez erreztatzean, ezta Meza entzutean, ezta egiten nituen beste otoitzetan. Eta beste batzuetan, osterara, hain beste aldera eta hain bapatean pozik aurkitzen nintzen, tristura eta lehorraldi hura kendu zi-

tzaidala ematen zuen, norbaitek beste bati bizkarretik kapa bat kentzen dionean bezala».

«Eta hemen ordurarte sumatu nituen gora-behera hauengatik izutzen hasi nintzen, eta neure buruari honela esaten: zer duk orain hasten diagun bizitza hau?».

«Garai honetan noizean behin pertsona espiritu-zaleekin mintzaldiak izaten nituen, haien aurrean izen ona hartu bait nuen, eta haiek nirekin mintzatzeko gogoa zuten; bada, espirituko gauzarik ezagutu gabe ere, hizketan oso gartsu agertzen nintzen, eta Jainkoaren zerbitzuan aurrera joateko gogo handia nuen».

«Bazen Manresan garai hartan emakume bat urteetan aurreratua, eta aspalditik Jainkoaren zerbitzari zena, eta halakotzat Espainiako alde askotan ezaguna. Errege katolikoak behin dei egin omen zion gauza batzuk aditzera emateko. Emakume honek, bada, nirekin, Kristoren gudari berri honekin hizketan ari zela, esan zidan: agertuko al zaizu egunen batean Jesukristo gure Jauna. Baina nik izaturik, gauza hura hitzez hitz ulertu nuelako edo, erantzun nion: nola agertuko zait, bada, nire Jesukristo!».

«Emakume espirituzale hori» nor izan zitekeen Inñigoren historigileek ezin izan dute aztarnarik aurkitu.

«Nik neure ohiturari jarraituz igandero aitortze eta Jaunartzean irauten nuen».

«Baina honetan nire barrengo kezkek lan handia ematen hasi zitzaizkidan. Bada, esan dudanez, Montserraten egindako aitortza ardura handiz eta dena idatzita egin banuen ere, hala ere gauza batzuk ez

nituela aitortu uste nuen, eta honek neke handia ematen zidan, bada, hura aitortu eta gero ere ez nintzen bakean geratzen».

«Eta ahala, kezka hauek kentzeko gizon jainkozale batzuen bila hasi nintzen, baina ez zidan inork ezertxo ere laguntzen».

«Eta, azkenean, Seoko doktore batek, han predikatzen ari zen gizon txit jainkozale batek, egun baten aitortzerakoan esan zidan, gogora nezakeen dena idatzita jartzeko. Hala egin nuen, eta aitortu ondoren berriz ere lehengo kezkek etortzen zitzaizkidan, kontzientziako gauzak geroago eta meheago eginez, eta honela ni oso nahigabeturik aurkitzen nintzen; eta kezka hauek kalte handia egiten zidatela, eta gainetik kentzea ona izango zela jakin arren, ezin nituen nigandik aldendu».

«Batzutan pentsatzen nuen konfesoreak Jesukristoren izenean, igarotako gauzarik gehiago ez aitortzeko aginduko balit, honek nire gaitza sendatuko zukeela, eta hala konfesoreak hori agintzea nahi nuen, baina konfesoreari hori esatera ez nintzen ausartzen».

«Baina behin, nik ezer esan gabe, konfesoreak igarotako gauzarik bat ere ez aitortzeko agindu zidan, oso gauza argia ez bazen, behintzat. Baina nik gauza guztiak oso argizat nituelako, agindu honekin ez nuen ezer aurreratzen, eta hala beti neke honekin geratzen nintzen».

«Garai honetan dominikar lekaideek euren monastegian eman zidaten gelatxo batean bizi nintzen, eta neure zazpi ordubetetan otoitz egiten jarraitzen nuen, baita gauerdian jaikitzen, esandako gogojardun guztietan jarraituz. Baina guzti haietan ez nuen nire

barrengo kezkontzat sendabiderik aurkitzen, oinaze hau hilabete askotan eramanez».

«Eta behin, nekearen nekez, otoitz egiten ari nintzela, otoitzaren berotasunean, Jainkoari ahoz deia-darka hasi nintzen: lagun iezadazu, Jauna!, ez bait dut gizonengan, ez beste sorkarietan, sendabiderik aurkitzen, bada, aurki nezakeela uste banu, ez litzaidake neke latzik izango hura egiteko. Erakus iezadazu, Jauna, non aurkituko dudan!, bada, txakurtxo baten atzetik joan behar banu ere, honek sendabideren bat emateko, joango naiz!».

«Pentsamentu hauetan nengoela, askotan tentaldiak etortzen zitzaizkidan, oso indartsuak, nire gelak zeukan zulo batetik behera neure burua botatzeko, bada, zulo hori otoitz egiten nuen ondoan zegoen».

«Baina, buru hiltzea bekatu zela jakinik, berriz ere deiadarka esaten nuen: Jauna, ez dut irainduko zaituen ezertxo ere egingo!. Hitz hauek behin eta berriz, lehengoak bezala, askotan esaten nituen».

«Eta orduan santu baten bizitza etorri zitzaidan burura, nola hau, Jainkoagandik asko nahi zuen gauza bat lortzeko, egun askotan ezer jan gabe egon zen, hura lortu arte. Eta gai honetaz luzaro pentsatu eta gero, nik ere hori bera egitea pentsatu nuen, neure artean esanez, ez nuela ezer jan eta edango ahalik eta Jainkoa laguntzera etorri arte, heriotzeko arriskuan aurkitzen ez banintz, behintzat; bada, azkenean aurkituz, orduan bai, ogia eskatu eta jan egingo nuen, azken ordu hartan ezer eskatzeko gauza izango banintz bezala».

«Gogo hau igande baten jaunartu ondoren etorri zitzaidan burura, eta aste osoa ezertxo ere ahora eramanez gabe iraun nuen, egiteko ohitura nuen gogojardunak utzi gabe; eta beti bezala eleiz otoitzetara joa-

ten nintzen, neure otoitza belauniko eginez, baita hortarako gauerdian jaikiz, eta abar».

«Baina, hurrengo igandea etorri zenean, aitortu beharra nuen eguna, konfessoreari egiten nuen guztia zehatz meatz esateko ohitura nuenez, aste hartan ez nuela ezer jan ere, esan nion. Konfessoreak barau hura hausteko agindu zidan, eta nik, nahiko indarrekin aurkitu arren, konfessorearen esana egin nuen, eta egun hartan eta bestean kezkarik gabe aurkitu nintzen; baina, hirugarren egunean, asteazkena zen, otoitzean ari nintzela, bekatuak gogoratzen hasi nintzen, eta orduan baita lehengo bekatuak ere, bata bestearen atzetik, haria egitean bezala, gogora ekartzen hasi nintzen, berriz ere haiek aitortzeko behar turik nengoela pentsatuz».

«Baina, gogoeta hauen azken aldean, egiten nuen bizitzagatik nazka etorri zitzaidan, dena bertan uzteko gogo biziz. Eta honekin, Jaunak hala nahi-eta, lotatik bezala esnatu nintzen».

«Eta Jainkoak emandako ikasbide batzuei esker, espiritu desberdinen esperientzia apur bat banuenez gero, espiritu hura zein bidetatik —txarretatik alegia— etorri zen begiratzen hasi nintzen, eta honekin, argitasun handiz, igarotako gauzarik bat ere ez aitortzeko erabakia hartu nuen. Eta honela, egun hartatik aurrera halako kezkarik gabe geratu nintzen. Eta ziurtzat neukan Jaunak bere erruki handian onez atera ninduela».

Iñigo bere barrena arakatzen sikologo zorrotza zenez, Jainkoak lagunduta, argi eta garbi ikusi zuen kezka larri haiek ez zirela espiritu onak edo Jainkoak ekarriak, espiritu gaizto edo etsaiarenak baizik, kez karen kez kaz nazkaturik, santutasun bide berritik

alde egin zezan. «Helburu gaiztoa duen gogoeta, etsaiarena». «Helburu ona duen gogoeta, Jainkoarena», ikasi zuen Iñigok.

Kezka latz hauek lau hilabetetan atsekabe garra- tzez bete zuten Iñigoren kontzientzia, baina abuztu aldean hasi zen Jainko ona Iñigoren barrena argita- sun eta pozez betetzen.

Inoren eta ezeren eragozpenik gabe lasaitasunean otoitz egiteko Iñigo sarritan Kardoner ibaiaren al- boan zegoen harpe batetara baztertzen zen. Harpe ho- nen ahoa elorritz eta sasiz estalita zegoen, eta harkai- tzak zeukan leihatila antzeko zulo batetik Montserra- teko haitz santuak ikus zitezkeen.

«Nire zazpi orduko otoitzez gainera, nire bila etor- tzen ziren arima batzuei espirituko gauzetan lagun- tzen ahalegintzen nintzen, eta aske nituen eguneko zatirik gehienak, egun hartan hausnartu eta iraku- rri nuenari buruz, Jainkoaren gauzetan pentsatzen ematen nuen».

«Baina, oherakoan, askotan ezagutza eta spiritu- ko pozaldi handiak zetozkidan, lotarako hartua neu- kan astia, asko ez bazen ere, zati handi baten ken- tzeraino. Eta batzutan gai honi begiraturik hainbes- te denbora hartuko nuela Jainkoarekin egoteko era- bakita neukala pentsatzen nuen, baita gero gainon- tzeko egun osoa... Eta hemendik ezagutza haiek es- piritu onetik zetozen ala ez zalantzan jartzen hasi nintzen, eta azkenean honetara etorri nintzen neure baitan: hobe izango zela ezagutza haiek baztertzea, eta loari erabakitako astia ematea... Eta hala egin nuen».

«Eta okelarik jan gabe bijiliak egiten irauten nuen, eta honetan tinko nengoan, inoiz ere aldatzeko as-

morik gabe. Baina, goiz baten, jaiki nintzenean, neu- re gorputzeko begiz ikusiko banu bezala, jateko okela aurrean jarri zitzaidan, aldeztatik hura jateko gogorik euki gabe, baita handik aurrera ere haragia jateko gogo handia etorri zitzaidan, eta neure lehen- go erabakia gogoan banuen ere, eta honetan ez nuen zalantzarik, hala ere okela jatera bultz eragiten zi- dan».

«Eta gero, nire konfessoreari esan nionean, honek hau esan zidan: agian hura tentaldia ote zen begira nezala. Baina nik ondo aztertuz, hura benetan ten- taldia zela ez nuen behin ere zalantzan jarri».

Hirugarren egoera: Goi argitasun eta pozaldi bikainezkoa

«Garai honetan Jainkoa nirekin eskolako maisua haur batekin bezala jokatzeko zen, eta hori, edo ni buru kamutsa eta adimen motelekoa nintzelako, edo nork irakatsi ez nuelako, edota Jainkoa zerbitzeko gogo bizia nuelako, argi eta garbi egitza neukan, eta beti egitza euki dut, Jainkoa nirekin honela joka- tzen zela. Eta hau zalantzan jarriko banu Jainko Handiari iraina egingo niokela, uste dut».

«Eta honelako zerbait ondorengo bost puntu hau- etan ikus daiteke».

«Lehen puntua»

«Jaiera handia nion Hirutasun txit Santuari, eta hala egunero egiten nion otoitz hiru personei bere- ziki»...

«Eta behin, monastegi hartako eskilara mailetan Andre Mariaren Orduak errezatzen ari nintzela, adi-

mena goraka hasi zitzaidan, Hirutasun txit Santua hiru teklen antzera ikusiko banu bezala, eta hau hainbeste malko eta hainbeste negar zotinekin, ezer-tarako gauza ez izateraino».

«Eta goiz hartan handik irteten zen prozesioan nindoala, ezin izan nien negar malkoei eutsi bazkal ordurarte. Eta bazkal ondoren ere Hirutasun txit Santuari buruz izan ezik, ezin nuen beste hitzik egin. Eta hau era askotako antz-iduri askorekin, baita poz eta atsegin handiekin. Eta honegatik neure bizitza osoan bihotzean josita geratu zait, Hirutasun txit Santuari otoitz egitean jaiera handia sentitzea».

Hirutasun txit Santuari buruz Iñigok 80 orrialdeko liburutxo bat idatzi zuela badakigu, baina esku-isribribu hori ez da, tamalez, gureganaino heldu. Ez zen izango, noski, teologia eskolastiko tratadu baten antzekorik, baina bai barrengo bizikizun eta bihotz eraginez beterik.

Geroago ere Iñigok meza ematerakoan Hirutasun txit Santuaren agertaldi eta pozak sarri izango ditu.

«Bigarren puntua»

«Behin espirituko poz handiz Jainkoak mundua nola egin zuen adimenean azaldu zitzaidan. Gauza zuri bat ikusten nuela iruditzen zitzaidan, handik errainu batzuk irteten zirela, eta harekin Jainkoak argi egiten zuela. Baina gauza hauek ez dakit nola aditzera eman, Jainkoak garai hartan ariman jar-tzen zizkidan espirituko argibide haietaz ez naiz ondo gogoratzen-eta».

«Hirugarren puntua»

«Manresan bertan, ia urte bete egon nintzen herrian, Jainkoagandik poztua izaten hasi nintzenetik, eta arimekin jardunez haietan egiten nuen fruitua ikusiz, lehengo gehiegikeriak utzi nituen, eta orain hatzazalak eta ilea moztu egiten nituen».

«Honela, bada, egun batean monastegi honetako eleizan Meza entzuten nengoela, Jaunaren Gorputza altxatzean, barrengo begiekin, goitik zetozen errainu zuri batzuen antzekoak ikusi nituen. Eta hau hainbeste denbora igarota, ezin ongi adierazi badut ere, nik adimenez argi ikusi nuena hau izan zen: nola Sakramentu txit Santu hartan Jesukristo gure Jauna zegoen».

«Laugarren puntua»

«Askotan eta luzaroan, otoitzean nengoela, barrengo begiekin Kristoren gizatasuna eta itxura ikusten nituen; eta gorputz zuri baten antza zuela iruditzen zitzaidan, ez oso handia, ezta oso txikia ere, baina soin atalak ez nituen bat banaka ikusten».

«Hau Manresan askotan ikusi nuen, hogeitau berrogei aldiz ikusi nuela esango banu, gezurra denik pentsatzera ez nintzateke ausartuko».

«Beste behin Jerusalem nengoela ikusi nuen, baita beste behin Padua ondoan ere bidez nindoala. Baita Andre Maria ere itxura berean ikusi nuen, baina soin-atalak bat banaka ikusi gabe».

«Ikusitako gauza hauek orduan fedean hain sendo jarri ninduten, eta beti ere gero sinismenean halako sendotasuna eman zidaten, sarritan neure baitan pentsatzeraino: fedeko gauza hauek irakasten dituen Liburu Santurik ez balego ere, ni haien alde hiltzeko

prest egongo nintzateke, ikusi dudanagatik bakarrrik».

Kardoner ibai ondoko ikuskaria

«Bostgarren puntua»

«Banindoan behin, neure gogoz, Manresatik «milla» bat baino piska bat harantzago (bi kilometro edo) zegoen eleiza batera, San Paulo deritzana uste dut, eta bidea Kardoner ibai ondotik zihoan; eta honela erreduetan nindoala, aurpegia pixka bat ibaira begira eseri nintzen, eta ibaia zakon zihoan. Eta han, eserita nengoela, adimenaren begiak zabaltzen hasi zitzaizkidan, eta ez ikuskariren bat ikusten nuelako, baizik gauza asko ulertuz eta ezagutuz, bai espiritu-ko gauzetan, baita fedeko eta jakintzakoetan. Eta hau hain argi handiz, gauza guztiak berriak zirela iruditzeraino. Eta nire adimena hain argitua gelditzen zen, beste gizon bat nintzela, uste nuen, lehen ez neukan beste adimen batekin».

«Eta orduan ulertu nituen gauzak asko ziren arren, ezin dira banaka adierazi, adimenean argi handia hartu nuela baizik; eta hain handia izan zen, neure bizitza guztian zehar, gaur arte, Jainkoagandik hartutako gauza guztiak bildu, eta ikasitako gauza guztiak batera jarrita ere, ez dut uste hainbeste lortu dudunik, aldi bakar hartan beste».

«Eta honek nahiko luzaro iraun ondoren, han ondoan zegoen gurutze batera belaunikatzera joan nintzen, Jainkoari eskerrak emateko. Eta han agertu zitzaidan, nik inoiz ondo ezagutu ez nuen ikuskari hura, alegia: gorago esandako gauza hura, oso ederra zela ematen zuena, begi askoduna».

«Baina, gurutzearen aurrean nengoela, gauza hark ez zeukala lehenago euki ohi zuen kolore politik ikusi nuen; eta orduan oso ondo ezagutu nuen, nahimenaren baietza sendoaz, gauza hura deabrua zela. Eta honela gero askotan eta luzaro agertzen zitzaidan, eta nik gutxietsiz eskuan nekarren makil-bordioaz uxatu egiten nuen».

Gaisorik

«Behin Manresan gaiso nengoela sukar bero oso handiz ia hiltzeraino heldu nintzen, eta arima berehala irtengo zitzaidala uste nuen. Eta orduan pentsamentu bat etortzen zitzaidan ni zintzoa nintzela esaten zidana, eta honek neke handia ematen zidan, eta nik aurka gogor egiten nion neure bekatuak aurrera ekarriz, eta pentsamentu honekin neke handiagoa nuen sukarrarekin baino; hala ere, ezin nuen pentsamentu hori menderatu, garaitzeko lan handia egiten nuen arren».

«Baina, sukarra pixka bat arinduta, azken arnasa emateko arriskutik alde egin nuenean, ni ikustera etorri ziren emakume batzuei deiadar handiz hasi nintzen esaten: Jainkoarren!, beste behin honelako zorian ikusten baninduten oihera handiz, pekatari! esanez deiadar niri egiteko, eta Jainkoari egin nizkion irainak gogora ekartzeko»...

«Negua etorri zenean, berriz ere, oso gaizki gaisotu nintzen eta udaletxeak Ferrer izeneko aitaren etxean jarri ninduen. Eta etxe hartan ardura handiz zaindua izan nintzen, eta andre handiki asko, ongina nindutelako, gauez ni zaintzera etortzen ziren. Baina ni gaitz honetatik sendatu banintzen ere, oso makal gelditu nintzen, eta sarri askotan urdaileko minez».

«Eta gauza hauengatik, baita negua oso hotza zelako, soineko erropak, oinetakoak, eta burukoa jaztera behartu ninduten, eta orduan, oihal lodizko bi erropa motz har arazi zizkidaten, eta oihal berdineko buruko bat, txapel erdiaren antzekoa».

«Eta garai honetan, baita egun asko lehenagotik ere, espirituko gauzataz mintzatzeko gogo handia nuen, eta honetarako gauza ziren pertsonak aurkitzeko gogo bizia nuen».

«Baina, Jerusalemara joateko eguna hurbiltzen hasi zen».

BARTZELONAN

«Eta honela, 1523. urtearen hasieran (otsailak 18) Bartzelonarantz abiatu nintzen, han itsasontzia hartzeko».

Veneziarako ontzia hartu arte Ines Paskualek Bartzelonan zuen etxean bizi izan zen Iñigo. Hogei egun inguru.

Egun baten, San Justoko eleiza aurreko harmailetan eserita, Iñigo umeei zeruko bidea erakusten ari zela, Isabel Roser andre ezkondua handik igaro zen, eta ikuskari honek halako bihotz ikara eman zion, eta Iñigo bere etxera bazkaltzera gonbidatu zuen. Eta jan ondoren senar-emazteekin jainkozko hizketan ari zela, Iñigok bere ongileei Palestinako Lur Santuetara joateko zuen gogoia adierazi zien. Geroztik Isabel Roser andrea izan zen Iñigoren ongilerik hoberena, bai Bartzelonan bertan, baita gero Parisen eta Venezian ere.

«Eta lagun batzuk nirekin joateko bere burua eskaini bazidaten ere, nik bakarrik joan nahi nuen, bada, nire ardura guztia hau zen: Jainkoa bakarrik nire babesleku izatea».

«Eta egun baten, italieraz eta latinez hitzegiten ez nekielako lagun bat hartzeko, arren eta arren, eskatzen zidatenei, honek asko lagunduko zidala esanez, eta honen beharra goratuz, nik esan nien: Kardona Dukearen seme edo anaia bera balitz ere, ez nintzatekeela harekin joango; bada, hiru birtute euki nahi nituela: maitasuna, sinesmena eta itxaropena; eta lagun bat eramango banu gose nintzenez haren laguntzan itxarongo nukeela, eta erortzen baintz hark zutitzen lagunduko lidakeela, eta honela nire konfiantza harengan jarriko nukeela, eta hari maite legea izango niukeela, eta honelako konfiantza, ongi lege eta itxaropena Jainkoagan bakarrik nik jarri nahi nukeela... Eta hau neure bihotzean sentitzen nuen bezala esaten nuen».

«Eta pentsamentu hauekin, lagunik eta janaririk gabe itsasoratu nahi nuen. Eta ontzia hartzeko tratuan hasi nintzenez, dirurik ez nuenez, ontziko nagusiarekin hutsean, dohan, ni eramatea lortu nuen, baina baldintza honekin: mantentzeko «bizkotxo» delako janaria ontzian sartu beharko nuela, eta bestela ez ninduela inolaz ere hartuko».

«Baina «bizkotxo» hori eskuratzen hasi nintzenez kezka handiak zetozkidan: hau al da, Iñigo, zuk Jainkoagan zenuen itxaropen eta sinesmena? Ez al zenuen, bada, ez zizula hutsegingo esaten? Eta abar»...

«Eta kezka hau hain gogorra zen, neke handia emateraino... Azkenean zer egin ez nekiela, alderdi biren aldeko arrazoiak ikusten bait nituen, nire burua konfesorearen eskuetan jartzea arabaki nuen».

«Eta honela, ontasun betearen bidetik ibiltzeko, eta Jainkoaren aintzarik handiena zena egiteko, zein gogo bizia nuen esan nion; baita mantentzeko janaria eramane behar nuen ala ez, zergatik zalantzan

nengoen, adierazi nion. Eta konfesoreak biderako behar nuena eskatu eta nirekin eramane nezala erabaki zuen».

«Eta horretarako limosna andre bati eskatu nioenez, honek nora joateko itsasoratu nahi nuen galdetu zidan. Ni, bai esan ala ez esan, zalantzan egon ondoren, azkenean honelako hau bakarrik esatera ausartu nintzen: Italiara eta Erromara nindoala. Eta orduan berak, izaturik bezala, esan zidan: Erromara joan nahi al duzu? Hara doazenak ez dakit, bada, nola itzultzen diren! Erroman espirituko gauzetan gutxi aurreratzen zela esan nahi zuen. Ni orduan harrokeriaren beldurrez Jerusalemara nindoala ez nintzen esatera ausartzen. Eta beldur honek hainbesteraino nahigabetzen ninduen, zein lurraldetako eta zein etxetako nintzen ere esatera ez nintzen ausartzen»...

Oraingo beste gertakari hau ez digu Iñigo berak kontatzen, baina honela izan zela lekuko-testigu batek esaten digu:

Emakume batek Iñigo limosna eske joan zitzaioenez honela eraso omen zion: «galdu baten antzera, hara-honaka, ibili gabe, hobe zenuke zeure etxera itzuliko bazina!» Eta Iñigok apal-apalik erantzun omen zion: «egia diozu, andrea, pekatari galdu bat besterik ez naiz»... Emakumeak orduan apaltasun hau ikusirik, esandakoaz damututa, bere etxera eramane zuen, eta biderako limosna oparoa eman omen zion.

«Azkenean «bizkotxoa» lortu ondoren itsasoratu nintzen, baina hondartzan nengoela atez-ate eskean ibilita hartutako bost edo sei txanpon nituela ohar-turik —esketik bizi bait nintzen— hondartza ondoko eserleku baten gainean utzi nituen».

«Eta Bartzelonan hoge egun baino piska bat gehitxoago egin ondoren, itsasoratu nintzen».

«Ontzian sartu baino lehen, Bartzelonan nengola ohitura nuenez, edozein pertsona espirituzaleren bila ibili nintzen, haiekin jarduteko, hiritik urruti ermitetan bizi izan arren. Baina Bartzelonan, eta Manresan ere, han egon nintzen denbora guztian, ezin izan nuen aurkitu nik nahi nuen bezala lagunduko zidan pertsonarik. Manresan, gorago esandako emakume hura, Jesukristo ager dakidala Jainkoari eskatzen ziola esan zidan emakume hura bakarrik aurkitu nuen. Espirituko gauzetan emakume hau bakarrik sakon sartzen zela, uste nuen. Eta honegatik, Bartzelona utzi ondoren, pertsona espirituzaleen bila ibiltzeko irrika bizi hura guztiz galdu nuen».

VENEZIARANTZ

1523. urteko martxoak 20 egun zituen Iñigo Italiarako itsasontzian sartu zenean.

«Eta txopa aldetik atzeko haizeak hain gogor jutzen zuen, Bartzelonatik Gaetara bost egun barru heldu ginen, baina guztiok beldurrez, itsasoan ekaitz gogorra zelako».

Ontzi hartan zihoan lekuko batek esaten digu: askotan ikusi zuela Iñigo ontziko txokorik bazter eta ezkutuenean luzaro otoitz egiten. Eta ontzian zihoan Jaun batek Iñigo hain pobre eta hain otoitzari emana ikusita, bidaiaria guztian jaten eman ziola.

«Eta Italiako lurralde hartan izurritearen beldur ziren, baina ni ontzitik irten bezain laster Erromarantz bide egiten hasi nintzen».

«Nirekin batera ontzian etorri zirenen artean, ama bat bere alaba mutilez jantzita zekarrena, eta beste mutil gazte bat, nirekin bidean elkartu ziren. Hauek ere nire antzera eskean zihoazen».

«Eta basetxe batera heldu ginenean, su handi bat aurkitu genuen, eta soldadu asko haren inguruan,

eta hauek jaten eman ziguten, eta ardo gehiegi edan arazi nahi ziguten, gu mozkortzeko asmoz edo... Gero banatu egin gintuzten, eta ama-alabak goiko gela batean jarri zituzten, eta ni mutilarekin ukuiluan. Baina gauerdia aldera han goian garrasi handiak entzun nituen, eta zer ote zitekeen ikustera jaiki nintzenean, ama-alabak etxeko behe aldean negar batean aurkitu nituen, bortxatu nahi zituztela-eta, aieneka».

«Niri, hori ikusiz, hain odol kolpe beroa etorri zitzaidan, deiadarka hasi nintzen, esanez: hau ere sufritu beharko ote dugu?, eta honen antzeko beste deiadarrak... Eta nik hain benetan eta indar handiz esaten nituen, etxeko guztiak izaturik geratzeraino... Eta ez zidan inork kalterik egin. Ordurako beste mutil gazteak ihes egin zuen, eta gu hirurok gauez Erromarako bidean jarri ginen».

«Eta han hurbilean zegoen hiri batera, Fondira, heldu ginenean, itxita aurkitu genuen izurritearen beldurrez, eta hara ezin sarturik, gaua hirurok hango eleizpe batean eman genuen, dena euritan».

«Hurrengo goizean ez ziguten hiriko aterik zabaldu nahi izan, eta hiritik landa ere ez genuen limosnarik aurkitzen, han hurrean zegoen gaztelu batera joanda ere. Egun hartan ni oso makal aurkitzen nintzen, bai itsasoko nekeengatik, baita beste gauza askogatik, eta abar... Eta aurrerago ezin ibiliz, han bertan geratu nintzen, eta ama-alabak Erroma aldera joan ziren».

«Egun hartan jende asko irten zen hiritik, eta nik lurralde hartako Andrea, Beatriz Appiani Kondesa, hara zetorrela jakin nuenean, bere aurrean jarri nintzen, izurriteagatik ez baina, makaltasun hutsez nengoela gaisorik, esanez, eta hirian sartzeko baimena

bakarrik eskatzen niola, indarberritzeko sendabidoren bat aurki nezan. Eta hark erraz utzi zidan».

«Eta hirian eskatzen hasita, «kuatrin» asko jaso nituen, eta bi egunetan indarberritu ondoren, neure bideari jarraitu nion, eta Erromara Erramu igandez heldu nintzen».

1523. urteko martxoak 29 egun zituen.

Erroman egin zituen Iñigok Aste Santu eta Pazko jaiak, 16 egun gutxi gora behera, limosnaz eskuratzen zuenaz biziz, eta hango eleizetan otoi eginez... Non lo egiten zuen ez dakigu.

Bien bitartean Jerusalemara joateko baimena eskatu zion Adriano VI. Aita Santuari. Norbaitek lagundu zion Iñigori eskabidea latinez idazten. Txartel hori Vatikanoko artxibategian oraintsu aurkitu dute, eta bertan Iñigok latinez «Enecus de Loyola» sinatzen du; euskaraz «Loiolako Eneko».

«Erroman nirekin hitzegiten zuten guztiak Jerusalemara joateko dirurik ez nuela jakinik, hara joateko gogoia, arrazoi askoren bidez, burutik kentzen hasi ziren, dirurik gabe ontzian lekurik aurkitzea ezina zela, ziurki esanez. Baina nik nire ariman segurtasun handia nuen; eta Jerusalemara joateko bidere bat aurkituko nuela, ezin nuen zalantzan jarri. Eta Aita Santuaren bedeinkapena harturik, Venezia aldera irten nintzen, Kristo piztutako Pazkotik zortzi egunera».

«Sei edo zazpi dukat neramatzan oraindik nirekin, Veneziaatik Jerusalemara joateko emanak, eta nik hartu nituenak. Eta hartu nituen, bestela hara ezin joango nintzela esanez, nire lagunek jartzen zizkidaten beldurrak zerbait menderatuta. Baina Erromatik

irten eta bi egun barru Jainkoagan nuen konfiantza ezagatik egin nuela hori ezagutzen hasi nintzen, eta hartu nituelako damu handia izan nuen, eta bertan uztea on izango zela pentsatzen nuen. Baina azkenean, agertzen ziren premietan eskuzabalez gastatzea erabaki nuen pobreetan batez ere. Eta hala egin nuen. Eta Veneziara heldu nintzenean, «kuatrin» batzuk besterik ez nituen aldean, eta gau hartan bertan behar izan nituen».

«Veneziako bide honetan izurriteagatik udaletxeek herrietara inor ez sartzeko udaltzainak jarrita zeuzkaten, eta nik eleizpetan egiten nuen lo... Eta behin lotatik esnatzean gizon bat aurkitzea gertatu zitzaidan, eta ni ikusi ninduenean, izurriaz kutsatutakoren bat nintzelakoan, izu-ikaraz ihes egin zuen; ni hain kolore galduaz ikusi ninduelako izango zela, uste dut».

«Honela bide eginez Chioggiara heldu nintzen, eta bidean elkartu zitzaizkidan lagun batzuegatik jakin nuen izurriteagatik osasun txartelik gabe ez zigutela Venezian sartzen utziko. Eta lagunek Paduara joatea erabaki zuten han osasun txartela hartzeko, eta orduan ni ere haiekin batera joan nintzen, baina haiek oso bizkor zihoazen, eta ni ezin nintzen hain arin ibili, eta ia gaez zelai zabal batean bakarrik utzi ninduten. Eta han nengoela Kristo agertu zitzaidan bestetan agertu ohi zitzaidan bezala, alegia: barrengo begiz Kristoren soina ikusi nuen, gorputz zuri baten antzera, haren soin atalak bereziki ikusi gabe. Eta ikuskari honek indar handia eman zidan, eta pozaldi honekin hurrengo goizean osasun txartela gezurtu gabe, nire lagunek egin zuten bezala, uste dut, Paduako atera heldu nintzen, eta udaltzainek ezer galdetu gabe sartzen utzi zidaten. Eta berdin

gertatu zitzaidan irteeran ere. Eta honegatik oso izuririk gelditu ziren Venezian sartu ahal izateko osasun txartela hartzetik zetozen nire lagunak. Baina nik ez nuen hura eskuratzeko ahaleginik egin».

«Eta Veneziara heldu ginenean udaltzainak ontzira etorri ziren, han ziren guztiak banan banan aztertzeko, eta niri bakarrik bakean utzi zidaten».

VENEZIAN


«Venezian esketik bizi nintzen, eta San Markos Enperantzian egiten nuen lo. Baina ez nuen behin ere Enperadorearen enbaxadariaren etxera joan nahi izan, eta behar nuena eskuratzeko ez nuen ardu-
ra berezirik jartzen, bada, segurantza handia nuen neure ariman Jainkoak Jerusalemara joateko bideren bat irekiko zidala; eta honetan hain sendo nengoen, ezin izan ninduten inongo arrazoi eta beldurrek zailantzan jarri».

«Halako egun baten Espainiako aberats batekin aurkitu nintzen, eta honek zer egiten nuen eta nora joan nahi nuen galdetu zidan, eta nire asmoa jakin zuenean bere etxera bazkaltzera eramanez ninduen, eta gero egun batzutan berekin euki ninduen Jerusalemarako joatea prestatu arte. Nik Manresatik ohi-tura hartua nuen, inorekin bazkaltzen nuenean mahaietan hitzik ez egiteko, eta zerbait galdetuz gero laborerantzuteko, baina han esaten zena entzun eta gauza batzuk buruan hartzen nituen, gero haietatik haria harturik, Jainkoari buruz mintzatzen nintzen. Eta hori bazkaria amaituta egiten nuen».

«Eta honegatik gizon hura bere etxeko guztiakin nitaz zaletu zen, eta euren etxean euki nahi ninduten, eta horretarako ahaleginak egin zituzten. Eta etxeko jaun beronek Veneziako Dux-engana eraman ninduen harekin hitzegiteko, hau da: haren aurrera sartzea, eta harekin hitzegitea lortu zidan. Dux-ek niri entzun ondoren, Txiprera zihoan gobernariaren ontzian niri toki emateko agindu zuen».

Garai hartan Veneziako Dux Andrea Gritti zen, politika eta armetan gizon ospetsua. Honek lortu zuen Turkoen Buruzagi Soliman Bikainagandik kristau erromesak urtean behin Jerusalemenera joan ahal izateko baimena.

Iñigo bere etxean hartu zuen gizon on eta aberatsaren izenik ez dakigu, baina euskalduna zela Polankok esaten digu.



JERUSALENERA

*“Nik nire baitan esaten nuen:
ontzi bat bakarra Jerusalemenera joaten bada ere,
Gure Jaunak ni han eramango nau”.*

«Urte hartan Jerusalemenera joateko erromes asko etorri zen, baina gehienak, turkiarrek kristauei Rodas irla kendu zietelako, euren lurraldeetara itzul arazi zituzten. Baina nik neure baitan esaten nuen: ontzi bat bakarra Jerusalemenera joaten bada ere, Gure Jaunak ni han eramango nau».

«Hamairu pertsona zihoazen aurretik irtendako erromes ontzian, eta zortzi edo bederatzi geratzen ginen Txipreko gobernariaren ontzirako».

Iñigo sartu zen ontziak «La Negrona» zuen izena. Ontzi handi eta ederra zen: 19 kanoi zituen, eta 32 tostarteko edo ontzi-mutil. Erromes bakoitzak 26 dukat ordaindu behar zituen joan-etorria egiteko, baina Iñigori, Veneziako Dux-eri esker, dena barkatu zioten.

Loiolatarra baino urte gutxi lehenago Jerusalemenera joan zen erromes batek esaten du: hiru zorro ondo bateak eramane behar dituela Jerusalemenera joan nahi duen kristau erromesak. Lehen zorroa diruz betea, bideko mila gastuei erantzun ahal izateko. Bigarrena, neurri gabeko pazientzi-zorroa, turkiarrek kristauei egiten zizkieten tratu txarrak onez eramateko. Hirugarrena, fedez betea, neke eta zailtasun guztiak Jainkoagatik gainditzeko... Iñigok bigarren eta hirugarren zorroak ondo beteak zituen, baina lehena erabat hutsik, baina Jainkoak nolabait beteko ziolakoan itxaropen osoa jarrita zihoan.

«Baina ontzia itsasoratzekean sukar gaitz handi bat etorri zitzaidan, eta egun batzutan gaizki egon ondoren, sukarrak alde egin zuen... Eta ontziak itsasora irten behar zuen egunean, hain zuzen, nik purga bat hartu nuen. Eta etxekoek osagileari, ea Jerusalemenera joateko itsasoratu nintekeen galdetu zioten, eta osagileak esan zuen, ontziratzekotan, baietz, ontziratu nintekeela, baina han hobiratua izateko».

«Baina ni ontziratu nintzen, eta egun hartan bertan ontzia irten zen. Eta nik ahotik hainbeste bota nuen, oso arinduta gelditu, eta guztiz sendatzen hasi nintzen».

«Ontzi honetan, denen aurrean, zenbait zikinkeria eta gordinkeria egiten ziren, eta nik gogor hartzen nituen. Ontzian zetozen espainikoek holakorik ez egiteko adierazten zidaten, ontzikoak ni irlaren batean

lagatzeko asmotan ari zirela-eta. Baina, Jainkoak hala nahi-eta, Txiprera laster heldu ginen».

«Han ontzi hura utzi ondoren, oinez handik hamar lekuatara —55 kilometro— zegoen Las Salinas izeneko beste portura joan ginen, eta han erromes ontzian sartu ginen. Eta hemen ere beste ontzian egin nuen bezala, ez nuen ni mantentzeko Jainkoagan neukan itxaropena besterik sartu».

«Garai honetan gure Jauna askotan agertzen zitzaidan, eta honek poz eta indar handia ematen zidan. Gauza borobil eta handi bat urrezkoaren antzekoa ikusten nuela iruditzen zitzaidan, eta hau Txipretik irten eta Jaffara heltzerakoan agertu zitzaidan».

LUR SANTUAN

(1523)

Iñigorekin batera erromes joan zen Peter Fussli suizarraren egunkariak dioenez, Jaffako portura abuztuaren 21ean heldu ziren, baina irailaren lehen egunearte —10 egun luze— erromes guztiek ontzian, lehorra jaitsi gabe, egon beharra izan zuten, Jerusalemgo turkiar agintariek erromesaldia nola eta zein zaintzailekin egingo zen erabaki arte... Azkenean 100 turkiar armadun etorri ziren 21 erromes zaintzeko!!! Baina gizon haiek zaintzaile baino diruzale handiago ziren, eta edozer aitzakiagatik erromesei dirua eskatzen zieten... Jaffan erromesek diruz alokeran astotxo batzuk hartu zituzten.

«Eta gure asto txikien gainean Jerusalemara gindoazela, ohitura den bezala, Jerusalemara heldu baino lehen bi «milla» —4 kilometro— lehenago, handiki zirudien espainiar batek —Diego Menesek— erromes guztiei debozio handiz esan zien: handik gutxira Hiri Santua Jerusalem ikus zitekeen lekura helduko ginenez, gauza ona izango zela bakoitzak bere kontzientzia prestatzea, eta horretarako isilik joa-

tea. Eta guztiei hau ondo iruditurik, bakoitza bere barrura biltzen hasi zen».

«Eta hiria ikusten zen lekura heldu baino piska bat lehentxoago, asto gainetatik jaitsi ginen, gurutzearekin guri itxaroten zeuden fraileak ikusi genituelako».

«Eta Jerusalem Hiria Ikusteaz nik poz handia hartu nuen, berezkoa ez zela ematen zuen poza. Eta besteek ziotenez guztiei berdin gertatu zitzairen. Eta debozio berdina sentitu nuen nik beti Toki Santuak ikustean».

Hiru aste eman zituzten erromesek Palestinako Lur Santuak ikusten, eta Sion mendian frantziskotar fraileek zuten komentuan jan eta lo egiten zuten. Iñigok bere autobiografian Lur Santuan zer egin zuen guri adierazteko ez digu xehetasun askorik ematen, baina hutsune hori Peter Fussliren egunkariari jarraituz erraz bete dezakegu.

Heldu eta hurrengo goizean, kandela piztuak eskuetan, Jesusek Eukaristia eraiki zuen Azken Afariko aretora joan ziren, eta arratsaldean Kalbario mendiko eleizara sartzeko bakoitzak zazpi dukat ordaindu behar izan zituen. Iñigoren ordezkari nork ordaindu ote zuen? Jesus hil zuten eleiza hartan gau osoa egun sentirarte otoitzean eta irakurgai santuetan eman zuten. Eta denek aitortu eta Meza entzun eta jaunartu zuten.

Hurrengo egunean arratsaldean «Gurutze bidea» bere hamalau egotaldiekin Jerusalem kaleetan zehar debozio handiz egin zuten. Iñigoren bihotz garra nork asma!

Beste egunetan Olibete mendia, Jetsemaniko baratzea, eta abar ikuskatu ondoren, asto gainetan, Jesus jaio zen herrira, Belenera, joan ziren, eta han bi

egun eginez, Jordan ibaira abiatu ziren. Jesus bataiatua izan zen ibai hartan erremosek gorputz osoko bustialdi bat hartu nahi izan zuten, baina turkiar zaintzaile armatuek, astirik ezaren aitzakiaz, eskuak eta burua bustitzeko beste aukerarik ez zien eman.

Hirugarren astea erromesentzat beltzagoa izango zen...

Jordan ibaitik, Jerikon zehar, Jerusalemenera itzuli zirenean, San Joan izeneko fraileen komentuan zeudela, Damaskoko 500 jenezaro (gizon basati armatuak) Jerusalemenera sartu ziren, hango kaleetan istilu gorriak sortuz eta ahal zuten guztia lapurtuz. Erromesek bizi ziren komentua ere lapurretan egiteko harrapatu nahi izan zuten, eta barruko fraile eta erromesek euren bizitza larri-larri salbatu zuten. Noizbaiten, zortzi egunen buruan, lapurreta nahiko egin ondoren, jenezaro haiek alde egin zuten, eta Jerusalemgo bizilagunek arnasa lasaiago hartzen hasi ziren. Istilu hauekin erromesek Nazaret, Kafarnaun eta Genesareteko itsasoa ikusteko aukera guztiak galdu zituzten... Baina Iñigo nahaspil hauen artean bere bidetik zebilen.

«Nire erabaki sendoa Jerusalemen betiko geratzea zen Toki Santuak beti ikustatzen. Eta debozio honez gainera arimek laguntzeko erabakia ere hartua nuen, eta honetarako Goardian Abarentzat laguntza eskatzeko gomendiozko gutunak nekartzan, eta nik eman nizkion, baita Lur Santu hartan gelditzeko nuen asmoa ere esan nion, baina ez bigarren zatia, alegia: arimek laguntzeko nuen borondatea; hau, bada, ez nion inori esaten, beste asmoa askotan denen aurrean zabaldu banuen ere».

«Goardianak erantzun zidan ez zuela ikusten nola ni han gera nintekeen, bada, etxea hain behar go-

rrian zegoen, bertako fraileak ere ezin mantenduz, eta honegatik fraile batzuk erromesekin Europako lurraldera bidaltzeko erabakia hartua zeukala.

«Nik erantzun nion, ez nuela etxe hartako beste ezer nahi, noizean behin aitortzera etortzen banintz nire aitortza entzutea baizik. Orduan Goardianak esan zidan honela bazen nik nahi nuena egin zitekeela, baina Belenen zegoen Probintziala —Fraî Angel de Ferrara— etorri arte itxaron nezala. Hau Ordina hartako pertsonarik gorenena zela uste dut».

«Uste honetaz baliaturik, Bartzelonako persona espirituzaleei eskutitzak idazten hasi nintzen, eta bat idatzita bestea idazten hasi nintzenean, beste erromesek Europara izuli behar zuten aurreko egunean, Probintzialaren eta Goardianaren izenean niri dei egitera etorri ziren, hura Belendik etorri zelako; eta Probintzialak hitz goxoz esan zidan Toki Santu haietan geratzeko nik neukan asmo onaren berri jakin zuela, eta gai honetaz ondo pentsatu zuela, eta beste erromesekin gertatua ikusirik, ni han geratzea ez zela egoki, uste zuela; bada, beste askok ere nire gogo hori berori euki zutela, eta holako bat preso hartua izan zela, eta bestea hila, eta fraileak gero presoak diruz askatzeko eginbeharrean geratzen zirela; eta horregatik ni hurrengo egunean erromesekin joateko presta nendila».

«Nik honi erantzun nion, nire erabakia oso sendo hartua neukala, eta ezergatik ere ez nukeela bete gabe utzi behar, uste nuela... Honela gogo onez adierazi nahi nion, bekatupean behartzen ez baninduten behintzat, ez nuela edonolako beldurrez neure erabakia bete gabe utziko».

«Probintzialak erantzun zidan: Erromako Aita Santuagandik aginpidea hartua zeukala berak uste

zuena handik bidaltzeko, eta nahi zuena uzteko, eta agindutakoa egin nahi ez zutenak eskomika ahal izateko, eta nire kasu honetan ez nuela nik han geratu behar, erabakitzen zuela».

«Eta Probintzialak eskomika ahal izateko zituen «buldak» erakutsi nahi zizkidanean, ez nituela ikusi beharrik esan nion, bada, nik Jaun Agurgarri haiei sinesten niela, eta zeukaten aginpideaz hori epaitzen zuten bezala, nik haien esana beteko nuela».

«Eta irten baino lehen berriz ere Oliamendi ikus-teko gogo bizia etorri zitzaidan. Oliamendin harri bat dago, eta handik igo zen gure Jauna zerura, eta orain haren oinetako oinatzak harrian josita ikusten dira... Eta hala, ezer esan gabe eta zaintzailerik ere hartu gabe, (gidari turkiarrik gabe dabiltzanek arrisku handia bait dute) besteengandik isilean alde egin nuen, eta Oliamendira bakarrik joan nintzen, eta hango eleizainek ez zidaten sartzen utzi nahi, eta idatz-zorroko laban bat eman nion. Eta nire otoitza debozio handiz egin ondoren, Betfagera joateko gogo etorri zitzaidan, eta han nengoela gogoratu zitzaidan ez nuela ondo begiratu Oliamendian zein aldetara begira zegoen eskuineko oina eta zein aldetara ezkerrekoa, eta berriz ere hara itzulirik eleizainei sartzen uzteko guraizeak eman nizkiela, uste dut».

«Monastegian ni honela gidaririk gabe irten nintzela jakin zenean, fraileek ni aurkitzeko ahaleginak egin zituzten, eta honela ni Olibete menditik behera nentorrela, monastegiko morroi siriari «gerrikodun» esaten zitzaieen halako batekin topo egin nuen, eta honek makila handi batekin, haserre bizi itxuran, ni jotzeko kinuak egiten zituen. Eta niregana heldurik besotik hartu ninduen, eta nik gogorrik egin gabe

utzi nion ni eramaten, baina gizontxo hark ez ninduen behin ere askatu».

«Kristau «gerrikodun» hark atxikita bidean nindoala, gure Jaunagandik pozaldi handi bat izan nuen, eta nire gainean beti Kristo ikusten nuela iruditzen zitzaidan. Eta pozaldi honek monastegira heldu arte ugaritasun handian iraun zidan».

«Hurrengo egunean Jerusalemetik irten ginen».

Hitz hauekin amaitzen du Iñigok bihotz-minez bere Lur Santuko ikustaldiaren edestia.

Hurrengo egunean —irailak 23— erromesak asto gainetan isilka eta gauez jenizaroen beldurrez, Jaffako portu aldera abiatu ziren, baina bidean Ramleh herriko Emir Gobernariak sei egunez gosez eta egarritzahituta euki zituen erromes bakoitzak dukat bat eta soineko bat ordaindu arte. Azken batean, nola hala, Jaffako portura heldu ziren, eta han zaintzaile turkiarrei azken agurra egin zieten, ez ordea aurretik dukat mordo bat ordaindu gabe.

Erromes ontzia urriaren 3an itsasoratu zen, baina oraindik ere erromesen nekeak ez ziren amaitu. Erromesak Lur Santuan otoitzean bihotz beroz hogeituz egunez ari ziren bitartean, ontziko marinelek egun alaiak igaro zituzten erromesen janari eta edariei esker... Gero itsaso zabalean zeudela erromesak konturatu ziren biderako janari eta edariak falta zirela... Eta gainera haizearen faltaz ontziak ez zuen aurrera handirik egiten. Itsas erdian egarritu ziren, eta ontziko Nagusiak egarria nolabait asetzeko ur ustela ardo garrazaz nahasia eman zien edateko. Askok osasuna galdu zuten, eta holandar erromes bat hil ere egin zen, eta itsasora bota zuten. Haizeak jotzeari eman zionean, nekea neke gain jasateko, ontziko nagusiak

mozkorturik itsas bidea galdu zuen, eta Txipre irlako Larkana edo Salinas portura heltzeko, lau edo bost egunen ordean, hamairu egun behar izan zituen. Eta gainera «La Negrona» itsasontzia hamar egun aurretik joana zela jakin zuen Iñigok. Han zeukan gure erromesak Italiara itzultzeko tokia ordainduta, eta orain nola Veneziara itzuli?

TXIPREN BERRIZ

(1523, Urriak 14-28)

«Txiprera heldu ginenean beste erromesek hango ontzi batzuetan banatu ziren. Portuan hiru edo lau ontzi zeuden Veneziarakoak. Bat turkiarrena, bestea ontzi txiki bat zen, eta hirugarrena, ontzi aberats eta ahaltsua, Veneziako gizon aberats batena zen».

«Ontzi honetako Patroiari erromes batzuk ni borrodatez eraman nazala eskatu zioten, baina hark nik dirurik ez nuela jakin zuenean, ez zuen nahi izan, nire alde goralpenak esanez askok eskatu bazioten ere, eta abar... Patroiak erantzun zien: ni halako santua banintz, Santiago bezala ur gainean ibiliz, itsasoan igaro nazala, edo honen antzeko zerbait. Eta eskabide hori egin zuten beraiek ontzi txikiko patroia-rengandik ni eramatea oso erraz lortu zuten».

«Goiz baten, haizea aldeko zutela-eta, hiru ontziak itsasoratu ziren... Baina arrastaldean ekaitza etorri zitzaigun gainera, eta ontziak bata bestearengandik banatu ziren, eta ontzi nagusia Txipreko irlaren baz-

terra jota galdu egin zen, jendea bakarrik atera zen onik. Turkiarren ontzia, ontziko guztiekin, ekaitz be-rean galdu zen. Gure ontzi txikiak, neke handiak eramán bazituen ere, azkenean Italiako Puglia lurraldean portu hartu zuen».

VENEZIAN BERRIZ

(1524)

«Negu gogorra zen, eta hotz handia eta elurra egi-ten zuen, eta nik ez neraman aldean beste jantzirik belaunetarainoko oihal lodizko zaragoilak —praka za-balak— besterik, zapatak galtzerdirik gabe zankutsik, eta oihal beltzeko juboi bat atzekaldetik tolestura askorekin irekia, eta ile gutxidun soineko labur bat».

«1524. urteko urtarrilaren erdi aldera heldu gi-nen itsasoz Veneziara, Txipretik irtenez geroztik, aza-roa, abendua eta urtarrilaren erdia itsasoan igaro ondoren. Eta Venezian Jerusalemara joan aurretik euren etxean hartu ninduten bi gizon haietako ba-tek aurkitu ninduen, eta 15 edo 16 «julio» eman ziz-kidan limosnaz, eta oihal zati bat. Eta nik hau egi-ten zuen hotzagatik, tolestura asko eginez, urdail gainean ipini nuen».

Eta orain zer egin?

«Jerusalenen egotea ez zela Jainkoaren nahia uler-tu nuenean, neure barruan pentsatzen jarri nintzen: eta orain zer egin?».

«Eta azkenean aldi baten behintzat eskola ikaste-
ra gehiago makurtzen nintzen, gero arimei lagundu
ahal izateko, eta honetarako Bartzelonara joatea era-
baki nuen. Eta honela Veneziatik Genovara joan nin-
tzen, gero handik itsasoz Bartzelonara joateko».

Veneziatik Genovara joateko, Beneto, Lonbardia,
Emilia eta Liguriako lurraldeak, Italiako iparralde
osoa, zeharkatu behar izan zuen Iñigok, 500 kilome-
tro inguru oinez eginez.

«Eta hurrengo egunean, eta arratsalderarte bide-
ari ekin nion, eta dorre batean zeuden bi soldaduk
ikusi ninduten, eta ni atxilotzera jaitsi ziren, eta ka-
pitainaren aurrera eramanik —frantziarra zen— ho-
nek beste gauza askoren artean nongoa nintzen gal-
detu zidan. Eta gipuzkoarra nintzela jakin zuenean,
esan zidan: ni ere hango ingurukoa naiz —Baiona
ondokoa zela uste dut—. Eta gero esan zuen: erama-
zue, eta eman afaltzen, eta ondo hartu».

Kapitain lapurtarrak eta Iñigo gipuzkoarrak eu-
ren artean euskaraz egingo zuten, noski... Euskal-
dunak urrutian lagun.

«Ferraratik Genovarako bide honetan beste gauza
xehe eta txiki asko gertatu ziren... Eta azkenez Ge-
novara heldu nintzen».

GENOVAN

(1524, Otsaila)

«Eta Genovan Errodrigo Portuondo zeritzan biz-
kaitar bat aurkitu nuen. Hau Errege Katolikuaren
jauregian zerbitzen ari nintzela ezagutu nuen. Honek
Bartzelonara zihoan ontzi baten sartu ninduen, eta
Andrea Doria kortsariak, aldi hartan Frantziaren alde
zegoenak, harrapatzeko arrisku handian egon ginen,
gure atzetik itsasoan ehiztari ibili bait zen».

Errodrigo Portuondo mundakarra, Karlos enpera-
dorearen gerra ontzien buruzagi zena, hain zuzen, al-
de hartan Genovako portuan aurkitzen zen. Geroago
Barbarroja-ren ontziek erasota Formentera irlako ure-
tan heroe bezala hilko zen.

Garai hartan lurralde eder haiek gerra gorrian
zeuden Milango Dukerriarengatik. Alde batetik Kar-
los V. Alemaniako Enperadore eta Espainiako Erre-
ge zena, eta bestetik Frantziako Frantzisko 1. Erre-
gea... Orduan ere, zoritxarrez, euskaldunak bi alde-
tan banaturik aurkitzen ziren: Iparraldekoak Fran-
tziaren alde, eta Hegoaldekoak Enperadorearen alde.
Gerrate hau hurrengo urtean amaituko zen Paviako

borrokaldian Frantziako Erregea gipuzkoar batek atxilotuko zuenean.

«Eta egun baten, Genovarako bidean, Ferrarako eliza nagusian neure debozioak betetzen ari nintze-la, eskale batek limosna eskatu zidan, eta nik «Mar-keto» bat, bost edo sei «kuatrin» balio zuen txanpo-na, eman nion. Eta gero haren atzetik beste bat eto-rrri zen, eta beste txanpon bat, piska bat handiagoa, eman nion. Eta hirugarrenari «julioak» baino diru txikiagorik ez nuelako, «julio» bat eman nion. Eta eskaleek nik limosna ematen nuela ikusirik, etorri besterik ez zuten egiten, eta honela nekarren guztia agortu zitzaidan. Azkenean eskale talde bat etorri zen limosna eskatzera, eta nik ez neukala bat ere ge-hiagorik, eta barkatzeko esan nien».

«Eta orduan Ferraratik Genova aldera irten nin-zen».

«Eta bidean Espainiako soldadu batzuk aurkitu nituen, eta gau hartan tratu ona eman zidaten, eta bide hura egiten nuelako ikaratu egin ziren, bada, ia armada biren erditik —frantziarren eta enperado-rearen— igaro behar izan nuen. Eta errepeidea utzi eta haiek erakusten zidaten beste bide bat segurua-goia hartzeko eskatzen zidaten, baina nik ez nien aholku hori onartu».

«Eta neure bidean zuzen aurrera nindoala, herri bat errea eta hondatua aurkitu nuen, eta gauerarte ez nuen jatekorik emango zidanik aurkitu. Baina eguzkia joan zenean, hesituta zegoen herri batera heldu nintzen, eta udaltzainek berehala atxilotu nin-duten, espia nintzelakoan, eta herriko ate ondoko e-txetxo batera sarturik, aztertzen hasi ziren, susmo txarra denean egiten denez. Eta galdera guztiei ez

nekiela ezer erantzun nien. Eta jantziak kendu ziz-kidaten, baita oinetakoak ere miatu zizkidaten, baita gorputz alde guztiak ere paper idatziren bat ote ne-raman ikusteko. Eta inondik ere ezer ezin jakinik, kapitainaren aurrera eraman ninduten, hark kanta araziko zidala-eta. Eta nik neure erropatxoaz esta-lita eramateko esan nien arren, ez zizkidaten eman nahi izan, eta halaxe eraman ninduten zaragoil edo praka zabalez, eta juboeiz soilik jantzita».

«Eta bide honetan nik Kristo lotuta eraman zute-neko agerkari bat izan nuen, besteetan bezalako ikus-karia izan ez bazen ere. Hiru kaleetan barrena era-man ninduten, eta ni inolako tristurarik gabe nin-doan, pozik eta alai baizik... Nik edozeini «zuka» hi-tzegiteko ohitura nuen, eta debozio hau Kristo eta apostoluek hala hitzegiten zutelako neukan, eta abar».

«Eta kale haietan barrena nindoala, burutik pa-satu zitzaidan, hobe litzatekeela estualdi hartan ohi-tura hori uztea, eta kapitainari «berorika» hitzegitea, eta hau zigorra emango zidaten beldur piska bate-gatik izan zen, eta abar... Baina tentaldia zela ohar-tu nintzenean, nirekiko esan nuen: bai?, horrela ba-da ez diot «berorika» hitzegingo, ezta agurrik egingo, ezta txapelik kenduko ere».

«Kapitainaren jauregira heldurik, beheko gela ba-ten uzten naute, eta handik piska batera kapitainak hitzegiten dit. Eta nik agurrik eta beste ezer egin ga-be, hitz gutxitan erantzuten diot, hitz batetik beste-ra tarte handi bat utziz. Eta kapitainak zorotzat har-tu ninduen, eta ekarri nindutenei hala esan zien: gi-zon honek ez du buruko mamirik, emaiozue berea eta bota kanpora!».

«Jauregitik irten eta bertan bizi zen espainiar bat aurkitu nuen, eta honek bere etxera eraman ninduen, eta jaten eman zidan, baita gau hartarako behar nuen guztia ere».

BARTZELONAN

(1524 - 1526)

«Bartzelonara heldu nintzenean»...

Ines Paskualek Iñigo bere etxean pozik hartu zuen. Algodoin langile baten etxe pobrea zen. Beheko aldean lantegia zuen, eta goiko solairuan lo-gelak, baita etxeke seme Joanek bigarren solairuko gela es-tu txiki batean egiten zuen lo. Han jarri zuten Iñigo etxeke mutikoarekin batera bizitzen.

Joan Paskual mutiko honek Iñigoren garai honetako bizitzari buruz gauza asko kontatzen digu:

«Gure etxean bizi izan zen bitartean Iñigok gure Jaunari buruz mila gauza eder kontatzen zidan, baita nola mundua eta munduko gauzak bazterturik zerruko egiazko gauzak maitatu behar genituen. Sakramentuak sarri hartzera joateko esaten zidan, Jainkoaren legea maitasunez eta beldurrez betetzeko, baita nire amaren esanak egiteko ere».

«Iñigok gaueko zati luze bat otoitzean ematen zuen, eta nik loarena eginik, entzuten nion esaten: Jauna, zein neurri gabe ona zaren, ni bezalako gaizto hau pazientziaz eramateko. Eta ni ohean lotatik

esnatuz bezala mugitzen nintzenean, berak otoitza utzi eta niregana etortzen zen, maitekiro esanez: seme, ez al duzu lorik egin behar? Lo egizu!».

Jadanik, irakurle, konturatuko ziren, bazuela Iñigok, Jainkoak emandako santutasunaz gainera, jaiotzatik sortutako berezko dohain edo karisma bat, pertsonak beregana erakarri eta berehala adiskide egiten zituena. Bere bizitzan zehar, ikusiko denez, edonon bizi eta edonolako girotan aurkitu, Loiolako semeak, pobre jantzita azaldu arren, bere inguruan handikiak eta jende xehea, eskoladunak eta ezjakinak biltzen zituen... Baita etsaiak ere.

Iñigo ez zen plaza gizona, ez hizlari bikaina, ezta jakintsu gorengoa ere, baina bai bere har-emanetan ondo hazia, elkarriketan gozoa, eta denetan aitorren-seme apal eta zintzoa agertzen zena.

«Bartzelonara heldu ondoren ikasteko neukan go-goia Isabel Roser-i azaldu nion, baita gramatika irakasten zuen Ardebol maisuari ere, eta bieci ondo iruditu zitzairen. Maisuak dohan, hutsean, irakasteko eskaintza egin zidan, eta andreak mantentzeko behar nuena emango zidala».

«Baina banuen nik Manresan fraile bat, San Bernardoren ordenakoa uste dut, gizon oso espiritu-zalea, eta besteen eskaintza onartu aurretik, honekin egon nahi izan nuen ikasteko, eta aldi berean espirituko gauzei errazago emateko, baita arimegi laguntzeko».

«Horregatik nik nire ongileei euren eskaintza onartzen nuela esan nien, Manresan uste nuen erraztasuna aurkitzen ez banuen. Baina Manresara joan, eta fraile hura hila zela aurkitu nuen. Eta horrela Bartzelonara itzulirik oso arduratsu ikasten hasi nintzen».

«Baina gauza batek eragozpen handia jartzen zidan, alegia: gramatikako hasieran beharrezko denez, buruz ikasten hasten nintzenean, espirituko gauzen ezagutza berriak eta gozotasun berriak etortzen zitzaizkidan, eta hain biziki, ezin ezer buruz ikasteraino, eta aurka gogor egin arren, ezin nituen jaurti».

«Eta gauza honetaz askotan pentsatuz, neure baitan nioen: otoitz egiten jartzen naizenean ez zait honelako ezagutza bizirik etortzen... Eta honela apurka apurka hura tentaldia zela egazutzera etorri nintzen. Eta otoitz egin ondoren, maisuaren etxe ondoan zegoen Itsasoko Andre Mariaren eleizara joan nintzen, eta eleiza hartan piska bat, mesedez, entzuteko eskatu nion. Eta honela eserita nire ariman zer gertatzen zen argi eta garbi erakutsi nion, eta zergatik orduarte hain aurrerapen gutxi egin nuen... Baina, nik maisuari hitzematen niola, esanez: nik agintzen dizut bi urte hauetan ez dudala inolaz ere eskolara hutsesingo Bartzelonan ni mantentzeko ogia eta ura aurkitu ahal dudan bitartean. Eta agintzari hau hain benetan egin nuelako, ez nuen gehiago halako tentaldirik izan».

Latin ikasten zuen bitartean Iñigok arimegi laguntza ematea ez zeukan ahaztuta. Hona hemen adibide bat:

Bazen Bartzelonan garai hartan nolabaiteko fama ez hain ona zuen lekaime-mojen komentu bat. Jakin beharra da Trentoko Kontzilio aurretik ez zela komentuetan gaurko klausurarik gordetzen.

Lekaime haiekin berriketa txoroetan denbora pasatzera hiriko handikien seme gazte batzuk joaten omen ziren... Iñigoren belarrietaraino herrian zabaldua zegoen zurru murru gaizto hau etorri zen, eta min hartu zuen.

Moja haien alde Jainkoari otoitz egin ondoren badao Iñigo lekaike kaskarin haiengana, eta Jainkoaren izenean, arren eta arren, eskatzen die gazte haiek komentutik aldentzeko. Lekaike haiek Loiolakoaren hitz bero sutsuak entzunik, txorakeriak utzi eta bide zuzenera etorri ziren... Handiki gazte haien amorrua!

Ilunabar batean bazihoan bere eginkizunetara Iñigo Bartzelonako kaleetan zehar, eta bapatean esklabo beltz bat bide erdira irteten zaio, eta Iñigori egundoko irain beltzak esan ondoren, zigor batekin ikaragarriko astinaldia ematen dio. Astin-astin eginda erdi hilik bide bazterrean korde gabe utzi zuen.

Geroago handik igaro ziren errotarri batzuk norbaiten jaiene! oihuak entzun zituzten... Eta Iñigo bide bazterrean luze odoletan aurkitu zuten. Asto gainera jaso, eta Teresaren etxera eramán zuten, eta hain gaizki zauritua ikusi zuten, elizakoak eman zizkioten... Bi hilabete egin zituen ohean sendatu arte, eta nork jo zuen jakiteko egin-ahalak egin arren, ezin izan zuten Iñigoren ahotik bere arerioaren izenik aterara. Bere oinazeen artean Jainkoari etsaien alde barkamena eskatzen omen zion.

Zer esanik ez Iñigo sendatuta oinez ibiltzeko gauza izan zenean, bere lehen irteera moja haiek ikustera joateko izan zela, haien bihotzak Jainkoaren bitetik ibil zitezen berotzeko.

«Manresan ematen zidan urdaileko minak —horegatik jazten nituen zapatak— alde egin zidan, eta Jerusalemara joan nintzenez geroztik urdaitetik ondo aurkitzen nintzen. Eta honegatik, Bartzelonan ikasten ari nintzela lehenagoko penitentzietara itzultzeko gogoia etorri zitzaidan, eta honela zapata zoruetan zuloa egiten hasi nintzen, eta astiro astiro handiagoa

egiten nuen, eta honela, neguko otzak etorri zirenean, nik ez nekarren zapata gaineko zatia besterik».

Iñigok aipatzen duen urdaileko minari buruz jakin beharra da, ez zela egitan urdaileko gaitza, gibeledo «zirrosis hepatica» edota «kalkulosis biliar» baizik. Baina gaitz honek, gibeledoak izanik, bere zantzu edo sintometan urdailera jotzen zion, eta hemen sentitzen zuen mina. Hil ondoren autopsia egin zion sendagileak hiru harri aurkitu zizkion gibelean. Sendagileek diotenez gibeledo gaitz mota honek beazun koliko biziak eta oso mingarriak ematen omen ditu.

«Bi urtetan ikasten ihardun ondoren —eta haietan esan zidatenez asko irabazi omen nuen— nire maisuak filosofia ikasteko gai nintzela esan zidan, eta horretarako Alkalara joateko. Baina nik hala ere teologia-ko doktore batek aztertua izatea nahi nuen, eta honek ere aholku bera eman zidan, eta orduan Alkalaldera bakarrik abiatu nintzen».

Asko kostako zitzaion Loiolatarrari Bartzelona lagatzea, han egin bait zituen bizitza guztian lagunduko zioten lagunik hoberenak. Iñigok esker onez Ines Paskual Andre ongileari «ama» deitzen zion, bihotz oneko emakume honek, benetako ama balitz bezala, bere etxean hartu eta zaindu zuelako.

Bihotz berritu zenez gero, Iñigoren ardurarik handienetako bat hau izan zen: Jauna zerbitzeko gogoia zuten bere antzeko beste lagun batzuk aurkitzea. Luis Gonsalves da Kamarak dio: uste dut, Bartzelonan ba zituela lagun batzuk, baina ez naiz ziur.

Zenbait historikaririk zalantzan jartzen badute ere, gehienak uste dute Bartzelona izan zela Iñigok lehen lagunak aurkitu zituen hiria. Hiru lagun hauek, gero-

txoago esango dugunez, Kalixto de Sa eta Lopez de Kazerres, biak segobiarrak, eta Joan de Arteaga sevillarra, izan ziren. Hauek Bartzelonatik Alkala eta Salamankaraino ere jarraitu zioten, baina laster huts egin zuten.

Bartzelonako eskolak amaitu ondoren, dio Iñigok: «Alkalara bakarrik abiatu nintzen».

ALKALA DE HENARESEN

(Martxoa 1526 - Ekaina 1527)

Bartzelonatik Alkala-raino, Tarragona, Tortosa, Teruel eta Guadalajaran zehar, bordoi makila eskuan eta liburu fardeltxoak bizkarrean, oinez eta errenka, hamar egun bai behar izango zituen Iñigo ibiltariak, 500 kilometrotako bide luze hori egiteko. Non egiten zuen lo? Eleizpetan? Lastategietan? Ez digu Loiolako semeak honelako berririk ematen. Hau soilik dio bere autobiografian:

«Alkalara heldu nintzenean esketik eta limosnaz bizitzen hasi nintzen».

Alkala de Henares-ko Unibertsitatea, Madriletik 20 kilometrotara, Zisneros Kardinalak 1508. urtean eraikia, garai hartan entzute handiko goi-eskola zen.

Alkalan sartzeraikoan hiriko atean Iñigok hartu zuen lehen limosna unibertsitate hartan filosofia ikasten ari zen euskaldun baten, Olabeko Martinen, eskutik izan zen. Gasteizko gazte hau geroago Karlos Enperadorearen kapelau izango zen, eta Trentoko Kontzilioan gora handiko jakintsua. Bere bizitzako

azken aldean Jesusen Lagundian sartuko zen, eta Erroman Iñigoren kontzeilari eta «Collegium Romanum» delakoaren lehen erretore zelarik, Iñigo hil zen urte berean, hilko zen.

«Gero honela limosnaz bizi nintzenetik hamar edo hamabi egunera, eleizgizon bat eta harekin zeuden beste batzuk, ni limosna eskatzen ikusiz, nire lepotik barre egiten hasi ziren, baita irain batzuk esaten ere, osasun oneko izanik esketik bizi direnei egiten zaien bezala. Eta garai hartan Antezana ospitale berriko arduraduna handik igaro zen, eta honekin mindurik, dei egin zidan, eta ospitalera eraman ninduen, eta han gela bat eta behar nuen guztia eman zidan».

«Errukiko Andre Mari» edo «Antezana» ospitale hau gizaldi bat lehenago arabar batek, Gasteiz ondolan dagoen Antezana herrikoak, eraikia izan zen, eta bere aldamenean ostatu bat zuen arabar ikasleentzat bereziki gordea. Han hartu zuten Iñigo bere amak Likona-tarren aldetik bere zainetan arabako odola zeramalakoa. Ospitale honetan bizitza eginez egunero Unibertsitatera joaten zen eskolak hartzera.

«Alkalan urte t'erdi ihardun nuen ikasten, eta Sotoren Logika, Albertoren fisika, eta Sententzien Maisua ikasi nituen».

Filosofia gaietan ulertzen duten eritziz, Iñigok gai gehiegi eta gaizki aukeratu zituen eskolan aurrera egiteko.

«Eta Alkalan nengoela gogo jardunak ematen iharduten nuen, eta kristau ikasbidea edo dotrina irakasten. Eta honela uzta ona biltzen nuen, Jain-

koaren aintzarako. Eta pertsona asko heldu zen espirituko gauzen berri eta gozotasuna hartzera. Beste batzuk, ostera, tentaldi desberdinak izaten zituzten, alegia: pertsona batek bere burua zigorkatu nahi eta ezin zuen, eskua lotzen baliokete bezala, eta honen antzeko beste gauza batzuk... Eta gauza hauek zurruru-murruak sortzen zituzten herrian, batez ere nik dotrina irakasten nuen edonon jendetza handia biltzen zelado».

«Alkalara heldu bezain laster Egia-ko Diego Jauna ezagutu nuen. Hau Migel, Alkalan inprimatzaile zen Migel bere anaiaren etxean bizi zen, eta honek bizi-tzeko behar zuena ugari zuen».

Egia anaiak Nafarroan Lizarra-Estella herrikoak ziren, Xabierko Frantziskoren ahaideak. Diego apaiza zen, eta Migelek Inprimategi famatua zuen. Bazuten Esteban hirugarren anaia bat ere. Diego 13 urte geroago Iñigoren Lagundian sartu, eta Erroman aldi batean Iñigoren konfessore izan zen. Estebanek ere, ezkondu eta alargundu zenean, Jesusen Lagundian anaia laguntzaile bezela bere izena eman zuen.

«Egia bi anaia hauek euren limosnakin pobreak mententzen laguntzen zidaten, eta nire hiru lagunak ere euren etxean hartu zituzten».

Alkalan behintzat ziur Iñigo hiru lagunez inguratuturik aurkitzen dugu: Kalisto de Sa, Lope de Kazeres, eta Joan de Arteaga Sevillan Estepakoa. Hauekin gerotxoago Joantxo deiten zioten Reynalde mutiko frantziarra bildu zen. Mutiltxo hau Nafarroako Errege ordekoaren paje zen, eta borrokaldi batean zauritua izanik. Iñigok eritetxean hain samurki zaindu zuen, loiolatarraren lagun mami egin zen.

«Behin, beharraldi batzuetarako limosna eske joan nintzaionean, Diegok ez zeukala dirurik esan zidan, baina gauza asko zeukan kutxa bat irekita, ohe es-talki koloredun eta argi-ontzi eta beste honelako gau-za batzuk eman zizkidan, eta ni gauza guzti hauek izara batean bilduta, bizkar gainean jarritz, behartsuei laguntzera joan nintzen».

Hurrengo gertakari hau, Iñigok berak ez, baina bere iloba Loiolako Potentzianak kontatzen digu.

«Nire osaba Iñigo Alkalako Univertsitatean ikas-ten ari zela, Goiazko Martin, azpeitiar gizon zintzo eta diruduna urtero Alkalako ferietara joaten zen, eta halako batean Iñigo beste ikasle askoren artean eskolatik irteten ikusi zuen, eta Loiolako semea zen ala ez hobeto jakin nahirik, atzetik jarritu zion, eta alargun baten etxera sartzen ikusi zuen, eta gerotxo-ago etxe hartatik irteten. Martinek gauza ziurrago ezagutu nahirik etxe hartako alargunari, ia oraintsu handik irten zen gizon hura nor zen, galdetu zion. Eta alargunak ez zekiela erantzun zion, baina egune-ro etortzen zela berari limosna ematera. Martinek esan zion berriro etortzen zenean, esateko, zerbait behar bazuen, erropa, dirua edo zaldiren bat, Goiaz-ko Martinek emango ziola».

«Hurrengo egunean Iñigo beti bezala etxe hartara joan zenean, alargunak Martinek esandakoa adie-razi zion. Iñigok esan zion, Jainkoak gizon horri bere borondate ona ordainduko ziola, baina aurrerantzean ez zela etxe hartara gehiago etorriko».

«Uste dut», dio Potentzianak, «geroago Martinek Iñigorekin hitzegin zuela, eta Loiolarako eskutitzak eskatu zizkiola. Arren eta arren erregutuz azkenean Iñigok eskutitz bat eman zion Martin bere anaiaren-

tzat, eta beste gauza askoren artean bertan esaten omen zion, zeruan berriz ere elkar ikusiko zutela».

Lehen auzibidea: Alunbratuak?

Iñigok eta bere lau lagunek, eskolak asti ematen zienean, igandetan batez ere, dotrina irakatsiz eta hi-tzaldien bidez, arimek laguntzen lan egiten zuten. Bai-na garai hartan Toledo eta Alkalan baziren beste tal-de txiki batzuk, «alunbratuak» zeritzanak, euren ez-kutuzko bilerak isilean egiten zituztenak. Honegatik ez da harrizkoa Iñigoren talde honek ere hango jendeen artean susmo txarrak sortzea.

«Gorago esan denez, zurru murru handiak zebil-tzan lurralde guzti hartan Alkalan gertatzen zirenei buruz, eta batek era batera eta besteak bestera hi-tzegiten zuen. Eta gauza Toledoko inkisitoreenganai-no heldu zen, eta haiek Alkalara etorrita, haiek bizi-tzen jarri ziren ostalariak adierazi zidan gure talde-ari «saialdunak» deitzen ziotela, baita «alunbratuak» ere, uste dut, eta gurekin sarraskia egin behar zute-la. Eta honela berehala ikerketa eta auzibidea egi-ten hasi ziren, baina azkenean, honetarako bakarrik etorri ziren arren, guri deirik egin gabe Toledora itzu-li ziren, eta auzibidea Toledoko artxapezpikuaren Bi-kario Figeroaren eskuetan utzi zuten».

Halako «alunbratuen» dotrina zer nolakoa zen ja-kitea ez da erraza, ez bait ziren eskola handikoak, ezta talde ondo antolatuak ere, eta gainera euren bi-lerak isil gordean egiten zituzten. Baina gutxi gora behera hau esan daiteke:

1. Ez da infernurik, eta badela esaten denean, beldurra sartzeko da.
2. Aitortza ez da Jainkoak jarritako sakramentua.
3. Jainkoari emana denak, bekaturik egin arren, ez du bere arima galduko.
4. Gure Jaunaren, Andre Mariaren eta Santuen iduriak ez dira agurtu behar, egur zati bat besterik ez direlako.
5. Eta abar eta abar...

Holako «alunbratu» horiek askotan euren bilertan otoitzean eta biblia irakurtzean, begiak zuringoturik, ikusgarritzko bihotz jasotze, harnas-estu, negar zotin eta intzirriak jalkitzen zituzten, eta honela Jainkoarekin zuzenean mistiko har-emanak izaten zituztela, aitortzen zuten.

Hauen arteko batzuk egiazko santutasunaren bide aldapatsua utzirik, euren barrengo nahikeriei lasa emanez, haragikeria gordinetara ere jo zuten, esanez: Jainkoarekin espirituz bat eginik bizi zena, ezin zitekeela haragizko pekatuaz zikindu.

Toledoko inkisitore haiek Migel Karrasko eta Alonso Mejia ziren, eta Alkalara etorri bezain laster, Frai Fernando Rubio frantziskotarrarengandik hasi ziren ikerketak egiten, galdetuz: ea zer zekien hiri hartan zebiltzan gazte batzuei buruz, oinetaraino soineko luze nabar argiekin jazten zirenak, baita haietako bat oinutsik ere (Iñigo), eta jendeak dioela: apostoluen antzera bizi zirela.

Frai Hernandok erantzun zien: behin Isabel erre-zatzailearen etxe ondora joan zela, eta, ate ondotik begiraturik, gizon gazte bat (Iñigo) ikusi zuela oinutsik zebilena, aulki batean eserita, eta haren inguruan

belaunkaturik bi edo hiru emakume eskuak bilduta, otoitz egiten denean bezala, eta gizon hark hitzegiten ziela.

Beatriz Ramirez bigarren lekuko-testiguak aitortu zuen: Iñigo izeneko gizon bat ezagutzen zuela, zaldu-na omen zela, eta behin Andres Dabila okinaren etxera joan zela, eta han gela batean Iñigo eta honen lagun bat ikusi zituela... Eta Iñigori entzuten hiru edo lau emakume zeudela, haietako bat hamalau urtekoa edo, baita Andres Davila bera ere han zegoela, eta beste gizon bat ere bai... Eta Iñigo dotrinako lehen bi mandamentuak irakasten ari zela, alegia: Jainkoa maitatzea eta abar... Luze hitzegin ziela, baina ez zuela uste gauza berririk irakasten zuenik.

Mariak, Antezana ospitaleko arduradunaren emazteak, aitortu zuen: jende asko ikusten zuela ospitalera joaten: emakumeak, neska gazteak, ikasleak, baita fraileak ere, eta bere senarrak akar-gogor egiten ziela esanez: zoazte kanpora! Ikasteko astia kentzen diozue-eta. Eta batzuetan hamar edo hamabi laguneraino ere egoten zirela Iñigori entzuten.

Iñigok zer irakasten zuen ere jakin dezakegu lekuko batzuen aitormenak entzunik. Menzia de Benaventek esaten du: Jainkoaren eta Elizaren mandamentuak irakasten zituela, baita zer zen bekatu astuna eta zer ez, eta gorputzeko bost zentzuak eta ari-mako ahalmenak, dena ebanjelio eta San Paulo eta beste santuengandik argituz. Baita irakasten zuela kontzientziaren azterketa egunero bi aldiz egiten, zertan hutsegin dugun ikusi ahal izateko, eta zortzi egunetik zortzira aitortu eta aldi berean Eukaristiako Sakramentua hartzeko.

«Handik egun gutxira Figeroak dei egin zigun, eta esan zigun nola inkisitoreek gure bizitzaren ikerketa eta auzibidea egin zuten, eta ez zela gure dotrina eta gure bizitzan bat ere okerrik aurkitzen, eta horregatik egiten genuena egiten jarrai genezakeela, bat ere eragozpenik gabe».

«Baina, erlijiosoak ez ginenez gero, ez zela ondo ikusia denek jazkera berdina ibiltzea, eta egoki izango zela, eta hala agintzen zigula, biok, —Arteaga eta ni izendaturik—, gure jantziak beltzez tindatea, eta beste biak, Kalixto eta Kazeres, hori-gorritz tindatzea, eta Joantxo, mutiko frantziarra, zegoen bezala geldi zitekeela».

«Nik esan nion, agindutakoa egingo genuela. Baina, ez dakit esan nion gero, zer onik ekartzen duten honelako ikerketa hauek, bada, halako bati lehengo egunean apaiz batek ez zion Sakramentua eman nahi izan astero jaunartzen zuelako, eta neuri ere eragozpenak jartzen zizkidaten. Guk jakin nahi dugu herexiaren bat guri aurkitu diguten, ala ez... Ez, erantzun zuen Figeroak, bada, aurkitu balizute erreko zintuzteketen. Baita zu ere erreko zintuzketen, esan nion nik, herexiarik aurkitu balizute».

«Gure jantziak tindatu genituen, agindu bezala, eta handik hamabost edo hogeai egunera Figeroak niri oinutsik ez ibiltzeko agindu zidan, eta oinatakak jazteko, eta nik bake-bakean egin nuen hori, agintzen zidaten honelako gauza garrantzi gutxiko beste gauzetan egiten nuen bezala».

Bigarren auzibidea

«Handik lau hilabetera Figeroak berak guri buruz ikerketa berriak egin zituen, eta lehengo arrazoiez

gainera, honetarako orain esango dudanak bideren bat emango ziola, uste dut, alegia: emakume handiki batek onginahi berezia zidan niri, eta ez ikusia izategatik, Alkalan ohitura denez, goizean goiz argi biren erdian, estalita etortzen zen ospitalera, eta sartzen zenean aurpegia agertzen zuen, eta nire gelara etortzen zen... Baina oraingoan ere ez zidaten ezer egin, eta epaiketa egin ondoren ere ez zidaten deitu, ezta ezer esan ere».

Hirugarren auzibidea

«Handik beste lau hilabetera, ni ospitaletik kanpo, etxetxo baten nengoela, badator egun batean udaltzain bat nire atera, eta dei eginik, esan zidan: zatorz piska bat nirekin. Eta gartzelan uzten nau, esanez: ez irten hemendik beste zerbait agindu arte».

Espetxerako bidean Iñigo kalean zaldun gazte dotore batekin gurutzatu zen. Zaldun hau, bere lagunekin zihoan, eta denak atxilotuaren begitarte errugabea eta itxura apala ikusiz, bihotz ukituak gelditu ziren. Zaldun gazte hori Borjako Frantzisko, Gandiako Dukea, Karlos Enperadorearen ministrari gorengoa zen. Geroago Iñigok sortuko zuen Lagundiaren Buruzagi izango zen. Haien arteko beste lagun bat Doktore Miona portugaldarra zen, Unibertsitateko irakaslea. Apaiz hau Alkalan bertan eta gero Parisen Iñigoren konfesorea izan zen, eta hau ere hogeai urte geroago Jesusen Lagundian sartuko zen.

«Hau udaberrian gertatu zen, eta ni gartzelan ez nengoen estu itxita, eta honegatik asko etortzen zi-

ren ni ikustera, eta aske nengoenean bezala dotrina irakatsi eta gogo jardunak ematen nituen».

«Ez nuen behin ere abokaturik ezta prokuratorerik hartu nahi izan horretarako asko eskaini baziren ere. Batez ere Teresa Kardenas dut gogoan; hau ikustera etorri zitzaidan, eta ni handik ateratzeko eskaintza asko egin zidan, baina nik ez nuen bat ere onartu, beti esanez: Jainkoaren maitasunagatik sartu naiz hemen, eta berak aterako nau, hala nahi badu».

«Hamazazpi egun egin nituen gartzelan galdetua izan gabe, baita zergatik sartu ninduten jakin gabe. Egun hauen azkenean Joan Rodrigez de Figeroa notari batekin etorri zen gartzelara, eta gauza askori buruz galderak egin zizkidan, baita larunbatak, juduak bezala, jai egiten nituen ere. Nik erantzun nion larunbatetan Andre Mariari debozioa niola, baina ez nituela jai egiten, eta nire lurraldean ez zegoela judurik».

Euskal Herriko lurralde historikoetan juduen egoera ez zen denetan berdina.

Nafarroan judu asko bizi zen, Iruñean eta Tuteran batez ere, eta hemengo erregeek, irabazi ekonomikoari begiraturaz, lagundu ere egiten zieten, baina herriak, gehienetan, irabazi gehiegiz lukurrariak zirelako, ez zituen ondo ikusten.

Arabako Gasteiz eta beste herrietan ere baziren juduak ez gutxi. Errege Katolikoek euren lurralde guztietatik juduak bota zituztenean, hemengo judu asko Baionara joan ziren bizitzen eta han kokatu ziren.

Bizkaian eta Gipuzkoan, ostera, oso judu gutxi zegoen. Bizkaian Balmaseda eta Urduñako mugetan, eta Gipuzkoan ere Segura eta Arrasate muga-herrietan,

eta salerosketatik bizi ziren. Gipuzkoako Ordenantzek beste herrietan juduei bizitzea debekatu egiten zieten.

Iñigori, nire lurraldean ez da judurik, esan zue-nean, bere jaioterriko odolak iruzur egin zion. Gero-ago bizitzan eta santutasunean aurrerago joan zenean, esaten zuen: berak judua izan nahi lukeela, Jesus eta Mariaren odol berekoa izateagatik.

«Baita Figeroak galdetu zidan, ea halako bi emakume, ama eta alaba, ezagutzen nituen. Eta nik honi baietz erantzun nion. Eta Figeroak berriz ere, ea haiek etxetik irten aurretik, nik haien irteeraren berri-rik banekien. Eta nik ezetz erantzun nion, hartua neukan zinarengatik. Orduan Bikarioak niri sorbal-dan eskuak jarrita, pozez esan zidan: horrexegatik etorri zara zu hona».

«Nire jarraitzaileen artean ama eta alaba bat zeuden, alargunak biak, eta alaba oso gaztea eta ikus-garria, eta biak espirituko gauzetan osoa aurrera zebiltzanak, alaba batez ere».

Iñigok dioen ama-alaba hauek, Maria del Vado eta honen alaba Luisa Velazkez ziren, alargunak biak eta etxe onekoak.

«Eta gertatu zen handikiak izanik Jaengo Veronikara joanak zirela, eta ez dakit eskale eta bakarrik joan ote ziren ere. Eta honek zeresan handia sortu zuen Alkalan. Eta Pedro Ziruelo Unibertsitateko Doktoreak, emakume hauek bere babesean bezala zeuzkanak, nik horretara bultz egin niela, uste zuen, eta horregatik ni atxilotzeko agindu zuen».

«Baina nik Bikarioak esandakoa aditu ondoren, esan nion: gai honetaz luzeago hitzgtea nahi al

duzu? Bai, esan zidan. Bada, jakin behar duzu, esan nion, bi emakume hauek askotan ekin zidatela eskatzen munduan zehar behartsuei ospitaletan laguntzera joan nahi zutela-eta. Et nik beti erabaki hone-tatik okertu egiten nituen, alaba hain gaztea eta ikusgarria delako, eta abar... Eta esan diet pobreei lagundu nahi badiete hori Alkalan ere egin dezake-tela, baita Sakramentu Santuari lagundu ere...».

«Eta hizketa hauek amaituta, Figeroa bere nota-riarekin joan zen, dena idatzita jaso ondoren».

Figeroa Bikarioa, geroago ikusiko dugunez, Erro-man Iñigoren aurka jarritako beste auzibide baten, loiolatarraren alde zintzo eta bero azaldu zen.

«Garai hartan Kalixto Segovian, bere lurraldean zegoen, eta ni atxiloturik nengoela jakin zuenean, berehala etorri zen, gaitz handi batetik sendatu be-rria bazen ere, eta nirekin gartzelan sartu zen, bai-na nik bikarioaren aurrera aurkeztera joatea hobe izango zela esan nion, eta bikarioak ondo hartu zuen, baina gartzelara joateko aginduko ziola esan zion, han egon beharra zeukalako emakume haiek etorri arte, ea haien esanaz guk esandakoa egiztatzen zen ikusteko».

«Kalixto egun batzutan gartzelan egon zen, baina nik haren gorputzaren osasunari kalte egiten ziola ikusiz, guztiz sendaturik ez zegoen-eta, nire lagun handi doktore baten bitartez handik ateratzea lortu nuen».

Beste jende askoren artean gartzelara Iñigo ikus-tera Naveros Unibertsitateko Doktorea ere joaten omen zen, eta behin presoarekin hizketan luzatuz eskola ematera berandu heldu zenean, honela bere

ikastaldia hasi omen zuen: «Vidi Paulum in vincu-lis», «Paulo katepean ikusi dut».

«Ni gartzelan sartutako egunetik atera ninduten egunera arte berrogeita bi egun igaro ziren, eta haiek igarota, emakume jainkozale haiek etorri zirenez ge-ro, notaria gartzelara etorri zen epaia irakurtzera: aske geundela, eta beste ikasleak bezala jazteko, eta fedeko gauzei buruz, ezjakinak ginelako, ez hitzik egiteko lau urte gehiago ikasi arte. Eta hau eskomi-kupean, eta erreinu hauetatik betiko desterrupean agintzen zigula».

«Izan ere, egia esateko, ni nintzen gehien nekiena eta nerea ere oinarri gutxikoa, eta hauxe zen nik, az-tertzen nindutenean, esaten nuen lehen gauza».

«Beste ikasleak bezala jantzi gaitzela agintzen zi-gula entzun nuenean, nik esan nion: jantziak tinda-tzeko agindu zenigunean guk egin genuen, baina orain agintzen diguzuna ezin dugu egin, ez bait dugu erosteko dirurik. Eta honela berak eskuratu zizkigun jantziak eta buruko boneteak, eta ikasleek erabiltzen dituzten beste gauza guztiak. Eta honela jantzita joan ginen Salamankara».

«Epai honekin zer egingo zalantzan egon nintzen, bada, ikasi ez nuelako, beste arrazoirik eman gabe, arimei on egiteko atea itxi egiten zidatela uste nuen».

«Nire lagunak Salamankara aurretik bidalita, nik azkenean Toledoko gotzainburu Fonsekarengana joa-tea erabaki nuen, eta auzia honen eskuetan jartzea. Alkalatik irten, eta gotzainburua Valladoliden aurki-tu nuen, hara joana bait zen Karlos Enperadorearen seme Felipe bataiatzera. Eta gertatzen zitzaidan guz-tia kontatu ondoren, esan nion: bere mendean ez ba-nengoen ere eta epaia betetzeko behartuta ez nen-

goen arren, hala ere berak agintzen zuena nik egingo nuela. Nik «zuka» hitzegin nion ez «berorika», honela egiten bait nien guztiei».

«Gotzainburuak oso ondo hartu ninduen, eta Salamankara aldatzea nahi nuela ulerturik, esan zidan: berak ere Salamankan bazituela lagunak, baita ikasle pobreentzat ikastetxe bat ere, eta dena eskaini zidan, eta irten eta berehala lau eskudo agindu zizkidan».

Salamankara bidean Iñigok, barne aztertzaile zorrotza zenez, Alkalan egin zuen urte t'erdiko jokabideari gain-begiratu argi bat eginik, haren alde onak eta txarrak ikusiko zituela, zalantzarik ez dago, alegia:


1. Bere asmoen kideko lau lagun aurkitu zituen.
2. Arimei dotrina irakasten eta gogo jardunak ematen on asko egin zitekeen, baina horretarako teologia gehiago ikasi bear zen. Beste aldetik ikasketak gizon osoa eskatzen zuten, eta nola uztartu arimei laguntzea eta teologia ikastea?
3. Soineko arraroak jazteak, oinutsik ibiltzeak, eta beste honelako gauza bitxiak arimei laguntzeko egoiak ala eragozpenak ote ziren?

Baina Iñigok, noski, ez zekiena beste hau zen: Diego Lainez, Alfonso Salmeron, eta Nikolas Bobadilla, Alkalan Iñigorekin batera ikasle zirenak, honen bizitza jainkozalea ikusirik, gerotxoago Parisen loiola-tarraren lagun egingo zirela, eta denok bat eginik, Jesusen Lagundia sortuko zutela.

Baita ere Jeronimo Nadal, maillorkara, Manuel Miona, portugaldarra eta Martin Olabe, euskalduna,

baita Alkalako inprimatzaile Migel Egiaren bi anaia Diego eta Esteban, nafar euskaldunak, geroago Jesusen Lagundian sartuko zirela.

Ez zen izan, bada, agorra Iñigoren Alkalako egoera.



SALAMANKAN

(1527)

*Ez da Salamankan nahiko katerik,
nik Jainkoaren maitasunagatik,
gehiago eraman nahi ez nukeenik.*

Alkalatik Salamankara 110 kilometro.

Udako eguzki beroak Kastillako lur lehorrak kiskaltzen zituen, Iñigok Salamankako bide hartu zue-
nean.

Salamanka ez zen famaz Paris eta Boloniako Uni-
bertsitateen parekoa, baina ikastetxe hura garai har-
tan Frantzisko de Vitoriaren jakinduri bikainari es-
ker goiko mailaraino igo zen. Euskaldunen seme os-
petsu hau dugu «Nazioarteko Eskubideen» sortzaile
gorengoa.

«Salamankara heldu nintzenean, eleiza batean oitutz egiten nengoela, Lagundiari onginahia zion emakume batek ezagutu ninduen, eta nire izena zein zen galdetu zidan, eta orduan nire lagunen ostatura eramanez ninduen, bada, egun batzuk lehenago han zeuden».

«Salamankan Domingo Santuaren fraile batekin aitortzen nintzen San Estebanen. Eta hara helduta hamar edo hamabi egun geroago, egun batean konfesoreak esan zidan: etxeko fraileek hitzegin nahi dizue. Eta nik esan nion: Jainkoaren izenean. Eta konfesoreak esan zidan: egoki izango da igandean bazkaltzera etortzea, baina gauza bat jakin behar duzu, zugandik gauza asko jakin nahi izango dutela».

«Eta honela igandean Kalixtorekin joan nintzen, eta bazkal ondoren Sopriorea, Priorea ez bait zegoen etxean, konfesorearekin eta beste fraile batekin, us-te dut, gurekin kapera batera joan ziren, eta Sopriorea goxo goxoro hasi zen esaten, zein berri onak ziztuzten gure bizitza eta ohiturei buruz, eta nola apostoluen antzera predikatzen ari ginen... Eta gauza hauek zehatzago jakiteaz poztuko liratekela... Eta orduan zer ikasi genuen galdetzen hasi zen. Eta nik erantzun nion, gure artean gehien ikasitakoa neu nintzela, eta argi eta garbi adierazi nion, nik ere zein gutxi ikasi nuen, eta zein oinarri gutxiz».

«Orduan, bada, zer predikatzen duzue?, galdetu zuen».

«Guk ez dugu predikatzen, esan nion, gu batzuekin familian bezala Jainkoaren gauzei buruz mintzatzen gara, bazkal ondoren egiten den bezala, dei egiten diguten pertsona batzuekin».

«Baina, dio fraileak, Jainkoaren zer gauzari buruz mintzatzen zarete? Hori da jakin nahi duguna».

«Gu mintzatzen gara, esan nion, orain birtute bat dela, eta orain beste bat, eta hau goratuz. Gero bizio bat dela, eta gero beste bat, eta hori gogor hartuz».

«Zuok ez zarete ikasiak, dio fraileak, eta birtute eta bizioei buruz mintzatzen zarete, eta gauza hauei buruz ezin da inor mintzatu, bi era hauetako batean baizik: edo ikasia delako, edo Espiritu Santuagandik. Ikasia delako ez, beraz, Espiritu Santuagandik».

«Orduan ni piska batean pentsatzen geratu nintzen, bada, arrazoibide hura ez zitzaidan ondo iruditzen. Eta piska bat isilik egon ondoren, ez zegoela gai hauei buruz gehiago mintzaterik, esan nuen».

«Baina fraileak berriz ere; orain mundua engainatzen ari diren Erasmoren eta beste askoren hainbeste okerkuntza daudelarik, esaten duzuna ez al duzu adierazi nahi?».

Erasmoren arazoa, hain zuzen, Kastillan egun haietan pil-pil zegoen. Valladoliden teologariak bilera bat egiten ari ziren Erasmoren 21 proposamen eztabaidatzeko. Gora behera askoren ondoren, ez zuten Erasmoren etsaiek honen proposamenik kondenatzerik lortu.

Nor zen Erasmo, hain eztabaidagarri zen gizon hori?

Rotterdam-go Erasmo (1467-1536) aho biko ezpata zorrotza zen, lagun eta etsai amorratuak zituena. Flamarmandar hau gizon jakintsua zen, teologari ona eta idazle zorrotza, baita filologo bikaina ere. Bere garai-ko goi-mailako eleiz-gizonen akatsak luma fin eta zorrotzez astindu zituen. Horregatik zenbaitentzat Luteroren bide-prestatzaille bezala zen, baina egia esan, Lutero eleiza katolikoaren aurka altxa zenean, Erasmo Luteroren aurka jarri zen. Espainian Karlos v.

Enperadorea, Toledoko Fonseka gotzainburua, eta Alkalako irakasleak Erasmoren alde zeuden. Fraile dominikarrak eta frantziskotarrak eta Salamankako irakaslerik gehienak, ostera, anti-erasmotiar amorratuak ziren. Aita Santuak Erasmo kardinal mailara jaso nahi izan zuen; Trentoko Kontzilioak, ordea, Erasmoren liburuak irakurtzea galerazi zuen.

Iñigo, Erasmoren idatziak irakurriz, gauza batez ohartu zen: zenbat eta gehiago irakurri, hainbat eta lehorrago sentitzen zuela bere arima.

Baina guk Iñigoren kontakizuna jarrai dezagun.

«Nik esan nuen: aita, nik ez dut esandakoa baino gehiago esango, horretara behartu nazaketen neure nagusien aurrean izan ezik».

«Honen aurretik zergatik zetorren Kalixto jazkera modu hartan, galdetu zuen: honek soineko motza zekarren, eta kapela handi bat buruan, eta bordoi-makila eskuan, eta ia zango erdirainoko oinetako-botinak, eta gorputzez handia zenez itxuragabeago ematen zuen».

«Nik Alkalan atxilotuak izan ginela kontatu nion, eta ikasle bezala jazteko agindu zigutela, eta nire lagun hark, bero handia egiten zuelako, bere soingainekoa eleiz-gizon behartsu bati eman ziola. Orduan fraile hark, hori ez zitzaiola atsegin erakusteko, aginartean bezala, esan zuen: maitasuna norberarengandik hasten da».

«Baina lehengo historiara itzulita, Soprioreak nigandik beste hitzik atera ezinik, dio: ondo da. Hemen gera zaitezte, aurkituko dugu zuei esan erazteko bidea. Eta orduan fraile guztiak arin samar aldegin zuten».

«Nik galdetu nien ea kapera hartan ala beste lekuren batean gu geratzea nahi zuten, eta Soprioreak erantzun zuen: kapera hartan geratzeko».

«Gero fraileek ate guztiak itxi arazi zituzten, eta, dirudienez, epaileekin gure arazoari buruz hitzegin zuten... Gu biok monastegian hiru egun egon ginen, justiziaren aldetik guri ezer esan gabe, eta fraileekin euren jantokian jaten genuen».

«Eta gure gela ia beti gu ikustera zetozen frailez beterik aurkitzen zen, eta ni beti ohitura nuen gauzei buruz mintzatzen nintzen, eta haien artean zati-ketaren antzeko zerbait zegoen, eta haietako asko bihotz ukiturik agertzen ziren».

«Eta hiru egun barru notari bat etorri zen, eta gartzelara eraman gintuzten, eta ez gintuzten behean beste gaizkileekin jarri, goiko gela batean baizik, eta han, zaharra eta inor bizigabea zelako, zikinkeria asko zegoen. Eta biok kate batean lotu gintuzten, bakoitza bere oinetik, eta katea etxerdiko zutabe bati lotuta zegoen, eta luzeeran 10 edo 12 arrabete izango zituen, (metro t'erdi). Eta batek zerbait egin nahi zuenean besteak lagundu behar izaten zion. Eta gau osoa begirik itxi gabe igaro genuen».

«Hurrengo egunean atxilotu gintuztela hirian zabaldu zenean, gartzelara non lo egin bidali ziguten, eta behar genuen guztia ugari. Eta jende asko etortzen zen gu ikustera, eta nik Jainkoari buruzko jardunetan mintzatzen jarraitzen nuen, eta abar».

«Frias batxilerra gu biok banan banan aztertzerat etorri zen, eta nik neure paper guztiak, alegia: Gogo-Jardunak eman nizkion aztertzeko. Eta ea lagunik genuen galdetu zigutenean baietz erantzun genuen, baita non zeuden ere, eta batxilerrak aginduta haiengana joan ziren, eta Kazeres eta Arteaga gar-

tzelara ekarri zituzten, eta Joantxo aske utzi zuten, eta gero hau frantziskotar fraile egin zen. Baina bi hauek ez zituzten gurekin biokin jarri, behean baizik beste presoak zeuden tokian... Hemen ere nik are gutxiago nahi izan nuen abokatu eta prokuratorerik hartu».

«Eta egun batzuk geroago lau epaileen aurrera deitua izan nintzen: hiru doktore, Santisidoro, Paravinhas eta Frias, eta laugarrena Frias batxilerra. Eta laurak ordurako Gogo Jardunak ikusiak zituzten. Eta hauek gauza asko galdetu zidaten, ez Gogo Jardunei buruz soilik, baita teologiako gaietarako ere, esaterako: Hirutasun eta Aldareko Sakramentuaz, ea sinesgai hauek nola ulertzen nituen. Eta nik lehenik hitzaurre bat egin nuen, eta gero, epaileek aginduta, hain zuzen hitzegin nuen, ez zidaten ezer zuzendu beharrik aurkitu».

«Eta Frias batxilerrak, gauza hauetan besteak baino estuago beti agertu zenak, kanon edo eleiz-lege kasu bat ere galdetu zidan. Eta galdera guztiei erantzutera behartua izan nintzen, baina beti aurretik hau esanez: nik ez nekiela gauza haiei buruz doktoreak zer dioten...».

«Honen aurretik, Gogo Jardunei buruz mintzatzen zirenean, hauen hasieran dagoen gai honi soilik gogor egiten zioten: pentsamentu bat noiz den bekatu arina, eta noiz astuna. Eta hemen zegoen koska: nik, letradun izan gabe, nola gauza honi buruz erabakitzen nuen. Eta nik erantzun nuen: hau egia den ala ez zuok erabaki, eta egia ez bada kondenatu... Eta azkenean ezer kondenatu gabe joan ziren».

«Gartzelara nirekin mintzatzera etortzen ziren beste askoren artean behin Frantzisko de Mendoza

Frias batxilerrarekin etorri zen. Orduan ikasle gaztea zen, eta orain Burgosko kardinale da. Lagun bezala galdetu zidanean ea nola gartzelan aurkitzen nintzen, eta ea atxilotuta egotea astun egiten zitzaidan, nik erantzun nion: nik erantzungo dizut ni lotuta ikusteagatik errukizko hitzak esaten zituen andre bati erantzun niona: honetan agertzen duzu ez duzula Jainkoaren maitasunagatik gartzelan egon nahi. Gartzela hain gauza txarra dela uste al duzu? Bada, nik esango dizut ez dagoela Salamankan hainbeste oin-burdin eta katerik, nik Jainkoaren maitasunagatik gehiago nahi ez nukeenik».

«Garai hartan gartzelako atxilotu guztiak ihes egin zutela gertatu zen, eta haiekin batera zeuden gure bi lagunek ez zuten ihes egin. Eta hurrengo goizean atea zabalik aurkitu zituztenean, eta haiek bakarrik barruan beste inor gabe, hau eritzi onerako izan zen denentzat, eta honek hirian hots handia egin zuen, eta honegatik gero han ondoan zegoen jauregi eder bat eman zieten gartzelatzat».

«Eta atxiloturik egon ginenetik hogeita bi egunera epaia entzutera dei egin ziguten, eta epaiak zioen: gure bizitzan, eta gure dotrinan ez zela okerrik bat ere aurkitzen, eta honela lehen egiten genuen bezala lan egin genezakeela dotrina irakasten eta Jainkoaren gauzari buruz mintzatzen, baina ez erabakitze-ko, hau bekatu astuna da eta hori arina, gehiago ikasi eta lau urte igaro arte».

«Epai hau irakurri ondoren epaileek maitasun handia erakutsi ziguten, guk onartzea nahi balute bezala. Eta nik esan nuen epaiak agintzen zuen dena egingo nuela, baina ez nuela onartuko, bada, ezertan kondenatu gabe ahoa ixten zidatela lagun hurkoari

ahal nuenez laguntzeko. Eta Frias doktoreak ahalegin guztiak egin zituen arren, nik ez nuen gehiago esan, Salamankako legeen mendean nengoen bitartean agindu zidatena egingo nuela baizik».

«Eta berehala gartzelatik atereak izan ginen, eta ni Jainkoari otoitz egiten hasi nintzen, eta zer egin behar nuen pentsatzen. Eta Salamankan egoteari eragozpen handia aurkitzen nion, bada, zer den bekatu astuna eta zer arina mugatzeko debeku horrekin arimek laguntzeko atea ixten zidatela, uste nuen».

«Eta Bartzelonan ikasiko nuen ala ez, eta zenbat ikasiko nuen aholkua eskatzen nuenean honetarako zen: ikasketak amaituta fraile sartuko ote nintzen, edo-ta honela munduan zehar ibiliko ote nintzen jakiteko».

«Eta fraile anaidi-ordena batean sartzeko pentsamentuak etortzen zitzaizkidanean, sartzekotan, fraile anaidi galdu eta gutxi berritua zen batean sartzeko gogoak etortzen zitzaidan, han neke gehiago eraman ahal izateko, baita Jainkoak haiei lagunduko ziela pentsatuz. Eta Jainkoak konfiantza handia ematen zidan egingo zizkidaten irain eta gaiztakeria guztiak ondo eramango nituela».

«Baina Salamankan gartzelan egon nintzen bitartean arimek laguntzeko beti neukan gogoak irauten zidala, eta honetarako aurretik ikasi egin behar nuela, baita nire asmo berdineko lagun batzuk bildu behar nituela, eta ordurarte bildutakoei eutsi egin behar niela, jakinik, fraile sartzeko gogoak aldatu zitzaidan, eta Parisera joatea erabaki nuen. Eta lagun guztiok bildurik honetan ados etorri ginen, nire beste lagunek nonbaiten itxarongo zutela, eta ni aurretik Parisera joango nintzela, ea han haiek ere ikasteko biderik aurki nezakeen nik begira ahal izateko».

«Pertsona handi askok, arren eta arren, ez joateko eskatzen zidaten, baina ezin izan zuten nigandik hori lortu. Eta gartzelatik irten nintzenetik hama-bost edo hogeit egunera, astotxo baten liburuak harturik, Bartzelonako bidean jarri nintzen, gero handik Parisera joateko».

BARTZELONAN HIRUGARREN ALDIZ

(1527)

Iñigo bere astotxoa sokatik zuela, Segovia, Siguentza, Kalatayud, Zaragoza eta Leridan zehar Bartzelonara heldu zen. Bidean Montserrateko haitz santu maiteak ikusiko zituen, noski...

Bartzelonan bere antzinako lagunak: Ines Paskual eta honen seme Joantxok, Maisu Ardebol, Isabel Roser eta beste lagun askok «ongi etorri» maitagarria egingo zioten...

Bartzelonan zenbat egun edo aste egin zituen ez dakigu, baina urte hartako Eguberriak, behintzat, han igaro zituen.

«Eta Bartzelonara heldu nintzenean ezagutzen ninduten guztiak Frantziara igarotzea hango gerrate handiengatik, burutik kendu nahi zidaten, gertakari oso bitxiak kontatuz, espainolak burduntzietan sartuta erre egiten zituztela esateraino. Baina nik behin ere ez nuen inolako bildurrik izan».

Inesen seme Joan Paskualek kontatzen digu:

«Iñigok gure amari eta niri eta Bartzelonako lagun zintzoei agur egitean, berak eta guk negar mal-ko ugari isuri genuen... Gure amak eta beste andreek biderako ahalik ondoen gauza guztiak prestatu zizkioten... Eta gero Parisen bizi zen bitartean urtero gure amak ehun dukat bidaltzen zizkion liburuetan edo nahi zuen beste edozer gauzetan gasta zezan».

PARISEN

(1528 - 1535)

«Eta honela, liburuak astoan harturik, bakarrik eta oinez Parisera abiatu nintzen, eta hiri hartara otsailaren bigarren egunean heldu nintzen».

Parisek garai hartan 300.000 bizilagun zituen (Erromak 40.000 besterik ez), eta hiri hartako Unibertsi-tatea Europako ospetsuena zen. Lurralde guztietatik etorritako gazteak han biltzen ziren, batzuk benetan ikasteko asmoz, baina baita beste batzuk mentura bila ere.

Paris Babel txiki bat zen. Hango ikastetxeetan Europako hizkuntza guztiak entzun zitezkeen, baina latina zen eskoletako hizkuntza ofiziala. Ikasleentza-ko ostatuak, eskolak, liburudendak, eleizak, komen-tuak eta abar, pilaka kale estuetan multzoka bildu-rik zeuden. Han mordoka bizi ziren 7.000 ikasleek bazuten jakinduria eskuratzeko aukera, baita sasi-ikasleek euren festa eta farrak egiteko aski bide erra-za ere.

«Ni espainiar batzuekin jarri nintzen etxe batean bizitzen, eta humanidadeak ikastera Montaigu ikas-

tetxera joaten nintzen. Eta nire ikasketak berriz lehenengotik ikasten hasteko arrazoia hau izan zen: ordurarte estudioetan hain arin ibil arazi zidatenez, oso oinarri gutxirekin aurkitzen nintzelako. Eta honetatik umeekin ikasten nuen, Pariseko orden eta arauari jarraituz».

Montaigu ikastetxeko eskola-ordutegia hau zen:

<i>Goizean:</i>	<i>Arratsaldean:</i>
4 - 6 eskola.	3 - 5 eskola.
6 meza.	5 bezperak = otoitza.
8 - 10 eskola.	5 - 6 disputatio
11 bazkaria.	6 afaria.
Disputatio.	7,30 atsedena.

«Bartzelonako diru-txartel bategatik, Parisera heldu ondoren, merkatari batek hogeita bost ezkutu eman zizkidan, eta hauek ostatu hartako espainiar bati eman nizkion gordetzeko, baina honek denbora gutxian dena gastatu zuen, eta ez zeukan gero niri nondik ordaindu».

«Horrela bada, garizuma igarotakoan ez neukan bat ere dirurik, zati bat neuk gastatu nuelako, beste zati bat gorago esandakoagatik. Eta horregatik bizi nintzen etxea utzi behar izan nuen, eta esketik bizi».

«Eta Saint Jacques ospitalean hartu ninduten, «Inozenteak» izeneko eleizatik harantzago. Eta ikasteko eragozpen handia nuen, bada, ospitalea Montaigu ikastetxetik urrutitxo zegoen —ordu erdi edo— eta atea irekita aurkitzeko «Avemariak» jo aurretik etorri behar zen, eta eguna argituta irten, eta honela goizeko lehen eskola eta arratsaldeko azkena galdu egiten nituen».

«Mantentzeko limosna eskatu beharra ere beste eragozpen bat zen»...

«Baziren bost urte urdaileko minak ez ninduela jotzen, eta orduan penitentzia eta barau handiagoak egitera joan nintzen.

Ospitaleko bizitza honetan eta eskean aldi bat igaro ondoren, ikasten gutxi aurreratzen nuela ikusirik, zer egingo nuen pentsatzen hasi nintzen, eta ikastetxeetan bazirela ikasle batzuk maisuak zerbitu ondoren estudiantzeko denbora ateratzen zutenak jakin nuenean, nik ere nagusi bat bilatzea erakabi nuen».

«Eta asmo eta erabaki honetan pentsatzen nuenean poza hartzen nuen, maisua Kristo izango zela irudituz, eta ikasle bati San Pedro ipiniko nion izen, eta beste bati San Joan, eta honela apostolu bakoitziari. Eta maisuak agintzen didanean Kristok agintzen didala pentsatuko dut, eta beste batek agintzen didanean Pedrok agintzen didala pentsatuko dut, esaten nuen».

«Asko ahalegindu nintzen nagusi bila; lehenengo Kastro batxilerrari hitzegin nion, gero maisu asko ezagutzen zituen kartujo bati, eta beste batzuei, eta behin ere ezin izan zidaten nagusirik aurkitu».

«Eta azkenean, irtenbiderik ezin aurkituz, Espainiako fraile batek egun baten esan zidan, hobe egingo nuela urtero Flandes aldera joatea, eta bi hilabete edo gutxiago galdu, gero urte osoan estudiantu ahal izateko behar nuena ekartzeko. Eta bide hau, Jainkoari otoitz egin ondoren, ona zela uste izan nuen, eta aholku honi jarraituz, Flandestik urtero nolabait bizitzeko zerbait ekartzen nuen. Eta behin Ingalaterrara ere igaro nintzen, eta beste urteetan baino limosna gehiago ekarri nuen».

Hamalagarren gizalditik hasita Bizkai eta Gipuzkoako itsas-gizonek sal-erosketa harreman estu eta aberatsak zituzten Flandesko Bruges eta Anberes, baita Inghaterrako London eta Bristol portuekin. Lurralde haietara itsasoz burdina eta artilea eramaten zituzten, gero honantz oihalak eta beruna ekartzeko. Horregatik Iñigok lurralde haietan euskaldun eta beste lagun askorekin topo egingo zuen, noski, baita hauek eskaleari esku zabalez lagundu ere.

Gero haraino joan beharrik ez zuen izan Iñigok, «diru-truke-letraz» Inghaterrako laguntza urtero izaten bait zuen. Honela Inghaterra eta Bartzelonatik etorritako laguntzari esker, Iñigok bere gastuei erantzun ondoren, bazuen aukera beste ikasle behartsuei laguntzeko ere.

Lehen irtenaldian Iñigo Brugesen zegoela Luis Vives humanista ospetsuarekin aurkitu omen zen, eta honek bazkaltzera gonbidatu omen zuen. Garizumako ostirala zen, bijili eguna, eta bazkaltzeko arrain bikaina ondo eta goxo maneatua mahaira atera omen zuten. Orduan Luis Vivesek eleiza katolikoaren ostiraleko haragi-uzte legearen aurka esan omen zuen: zer penitentzia modu izan daiteke haragiaren ordezhonelako arrain gozoa jatea?

Iñigo bazkal orduetan isilik egoten zen, baina eleiza katolikuaren aurkako jorraldi hau entzunik, erantzun zion: egia da, jauna, haragiaren ordezhonelako arrain gozoa jatea ez dela aberatsentzat penitentzia handirik, baina behartsuek, eta hauek dira gehienek, ez dute honelako aukerarik... Erantzun honekin Vivesek Iñigo santutzat hartu omen zuen, eta handik aurrera beti estima handian euki omen zuen.

«Flandestik lehen aldiz etorri nintzenean, aurretik ohitura nuen baino gartsuago espirituzko elkarriketakin hasi nintzen, eta Gogo Jardunak hiruri aldi berean ematen nizkien, alegia: Toledoko Peralari, Sorbonan zegoen Kastro bitxilerrari, eta Sainte Barben zegoen Elduaingo Amador zeritzan euskaldunari».

«Hauek aldaketa handiak egin zituzten, eta berehala zeukaten guztia pobreei eman, baita liburuak ere, eta Parisen limosna eskatzen hasi ziren, eta Saint Jacques ospitalean jarri ziren bizitzen, ni aurretik bizi izan nintzen lekuan, eta handik ordurako irtena nintzen gorago esandakoagatik. Aldaketa honek zalapart handia unibertsitatean egin zuen lehen-go biak izen handiko eta oso ezagunak zirelako. Eta berehala espainiarrak bi maisu hauen aurka erasoka hasi ziren, eta arrazoi asko eman arren, unibertsitate itzultzerik ezin izan zieten buruan sartu».

«Baina egun batean armadun talde handi bat joan, eta ospitaletik atera zituzten. Eta unibertsitatekarri ondoren, honetan ados etorri ziren: euren erabakiak, ikasketak burutu ondoren, aurrera eramango zituztela».

«Kastro batxilerra gero Espainiara etorri zen, eta aldi batean Burgosen predikatu zuen, eta gero Valentziako kartujan fraile jarri zen».

«Peralta Jerusalemenera oinez eta erromes abiatu zen, baina gisa honetan Italian bere ahaide zen kapitain batek hartu, eta Aita Santuarengana eramateko modua izan zuen, eta Espainiara itzultzeko agindu ziezaiotela iritsi zuen... Baina gauza hauek ez ziren berehala gertatu, urte batzuk geroago baizik».

«Parisen zurrurru handiak jaso ziren nire aurka, espainiarren artean batez ere, eta gure irakasle

Gouveiak, bere ikastetxean zegoen Amador nik burutik eraginda jarri nuela esanez, hau erabaki zuen: hurrengoan Sainte Barbera etortzen nintzenean «salle» izeneko zigorraldia emango zidala, ikasleak zorazten nembilelako».

Delako «Salle» zigorraldia, gaiztakeria handiren bat egiten zuenari zartalez edo azotez ematen zitzaion astinaldia zen. Ikastetxeko «Salle» edo aretoan, maisu eta ikasleen aurrean ematen zelako zuen izen hori.

Zigorraldi arazo hau nola amaitu zen, Iñigok ez, baina bere lagun Ribadeneirak kontatzen digu:

«Doktore Gouveiaren mehatxua Iñigoren belarrietara heldu zenean, hau beldurrik gabe zuzenean ikastetxera joan zen, eta hau sartu bezain laster hango ateak itxi zituzten. Kanpaia jo eta ikasleak aretoan bildu ziren irakasleek zartailu-zigorrek eskuetan ziztuztelarik. Gouveia Doktorea oraindik bere gelan zegoen, eta Iñigo artez hara joan zen... Han barruan zer gertatu zen ez dakigu... Baina Gouveia Doktorea, Iñigo eskutik hartuta, maisuak eta ikasleak bildurik zeuden tokira sartu zen, eta denen aurrean belaunikaturik Iñigori susmo txarrei belarri bigunegia jarri zielako, barkamena eskatu zion».

«Handik aurrera biak lagun mamiak izango ziren, eta Gouveia Portugalerra, bere aberrira, itzuli zenean, Iñigok sortutako Lagundiari asko lagunduko zion, Xabierreko Xabier misiolariari Asiako ateak zabalduz».

150 KILOMETRO OINEZ EZER JAN ETA EDAN GABE

«Hasieran nirekin egon zen eta diruak hondatu zizkidan espainiar hura niri ordaindu gabe Espainiara abiatu zen Rouango bidetik. Eta Rouango portuan ontzileku baten zain zegoela gaitz batek hartu zuen. Eta gaiso zegoela haren eskutitz baten bidez jakinik, hura ikustera eta laguntzera joateko gogoia etorri zitzaidan, baita mesede honekin mundua utzi, eta Jainkoaren zerbitzurako bere burua guztiz emateraino irabaz nezakeela pentsatuz».

«Eta hori lortu ahal izateko Paristik Rouanera diren 28 lekua —155 kilometro— oinez, oinutsik eta ezer jan eta edan gabe ibiltzeko gogoia etortzen zitzaidan, eta honi buruz otoitz egitean oso beldurri sentitzen nintzen. Azkenean Domingo Santuaren eleizara joan, eta han Jainkoa tentatzeko sentitzen nuen beldur handi hura igaro zenean, esan nuen moduan ibiltzea erabaki nuen».

«Hurrengo eguneko goizean irten behar nuenean halako beldur ikara etorri zitzaidan, ia ezin jantzi nintzela iruditeraino. Baina borroka hura euki arren egunak zabaldu baino lehen etxetik eta hiritik irten

nintzen. Hala ere beldurrak irauten zidan, eta Argenteuil herriraino jarraitu zidan. Herri hau Parisetik Rouanerako bidean hiru lekuatara dago (60 kilometro). Hemen gordetzen omen da Jaunaren soinekoa».

«Eta herri hura espirituko neke honekin igarota, gauza hura joaten hasi zitzaidan, eta hain alaitasun handiz aurkitu nintzen, landa haietan zehar deiadarka hasi nintzen, eta Jainkoarekin mintzatzen, eta abar... Eta gau hartan eskale pobre batekin ospitale batean aterpe egin nuen, egun hartan 14 lekua —60 kilometroko— bide egin ondoren. Hurrengo egunean lastategi batera estalpe egitera joan nintzen, eta hirugarrenean Rouanera heldu nintzen. Eta denbora guzti honetan ezer jan eta edan gabe iraun nuen, eta oinutsik, erabaki nuen bezala».

«Rouanen gaisoari poza eman nion eta Espainiara joateko ontzi batean sartzen lagundu nion, eta Salamankan zeuden nire lagunentzat eskutitzak eman nizkion: Kalixto, Kazeres eta Arteagarentzat».

«Eta lagun hauetaz gehiago ez mintzatzeko, hauen azkena hau izan zen. Nik, Parisen nengoela, aurretik hitzeman genuenez, sarri idazten nien, Parisera ikastera etortzeko zein erraztasun gutxi zegoen adieraziz».

«Hala ere, Leonor Maskarenhas Andreari, Portugaleko Erregeren eskutitzen bidez, idaztea asmatu nuen Kalixtori laguntzeko, Portugaleko erregeak Parisen eman ohi zituen bekaren bat euki ahal zezan. Leonor Andreak Kalixtori eskutitzak eman zizkion, baita mando bat ere, eta dirua gastuetarako. Kalixto Portugaleko erregeren gortera joan zen, baina azkenean ez zen Parisera etorri, baizik eta Espainiara itzulita, enperadorearen Indietara (Ameriketara) joan zen, halako emakume espiritual batekin. Eta

gero Espainiara itzulirik, berriro ere lehengo Indietara joan zen. Eta orduan Espainiara aberastuta itzuli zen, eta lehen Salamankan ezagutu zuten guztiak harriturik utzi zituen».

«Kazeres Segobiara itzuli zen, bere aberrira, eta han bizitzen hasi zen, lehengo erabakia ahaztu egin zuela emateraino».

«Arteaga komendadore —gotzain ordeko— egin zuten. Gero Jesusen Lagundia Erroman eraikita zegoela Indietako gotzain izatea eman zioten. Orduan niri lagundiko bat emateko idatzi zidan, eta nik ezeztarekin erantzun nionean enperadorearen Indietara joan zen, gotzain eginda, eta han ezbehar bitxi baten bidez hil zen, alegia: gaixo zegoela, eta freskatzeko bi ur-ontzi zeudela, bata osagileak agintzen zuen uraz, eta bestea soliman ur pozoinduz, bigarrena oker eman zioten, eta honek hil zuen».

«Ni Rouandik Parisera itzuli nintzenean, Kastro eta Peraltarekin gertatu zenagatik zurrur murrur handiak niri buruz sortu zirela eta inkisitoreak dei egin zidala, aurkitu nuen. Baina nik ez nuen luzaroago itxaron nahi izan, eta inkisitorearengana joan nintzen, nire bila zebiltzala entzun nuela esanez, eta nahi zuen guztirako prest nengoela. Inkisitore honek «Gure Maisu Ori» zuen izena eta domingotar frailea zen. Nik gauza laster garbi zezala eskatu nion, urte hartako San Remigiotan filosofia ikasurtean sartzeko gogoia nuelako, eta gauza hau aurretik burutzea nahi nuela ikasketei gero hobeto begiratu ahal izateko. Baina inkisitoreak ez zidan berriz deitu, eta hau bakarrik esan zidan: egia zela nire gauzei buruz hitzegin ziotela, eta abar».

Iñigo 1529. urteko irailaren azken egunetan, Saint Jacques ospitalea utzi, eta Sainte Barbe ikastetxera bizitzera aldatu zen. Ikastetxe honek hiru solairu zituen, eta gorengo gela zabal batean Pedro Fabre eta Frantzisko Xabierrekoa bizi ziren. Ikasle bakoitzak bere maisua izan behar zuela, Parisko Unibertsitateko lege estua zen. Maisu honek bere menpeko ikasleak zainduz, eurekin bizi behar zuen. Iñigoren maisua Joan de la Peña Siguentzako zen, filosofia eta medikuntzan Doktore mailakoa.

Iñigok bere izena Sainte Barbe ikastetxean ematerakoan latinez «Ignatius» idatzi zuen, «Iñigo» izena unibertsitateko latin hizkuntza ofizialean ezagutua ez zelako. Bestalde «Enecus» erdi-arako izen zaharra ez zen ondo ikusia errenazimentuko giro dotore hartan.

Horregatik, batzuk hala uste dute, «Iñigo» eta «Ignatius» (belarrientzako «Iñazius») bi izen hauek elkarrekin duten soinu-antzagatik egin zuela loiolatarak aldaketa hori.

Beste zenbaitek, ostera, Iñigok Antiokiako Ignatius martiriari zion debozioagatik egin zuela, uste dute. Dena dela, garai hartan honelako aldakuntzak sarri egiten ziren, eta Loiolak berak ere ez zion inoiz ere aldaketa honi inolako garrantzirik eman.

«Handik gutxira San Remigio eguna etorri zen, urriak bat, eta filosofia ikasurtea entzutera sartu nintzen Sainte Barbe ikastetxean, Maisu Joan Peñaren ardurapean, eta sartu ere erabaki honekin sartu nintzen: Jauna zerbitzeko erabakita zeudenak gordezkeo, baina beste batzuen bila ez ibiltzeko, honela egokiago ikasi ahal izateko».

«Eta ikastaroko ikasgaia hasi nintzenean entzuten, Bartzelonan gramatika ikasteen zetozkidan ten-

taldi berdinak hasi zitzaizkidan etortzen. Eta eskola entzuten nuen bakoitzean ezin nintzen adi egon, burura etortzen zitzaizkidan hainbeste espirituko gauzekin. Eta honela eskolan gutxi aurreratzen nuela ikusirik, nire maisuarengana joan, eta ez niola ikasurte guztian inoiz ere hutsegingo agindu nion, ogia eta ura mantendu ahal izateko aurki nezakeen bitartean. Eta agintzari hau eginez, orduz kanpo etortzen zitzaizkidan debozio guzti haiek utzi ninduten, eta nire ikasketak bake bakean aurrera eraman nituen».

«Ikasurte garai hartan ez ninduten lehen bezala pertsekitzen, eta gauza honi buruz behin Frago doktoreak esan zidan; harritu egiten zela bera, ni inork eraso gabe, hain bakean nenbilerako. Eta nik esan nion: arrazoi honegatik da, nik Jainko gauzetaz inorri hitzegiten ez diodalako, baina ikasurtea amaitutakoan lehengora etorriko gara».

«Eta honela Frago doktorea eta biok hizketan ari ginela fraile bat etorri zen Frago doktoreari beste etxe bat aurki ziezaiola eskatzera, orain bizi zen etxean izurriteaz asko hil zirela-eta. Garai hartan, bada, Parisen izurritea hasi zen».

«Frago eta biok etxe hura ikustera joan nahi izan genuen, eta izurriteaz asko zekien emakume bat gurekin eraman genuen. Eta honek etxean sarturik, baietz, izurria zela, baieztatu zuen».

«Nik ere etxe hartan sartu nahi izan nuen, eta gaiso bat aurkiturik, zauria ukituz kontsolatu nuen. Eta piska bat kontsolatu eta bizkortu ondoren, etxe hartatik bakarrik irten nintzen, eta nire eskua min ematen hasi zitzaidan, izurria nuelakoan. Eta irudipen hau hain bizia zen, ezin kentzeraino, eta azkenean etsi-etsian eskua ahoan sartu nuen, hau esaten nuen bitartean: izurria eskuan baduk, ahoan ere izan-

go duk. Eta hau eginik irudipen hark eta eskuko minak alde egin zuten».

«Baina Sainte Barbe ikastetxera —orduan bizi nintzen eta ikasten nuen tokira— itzuli nintzenean, ikastetxekoek izurritz kutsatutako etxean egon nintzelako, ez zidaten sartzen utzi nahi. Eta honegatik zenbait egunetan kanpoan bizi behar izan nuen».

Ikasketak

«Parisen, filosofia ikasten dutenek, hirugarren urtean «batxiler» gradua hartzeko «harria hartzeko» —hala esaten diote— ohitura dute. Eta honetan eskudo bat gasta behar delako ikasle oso pobre batzuk ezin dute hartu. Nik, hartu ala ez hartu, zer egokiago litzateken ezin erabakiz, arazo hau neure maisuaren eskuetan uztea pentsatu nuen. Eta honek hartzeko aholkua emanik, «batxiler» gradua hartu nuen. Hala ere hori egin nuelako, ez zen masiatzailerik, espainiar bat behintzat, falta izan».

Iñigok Parisen egindako ikasketak honela zatitzen dira:

- 1528-1529, ikastaroa, gramatika eta humanitateak.
- 1529tik-1532arte, hiru ikasurte, filosofia.
- 1532-1533, filosofian maisu gradua hartu.
- 1533-1535 apirilerrate, urte t'erdi, teologia.

Eta osasun txarragotik bere jaioterrira etorri beharra izan zuen.

1533. urtean Iñigorik Bartzelonako Ines Paskual andre ongileari idazten zion: «Zure limosna oso egoki etorri zait, bada, urte honetako garizuman «Maisu» gradua hartu dut, eta honetarako nik ahal nuen baino gastu handiagoak egin behar izan ditut».

IÑIGOREN EUSKAL ZUZTERRAK

«Orain ekarriko ditugun hiru gertakari hauek Iñigoren nortasuna eta izakera nolakoa zen adierazteko oso egokiak direnen ustez hemen jartzen ditut.

Iñigo Parisen aurrezkua dantzatzen

Oraingo gertakari hau Ribadeneira, Iñigoren lagunak, bere paper zaharren artean gordeta zeukan, eta Loiolakoaren bizitza idatzi zuenean ez zuen liburuan sartu, santu bat dantzan ikustea eredu egokia ez zelako edo... Baina, guretzat, euskaldunontzat, babilio handikoa da, Loiolako semeak bere euskal zuzterrak inoiz ere galdu ez zituela erakusteko. Iñigo Parisen euskaraz abesten eta dantzatzen!

Gertakari hau Ribadeneira historialariari bere lagun batek kontatua da. Honela dio:

«Ni Parisen behin oso gaizki eta triste nengoela gure Aita (Iñigo) ikustera etorri zitzaidan, eta maitasun handiz tristura hura nola niri ken ziezadakeen galdetu zidan.

Nire gaitzak ez zuela sendabiderik, erantzun nion. Baina berak berriz ere: nola eta zerk poz eman-go zidan begiratzeko, erregutu zidan.

Nik, pentsatu ondoren, gaisorik nengoenez, zentzu gabeko zerbait esan nion, alegia: gauza batek baka-rrik nire barrengo tristura ken zezakeela, Bizkaian (Euskal Herrian) egiten zen bezala kantatu eta dan-tzatuko balu.

Eta berak: horrek poz emango lizuke?

Eta nik: bai, horixe, eta handia eman ere.

Eta nik esandakoa burugabekeria handia zela ja-kin arren, nik eskatutakoa egin zuen... Baina amai-tutakoan esan zidan: begira, gero, ez holakorik ge-hiago behin ere eskatu, ez bait dizut egingo.

Eta nik halako poza hartu nuen, handik egun gu-txi barru sendaturik aurkitu nintzen».

Trukoka jolasean

Bazen Parisen Iñigok Jainkoarentzat irabazi nahi zuen Doktore teologari bat. Baina ahaleginak eginik ere ezin zuen lortu.

Iñigo behin, zere lagun batekin, Doktorearen etxe-ra joan zen, eta jaun hura «trukoka» jolasean aurki-tu zuen. («Truko» jolasean norbere bolatxo batekin besteara zulo batera sartu behar izaten da).

Teologariak Iñigori jokaldi bat egiteko eskatu zion, baina Iñigok behin ere ez zuela holako bolatxorik es-kuetan hartu, erantzun zion. Baina Doktoreak ekin eta ekin hainbeste aldiz eskatu zion, azkenean Loiola hartara makurtu zen, baina baldintza batekin: nik irabazten badut, esan zion, zuk hilabetean nik esan-

dakoa egin beharko duzu. Eta zuk irabazten baduzu nik ere beste hainbestean zuk esandakoa egingo dut.

Hasi baziren hasi, Iñigok bolatxo haiek inoiz es-kuetan hartu ezean ere, jokaldi guztiak bat ere gal-du gabe, irabazi zituen.

Doktore ospetsu hark hilabeteko gogo jardunak egin zituen, eta santutasun bidean jarri omen zen. Txantxetan hasi eta benetan amaitu.

Bekatariak bihotz berritzen

Oraingo beste gertakari hau Ribadeneirak eta Gon-salves da Kamarak, biak, kontatzen digute, eta Loio-lako zaurituak bere dorre-etxean irakurri zuen «Flors Sanctorum» edo erdi-aro giroko «Santuen bizitzak» zenbaterainoko eragina izan zuten Iñigoren ariman erakusten digu.

«Bazen Parisen emakume baten maitasun maku-rrez guztiz itsuturik zegoen gizon bat. Gure Aita (Iñi-gok) inolaz ere ezin bide zuzenera ekarriz, egun ba-tean hiritik kanpora itxaron zion, eta gizon hark be-re bekaturako etxera putzu-zulo edo zingira baten ondotik igaro behar zuela jakinik, Iñigo ur otzetan sorbaldaraino sartu zen, eta bestea handik igarotzen ikusi zuenean, deiadarka hasi zitzaion: zoaz, zorigaiz-toko hori, zure bide gaizto horretatik! Ez al duzu Jain-koaren haserrea ikusten? Ni hemen egongo naiz Jain-koak zuretzat prestaturik daukan zigorra baketu arte!

Gizon hark halako maitasun egiatzkoa ikusirik atze-ra egin omen zuen, eta galbidera zeraman bidea be-tiko utzi omen zuen.

LEHEN LAGUNAK

Iñigok autobiografian Parisen bere lehen lagunak nola aurkitu zituen adierazteko —orduan gauza jakina zelako— hitz gutxi erabiltzen du.

«Garai honetan Maisu Pedro Fabre eta Maisu Frantzisko Xabierrekoarekin bizi nintzen, eta hauek geroago Gogo Jardunen bidez Jainkoaren zerbitzurako irabazi nituen».

Sei lagun aurkitu zituen Iñigok Parisen Jainkoaren aintzarik handienerako bizi osoan zehar lan egiteko prest zeudenak. Seirok guk hobeto ezagut ditzagun hauen biografia labur bat egitea egoki litzatekeela deritzat.

Pierre Fabre

Pedro Fabre Frantzia eta Suiza arteko mugan Sa-
boia Garaiko Villaret herri txikian jaioa zen. Txiki-
tan Alpes Mendietako artzain izan zen. Bere osaba
kartujoak lehen ikasketak egiten lagundu zion, eta

19 urtekin jakintza osotzera Parisera joan zen. Fabre Alpes mendietako elur ukitu gabea zen, bihotz garbiko gazte atsegina, eta buruz azkarra. Haren begirazun lauso gabe, eta haren ezpainetako irribarra atseginak, berehala lagunak egiten zituen. Gazte lotsorra zen, eta barrendik oso kezkatia. Bere bizitzari norabiderik ezin aurkiturik zebilen; eta bestalde zer ziren bere barrenean somatzen zituen makurrerako grina gaizto haiek?

Fabre Sainte Barben filosofia amaitzear zegoen Iñigok han bertan filosofia hasterakoan. Fabrek Iñigori filosofia erreparatzeko laguntza eskaini zion, eta honek geroago hilabeteko Gogo Jardunak egiten lagundu zion. Baita benetan egin ere: negurik gogorrean, Sena ibaia izoztua zegoen bitartean, Fabrek ez zuen bere aparteko gelan surik biztu; lur gainean lo egiten zuen, eta otoitzaldiak elur gainean egiten zituen. Gainera sei egun ezer jan eta edan gabe igaro zituen. Iñigok penitentzia eta laztasun guzti hauek kendu zizkion eta jateko eta berotzeko agindu.

Fabrek santutasuna maitagarri egin zuen: izadiko eguzki, itsaso, mendi eta loreetan Jainkoaren aurpegi alaia ikusten zuen. Ezin zuen inor gorroto, denak maite zituen.

Gogo Jardunak amaitu eta laster Meza Berria eman zuen, 1534. urtean, uztailak 22, Madalena egunean.

Frantzisko Xabierrekoa

Frantzisko euskalduna, Nafarroako muga Aragoi aldetik zaintzen zegoen Xabierreko gazteluan, 1506. urtean, jaio zen.

Bere aita, Joan Jassukoa, Nafarroako «Errege Kontseiluko» lehendakari izan zen... Baina Fernando «Katolikuak», 1521. urtean, Nafarroako erreinua armen indarrez Kastillako erreinuari lotu zionean, Frantziskoren aitak, Nafarroako legezko erregeari, Joan d'Albret-i, leial izateagatik, herbestera joan beharra izan zuen, eta han bakartadean hil zen.

Bederatzi urte geroago, 1521. urtean, nafar leialak frantziarrek lagunduta Iruñeako gazteluaz jabetu zirenean (Iñigo zauritua izan zen hartan) Frantziskoren anaia zaharragoak, Migel eta Joan, Nafarroako erregearen alde borrokara joan ziren. Frantziskok bere 15 urtekin etxean gelditu behar izan zuen...

Azkenez, Nafarroako erreinua betiko galdu zenean, Migel Amaiurko gaztelua defendatzera joan zen, eta hau ere galdu zenean, espetxetik ihes egin, eta bi anaiek Hondarribiko gaztelua defendatzen, azken borroka egin zuten.

Frantziskok, bere sendia sakabanaturik, gaztelua lur jota, eta bere ama Maria Azpilkueta triste eta bakarrik ikusi zuenean, bere 18 urtekin, Parisera ikasketak egitera joatea pentsatu zuen. Armakin ezin bazen, Jakinduriaren bidez behintzat bere etxearen oho-rea jaso nahi zuen.

Parisen Sainte Barbe ikastetxean, eta hain zuzen Fabrerekin gela berean bizitzeko zoriona izan zuen. Ikastetxe eta gela berbertara joan zen Iñigo ere gerotxoago bizitzera.

Jainkoarentzat irabazteko lan handia eman zion Iñigori Xabierko gazte harroxkoak... Ez al zuen, bada, Iñigok, beste gipuzkoarrekin batera, nafartar leialen aurka Iruñeako gaztelua defendatzen borrokatu? Gudu hori galdu zelako Frantziskoren sendia guztiz hondatuta zegoen... Bestalde, Iñigoren bizimodu be-

hartsua nola onartu zezakeen Nafarroako erregeen odola bere zainetan zeraman Xabierko aitoren semeak?

Ez dut moldatzeko bustin gogorragorik aurkitu, esan zuen behin Iñigok, Xabierkoa baino. Baina Loiola dorre-etxeokoa, Xabierko gazteluaren balio handia ikusirik, haren setioa inguru guztian hasi zuen...

Frantzisko Maisuak Beauves ikastetxean «irakasle katedra» iritsi zuenean, Iñigok ikasle talde polit bat bultzatu zuen Xabierko Maisuaren eskola jakintsuak entzutera joan zitezten. Maisu berriarentzat gauza atseginagorik ezin asmatu!

Geroago Xabier diru kontuan estu zebilela jakin zuenean, Iñigok honetan ere zerbait lagundu zion... Biak lagun egin zirenean gipuzkoarrak nafarrari behin eta berriz errepikatzen zion: Xabier, eta gizonari zer, mundu guztia irabazita ere, betikoa galtzen badu? Gogarte hau sakon sakoneraino hausnartzuz, Xabierko gaztelu jaikia errenditu zen, eta berehala Jainkoa hango giltzen jabe egin zen.

Xabier Maisuak, bere eskola irakasketak ezin ete-nik, Montmartreko zinitzen ondoren, bakartade osoan egin zituen berrogei eguneko Gogo Jardunak. Eta nola egin ere! Lau egun ezer jan eta edan gabe iraun zuen, eta Senako zelaian hain saltokari bikaina izan zelako, bere beso eta izterrak lokarriekin hain estu-estu lotu zituen, gero hauek haragian sartuz, ezin askatzeraino. Beso bat moztu beharko ote zioten beldur ziren medikuek... Baina azkenean, mirariz bezala, lokarriak berez apurtu, eta Xabier sendatu zen.

Diego Lainez eta Alfonso Salmeron

Diego Lainez Soriako Almazan herrian jaioa zen, eta Alfonso Salmeron Toledoko hirian. Biak lagun mamiak ziren, eta gorago esan denez, Alkalan ikasten ari zirela Iñigoren fama entzun zuten, eta Parisera ikasketak amaitzera joan zirenean loiolatarra ezagutzeko gogo handia zeramaten; eta hona non Parisen ostatu aurrean zalditik jaistean Iñigo bera aurkitzen duten. Honek lagundu zien ostatua aurkitu eta Pariseko ohitura berriak ezagutzen.

Diego Lainez gorputzez txikia eta makala, baina begi handi eta biziduna, eta buruz oso azkarra zen; gauzak ikasi gabe, begiratu batekin bakarrik, berehala ulertzen omen zituen.

Alfonso Salmeron, Biblia eta hizkuntza alorrean jakinduria zabaleko gizona zen.

1533. urtea zen bi lagun hauek Parisera heldu zirenean, eta hurrengo urtean, Gogo Jardunak Iñigoren ardurapean egin ondoren, Jaunaren zerbitzuan lan egiteko aisa irabaziak izan ziren.

Simon Rodrigues

Simon portugaldarra zen, eta hamazazpi urtekin Portugaleko erregearen beka baten laguntzaz Parisera ikastera joan zen. Oso jainkozale, alaia eta odol bizikoa zen, baita ikasle ona ere. Sainte Barbe ikastetxean ostatuz jarri eta Iñigoren lagun egin zenean, Jainkoa zerbitzeko zeukan gogo Loiolakoari agertu zion. Ez zekien orduan bazirela Iñigoren inguruan gogo berdina zuten beste ikasle batzuk ere.

Nikolas Bobadilla

Palentziako gazte bat 1533. urteko udazkenean ikasketak burutzera Parisera joan zen. Nikolas gora behera handiak zituen mutil irekia zen, alaia eta itxurakeria guztien etsai amorratua, baita noizean behin kasketaldi gogorak zituen. Bihotz handiko gazte hau ere Iñigok Gogo Jardunen bidez Jainkoaren zerbitzurako erraz irabazi zuen.

GOGO JARDUNAK

Aspaldidanik ohartuko zinen, irakurle, nola Iñigok autobiografian behin eta berriz honelakotsu hau errepikatzen duen: honelako edo halako pertsona Gogo Jardunak egin ondoren Jaunaganatu zen, edota, halako hark Gogo Jardunak eginik santutasun bidea hartu zuen...

Gogo Jardunak izan ziren zalantzarik gabe Iñigok kristauak bihotz berritzeko erabili zuen tresnarik baliotsuena.

Baina, Gogo Jardunak zer dira?

Aita Gonzalves da Kamarak, Iñigo beraren ahotik entzunda, aitormen hau egiten dugu:

«Gure Aitak (Iñigok) esan zidan, Gogo Jardunak ez zituela denak jarraian egin, baizik eta, bere ariman ikusten zituen gauza batzuk, eta balio zutela aurkitzen zituenak, besteentzat ere baliogarri izan zitezkeela-eta, horregatik idatzita jartzen zituela».

Gogo Jardunen sortzeari buruz esan daiteke: Loiolan hasi, Manresan mamitu, eta Parisen burutu zituela.

Gogo Jardunen hitzaurrean Iñigo berak dioenez:

«ibiltzea, bide-egitea eta korrika egitea, gorputz jardunak diren bezala, era berean, Jainkoaren nahaia bilatzeko, eta arimaren osasuna lortzeko prestaketan lan egitea, Gogo Jardunak dira».

Gogo Jardunak ez dira otoitzean goxo goxo irakurtzeko irakurgai samur, errazak. Gogo Jardunak soinketa edo gimnasia egiten ikasteko metodo baten antzeko dira. Gogo Jardunen fruitua eskuratzeko egin behar dira.

Jainko gauzetan honela hitzegitea zilegi balitz, Gogo Jardunak «santu egiteko makina dira».

Arimak santu egiteko Gogo Jardunek zuten indarrak —Jainkoak emana, noski— Iñigo bera ere laster konturatu zen. Horregatik Parisen bere konfessore izan zen Miona Doktoareari Erromatik idatzi zion:

«Nire arimako gauzetan nire aita izan zinelako, asko zor dizut, eta nire zorra nolabait ordaindu ahal izateko, Jainko gure Jaunaren izenean eskatzen dizut, hilabeteko Gogo Jardunak egitera jar zaitezela, eta ez zara damutuko; bada, Gogo Jardunak dira nik nire bizitza honetan gogoratu, sentitu eta ulertu dezakedan gauzarik hoberenak, bai norbere arimaren onerako, baita besteen arimek lagundu eta on egiteko».

Loiolako semea bere goralpenetan hain neurtua izanik, hitz hauek bere esanahi bete betean hartu behar dira.

Eta Gogo Jardunei buruz zenbait argitasun eskaintzen ari garenez, zilegi bezait geroago bizi izan diren pertsona batzuen aitormenak ere hemen azaltzea:

Salesko Frantzisko Doneak 1622. urtean zioen:

«Gogo Jardunen liburuak dituen letra edo hizkiak baino bihotz berritze gehiago lortu ditu».

Pio XI. Aita Santuak Gogo Jardunak goratuz hau dio:

«Arimak salbamen eta santutasun bidetik zuzentzeko, denentzat balio duen kodigo edo eraudi oso jakintsua da».

Heinrich Bohmer teologari eta historilari protestanteak dio:

«Liburu txiki eta arrunt hau gizonen norabidea markatu duen liburuen artekoa da».

Jansen historilari alemaniarrek dio:

«Liburu txiki honek, sikologi alorrean gorengo izanik, hain neurritz gorako eragina egin du arimetan, beste liburu guztiak honekin berdinean ezin jartzearaino».

EUROPAKO GIROA

Iñigoren bizitzaren kontakizun bidean aurrera jarraitu baino lehen «stop» egin dezagun garai hartako Europako politik-erlijio-kultur giroa zerbait ezagutzeko. Ez bait zen Loiola basamortuan bizi zen gizon bakartia, aldi hartako arazo larriei kristau erantzun egoki bat eman nahi ziena baizik.

Iñigo Parisen ikasten eta lagunak biltzen lan egiten zuen bitartean, Europa zaharreko kristau herria zatika erortzen ari zen: errege kristauen euren arteko gerrak, protestante eta katolikuen arteko etengabeko borrokak, turkiarrei Europako zati handi baten jabe egiteko indarra eman zien.

Iñigo Parisen bizi izan zen bitartean Alemaniatik zetorren Luteroren dotrina berria Frantzian ere zabaltzen hasi zen, lehenengo ezkutuan beldurrez bezala, gero lotsarik gabe baita agerian ere.

1528. urtean kaleko horma baten ohoratzen zen Andre Mariaren irudi bat luterotarrek txikitu egin zuten... Sakrilegio honegatik protesta egiteko unibertsitateko doktoreak, 500 ikaslek lagundurik, Frantziako errege Frantzisko buru zela, Parisko kaleetan zehar kandelak eskuetan irain-ordainez ibili ziren. Iñigo

ere, Andre Mariari zion maitasuna erakusteko, zalan-
zarik gabe han egongo zen.

1534. urtean luterotarrek ausartiago, Mezako Opa-
riaren aurka Parisko kale eta eleizetako hormetan,
baita erregearen jauregian bertan ere, pankartak josi
zituzten... Orduan, Parlamentuko agintariek, Uniber-
tsitateko irakasle eta ikasleek, eta kristau herriak,
Erregearekin batean, Korpus Kristi egunean, Euka-
ristiko Sakramentuaren ohorez prozesiorik ikusgarri-
ena antolatu zuten.

Gero katolikuek, amorru biziz, 24 luterozale erre-
egin zituzten. Eginkari makur hau justizia baino ge-
hegizko bendekua izan zela, ezin ukatu.

Hamaseigarren Gizaldia

Iñigo bizi izan zen 16. gizaldia, politika, erlijio,
kultura, arte eta abarretan benetan nabarmena izan
zen. Alde bateko eta besteko gizon handi hauen ize-
nak ikusterik besterik ez dago:

Lutero, Kalvino, Erasmo, Trentoko Kontzilioa...
Errege Katolikuak, Karlos V. enperadorea, Frantzis-
ko 1.a Frantzisko erregea, Enrike VIII.a Inglaterrako
erregea... Kolon, Vasko de Gama... Migel Angel, Ra-
fael...

Bere akats, hutsune eta gehiegikeriekin, 16. gizal-
dia bai gizon, eta bai gertakarietan Europa berria sor-
tzeke garrantzi handikoa izan zela ezin da ukatu.

Iñigo azken urteetan Erroman bizi izan zenez ge-
ro, aldi hartako goi-eleizaren akatsak eta zikinak Lu-
terok bezain ondo ezagutzen zituen, baina sendagaiak
aukeratzekoan gizon bi hauek oso bide desberdinak
hartu zituzten.

Luterok beste eleiza bat egin nahi izan zuen.

Iñigok, Erromako eleiza katolikua, bere akats eta
guzti, Jesusen eleiza bakarra zela benetan sinetsiz,
eleiza hori, bere Jesusen Lagundikoekin, garbitu, be-
rritu eta gaztetu nahi izan zuen.

Eta Eleiza kristau taldeek osotzen dutenez gero,
talde bakoitzeko kristauen bihotzak banan banan gar-
bituz, azkenean talde guztiak, eta hauekin Eleiza osoa
garbitua izango zela, sinetsi zuen... Eta bihotzak gar-
bitzeko Gogo Jardunak oso tresna baliotsuak zirela,
konturatu zen.

Orain Iñigoren garaiko gertakari nagusienak ur-
teka labur laburrean ikus ditzagun:

- 1414-1418. Konstantzako Kontzilioaz mendebal-sar-
taldeko eleizaren zisma amaitu.
- 1445. Guttenberg-ek inprenta asmatu.
- 1453. Turkiarrek Konstantinopla hartu.
- 1479. Isabel Kastillako erregin.
- 1479. Fernando Aragoiko errege. Kastilla eta Ara-
goiko dinastiak bat egin.
- 1491. Iñigo Loiolakoa jaio.
Enrike VIII. Inglaterrakoa jaio.
- 1492. Kolonek Ameriketa deskubritu.
- 1494. Katalina de Foix eta Joan de Albret Nafa-
rroako errege.
- 1498. Vasco de Gama portugaldarrak Hego-Afrika-
tik Indiarako bidea aurkitu.
Karlos III.a Frantziako erregea hil. Luis XII.
errege berria.
- 1500. Karlos V. enperadorea Flandesen jaio.
- 1503. Alejandro VI.a Aita Santua hil. Julio II.a jarri.
- 1504. Isabel Katolikua erregina hil.
- 1506. Frantzisko Xabierrekoa jaio. Kolon hil.
Iñigo Loiolakoa Arevalora.

1507. Iñigoren aita Beltran hil. Honen seme Martin Loiolako jaun.
1509. Kalvino jaio.
1512. Fernando erregeak Nafarroa harrapatu.
1513. Julio II. Aita Santua hil. Leon X.a jarri. Joan Jassukoa, Xabierreko jauna, hil.
1515. Iñigok Azpeitian gaiztakeria larri bat egin.
1516. Fernando Katolikua hil. Zisneros regente. Joan de Albret hil. Honen seme Enrike errege.
1517. Katalina de Foix Nafarroako erregina hil. Luterok Wittenberg-eko eleizan 95 tesiak josi.
1521. Luterok Worms-ko Dietan ez ditu esanak zuzendu nahi. Iñigo Iruñean zauritua.
1522. Elkanok lurrari bira eman.
1523. Adriano Aita Santua hil. Klemente VI.a aukeratu.
1524. Klemente VI.ak Teatinoen ordena berria onartu.
1525. Frantziako errege Frantzisko 1.a Pavian prisionari hartua. Karlos enperadorea Portugaleko erregearen alaba Isabelekin ezkondu.
1526. Enrike de Albret, Nafarroako erregea, Frantziako erregearen alaba Margaritarekin ezkondu.
1527. Karlos enperadorearen soldaduek Erromako hirian «sako» edo lapurreta izugarria, 9 hilabetez egin.
1529. Espirako Dieta. Erlijio askatasuna Kontzilio Orokorra bildu arte. Turkiarrak Hungria eta Austriaraino sartu.
1532. Enrike VIII.ak Erromako eleiza utzi, eta bera Inglaterrako eleizaren buru jarri.

- Nuremberg-ko bakea katoliku eta protestanteen artean, turkiarrei gerra egiteko.
1533. Klemente VI.ak Barnabiten ordena berria onartu.
1534. Klemente VI.a hil, eta Paulo III.a Aita Santu.
1535. Karlos enperadoreak turkiarrei Tunez kendu. Frantzisko 1.ak luterotarrak erre. Inglaterran katolikuen aurka pertsekuzio gorria. Tomas Morori burua moztu.
1537. Iñigo Loiolakoa Erromara. Espainia eta Frantzia berriz gerran.
1538. Frantzisko eta Karlosen artean bakeak.
1540. Paulo III.ak Jesusen Lagundia onartu.
1541. Kalvinok Suizako Ginebran bere dotrina berria jarri.
1542. Frantzisko eta Karlos berriz gerran. Portugaldarrek Japonia deskubritu.
1543. Barbarroja pirata turkiarra Mediterraneo itsasoren jabe.
1544. Espirako Dieta. Protestanteek askatasun gehitxoago.
1545. Turkiarrak Europako sortalde eta erdi-aldean nagusi. (Lehen euskal liburua Bordelen argitaratu: «Linguae vasconum primitiae» Bernat Detxeparek egin).
- 1545-1563. Katolikuen Trentoko Kontzilio Orokorra.
1546. Lutero hil.
1547. Frantzisko 1.a hil. Enrike II.a errege. Inglaterrako Enrike VIII.a hil. Eduardo VI.a, 10 urtekoa, errege. Karlos enperadoreak Elba ondoan protestanteak garaitu.

1548. Augsburgoko Dieta, ez katolikuek ez protestanteek onartu.
Frantziako erregeak kalvinotarrak erre.
1549. Paulo III.a Aita Santua hil. Julio III.a Aita Santu berria.
Nafarroako erregin Margaritak hil aurretik protestanteen dotrina zapuztu.
1551. Maurizio Sajoniakoa protestanteen aldera pasatu, eta Karlos Enperadorea bizia galtzeko arrisku handian.
1553. Kalvinok Migel Servet famatua Ginebran erre. Inglaterrako Eduardo VI.a 16 urtekin hil. Maria Tudor katolikua erregin. Ingalaterra berriz katolikuen aldera.
1554. Felipe II.a Espainiako erregea Maria Tudorekin ezkondu.
1555. Augsburgoko bakea. Protestanteentzat erlijio askatasuna.
Julio III.a Aita Santua hil. Martzelo II.a, eta berehala Paulo IV.a Aita Santu.
1556. Paulo IV.a Frantziarekin alkartu Espainiari Napoles kentzeko.
Iñigo Loiolakoa Erroman hil.
Karlos enperadorea, aginpidea bere seme Feliperengan utzi, eta Yusteko monastegira (Extremaduran) baztertu.
1557. Eskoziak dotrina berria onartu.
Espainiarrek frantzesak San Kintinen garaitu.
1558. Karlos enperadorea Yuste hil.
Maria Tudor seme-alabarik gabe hil. Isabel protestantea Ingalaterrako erregin. Katolikuen aurka pertsekuzio gorria.

1609. Iñigo Loiolakoa dohatsuen aldarera.
1620. Gipuzkoako Batzarre Nagusiak Iñigo Loiolakoa Gipuzkoako zaindari hautatu.
1622. Iñigo eta Xabier Santuak aldarera jasoak.
1680. Bizkaiko Batzarre Nagusiak Gernikako harizpean Iñigo Loiolakoa Bizkaiko zaindari hautatu.





MONTMARTREN

(1534, Abuztua 15)

Iñigok Jainkoaren zerbitzuan lan egiteko bere gogo berdineko sei lagun bildu zituenean, denak batera pentsatzen jarri ziren, euren asmoak mamitze-ko zer egingo ote zuten. Denak ados ziren Jerusalem-era joateko, eta gero Jainko lanetan bizitza osoa emateko

Baina honetarako teologia ikasketak burutu egin behar ziren, eta honegatik Parisen bertan hiru urte gehiago jarraitzea erabaki zuten, euren azaleko bizitzan itxuraz aldaketarik egin gabe. Baina, gizonak beti aldakorrak garenez, euren gogoa Jainkoaren aurrean zinitz edo boto sakratuen bidez baieztatzea hobe izango zela pentsatu zuten.

Eta arazo hau otoitzean patxadaz aztertu ondoren, honetan bat etorri ziren, alegia: zinitzak hiru gauza bere barnean hartuko zituela: lehen pobretasuna, bigarren kastitatea, eta hirugarren Jerusalemenera erro-
mes joatea, eta gero animak salbatzen lan egitea.

Jerusalenera joateari, ordea, muga bat jarri zio-
ten, alegia: Veneziara helduta han urte betean itsa-
sontziaren zain egon ondoren, hara joateko biderik
aurkitzen ez bazuten, Erromara joango zirela, eta
Aita Santuaren oinetan belaunikaturik, honek arimen
osasunerako aginduko zien edozer gauzatan eta edo-
zein tokitan lan egiteko prest egongo zirela.

Zinitz edo botoak egiteko 1534. urteko Andre
Mari jaija —abuztuak 15— aukeratu zuten. Egun hone-
tan goizean goiz Iñigo eta honen sei lagunak Mont-
martreko muinoan kokaturik zegoen San Dionisio
eleizatxora isil isilean joan ziren, eta han Pedro Fa-
brek meza emanik —hau bakarrik bait zen apaiz—
jaunartzeko garaia etorri zenean, apaiza, Gure Jauna
eskuetan, bere lagunei begira jarririk, banan banan
bakoitzak, denek entzuteko moduan, bere zinitzak
esan zituen, eta gero jaunartu zuen. Azkenez apaizak
berak ere bere zinitzak esan zituen.

Meza amaituta, eskerrak eman ondoren, mendi
hegalean zegoen iturritxo baten ondoan gosari arin-
arin bat hartu zuten: ogia eta ura, besterik ez. Eta
barrengo alaitasunez gainezka, han bertan egun osoa
eman zuten, elkarriketa alaian, bakoitzak Espiritu
Santuak emandako bihozkadangak kanpora hustuz. «Eta
iluntzean», Simon Rodriges olerkariak kontatzen du-
enez, «Jainkoa bedeinkatzen eta goratzen etxera itzu-
li ziren, lainopean ezkututzen eguzkiari agur eginez».

Eta zinitz hauek hurrengo bi urtetan egun eta to-
ki berean eta poz berdinekin berritu zituzten, baina

orain Iñigo gabe, hau, bada, bere lurraldera osasun
bila joana zen. Baina lehen urtean Loiolak utzitako
zuloa betetzera Klaudio Jay lagun berria etorri zen.

Eta bigarren urtean Montmartreko lagunen artean
beste bi lagun: Paskasio Broet eta Joan Kodure,
ikus zitezkeen...

Iñigoren urrutiko hiru lagun berri hauek guk ere
zerbait ezagutzeko, hauen historia labur bat egitea
egoki zaigu.

Klaudio Jay

Klaudio Jay, Pedro Fabre bezala, Saboia lurralde-
koa zen, eta honen antzeko gizon atsegin maitagarria.
Apaiz egin ondoren, ikasketak osotzera Parisera eto-
rri zen, eta hemen Fabrezen lagun eta honek zuzen-
dutako Gogo Jardunak eginik, Montmartreko taldera
lotu zen.

Paskasio Broet

Paskasio Broet Frantziako iparraldean dagoen Pi-
kardia lurraldekoa zen, eta bere herrian gurasoen on-
doan aldi batean apaiz lanetan ihardun ondoren, teo-
logian sakontzera Parisera etorri zen, eta hemen Fa-
brek Gogo Jardunen bidez hau ere bere talderako
irabazi zuen.

Joan Kodure

Joan Kodure Frantziako Probentza lurraldeko fe-
de beteko gizona zen. Parisen, Luteroren dotrinak en-

gainatuko ote zuen beldurrez, Jayren lagun egin zen, eta honek Fabre-rengana zuzendu zuen. Penitentzia gogorrekin Gogo Jardunak egin ondoren, Montmartreko taldean jarri zen. Bihotz bigun eta debozio gozoko gizona zen. Gazterik hil zen.

Ez zen gutxi poztuko Iñigo Azpeitian berri atsegin hauek jakin izan balitu. Baina garai hartako postak ez ziren gaurkoak bezain azkarrak.

PARISEN AZKEN EGUNAK

«Parisen jadanik garai honetan urdailetik gaizki aurkitzen nintzen, eta hamabostero urdaileko mina izaten nuen, ordu bete irauten zidana, baita sukarra ekartzen. Eta behin urdaileko minak 16 edo 17 ordu iraun zidan».

«Eta garai honetan filosofia amaituta, teologia urte t'erdi ikasi eta lagunak irabazi ondoren, gaitza beti aurrerantz zihoan, sendabiderik, asko probatu baziren ere, aurkitu ezinik. Eta osagileek esan zuten, ez zegoela osasunari laguntzeko jaioterriko haizeak baino beste biderik. Gainera neure lagunak ere aholku berdina ematen zidaten, eta biziro eman ere...».

«Ordurako nire lagunek zer egin behar zuten erabakita zeukaten, hau da: Veneziara eta Jerusalemara joatea, eta Jerusalemenean hau geratzeko baimenik lortzen ez bazuten, Erromara itzuliko ziren, Kristoren ordekoaren aurrera azalduz, honek uste zuenez, arimen onerako zer egin behar genuen erabaki zezan».

«Baita ere itsasontziaren zain Venezian urte betean egotea erabaki zuten, eta urte hartan Ekialderako itsasontzirik aurkitzen ez bazen, Jerusalemengo zi-

nitzatik aske geratuko zirela, eta orduan Aita Santuarengana joango zirela, eta abar».

«Azkenean ni neure lurraldera joateko nire lagun-en eritzira makurtu nintzen; baita ere gure taldeko lagun espainiarrek nik konpon nitzakeen arazo batzuk bazituztelako».

«Eta honetan geratu ginen: ni Azpeitian osasunez ondo aurkitzen nintzenean, lagun-en arazoak konpon-tzera joango nintzela, eta gero Veneziara abiatuko, han lagunei itxaroteko».

«Eta bidean jartzeko nengoela, inkisitoreari sala-tu nindutela entzun nuen, eta nire aurkako auzia jarri zutela. Hau entzun nuenean eta ez nindutela deitzen ikusirik, inkisitorearengana joan nintzen, eta entzundakoa esan zion, eta nola Espainiara joateko negoen, baita lagunak nituela, eta mesedez epaia las-ter emateko eskatzen niola».

«Inkisitoreak salaketari buruz egia zela esan zuen, baina garrantzizko gauzarik zegoenik ez zuela ikus-ten. Nire gogo jardunetako liburua ikusi nahi zuela, eta besterik ez. Eta berak nire liburua ikusi ondoren asko goratu zuen, eta kopia bat berak egiten uzteko eskatu zidan, eta hala egin zuen».

«Baina hala eta guztiz ere, arren, epaia eman ar-te auzia aurrera eramateko eskatu nion, eta orduan inkisitorea aitzakiak jartzen hasi zenez, ni herriko notari batekin eta lekuko-testiguekin haren etxera joan nintzen, eta guzti hauen aitormen agiria jaso nuen».


Estudioek arima lehortu?

Iñigok Loiolan, Jerusalem, Bartzelonan, Alkalan eta Salamankan bizi izan zen bitartean, arimako le-

horraldiak izan zituen, baina Jainkoaren pozaldiak ugariagoak eta gozoagoak izan zirela, esan daiteke. Baina Parisko zazpi urtetako egonaldia aipatzen du-enean, beste hau esaten digu:

«(Geroago) Vizenan egon nintzen bitartean ia egunero espirituzko ikuskari eta pozaldi ugariak iza-ten nituen. Parisen, ordea, ez horrela, alderantziz baizik».

Iñigok geroago esango zuen: estudioek arima le-hortu egiten dutela; Parisen berak izan zuen esperien-tziagatik esan ote zuen hori?



AZPEITIAN

(1535, Maiatza, Ekaina, Uztaila)

«Eta inkisizioarekin neukan arazoa konpondurik, lagunek erosi zidaten zaldi txiki baten gainera igo, eta nire lurraldera joan nintzen, eta bidean osasunez askoz hobeto aurkitu nintzen».

«Eta Gipuzkoara heldu nintzenean, betiko bidea utzirik bakartiago zen mendikoa hartu nuen, eta zaitxo bat bide eginez nire bila zetozen bi gizon armatuak aurkitu nituen (bide hark hiltzaileengatik ez du izen onik), eta hauek piska bat aurreratu ondoren, atzera itzuli ziren, eta orduan bai beldur pitin bat izan nuela. Hala ere haiekin hitzegin ondoren, gure anaiaren morroiak nire bila agindutakoak zirela jakin nuen».

«Bada, dirudienez, Frantziako Baionan ezagutua izan nintzen, eta handik nire etorreraren berri jakin zuten. Eta honela haiek aurretik joan ziren, eta nik lehengo bidetik jarraitu nuen».

«Eta nire herrira heldu baino lehentxoago lehengo gizonak aurkitu nituen, eta hauek ekin eta ekin gure anaiaren etxera eramateko ahaleginak egin zituzten, baina ezin izan ninduten inondikan ere menderatu».

Bidaia honen gora-behera gehiago Loiolako Potentzianak, Iñigoren ilobak, ematen digu:

«Egibarko Joan, Iñigoren ume-laguna, Behobiara Azpeitiako herrirako okela erostera zihoan, eta harantzakoan Iturriozko bentan ostatuz gelditu zen. Eta hango etxeoandreak esan zion: nola etxe hartan Azpeitiako gizon bat zegoen, behin ere halako gizonik ikusi ez bezalakoa. Egibarkoak, gizon hura nor zitekeen jakin minez, etxeako andrearekin batera joan, eta ateko zirriku batetik begiratu, Iñigo zela ikusi zuen, belaunikaturik otoitzean. Egibartarra lasterka batean Azpeitiara itzuli zen Loiolako etxekoei berri ematera.

Hauek ez ziren hara joaten ausartu atzera itzuliko ote zen beldurrez, baina eleiz-gizon bat, Garagarzako Baldasar jauna, bidali zuten denen berri jakitera. Honek Iñigo ikusi zuenean berarekin ekartzeko ahaleginak egin zituen, baina Iñigok ez zuen holakorik nahi izan, eta gainera esan zion ez bazen handik berehala joaten, etorri zen bidetik itzuliko zela. Baldasarrek bidean lagunduko ziola esan zion, baina Iñigok ez zuen honekin etortzerik nahi izan, eta Baldasar atzean utzirik, Iñigo mendik mendi aurretik bakarrik joan zen.

Iturriozko bentatik Iñigok Granada erreka eta Komisolatza goenera jo zuen, eta Etumeta baserrian Azpeitiako bide zuzena hartu beharrean, bere jaioterrian ezkutuan sartzeko inguru handi bat eginez, Aitzarna aldera jo zuen; baina bidea galdu, eta Errarizaga baserrian jaten eman zioten, eta Lasao ondokit igaroz Urola ibaian gorantz, ostiral egun batean arratsaldeko bostak aldean, isil isilik inor ohartu gabe, herriko sarreran zegoen Madalenako ospitalean ostatu eskatu zuen.

Bi ospitale zeuden garai hartan Azpeitiako herrian: Madalenakoa pobreentzat, eta San Martin gaisoentzat. Lehengoa, Loiolako dorre-etxetik urrutiago zegoelako, egokiago iruditu zitzaion Iñigori, eta hara joan zen. Madalenako behartsuen arduradunak Garingo Pedro eta Gaiazko Milia ziren. Senar-emazte hauek bizitzeko modu erraza euki arren, Jainkoa zerbitzeko pobre-etxe haren zaindaritza pozik hartu zuten, eta bai Azpeitiako, baita kanpoko beste behartsu askok ere Madalenan euren aterpe beroa aurkitzen zuten.

Nolako itxuraz etorri zen Iñigo jantzirik, ospitaleko neskameak erakusten digu: kolore iluneko sarga esaten zaion oihal zakarrez egindako goitik beherainoko jantzi luze bat zekarren soinean, abarketak oinetan, eta bernak hutsik galtzerdirik gabe.

Madalenako ospitalean

Etorri eta hurrengo egunean Iñigo Azpeitiako herrian atez-ate limosna eskatzen hasi zen. Baina Enparan kaleko lehen etxeetan bizi zen Katalina Egibarkoak —Loiola ondoko basarrikoak— berehala ezagu-

tu zuen, eta arin arinka Loiolara joan zen Martin Jau-nari honen anaia Iñigo kalean limosna eskatzen iku-si zuela esatera.

Loiolako nagusia Madalenara berehala etorri zen, arren eta arren, bere anaiari Loiolara bizitzera etor-tzeko eskatzera, ez zelako ondo ikusia Loiolako seme bat ospitale batean pobreekin batera bizitzen...

Baina Iñigok erantzun zion: ez zela bera jauregi-etan bizitzera etorri, Jainkoaren hitza ereitera baizik, eta jendeari zer gaiztakeria handia den bekatu astuna irakastera.

Azkenez, erregu askoren ondoren, Loiolako nugu-siak Madalenara ohe bat bidaltzea lortu zuen, baina ohe bigun hartan Iñigo ez, baina beste pobreren bat etzango zen.

Iñigok ospitaleko beste behartsuekin mahai be-rean jaten zuen, bera mahai-buru zelarik, eta berak egunero atez-ate eskatutakoa, edota pertsona onak beretzat bidalitakoa, pobreen artean banatzen zuen.

Orain Iñigo berari utziko diogu txanda, berak konta dezan.

«Eta ospitale honetan zeudenekin, eta ni ikustera etortzen zirenekin Jainkoaren gauzei buruz hasi nin-tzen mintzatzen, eta Jaunaren graziari esker, fruitu handia egin zen».

«Etorri bezain laster umeei kristau dotrina irakas-tea erabaki nuen, baina nire anaia honen aurka ja-rrri zen, iñor ez zela etorriko, esanez. Baina nik, ba-tekin aski nuela, erantzun nion. Eta dotrina irakas-ten hasita, jende asko eten gabe etortzen zen, baita neure anaia bera ere».

«Kristau dotrinaz gainera, igande eta jaietan pre-diku egiten nuen, arimen onura eta laguntzarako, eta nire entzutera oso urrutitik ere etortzen ziren».

Gauzak zehatzago esanda:

Nagusientzat astero hiru egunetan: astelehen, as-teazken eta ostiraletan, eguerdi ostean Madalenako ermitan predikatzen zuen, eta igande eta jaietan pa-rrokian. Iñigoren dotrina azalpenak bi eta hiru ordu ere irauten zuten, baina dorreko erlojuak ordua jo-tzen zuenean berehala amaitzen zuen.

Jendea Tolosa, Zestoa eta Errexil baita urrutia-go-tik ere Iñigori entzutera etortzen hasi zen, eta Ma-dalenako ermitaxoa txikia zenez, gero ermita aurre-ko zelaietan predikatzen zuen.

Iñigok ahotsa mehea baina indartsua zuen, eta jendea hari entzuteko zuhaitz eta baratzetako horme-tara igotzen zen, ermita inguruko belar eta sasiak zapaldurik ihartuta utzi arte.

Umeei, bai eleizan, baita Madalenako ermitan, kris-tauen eguneroko otoitzak eta Jainkoaren legeko agin-duak irakasten zizkien.

Gertakari txiki hau Potentzianak kontatzen digu:

«Behin Iñigo, nire osabak, dotrina irakasten ari zela, mutiko bati, Egibarko Martini, Iñigo hazi zuen inudearen semeari, galdera bat egin zion. Mutikoa handitxoa zen, eta aurpegiz ez hain itxura ederrekoa, eta honek oker erantzun zuen. Jende arteko nagusi batzuk parrez hasi ziren. Orduan Iñigok haiei hase-rre esan zien: honen lekuan zuek bazeundete zer egingo zenuketen jakin nahi nuke. Eta gero esan zu-en: mutiko hau gizon jatorra izango da... Eta hala gertatu zen. Martin geroago apaiz zintzo eta Azpeitian konfesore oso maitatua izan zen».

Eta apaizak aipatu ditugunez gero, garai hartan Azpeitiako eleizgizonak hogeitaz inguru izango ziren, eta ez denak bokakioz Jainkoaren zerbitzurako jarriak.

Frantzisko Zuazolakoak kontatzen digu:

«Nik badakit Iñigok Azpeitira etorri zenean herri honetako eleizgizonen bizitza gauza askotan berritu zuela, batez ere susmo txarreko jendea eleiz gizonen etxeetatik aldenduz. Eta guztiek obeditu zioten euren gotzain edo nagusi balitz bezala».

Eizmendi eta Elosiagan

Beste lekuko-testigu batek Iñigoren sermoi-gaiei buruz zehaztasun gehiago ere agertzen digu:

«San Markos hurrengo egunean Eizmendi eta Elosiagako ermitetan litaniak errezatu eta hitzalditxo bat egiteko ohitura da, eta Errezil, Beizama, Bidania, Goiaz eta Albisturtik ere lagun asko joaten da gain hartara. Urte hartan Iñigo Azpeitian gertatu zen, eta Eizmendiko ermitan litaniak errezatu ondoren, Elosiagara abiatu ziren. Eta hango ermitak hainbeste lagun ezin harturik, Iñigok aran-zuhaitz baten gainetik predikatu zuen, bada, arbola hark bere adarren artean gizon bat esertzeko toki egokia du. Sermoi hartan Iñigok hango emakumeei, buruzapi horiak eta ile gorrituak zituztelako, oso gogor egin zien. Emakumeak damaturik negarrez buruak estali eta zuzendu ziren».

Zer zen Iñigoren hitzaldien gaia?

Hemendik eta handik lekuko-testiguen aitormenak elkartuz, honenbeste jakin dezakegu:

Iñigoren hitzak sarkorrak eta eraginkorrak ziren, eta Jainkoa maitatzera eta gaiztakeriak gorrotatzera eragiten zuten.

Jesus zerura igokunde egunean Iñigok esan zuen, hurrengo egunean ostiralean hasita Pentekoste jairarte hamar egunetan, egun bakoitzean Jaungoikoaren legeko agindu bat azalduko zuela... Eta bigarren eta seigarren egunak heldu zirenean halako gauzak birao eta haragikeriaren aurka esan zituen, denak belduz utzi zituen, eta askok oker bidetik alde egin zuen, eta Azpeitiako herrian bihotz berritze nabarmenak egin ziren.

Iñigok kontatzen digu:

«Ni gehiegikeria batzuk kentzen ere ahalegindu nintzen, eta Jainkoaren laguntzaz zerbait zuzendu zen, jokoan adibidez: legez debekatuta zegoena egitan debekatua izan zedila lortu nuen, justiziaren arduradunak horretara etor araziz».

«Jokoitsuak» edo «juegos de azar» delakoak zeuden garai hartan Gipuzkoako legeetan debekatuak, joko hauek diru gehiegi jokatu eta familia asko betiko zorretan hondaturik geratzen zirelako.

«Bazen beste gehiegikeria bat ere, eta hau zen: Gipuzkoan neskak beti burutsik ibili izan ohi dira, eta ezkondu arte ez dute burua estaltzen. Baina asko dira apaiz eta beste gizonen ohelagun egin, eta hauei leialtasuna gordetzen dietenak, hauen emazteak balira bezala... Eta hau hain zabaldua dago, ohelagunek ez dute bat ere lotsarik halakoarengatik bu-

rua estali dutela esateko, eta halakotzat ezagutuak dira. Eta hemendik kalte handia sortzen da... Nik gobernariari lege bat egitera eragin nion, eta lege honen arauera, inorengatik burua eskatzen duen edonor, haren emazte izan gabe, justiziak zigortua izan zedila lortu nuen. Eta honela gehiegikeria hau ere kentzen hasi zen».

Azpeitiako lekukoek emakume galdu hauei buruz argitasun gehiago ematen digute:

Baziren garai hartan Azpeitiako hirian oker bide-tik zebiltzan zenbait emakume, hauen artean, Mendi-olako Madalena, «sendo» esaten ziotena, eta Izpizu-ako Katalina, biak azpeitiarrak, baita Enparan etxean neskame zegoen Asteasuko beste neska bat ere. Honen izenik ez digute testiguen ematen.

Mendiolako Madalenak, Iñigoren hitzaldiak entzunik, Antxietako Ana bere lagunari esan omen zion: Ana, Iñigoren gaurko hitzaldiak bihotza erdibitu dit. Erromara erromes joateko asmoa hartu dut, beste bi lagunekin, zuk gurekin etorri nahi bazenu. Orain arte munduari zerbitu diodan bezala, gaurtik aurrera Jainkoaren zerbitzuan bizi nahi nuke.

Madalena eta Katalinak gaizki bizitzeko bidetik alde egin, eta penitentzia egiteko asmoz, Erromara joatea erabaki zuten. Katalina Erromarako bidean hil zen, baina Mendiolako Madalenak Erroman gero-txoago Iñigo ikusteko aukera pozgarria izan zuen. Lau urte geroago emakume hau, Iñigok bere etxeko-enzat egindako eskutitz bat zekarrela. Azpeitiara itzuli zen, eta testiguen diotenez, aurrerantzean kristau zintzo bezala bizi izan zen.

Asteasuko alaba, Enparango neskamea, Erromaraino oinez joateko gauza ez izanik, Eizmendiko er-

mitara serora lanak egitera baztertu zen, Jaunaren zerbitzuan bizitza osoa emateko asmotan...

Baziren garai hartan Azpeitian hauen antzeko beste hiru edo lau emakume gehiago ere, Iñigok bide onera ekarri zituenak, baina hauen historia zehatzik ez da gureganaino heldu.

Baina Loiolako dorre-etxe bertan ere baziren honen antzeko arazoak.

Ospitaleko neskameak datorren hau kontatzen digu:

«Egun batean Madalenako ospitalera Loiolako Nagusi Martin Jaunaren emaztea, Madalena Araozkoa, bere etxeko talde handi batekin etorri zen, Iñigori Loiolara joateko eskatzera».

«Iñigok nekatuta zegoela erantzun zion, eta beste egun batean joango zela».

«Madalenak, ekin eta ekin, Iñigori honen gurasoen arimengatik Loiolara joateko eskatu zion. Baina Iñigok berdin ezetz erantzun zion».

«Hirugarren aldiz Madalenak, lurrean belaunikaturik, Jesukristo gure Jaunaren nekaldiagatik eskatu zion. Iñigok Jesusen nekaldia aipatu zuela entzun zuenean erantzun zion: horregatik eskatzen didazu? Joango naiz, bada, baita Bergara eta urrutiagora ere».

«Honela, bada, gau hartan Loiolako bere etxera joan zen, eta hurrengo egunean goizean goiz ospitalera itzuli zen, eta herrian zabaldu zen, Loiolan ohe biguna jarri bazioten ere, ez zela bertan etzan».

Urte batzuk geroago Iñigo Erroman bizi zela Lagundiko Aita bati gertakari honekin loturik dagoen honelako hau kontatu zion:

«Paristik nire jaioterrira joan nintzenean, nire ahaideekin etxean nengoela nire etxeko «lehen» bat

bere amorantearekin bizi zela, eta gauero emakume hura eskutuko lekutik etxera sartzen zela, jakin nuen. Gau batean zain egonik, emakume harekin topo egin nuen, eta esan nion: zer egiten duzu hemen? Eta emakumeak zer gertatzen zen, esan zidan. Nik bekatu egitera joan ez zedin neure gelara eraman, eta gau osoan han gorde nuen. Eta hurrengo goizean, lehenago ezin nuelako, handik bidali nuen».

Nor ote zen Loiolako «lehen» hori. Iñigok ez zuen izenik eman nahi izan... Gu ere isil gaitezen.

Bake-egile

Azpeitian moja frantziskanak eta parrokiako eleizgizonak ez ziren aspalditik ondo konpontzen. Auzi, haserre eta eztabaida haiek ez zioten kristauen fedeari bat ere onik egiten. Iñigok talde bien arteko konponbideak asmatu zituen, eta gora-behera askoren ondoren, bakeak egin zituzten, eta ziurtasun sendoagorako notari eta lekuko-testiguekin izenpetu ziren. Loiolako semeak «Iñigo» bere jaiotzako izenaz sinatu zuen.

Barrenola baserrian ere senar-emazteak ez ziren ondo konpontzen, eta beste pertsona batzuk bakeak egiteko ahaleginak egin arren, ez zuten ezer lortu. Iñigok etxeko jaunari papertxo bat bidali zion ospitalera mesedez etortzeko eskatuz... Etorri zen eta Iñigoren aholkuz bere emaztearekin bakeak egin zituen.

Martin Eizagirrekoak, Egurtzako Mariarekin ezkonduak, Mendiolako Madalena bere etxera ohelaguntzat eramaten zuen. Iñigok ospitalera etortzeko dei egin zion, eta harekin hitzeginez, harreman makur

hartatik aldendu zuen. Aurrerantzean gizon honek, esker onez, opari asko bidaltzen zizkion Iñigori ospitalera... Eta beti zuzen ibili zen.

Soraluzeko herrian aita-semeen artean eztabaida eta borroka gogorak sortu ziren. Iñigok jakinik, bieie etortzeko esan zien, eta biekin hizketan ihardunez, bakeak egin zituzten, eta handik aurrera Iñigori eskutitz asko egiten zioten, zein pozik bizi ziren adieraziz.

Pobreak

Azpeitiako behartsuak ere ez zituen Iñigok ahaztuta utzi. Berak hitz gutxitan esaten digu:

«Agindu bat eman arazi nien agintariei pobreak egunero lagunduak izan zitezten».

Limosna eskatzean inork amarru eta tranparik egin ez zezan, Iñigok eskatuta, herriko agintariek lege edo ordenantzak eman zituzten:

1. Urtero herriko bi pertsona aukeratuak izango ziren bertako eta kanpoko pobreentzat etxez-etxe limosna eskatzeko.
2. Herri eta kanpoko eskaleek zeharo eragotzia izango zuten hiriko kaleetan limosna eskatzea, baita iritarrek holakoei limosna ematea ere.
3. Benetan beharrean aurkitzen ziren pobreak, bi arduradun haiengana jo beharko zuten, egoki zen laguntza hartzeko.
4. Lan egiteko osasuna zuena ezin izango zen esketik bizi.

Honela lege hauen bidez egiazko behartsuek laguntza hartuko zuten, eta sasi-pobreek, jan nahi bazuten, lan egin beharko zuten.

Iñigok Loiolako bere etxeoengandik lortu zuen, igandero hamabi ogi pobreentzat parrokiara ekartzea hamabi apostoluen omenez.

Iñigo penitentzi-zale

Ospitaleko neskameak aitortzen du:

«Egun baten, Madalenako ermita jendez beterik leporaino zegoenez, ni Iñigoren gelara sartu nintzen, jendea zain zegoela esateko. Bera bezperan gaiso samar oheratu zen. Iñigok, presaka jantzi nahirik, bere soinekoak eskatu zizkidan, eta nik haren erropak hartzerakoan eskuekin zilizio eta burdinezko gerrikoarekin topo egin nuen. Iñigo konturatu zenean, ez zuen gehiago ematerik nahi izan, eta gero bera bakarrik jantzi zen».

Marina Loiolakoak, Iñigoren beste iloba batek, esaten digu:

«Ni txiki nintzela gure osabak Madalenako ospitalera ardo egosia eramateko eskatu zidan. Eraman nion, eta berak honekin sorbaldak garbitzeko eskatu zidan. Eta egiten zituen penitentziekin hain mindurik eta handiturik ikusi nituen, ustelduta eta minbizituta zeuzkala, uste izateraino».

Zalditxoak

Eta Iñigok Paristik ekarri zuen gaztaina koloreko zalditxoaz zer gertatu zen? Ospitalerako utzi zuen.

Hamasei urte geroago Frantzisko Borjakoa, Gandiako Dukea, eta gero santu izango zenak, Aita Migel Otxoa Nafar euskaldunarekin, Azpeitiara etorri zenean, Madalenako ospitalean Iñigok jan zuen mahai berean jan nahi izan zuen, eta orduan Migel Otxoak Erroman zegoen Iñigori idatzi zion: zuk ospitalerako utzi zenuen zalditxoak ikusi dugu, eta oso gizen eta ondo dago. Oraindik ere etxeko lanetarako, menditik egurra ekartzeko balio du. Azpeitiarren artean aparteko aberea da, edozein sorotara jatera sartzan bada ere, ez ikusia egiten diote, zure zaldia delako».

Bere jaioterria utzi aurretik Iñigok bere jainko-lanei azken puntada eman nahi izan zien:

«Eta agindu nuen hiru bider, hau da: goiz, eguerdi eta arratsaldez kanpaiak «Ave Mariak» jotzeko, Erroman egiten den bezala, hiru hiruneko dangana emanaz, pekatu astunean bizi direnengatik, egoera triste hartatik atera daitezen, jendeak otoitz egin dezan».

Eta ohitura honek iraun zezan Iñigok bere anaia Martini berari tokatzen zitzaion seni-parte honetan gastatzeko eskatu zion.

Azkenez Iñigok bere osasunari buruz hau esaten digu:

«Hasieran osasunez ondo aurkitzen banintzen ere, gero oso gaizki gaisotu nintzen. Eta sendatu nintzeanean nire lagunek emandako arazoak burutzera, dirurik gabe, joatea erabaki nuen. Horregatik nire anaia oso haserre jarri zen, oinez joan nahi nuelako lotsaturik. Eta arratsaldean arazo honetan nire anaiarekin erdi bidera etorri nintzen, alegia: Gipuzkoa-

LOIOLATIK TOLEDO ETA VALENTZIARA OINEZ

«Gipuzkoako mugatik irten nintzenean, zaldia utzi, eta ezer hartu gabe, Iruñea aldera joan nintzen, eta hemendik Aita Lainezen herria zen Almazan-era, eta gero Siguentza eta Toledora, eta Toledotik Valentziara».

Zehatzago esateko, Iñigok Altsasu aldean bere etxekoei agur eginik, Urbasa mendia igo, eta Lizarrako herria igarota Obanosko bidea hartu zuen. Nafarroako herri hartan Xabierreko Frantziskoren anaia Joan bizi zen, Arbitzu-ko Joana andre aberatsarekin ezkondua. Guduko hainbeste neke eta larritasun ondoren, Karlos V. errege berriaren amnistiaz baliaturik, orain bake eta lasaitasun ederrean bizi zen.

Parisen Iñigoren aurka sortutako esamesak Obanosko bazterreraino ere heldu ziren, alegia: gogo jardunen bidez Loiolakoa gazteak engainatzen ari zela-eta... Iñigok, fama beltz hau gezurtatzeko, Frantziskok bere eskuz idatzitako eskutitz bat zekarren aldean. «Sines ezazu», esaten zion Frantziskok bere anaiari, «Iñigoren aholku eta harremanak niri beza-

la zuri ere on asko egingo dizutela, oso jainkozko pertsona bait da eta hain bizitza zuzenekoa».

Askok maite zuen Iñigok Frantzisko, eta ez da esan beharrik Obanosko Joani bere anaia txikiagoaren gorralpenak kontatuko zizkiola... Baina, orain zure anaia txikiak, esango zion, lurreko gauzetatik zerukoetara jasoa du bere bihotza.

Baina, astirik galdu gabe, Obanosko etxe gozoa utzi, eta Ebro ibaia igarota, Soriako bidea hartu zuen, hango Almazan herrian bizi ziren Diego Lainezen gurasoak ikustera. Hauek kristau zintzoak ziren, eta herrian oso maitatuak... Hemengo arazoak konpondu ondoren Nikolasen jaioterria, Palentziako Bobadila, alde batera utzi zuen, honen gurasoak hilak bait ziren, eta Siguentzako lurretan aurrera eginik, Toledora joan zen Alfontso Salmeronen gurasoei bere semearen albisteak ematera. Hiri honetan Peralta Doktorea ere ikusi zuen. Iñigoren Parisko lagun handi hau hango katedraleko kanonigu eta hizlari trebea izateraino iritsi zen... Baina Loiolaren bidetik ez zebilen.

Toledotik Valentziako bidea hartu zuen, baina hiri honetara heldu aurretik Segorbera jo zuen, hango «Vall de Cristo» izeneko kartujan Joan de Castro Pariseko lagun mamia bizi bait zen. Iñigok hango barkartade baketsuan zortzi egun zerutarrak igaro zituen, fraileekin batera koruan kantatu eta otoitz eginez.

«Eta lagunak lurralde guzti hauetan ez nuen niretzat ezertxo ere hartu nahi izan, arren eta arren, eskaintza handiak niri eginik ere».

Azpeitiatik irten zenetik Toledon zehar Valentziaraino Iñigok 450 kilometro baino gehiago oinez eta

errenka egin zituen. Egia da, benetan, Iñigok autobiografian bere buruari jarri zion izena: «erromesa», hau da: «Jainkoaren ibiltaria».

«Eta Genovara joateko itsasoratu nahirik Valentziako lagunak holakorik ez egiteko eskatzen zidaten, Barbarroja pirata galera-ontzi askorekin itsasoan zebilelako, eta abar... Eta beldurra sartzeko moduko gauza asko niri esan arren, ez zuten ni zalantzan jartzeko ezer balio izan».

Hala da: Karlos V.nak hiru hilabete lehenago turkiarrei Tunez gaztelu hiria kendu zien. Orduan Barbarroja, haserre bizian, Balearesko Mahon irlaz jabetu zen, eta handik Valentziako kostalde guztia arrisku handian jartzen zuen.

«Eta Valentziatik Italiara itsasontzi handi baten nindoala, ekaitz gogorra sortu zen. Ontziari lema hautsi zitzaion, eta gauza hain okerrera etorri zen, nire eritziz eta ontzian zetozen beste askoren eritziz, miraririk gabe heriotzetik ezin ihes egiteraino. Hiru aldiz egon ginen heriotzearen zain».

«Garai honetan, neure barrena aztertuz eta hiltzeko prestatuz, ezin nuen neure bekatuen beldurrik izan, ezta kondenatzeorik ere, baina bai lotsa eta damu handia izan nuen, Jainkoak niri egindako dohain eta graziak, nire ustez, ondo erabili ez nituelako».

Genovatik Veneziaara

«Genovara helduta Boloniako bidea hartu nuen, eta hemen asko sufritu nuen, batez ere Apenino men-

dietan bidea galdu nuen batean, eta ibai ertzetik ibiltzen hasi nintzenean. Ibai han behean zegoen eta bidea goian, eta zenbat eta bidea aurrerago, hainbat eta estuago egiten zen. Eta azkenean hain estua egin zen, ezin nuen ez aurrera jarraitu, ezta atzera itzuli ere. Eta orduan lau-oinetz ibiltzen hasi nintzen, bada, mugitzen nintzen bakoitzean ibaiara eroriko nintzela iruditzen zitzaidan. Eta hau izan zen nik sekulan izan dudana atsekabe eta gorputz nekerik handiena... Baina azkenean estualdi hartatik irten nintzen».

«Eta Boloniako sarreran, egurrezko zubi bat igarotzean, zubitik behera erori nintzen, eta gero lokatzez eta urez astunduta irten nintzenean, han aurkitzen zirenek nire lepotik barre ederrak egin zituzten».

Iñigok, busti-busti eginik, gosez eta hotsez, San Klemente espainiar ikastetxean lagun batzuk aurkitzeko zoriona izan zuen, eta hauek garbitu, lehortu eta jaten eman zioten.

«Bolonian sarturik limosna eskatzen hasi nintzen, eta inguru guztian ibili arren ez nuen zentimo bat ere aurkitu. Bolonian zazpi egunez urdaileko minez, hotzak eta sukarrak jota, gaiso egon nintzen». (Malaria edo izango zen).

Iñigo Boloniararen hango unibertsitate ospetsuan teologiako ikasketak burutzeko asmoz joan zen, baina ez zuen hango hiritarren artean diru laguntzarik aurkitu, ezta osasunak lagundu ere; horregatik Bolonia utzi, eta Veneziarantz abiatu zen.

VENEZIAN

(1535 - 1537. Bi urte)

Veneziako Errepublika lurrez txikia, baina itsaso oso indartsua zen. Hiri aberats hartako 3.000 itsasontziak salerosketan Mediterraneoko bazter guztietara, baita Atlantiko itsasoan Ingalaterra eta Holandarraino zabaltzen ziren. Fedez kristau katoliku sinemenean zintzo irauten zuten, baina Alemaniatik zetozen protestante haizeak hiri hartaraino ere iristen ziren.

Veneziako hirian itxoingo zien Iñigok Parisko lagunei, gero handik denak batera Jerusalemenera joateko asmoz; baina haiek etorri artean teologia ikastetxari ekingo zion.

«Boloniatik Veneziaara beti era berean joan nintzen, eta hemen osasunaren aldetik askoz hobeto aurkitu nintzen. Venezian gizon jakintsu eta on batek lagun bezala bere etxean hartu ninduen, eta ikasteko nuen asmoa aurrera eramateko ezin izan nuen toki egokiagorik aurkitu».

Bere etxean hartu zuen «gizon jakintsu eta on» hori nor zen ez digu Loiolak esaten.

Martin Zornotzakoa ote zen? Garai hartan euskaldun hau Karlos V. enperadorearen kontsul bezala Venezian bizi zen. Geroago Jesusen Lagundian izen emanik Erroman Iñigoren laguntzaile eta adiskide handia izango zen.

Andres Lipomani ote zen? Gizon apal eta zintzo honek Venezian komentu antzeko etxe handi bat zeukan, bere eleiza, baratze eta gelekin. Gizon ongile hau pobreentzat beti eskuzabal eta errukitsu agertu zen.

Beste aldetik Bartzelonako Isabel Roser eta Parisko beste emakume batek bidalitako limosnei esker, Iñigo diru aldetik teologia ikasteko lasai bizi zitekeen. Baina ikas liburuetan murgildurik bizi arren, ezin zituen arimak ahaztu.

«Venezian aldi hartan gogo jardunak ematen eta beste espirituzko harremanetan iharduten nuen. Eta gogo jardunak eman nizkien pertsonarik ospetsuenak hauek izan ziren: Pietro Kontarini Maisua, Gasparo de Doktis Doktorea, eta Rozas izeneko espainiar bat».

Pietro Kontarini (Gasparo Kontarini kardinala ez) «Sendakaitz» ospitaleko arduraduna zen, eta Reginaldo Pole eta Gian Pietro Karafa, gero Aita Santu izango zenarekin batera, Veneziaako eleiza eraberritu nahirik ziharduen. Geroago Txipreko gotzain izango zen.

Gasparo de Doktis garai hartan Venezian Aita Santuaren Nuntzioaren kontseilari zen, eta bere arimaren zuzendariaren bideari jarraitu nahi zion, baina Iñigok, Loretoko Etxearen gobernari bezala Jesusen Lagundian baino on gehiago egin zezakeela-eta, zeukan karguan jarraitzeko aholkua eman zion.

Rodrigo Rozas Iñigoren lagun bat zen.

«Bazen han baita Malagako beste espainiar bat, Hozes batxilerra zuen izena. Honek nirekin asko hitzegiten zuen, baita Chieti-Theatinum-go gotzain Karafarekin ere. Gogo jardunak egiteko gogo piska bat izan arren, ez zen egitera ausartzen... Baina azkenean egitera jarri zen. Eta gogo jardunak egiten hasi, eta handik hiru edo lau egunera, bere barrena agertu zidan, esanez, gogo jardunetan dotrina makurren bat irakatsiko ote nion beldur izan zela, norbaitek esan zionez, eta horregatik liburu batzuk eramán zituela, inoiz engainatu nahi banuen, haiengana jotzeko. Honek gogo jardunetatik laguntza handia hartu zuen, eta azkenean nire bideari jarraitzea erabaki zuen. Berau izan zen gure artean hil zen aurrera ere». Paduan hil zen 1538. urtean.

Venezian baita ere Iñigok bi anaia euskaldun Diego eta Esteban Egiakoei gogo jardunak eman zizkien. Lehenago esan denez, Loiolak Alkalan bi anaia Lizarrako nafarrak ezagutu zituen: Migel inprimatzailea, eta Diego apaiza. Hau bere anaia gazteago Esteban alargunarekin Jerusalemenera erromes joan zen, eta handik itzultzean Venezian Iñigorekin egokitu zen. Loiolak bi anaiak gogo jardunak egitera gonbidatu zituen, baita hauek gogoz baietz erantzun ere... Etxeko arazoak konpondu ondoren biak Jesusen Lagundian sartu ziren, Diego 1539an apaiz lanetarako, eta Esteban alarguna geroxeago laguntzaile bezala etxeko zereginetarako.

Loiolak Venezian Gian Pietro Karafa, geroago Paulo IV. Aita Santua izango zena, ezagutu zuen. Gizon jainkozale honek, Theatinumgo gotzain aulkia utzirik, Kaietano de Thiene santuarekin batean «Teatino» zeritzan apaiz erregeladun Ordena fundatu zuen, eta

Iñigo ere honen lagunekin Ordena berrira erakarri nahi zuen.

Baina euskaldunaren eta italiarraren eritziak eleizako Ordena berriei buruz ez ziren berdinak. Karafaren teatinoek euren etxeetan, komentuetan bezala, itxita bizi beharko zuten, liturgi otoitzak koruan denak batera eginez... Iñigotarrak, ordea, batera bai biziko ziren, baina Liturgi otoitzak denak batera egiteko loturarik gabe, honela behar zen tokietara aske-libre ahalik eta lasterren joan ahal izateko.

Karafa Aita Santu izatera iritsi zenean eritsi desberdin hauek aski burukomin ekarriko zion, ikusiko dugunez, Loiolak sartutako Lagundi Berriari.

Berriz ere pertsekuzioak

Iñigoren autobiografia jarrai dezagun:

«Venezian berriz ere pertsekuzio bat izan nuen, asko bait ziren nire iduria Espainian eta Parisen erre egin zutela ziotenak. Eta salaketa hura hain aurrera joan zen, auzibide eginik, epaia nire alde eman zuten».

Salatzaileak nortzu ziren? Salakuntza zeri buruz izan zen? Ez dakigu. Baina, Iñigok orain lagun asko eta onak zituen, eta bere taldearen izen ona zaintzeko epaia argi eta garbi eman zezatela eskatu zuen.

Epailea Gasparo de Doktis Iñigoren lagun handia zen. Honek ikerketa luzeak eta zehatzak egin ondoren azken epaia honela eman zuen:

«Guk erabakitzen dugu, Iñigo Loiolakoaren aurka egindako salaketak, arinak, hutsalak eta gezurrezkoak direla... Baita apaiz honen bizitza eta dotrina zuzenak eta jainkozaleak direla... Baita gaur arte Veneziako hiri honetan bere bizitzaz eta dotrinaz jarraibide ona eman digula».

LAGUNAK PARISTIK VENEZIARA

Parisko lagunek, Iñigorekin aurretik erabakita zutenez, 1537ko urtarrilan Venezian aldera abiatzeko asmoa hartua zuten, baina aurreko abuztuan Karlos enperadorearen eta Frantziako erregearen artean gerra sortu zelarik, guduak alde bietako gorrotoak piztu zituen, enperadorearen menpekoentzat Parisen egoitea arriskuz betea gertatzeraino. Horregatik bidaia hiru hilabete aurreratzea pentsatu zuten.

Europaren hego aldeko bideak alde bietako gudariz beterik zeudelako, inguru handi bat eginez, Alemania eta Suizan zehar, euren ibilaldia egingo zuten.

Paristik, bakoitzak bere liburu zorroa bizkarrean harturik, oinez irten aurretik, badaezpada ere, erabaki hau hartu zuten: «Frantziako erregearen lurraldean aurkitzen garenean, bidean inork ezer galdetzen badigu, gure artean errege honen menpeko direnek bakarrik hitzegingo dute, eta besteak isilik egongo dira. Eta Karlos enperadoreak agintzen duen tokian aurkitzen garenean, honen agindupekoek bakarrik erantzungo dute».

Orain ez ziren sei lagun, bederatzi baizik: Klaudio Jay, Paskasio Broet eta Joan Kodure, esan dugunez, Fabreraren bidez, lagundirako irabaziak izan ziren.

Negua gogorra zen, mendiak elurrez zuri ikusten ziren, gainera Parisko maisuek, oinez bide luzerik egiteko ohiturarik ez zuten. Hala ere, haietako batek bere egunkarian aitortzen duenez, «jai batera bezala pozez beterik bidean gindoazen, lurrik zapalduko ez bagenu bezala».

«Ibilaldian, goizean goiz, gure arteko apaiz ziren hiruek: Fabre, Broet eta Jayk, meza ematen zuten, eta guk entzun; eta gosalduta ondoren bideari ekiten genion, salmoak kantatuz, isilean otoitz eginez, eta elkarrizketa santuen bidez, elkarri adore emanez».

Garai hartako politika eta erlijio giroa nolakoa zen adierazteko, gure Parisko lagunei bidean jarraitzea egoki dela, uste dut.

Lorenako lurraldea igarotzean Metz hiriaren ondoan Frantziako gudari talde handi batekin aurkitu ziren. Hiriko harresi ateak tinko itxita zeuden guda-mutilen lasaikeria eta bortxakerien beldurrez. Azkenean Parisko maisuak zirela eta nora zihoazen jakin zutenean, sartzan utzi zieten. Gudari taldea inguru hartatik aldendu arte, hiru egun egin zituzten hiri hartan eguraldi oso hotzaren mende.

Bidean zihoazela, arratsalde batean, gudamutil talde batek: geldi!!! agindua eman zien, eta soldaduen buru zenak galdetu zien: nortzu zarete? Nondik zatozte? Nora zoazte? Zer erantzun asmatu ezinik, estutu ziren, baina bertako atsotxu batek estualditik atera zituen, soldaduei esanez: utz bakean gizon hauei, lurralderen bat konbertitzera doaz-eta. Denak barrez, aurrera joaten utzi zieten.

Metz hiria utzi, eta hiru egun barru Alemanian, Karlos V.aren lurraldean sartu ziren, eta hango hizkuntza ezin ulertuz baten baino gehiagotan hara honaka mendietan galdurik ibili ziren. Hango herri ba-

tera sartzekoan agintariek betiko galderak egin zituzten, eta orduan Karlos enperadorearen menpekoez erantzun zuten: Parisko ikasleak gara, eta Italiara goaz erromes.

Mendietan elur lodia, hotzez eta nekez indarrak akiturik, azkenean Basilea-ra heldu ziren, eta hemen indarrak berritzen hiru egun egin zituzten. Hiri honetan «erreforma» izeneko dotrina berriak egindako kalteak euren begiz ikusi ahal izan zituzten: Basileako katedrala, santuen iduriak erreta, soka-lantegi bihurtua aurkitu zuten.

Suizako iparraldean Alpes mendietan, elurra be-launetaraino bidea galdu, eta iluntzean indarrak akiturik, herri bat aurkitu zuten. Ostatuan sartu, eta hango jendea jan, edan, dantza eta kantari ikusi zuten. Zergatik jai hori galdetzean, erantzun hau hartu zuten: «gaur gure herriko apaizaren ezkontza ospatzen dugu...» Han zegoen apaiz hura ezpata eskuan bandera gisa gora eta behera astinduz...

Konstantzara baino lehentxoago herri bateko parrokoa, seme-alaba ugariekin, ezkondu zegoela jakin zuten. Gizon hura erlijio gaietan aski ikasia omen zen, eta herriko sei-zazpi gizon-nagusi lagun zituela ostatura joan zen Paristar ikasleekin fedeari buruz eztabaidan sartzeko asmoz. Hauek nekaturik egon arren, eztabaidan hasi ziren, baita luzaro jarraitu ere. Afaldu ondoren tirabirari jarraitu zioten... Azkenean apaiz ezkonduak, zer erantzun ez jakinik, aitortu beharra izan zuen: «Zakuan sartu nauzue». Orduan paristarrek esan zioten: «nola hartu duzu defendatu ezin duzun sekta hori»? Apaiz ezkondua mehatxuka irten omen zen ostatutik: «nire dotrina defendatzen dakidan ala ez bihar espetxean jakingo duzue».

Konstantzako hiri barruan katolikuek ezin zuten mezarik eman. Eukaristia ospetu nahi zutenek hiritik kanpo zegoen eleiza batetara joan beharra zuten, zilarrezko diru bat bakoitzak bakoitzean ordainduz. Han eman zuten paristarrek meza diru-zigorra aurretik ordaindurik.

Aurrerago joanez, San Galo herrian atsotxo bakar batek bakarrik irauten zuen katolikuen fede zaharrean. Haren poza Parisko lagunak errosarioak lepotik zintzilik ikusi zituenean! Berehala katolikuak zirela antz eman zien, eta amantal bat santuen idurien esku, buru eta beste gorputz zatiz betea erakutsi zien... Ez zela munduan gehiago katolikurik esan omen zioten.

Hiru egun egin zituzten herri hartan atseden pisika bat hartzen, eta «dotrina berrikoekin» fedeari buruzko gauza batzuk argitzen...

Eguberriak Alpes mendietan ibiltari igaro ondoren, Italiako lur epel, gozoak zituzten orain begien aurrean: Trento, Bassano, eta azkenean Venezia. .. 54 egun egin zituzten bidean. 1537.go urtarrilak 8 egun zituen, Parisko lagunak euren maisu Iñigorekin Venezian aurkitu zirenean. Loiolak bere autobiografian hau bakarrik dio:

«Bederatzi lagunak Veneziaara 1537aren hasieran heldu ziren».

Iñigoren poza ez zen makala izango Parisko bere lagun zaharrak besarkatu ahal izan zituenean, baita beste hiru lagun berriak ere. Iñigok bere aldetik Hozes lagun berria aurkeztu zien. Baita adierazi zien,

beste bi anaia, Diego apaiza eta Esteban alarguna, Egiatar nafarrak, laster Lagundira etorriko zirela...

Jerusalenera joateko urte erdi falta zenez, Veneziaako ospitaletan banatzea egokien izango zela pentsatu zuten. Mezadun zirenak: Fabre, Jay eta Hozes arimek laguntzen ariko ziren, eta besteak gaisoak zaintzen: haien zikinak garbitzen, oheak egin eta jaten ematen, hildakoei lurra ematen eta abar ihardungo zuten. Bien bitartean Iñigok teologia ikasteari ekingo zion, honetan atzeratua bait zebilen; baina urte hartako garizumarako apaiz-ikasketak amaitzea espero zuten.

Eritetxeetan honela banatu ziren: Fabre, Xabier eta Lainez beste birekin «Sendagaitz» edo sifilitikoen ospitalera. Hozes, Rodriges, Salmeron eta beste bi «San Joan eta Paulo» izenekora...

Halako gaiso sifilidun batek Xabier gaisozain berriari sorbaldan hazka egiteko eskatu omen zion. Frantziskori nazkaz zauri ustelek goragalea eman zioten... Orduan Xabierko semeak bere eskuaz zornez usteldutako gaisoaren sorbaldak igortzi eta eskua ahora eramane zuten. Xabier gaixoak gau osoa bere eztarria izurriaz kutsaturik zuelakoan amets gaiztotan igaro omen zuten; baina egite garai honen bidez eriak zaintzeko beldurra betiko kendu zuten. Xabier eta Loiola, biak antzeko.

Jerusalenera joateko garaia gainean zegoen, eta Aita Santuari Lur Santura joateko baimena eskatze-
ra Erromara joateko ordua etorri zen.

Iñigok adierazten digu:

«Ni, Pedro Ortiz Doktoreagatik, eta Karafa teatino kardinal berriarengatik Erromara gabe Venezian gelditu nintzen».

Ortiz Doktorea Parisen bere ahaide Peraltak Iñigoren gogo jardunekin egin zuen aldaketagatik, zein haserre jarri zen ikusi dugu.

Karafa eta Iñigo ere, biak gizon on eta zintzoak izanik, ezin ziren euren eritzietan batera etorri.

LAGUNAK ERROMARA

Martxoaren 16an irten ziren, bada, Veneziatik Erromarantz lehengo bederatzi lagunez gain, beste bi ere: Antonio Arias Toledoko apaiza, eta Migel Landibar Parisen Xabierren morroi izanik Iñigo hil nahi izan zuena.

Oraingo ibilaldian dirurik gabe joango ziren denak, eta limosna errazago aurkitzeko hiru taldetan banaturik ibiliko ziren... Erromesaldi honetako gorabeherak Rodrigues portugaldarrak jostagarri kontatzen dizkigu.

Udaberriko euriekin ibaiak gainezka zetozen, eta baten baino gehiagotan urak bularreraino ibaiak zeharkatu behar izan zituzten... Po ibai aldeko lurralde pobreetan limosnak ez ziren ugariak, eta zenbait egunetan ogi zati bat soilik izan zuten janari, eta iturrietako ur garbia edari. Gauez ahal zuten tokian egiten zuten lo: sorte onenean ospitale batean, bestela lastategian, eta noizbaiten baita ukuilu edo kortan ere.

Ravenatik Ankonarako itsasontzia ordaintzeko, besterik ezean, eleiz-otoitzetako liburu edo brebiarioa ontzizainari bahituran eman behar izan zioten.

Ankonara goseak jota heldu zirenean, merkatuan limosna eskatzen hasi, eta errabano bat, aza bat eta sagar bat besterik ez zuten eskuratu...

Hiru egun egin zituzten Loretoko Andre Mariaren eleizan, atseden eta otoitzean... Gero berriz ere bidean.

Tolentinon atzerritar batek afaltzeko ogia, pikoak eta ardoa eskaini zizkien, baita paristarrek afari mardul hau pobreekin batera pozik jan ere.

Azkenean, Martxoaren 25ean, erramu egunez, heldu ziren zorionez Erromara, eta bakoitza bere lurraldeko ospitalean, lan egin truke, ostatzuz bizitzen jarri zen.

Eta hara, Erroman, ustegabeko zorion eta poz handia: lehen Parisen etsai handia izan zen Ortiz Dokorea, orain, ez jakin zergatik, lagun handi bihurtua. Karlos enperadorearen enbaxadari honek Aita Santuari Parisko maisuen alde itzegin zion, eta Paulo III.ak berarekin bazkaltzera gonbidatu zituen.

Pazko hirugarren egunean, bada, Aita Santuarekin batera mahaian jarri ziren, bazkal bitartean beste mahikide jakintsuek egindako galderei erantzuteko prest.

Parisko maisuen apaltasun eta jakinduriaz Aita Santua hain pozik gelditu zen, azkenean zer asmo zuten eta zer nahi zuten galde egin zien. Jerusalemara joateko asmoa zutela, erantzun zioten, eta hartarako baimena eta bedeinkapena besterik ez zutela nahi.

Eleizaren Buru Gorenak eskatutakoa pozik eman zien, baita 60 dukat erromes aldirako. Gainontzeko mahikideek emandakoarekin 210 dukat osotu zituzten.

Aita Santua maitagarri eta bihotz zabal azaldu zitzaizen, eta apaiz ez zirenei edozein egunetan eta edozein gotzaien eskutik mezadun ordenatuak izateko eskubidea eman zien... Baina hala ere, azken agurra egiterakoan Paulo III.ak —zerbait bazekien— latinez esan zien: «ez dakit, bada, Jerusalemearaino helduko zareten».

Erromarantz 11 lagun baziren ere, Veneziarantz itzultzean 9 ziren. Arias eta Landibarrek Erroman taldetik alde egin zuten, gerotxoago ikusiko dugunez, Iñigori burukomin ez gutxi emateko.

«Nire lagunak joan ziren bezala itzuli ziren, alegia: oinez eta eskean; hiru taldeetan banaturik, eta beti nazio ezberdinetakoak elkarrekin. Jerusalemara joateko Erroman emandako 200 edo 300 eskutu ekarri zituzten, baina diru haiek poliza paperetan bakarrik hartu nahi izan zituzten. Eskutu haiek, geroago, Jerusalemara joan ezinean, emandakoei itzuli genizkien».

IÑIGO ETA BERE LAGUNAK APAIZ (1537)

Azkenean, hainbeste urtetan amets egindako egun eder, zoragarria argitu zen. San Joan Bataiatzailearen jaia zen, 1537ko ekainak 24.

«Apaiz izateko eta Meza emateko Venezian prestatzen ari nintzela, espirituzko ikuskari eta zerutikako ikustaldi asko euki nituen, Manresan euki ohi nituenen antzekoak».

Arbe-ko gotzain Bizente Negusantik bere etxeko kaperan apaiz ordenatu zituen: Iñigo, Xabier, Lainez, Bobadilla, Rodrigues eta Kodure. Salmeron gazteak, 22 urte bete arte, hiru hilabete gehiago itxaron beharko zuen.

Arbe-ko gotzain ordenatzaileak aitortu zuen: «apaizgintza ematean ez dut sekula hainbesteko atsegirik izan».

«Iñigok bere autobiografian honela kontatzen du:

«Venezian, apaiz ez ginenak mezarako ordenatuak izan ginen, eta horretarako baimena orduan Vene-

zian zegoen Nuntzioak, gero Kardinal Verallo izan-go zenak, eman zigun. Behartsu tituloaz ordenatuak izan ginen, eta denok kastitate eta pobretasun zinitzak egin geniuen».

Jerusalenera joateko zain

Apaiz berriek hau zuten beti gogoan eta bihotzean: meza berria Jerusalemene ematea. Baina azken hogeita hamazortzi urteetan gertatu ez zena, urte hartan jazo zen; alegia: Venezia eta turkiarren artean gerra pizturik, ez zen 1537. urtean Veneziatik Palestinarra erromes ontzirik abiatu.

Honela kontatzen digu Iñigok:

«Urte hartan ez zen sortaldera joateko ontzirik, bada, veneziarrek pakea hautsi zuten turkiarrekin... Eta gu, Jerusalemenera joateko itxaropena urruntzen zihuala ikusirik, Veneto lurraldean banatu ginen, Parisen erabakitako urte betea igaro arte, hemen itxaroteko asmoz... Eta urtea bete ondoren igarobiderik ez balitz, Erromara joango ginen».

Bien bitartean hamar lagunak Italiako hiri nagusietan banatuko ziren, eta zozketa eginez Xabier eta Salmeron Monselizera, Kodure eta Hozes Trevisora, Jay eta Rodrigues Bassanora eta Bobadilla eta Broet Veronara joan ziren.

«Niri, Fabre eta Lainezi Vizenzara joatea egokitu zitzaigun. Han herritik kanpo etxe edo ermita zahar bat aurkitu genuen, «San Pietro in Vivarolo» zuen izena. Gerratean hondaturik zegoen, eta ez zeukan aterik, ez leihorik, eta han lasto piska baten gainean

lo egiten genuen. Gure arteko bi egunero bi aldiz herria limosna eske joaten ginen, eta hain gutxi zen ekartzen genuena, ia ezin mantentzeraino. Gehiengotan ogi zati bat jaten genuen, eta hau ere ematen zigutenean, eta etxean geratzen zenak hartzen zuen egosteko lana. Eta era honetan berrogei egun igaro genituen otoitzari oso osorik emanak».

Egia esan, etxean ia beti geratzen zena Iñigo bera zen, bada, Jainkoaren pozetan hainbeste negar malako isurtzen zuen, ia begiak erretzeraino, eta eguzkiaren argiak kalte egiten zion. Bestalde Iñigo omen zen ogia egosten zekien hiruretatik sukaldaririk onena.

«Berrogei egun igaro ondoren Joan Kodure Maisua etorri zen, eta laurok predikatzen hastea erabaki genuen. Eta honela laurok bakoitza bere plazan egun berean eta ordu berean predikatzen hasi ginen, aurretik deiadar gogor egin, eta jendeari buruko bone-tearekin deituz. Eta pertsona asko Jainkoa maitatzerara mugitu zen, eta guk ere bizitzeko behar genuena ugariago genuen».

«Vizenzan egon nintzen garaiari espiritu ikuskari asko izan nuen, eta pozaldiak ere asko, ia beti. Ez hala, ordea, Parisen bizi nintzen bitartean».

«Eta Vizenzan nengoela gure arteko lagun bat, Simon Rodrigues, Bassanon gaiso hil zorian zegoela jakin nuen, eta ni ere garai hartan sukarrez makal egon arren bidean jarri nintzen, eta hain arin nengibilen Fabre nire lagunak ezin niri jarraitzeraino. Eta ibilaldi honetan ziur jakin nuen, eta hala esan nion Fabrerri, ez zela gure laguna gaitz hartatik hilko... Eta Bassanora heldurik gaisoa asko poztu zen, eta laster sendaturik aurkitu zen».

«Gero, Salmeron apaiz egin zenean, denak Vizen-
zara etorri ziren, eta egun batzutan hamarrak bate-
ra egon ginen. Eta batzu inguruetako herrietara li-
mosna eskatzera joaten ziren».

Hemen, San Pietro in Vivaroloko komentu zaha-
rreko eleiza pobrean eman zuten euren meza berria,
Xabier, Lainez, Salmeron, Kodure eta Bobadillak. Ro-
drigesez, sendatu ondoren, geroxeago Ferraran eman-
go zuen. Iñigok Jerusalemene emateko ametsetan edo...
Hobeto prestatzeko asmoz edo... meza berria atzeratu
egin nahi izan zuen.

Iñigok beragatik dio:

«Nik apaiz egin ondoren urte betean mezarik eman
gabe egotea erabaki nuen, neure burua horretarako
prestatzen, eta Ama Birjinari bere Semearekin jar
nazala eskatzen».

Parisen egindako zinitza «urte bete itxarotea», ba-
tzuen ustez, beteta zegoen, baina hala ere gauzak gar-
biago ikusi arte hamar lagunek unibertsitatea zuten
Italiako hirietan banatzea erabaki zuten, haietako
ikasleen artean lagun berriren bat aurkituko ote zu-
ten itxaropenez. Eta izakera eta lurralde desberdine-
tako lagunek, euren artean moldatzen ikas zezaten,
aberri desberdinetakoak batera jarriko ziren, eta
hala:

Loiola (euskalduna), Lainez (kastillakoa), eta Fa-
bre (saboiarra) Ortiz doktoreak deituta Erromara
joango ziren.

Xabier (euskalduna) eta Bobadilla (kastillarra) Bo-
loniara.

Salmeron (kastillarra) eta Broet (frantziarra) Sie-
nara.

Kodure (frantziarra) eta Hozes (kastillarra) Pa-
duara.

Rodriges (portugaldarra) eta Jay (frantziarra) Fe-
rrarara.

Aste bakoitzean txandaka bietako bat izango zen na-
gusi, eta besteak hari obedituko zioten, baita Iñigo-
ren hirukotean ere.

JESUSEN LAGUNDIA

Italiako hirietan banatu aurretik, euren artean zera pentsatu zuten: eta inork «zer zarete» edo «zein anaidi edo kongregazioko zarete» galdetzen badigu, zer erantzun behar diogu?

Eta denek, otoitz egin ondoren, hau izango zela hoberena erabaki zuten: gure artean buruzagirik ez dugunez gero, eta gure gidari bakarra Jesus, eta gure asmo guztia hari bakarrik zerbitzea denez gero, Jesusen izena guretzat hartzea izango litzateke hoberena... Eta honela taldeari «Jesusen Lagunak» edo «Jesusen Lagundia» izen eman zioten.

Lagundia edo Compagnia izena, bat ere militar kutsurik gabe, Italian garai hartako eleiz-talde askok zeramaten: «Compagnia del Divino amore» edo «Compagnia del buon Gesu» eta abar...

Iñigoren lagunen artean, irakurlea ohartu denez, erdarazko «Compañía de Jesus» izenak ez du militar usainik, «compañeros de Jesus» baizik. Berriz ere esan beharra dago, Iñigo ez zen militar karreraduna, gorte edo jauregi-gizona baizik. Gerrara joan zen, beste edozein soldadu bezala «mobilizatua» izan zelako. Euskarazko «Jesusen Lagundiak» ez du gaztelarazko «Compañía de Jesus»ek duen hitz-trukerik.

LA STORTAKO IKUSKARIA

«Lehen zalantzan nituen bi gizon haiek, Ortiz eta Karafa, orain gurekin bihotz oneko agertzen zirenez gero, ni ere Fabre eta Lainezekin batean Erromara joan nintzen, eta bide honetan Jaunak agertaldi oso bereziak egin zizkidan».

«Eta egun batean, Erromara heldu baino «milla» batzuk lehenago, (14 kilometro), eleiza batean nengoela (La Storta zeritzan eleiza txiki zaharrean), eta otoitzean ari nintzela, hain aldakuntza haundia somatu nuen nire ariman, eta hain argi ikusi nuen Jainko Aitak Kristo, bere Semearekin, jartzen ninduela, ni hau zalantzan jartzeko ez nintzateke gauza izango, baizik eta Jainko Aitak bere Semearekin jartzen ninduela».

Ikuskari honek garrantzi haundia izan zuen Iñigorentzat, eta Loiolan eta Manresan izan zituenen berdinean jar daiteke. Horregatik egoki da Loiolatarraren hitz gutxiak Lainez bere bide lagunaren aitormenaz osotzea.


«Erromara gindoazela gure Aitak (Iñigok) esan zidan Jainko Aitak bere bihotzean hitz hauek josten zizkiola iruditzen zitzaiola: Ego ero vobis Romae pro-

pitius» (Ni izango naiz Erroman zuen aldeko). Eta honek zer esan nahi zuen gure Aitak ezin asmatu, esaten zuen: «Ez dakit zer izango den gutaz, agian, gurutzean josiak izango gara Erroman».

«Beste behin esan zidan, Kristo gurutzea sorbaldan eta Aita Betierekoa ondoan ikusten zituela iruditzen zitzaiola, eta honek bere Semeari esaten ziola: nik nahi dut hau (Iñigo) zure zerbitzari bezala hartzea. Eta hala Jesusek hartzen zuela, eta esaten ziola: nik nahi dut zuk guri zerbitzea».

Gertakari hau Ribadeneirak esandakoaz bete daiteke.

«Iñigok otoitza amaitu zuenean Fabre eta Lainezi esan zien: **ene anaiok, zer nahi duen gutaz Jainkoak ez dakit, ala gurutzean josita, ala oinaze-gurpil batean hezurak askatuta, ala beste gisa batean hiltzea. Baina gauza batez ziur naiz: dena dela, Jesukristo gure aldeko dugula».**



ERROMAN

(1537 - 1556)

«Erroman ni zuen lagun izango naiz».

Loiola, Fabre eta Lainez 1537ko urrian sartu ziren Erroman. Eleiza katolikuaren buru zen hiri honek garai hartan 50.000 bizilagun baino gehiago ez zuen... Iñigok beldurrez sartu zela aitortzen digu:

«Gero Erromara sartzean lagunei esan nien: leihoak itxita ikusten nituela, esan nahirik, han eraozpen handiak izango genituela».

Baina gauzak alderantziz gertatu ziren: Quirino Garzoni, gizon zintzo eta ondasundunak, Pincio men-

di hegaleko mahasti batean zeukan etxetxo bat eman zien bertan bizitzeko. Ondoan zeukan «Trinita dei Monti» eleiza meza eman ahal izateko.

Pedro Ortiz, enperadorearen enbaxadaria ere la-
gun handi bihurturik aurkitu zuten. Honek aurkeztu
zituen hiru lagunak Paulo III. Aita Santuaren aurre-
ra, eta honek Fabre eta Lainezi lan egiteko alorra
izendatu zien: «La Sapienzia» unibertsitatean teologia
dohan irakatsiko zuten, eta Iñigok gogo jardunak
emango zituen.

**«Eta Erroman arimek laguntzen iharduten nuen,
eta gogo jardunak aldi berean honi eta hari ematen
nizkien. Gogo jardule bat Santa Maria Mayor-en ze-
goen, eta bestea handik urruti Ponte San Sixto on-
doan».**

Gaspar Kontarini, kardinal veneziarra, gizon gozo
eta jainkotiarra izan zen Iñigok zuzenduta gogo jar-
dunak egin zituen halako bat. Honek 30 egunez gogo
jardunak egin ondoren, hain maite izan zuen liburu
txiki hori, bere eskuz kopiatu zuen, eta gero berekin
beti aldean eramaten zuen.

Beste gogo jardule bat Iñigo Lopez osagilea izan
zen, gero urte askotan Erroman Iñigo eta honen la-
gunen etxeko medikua izango zena.

Beste bat Lattanzio Tolomei, Sienako enbaxadaria
izan zen, eleizaren berriztatzea biziki nahi zuena...

**«Otsailean Monte Kasino-ra Ortiz Doktoareari go-
go jardunak ematera joan nintzen, eta berrogei egu-
nez han egon nintzen, eta han nengoela Paduan hil
zen Hozes batxilerra zeruan sartzen ikusi nuen, eta
honekin negar malko ugari, eta espirituko pozaldi**

**handia izan nuen. Eta hain garbi ikusi nuen, beste-
rik esango banu gezurra nioela, uste dut».**

Ortiz Doktoarea halako barrengo poz handiz gogo
jardunetarik atera zen, gorputzez hain gizen eta adi-
nez hain aurreratua izan ez balitz, zalantzarik gabe,
Iñigoren Lagundian sartuko zen.

Monte Kasinotik Erromarakoan Loiolak bidean
19 urteko gazte jator bat aurkitu zuen, Frantzisko
Estrada zeritzan, eta Palentzian Dueñas herrikoa zen.
Gian Pietro Karafaren zerbitzuan izanik, orain solda-
du izateko asmoz Napolesera zihoan. Iñigok bere tal-
dera etortzeko gonbidatu zuen, eta Erroman gogo
jardunak egin ondoren, hau ere Jesusen Lagundian
sartu zen. Horregatik dio Iñigok:

**«Eta Monte Kasinotik nirekin Frantzisko Estrada
ekarri nuen».**

Italiako hirietan sakabanaturik zeuden lagunak
1538ko pazkoetarako Erromara etorri ziren, eta Aita
Santuaren aginduz hango eleizetan predikatzen, eta
kaleetan dotrina umei irakasten hasi ziren. Dena do-
han-gratis egiten zuten, bizitzeko behar zutena limos-
naz eskuratuz. Loiolak Montserrateko Andre Mari
eleizan gaztelaniaz predikatzen zuen, eta Ortiz Dok-
toarea, beste zenbait jakintsukin, inoiz ere falta gabe,
Iñigori entzutera joaten zen «adorez eta kemenez hi-
tzegiten zuelako».

Ordurarte lekaide-fraileak bakarrik ziren eleizetan
predikatzen zutenak. Horregatik erromatarrek Paris-
ko apaizak Jaunaren berri ona hotsegiten ikusirik,

harriturik esaten zuten: baina, apaizek ere predika al dezakete? Eta gainera hauek dohan-gratis egiten dute.

Dena ondo zihoan, baina:

«Gero laster pertsekuzioak hasi ziren, eta Migel Landibarkoa nitaz gaizki esaten hasi zen. Nik gobernariaren aurrera dei egin nion, baina nik aurretik agintari honi Migelen eskutitz bat erakutsi nion, hark ni oso goresten ninduen. Gobernariak Migel aztertu ondoren Erromatik kanpora botatzeko erabakia hartu zuen».

«Gero Mudarra eta Barrera nire aurka hasi ziren, ni eta nire lagunak Espainia, Paris eta Veneziatik ihes genbiltzela zabalduz. Azkenean gobernariaren eta orduan Erromako legatu zenaren aurrean biek aitortu zuten ez zutela gure ohituren, ezta gure dotrinaren aurka ezer gaizki esatekorik».

«Legatuak arazo hau isilik baztertzeko agindu zuen, baina nik hori ez nuen onartu, azken epaia nahi nuela esanez. Ez zen hau legatuaren eta gobernariaren gogoko izan, ezta lehenago nire alde zeudenena ere. Baina azkenean, hilabete batzuk igaro ondoren, Nizatik Aita Santua etorri zenean, ni Fraskatira berearekin hitzegitera joan nintzen, eta nik zenbait arrazoi agertuz, Aita Santuak nire arazoa bere gain hartu zuen, epaia emateko aginduz. Et epaia nire alde eman zuten, eta abar».

Pertsekuzio-jazarpen hau Loiolak bere bizitza guztian izan zuenik gogorrena eta latzena izan zen, eta Loiolatarraren iraupena, kemena eta ekina noraino-

koak ziren adierazteko oso egokia delako, zehaztasun gehiagoz argituko dugu.

Agustin Mainardi, ospe handiko agustindar fraileak, Erromako San Agustin eleizan garizumaldian hitzaldiak eman zituen. Etorri handiko eta hitz ederrenko hizlaria zenez, jendetza piloa joaten zitzaion entzutera. Entzuleen artean Fabre eta Lainez aurkitzen ziren, eta hauek hizlari sonatuaren ahotik Luteroren dotrina entzuteaz, harriturik gelditu ziren. Fabre eta Lainez, bihotz onez, berarengana zuzenean joan ziren, arren, esandako gauza batzuk garbi zitzala, eskatuz. Baina ez zuten ezer lortu.

Mainardiren miresleen artean hiru espainiar zeuden: Pedro de Kastilla, Frantzisko Mudarra eta Paskual Doktorea, baita geroago Barrera izeneko norbait ere. Paristarrak hauengana joan ziren hizlari ospetsuarekin kontuz ibiltzeko eskatuz. Dena alferrik izan zen. Orduan, Iñigoren bi lagunek pulpituetatik gauzak behar bezala garbitzen, eta okerrak zuzentzen hasi ziren.

Parisko hiru lagunak garai hartan Erroman ezezagunak ziren. Etsaiek, ordea, diplomazi zoko-bazter guztiak, nondik eraso eta nola burua defendatu, ondo ezagutzen zuten.

Dinamitari su emateko Migel Landibar, Xabierren Parisko morroia, aukeratu zuten. Gizon burubero, aldakor hau, lehen Parisen Iñigo hil nahi izan zuena, gero Erroman loiolakoaren lagunaren artean hartua nahi izan zuena, orain Iñigoren aurka inondiko gezur beltzak zabaltzen hasi zen, esanez: Loiolako semea Espainia eta Frantziatik herexe bezala iheska zebilela, gogo jardunen bidez pertsonak engainatzen zituela, eta orain ere, Aita Santuaren baimenik gabe,

ez dakit zer nolako, Orden berri bat sortu nahirik lanean ari zela, eta abar...

Gezurak egiak baino bidea azkarrago egiten du, eta Iñigoren dotrinetan umeak gutxitzen hasi ziren... Trani kardinalak ere iñigotarrak ardi larruz jantzitako otsoak zirela zabaldu zuen. Eta Erromako fededun zintzoak, ordurarte Loiolaren lagunak santutzat zituztenak, orain, badaezpada ere, urrutitik begiratzen hasi ziren.

Landibar ausartak Iñigoren aurka salaketa ofiziala Erromako gobernariaren aurrean aurkeztu zuen.

Iñigok hori jakin zuenean gobernariaren aurrera zuzenean jo zuen, eta Iñigoren alde goralpen handiak esaten zituen Landibarren gutun bat erakutsiz, gobernariari galdetu zion: «**sinesgarri al da honelako gauza kontrakoak esaten dituen gizona?**».

Gobernariak Landibarri bere gaizakeria aurpegira egotzi zion, eta Erromatik betiko deserriratu zuen.

Baina Mudarra eta honen lagunek ez zuten etsi, eta gezur beltza Erroma osoan geroago eta zabalago egiten ari zen. Loiolak, ordea, bere taldearen izen ona, Jainkoaren aurrean bakarrik ez, baita gizonen aurrean ere inolako lainorik gabe garbi ikusi nahi zuen, bada, laster Aita Santuaren aurrean aurkeztu behar zuten, honen bedeinkapena hartu, eta esanetara jartzeko.

Iñigok, bere alde auzia ziurrago finkatzeko, Siena eta Ferrarako eleiz agintariei idatzi zien Parisko taldearen bizitza eta dotrinari buruz euren eritziak Erromara idatziz bidal zitatzela. Baita hauek, Ferrarako Dukeak bezala, argibide oso onak bidali ere.

Agiri guzti hauek eskuetan zituela, Loiolak Erromako Epaille Nagusi Bizente Karafa kardinalari, iker-

keta sakon bat egin ondoren, epaia eman zezala, eskatu zion.

Mudarra eta Barrera, Iñigok behartuta, epailearen aurrera aurkeztu ziren, eta beldurrak jota edo... maltzurkeriaz edo... lehen Loiolaren aurka zabaldutako gezur beltzak ahazturik, orain lotsarik gabe Iñigoren aldeko azaldu ziren: Iñigo benetako jainkozalea zela, honen dotrina garbia eta akatsik gabea zela, eleizaren alde lan handia egiten ari zela, eta abar, aitortuz. Honela, uste zuten, epailea baketuko, Iñigo baretuko, eta auzia betiko lurpean ezkutatuko zela.

Eritzi honetakoak ziren baita Loiolaren zerbaitez ere: «zergatik gezur beltza gehiago astindu?». «Bego bertan», zioten.

Baina Loiolak, ekin eta ekin, ezetz eta ezetz. Gaitzak lurpean egonda ere bizirik irauten duela, eta bere izen onagatik bakarrik balitz ez lukeela gehiago nekerik hartuko, baina laster sortuko zen Lagundiaren izen ona laino eta susmo txarren artean ezin zitekeela ezkutatu, eta eguzkiaren argia behar zela, eta auzia argitu egin behar zela, epaia eman arte. Eta horretarako Loiolatar tinkoak Aita Santuarengana jo zuen.

Paulo III.a garai hartan ez zen aurkitzen Erroman. Turkiarrak Hungariaraino sartu ziren, Italia bera ere arriskuan jarritz, eta Aita Santua Nizara joana zen Frantziako errege eta Karlos enperadorearen artean bakeak egitera. Erromara itzuli zenean, Kontarini kardinalari esker, Aita Santuak Fraskatti udako etxean Loiola berehala hartu zuen.

Eleizaren Buru eta Iñigoren artean zer gertatu zen, pozez eskutitz batean kontatzen dio Loiolak berak Bartzelonako Isabel Roser andreari.

«Aita Santuarekin bere gelan, biok bakarrean, ordu betean edo hitzegin nuen... Nik, latin hitzeginez, gure asmoak zeintzuk ziren agertu nizkion. Baita Alkalan eta Salamankan zenbat aldiz eta zergatik preso egon nintzen, dena argi eta garbi agertu nion... Eta horregatik, gure dotrina eta bizimodua aztertu ondoren, erabakia eman zezala, talde osoaren izenean eskatu nion... Eta Aita Santuak Erromako gobernari eta epaile nagusi Benedetto Konbersiniri, gure auzia lehenbaitlehen garbi zezala eskatu zion».

Lekuko-testiguen aitortpena nolakoa izan zen beste eskutitz batean Iñigok berak kontatzen du.

«Hemen, Erroman, gure auzia aztertzen hasi zirenean, Jainkoak hala nahirik, mirariz bezala, Erromara etorri berriak ziren: Figeroa, ni Alkalan preso sartu ninduen; Gaspar de Doktis, niri Venezian auzia jarri zidana; Mateo Ory, nire aurka Parisen auzia jarri zuena; baita Vizenzako gotzain-ordea ere... Eta guzti hauek gure alde testigantza egin zuten».

Hilabete eraman zuten lekuko-testigu deitze eta beste azterketa lanek, eta azkenean epaia eman zen:

«...Iñigo eta honen lagunen aurka egindako salakuntzak aztertu ondoren, eta itzal handiko lekukoei entzun ondoren, Aita Santuaren aginduz, auzia honek erabakitzen dugu: Iñigo eta honen lagunek ez dutela edonolako txarkeriaz euren izena zikindu, baizik eta bizitza oneko eta dotrina garbikoak direla... Eta orain arte, salatari gaiztoen erruz, lagun hauetaz susmo txarren bat izan dutenei, eskatzen diegu, guk diegun onespenean eta oneritzian, haiek ere izan diezaietela, dotrina garbiko katolikoak direlako, edonolako susmo txarrik gabeak».

«Erroman 1538. urteko urriak 18 egun».

Epai hau Iñigok irakurri zuenean pozez bere lagun Pietro Kontariri idatzi zion:

«Inoiz ere ez gara, Jainkoaren laguntzaz, kezkatu, gu ezjakinak, zakarrak, hizlari motelak edota bihurriak, gezurtiak, eta buruarinak garela esan ohi dutenean; baina min hartzen genuen, gure dotrina ez zela garbia, eta gure bizibidea ez zela zuzena esaten zutenean, bada, gure bizitza eta dotrina ez dira gureak, Kristorenak eta Eleizarenak baizik».

Loiolak bere etsaien lepotik ez zuen bendekurik hartu nahi izan, zigortuak izan ez zitezen. Honegatik auzi-paperetan ez da salatarien izenik agertzen, baina auziko erabakiaren kopia asko idatz arazi zuen, eta bere lagun eta ezagunei banatu zizkien. Halako kopia bat Loiolako etxera bere anaiari bidali zion, eta honek luzaroan arreta handiz bere etxeko artxi-boan gorde zuen.

Nortzuk ziren otsoak eta nortzuk ardiak laster agertu zen.

Mainardik, Luteroren dotrina onartuz, Italiatik alde egin zuen.

Mudarrak, herexe zelako, gartzelatua izan ondoren, espetxetik ihes egitea lortu zuen.

Pedro de Kastilla, betiko gartzelara galdua izan zen, eta 1559. urtean Jesusen Lagundiko batek lagun-duta, hil zen.

Barrera, bere gaiztakeriaz damaturik, handik laster Erroman hil zen.

Iñigo Loiolakoa bere bizitza guztian zehar 8 aldiz epaitua izan zen, eta beste hainbat aldiz, ikerketa zehatzak egin ondoren, garbi eta kutsurik gabe atera zen.

FRANGIPANIREN ETXEAN

Iñigoren aurkako pertsekuzio gogor hau bizi bizian zegoelarik, 1538ko pazkoan etorri ziren Erromara Italiako hirietan sakabanaturik zeuden beste zortzi lagunak.

Mahastiko etxetxoak denak ezin hartuz, Pont Sixtoren ondoan zegoen etxe handiago batera aldatu ziren. Baina hemen lau hilabete egin ondoren Santa Katerina eleizaren ondoan zegoen beste etxe handi zahar bat akuran hartu zuten. Etxe honen jabea Antonio Frangipani zen, eta Simon Rodriguesen ustez sorgindurik zegoen. Gauez, dio irudimen biziko portugaldar honek, deabru «galtza gorrik» sortutako zarata eta burrunka beldurgarriak entzuten omen ziren: bustinezko plater, edontzi, eltze eta lapikoak karraska izugarritz hautsiko balira bezala... Eta hurrengo goizean denak oso osorik aurkitzen omen zituzten. Sorgin-etxea zela-eta, oso merke lortu zuten. Baina «Txerrenkok» jesulagunei beldur handia zien, eta etxe hartan bizitzen jarri zirenez geroztik, ez zen gehiago agertu.

Frangipaniren etxe honetan bizi zirelarik, Jesusen Lagundiko zenbait gauza garrantzitsu gertatu ziren:

1. 1538-1539 negu gorrian gosetuei aterpe ematea.
 2. Iñigoren Meza berria.
 3. Jesusen Lagundia ofizialki sortzeko «eztabaidaketak».
 4. Aita Santuak Jesusen Lagundia onartzea.
 5. Frantzisko Xabierrekoa Indiara joatea.
- Garrantzizko gertakari hauek banan banan aztertuko ditugu.

Gosetuekin

1538. urteko uzta lehortegatik oso urri-murritza izan zen, eta negua berrogei urte hartako hotzena. Gainera gabon aurreko egunetik maiatza amaitu arte euri zaparrada handiak bota zituen. Erroman ardoa, olio, esnea, haragia, ogia, dena oso garesti saltzen zen. Behartsuak gosez eta hotzez azkenetan aurkitzen ziren.

Parisko maisuak hainbeste gosetuei jaten emateko etxez-etxe aberatsen ateetan limosna eta janarien eske hasi ziren. Ikustekoa zen Paristar apaizak egur-zortak bizkarrean Frangipaniren etxera bidean. Etxe handi zahar hartan su handi bat eginez, behartsuak berotzeko haren inguruan jartzen zituzten. Gero soppa bero eta beste zerbaiten bidez haien gosea asetuz, otoitzak eta dotrina santua erakusten zizkieten. Gauez belar ondo gainean etzanda lo egiten zuten. Honela txandaka 300 behartsu lagunduak izan ziren.

Gainera Karlos enperadorearen alaba Margarita Austriakoak lagundurik, han eta hemen Erromako hirian beste aterpe-etxe batzuk prestatu zituzte pobreei negu gorria bizirik igarotzen laguntzeko. Guztira 3.000 pobrek Iñigoren taldearen laguntza negu latz hartan hartu omen zuten.



MEZA BERRIA

(1538ko, Abenduak 25)

Iñigoren ametsa Meza Berria Lur Santuan, Jesus jaio zen Belenen, ematea zen, baina itsasoko bideak itxita zeudenez gero, Erroman «Andre Mari Nagusi» izeneko eleizan ospatzea pentsatu zuen. Han gordetzen zen, uste zenez, Belengo askatxoa, eta honen aurrean nahi zuen Iñigok bere Meza Berria eman.

Bere autobiografian, ikusi dugunez, esaten digu:

«Venezian ordenatua izan nintzenetik Meza Berria eman arte urte t'erdi egon nintzen prestatzen, eta Andre Mariari bere Seme Jesusekin jar nazala eskatzen».

Iñigok bere etxekoei idazten die:

«Erroman, 1939ko otsailak 2».

«Loiolako Jaun eta Etxekoandreari».

«Kristo gure Jaunaren maitasuna eta grazia bizi bitez beti zuekin... Joan den urteko —1538— Eguberrian eman nuen nire Meza Berria hemen Erroman «Andre Mari Nagusi» deritzan eleizan, Jesus jaio zenean jarri zuten askatxoaren kaperan... Gure otoitzetan alkarrekin oroi gaitzen».

«Ontasunez behartsu».

«Iñigo.»

(Bere etxekoentzat beti «Iñigo» sinatzen du)

Eskutitz hau idaztean ez zekien bere anaia Martin, Loiolako Nagusia, aurreko urtean, azaroaren 29an, hila zela, eta orain bere seme Beltran zela dorre-etxe-ko ondarearen jabe. Loiolako etxekoandre Madalena ere 1539ko urriaren azken aldean hilko zen.

Iñigok Meza Berria ematean izan zituen bihozka-da eta barne sentipenak, inori esan gabe, beretzat gorde zituen. Baina Aita Kamarak Iñigoren biografian jarritako hitz hauetatik zerbait baino gehiago ere susma dezakegu.

Portugalدار idazlariak honela emaitzen du Iñigok zatika zatika agertu zion biografia.

«Autobiografia amaitu genuen egun hartan bertan, afal aurretik, Aita Iñigok deitu zidan, eta beste egunetan baino bere barnean bilduago zegoen pertsonaren antza zeukan, eta bene benetan esan zidan: bere bizitzako gauza guzti hauek asmo on eta garbiz kontatu zituela, eta ez zuela gehiegirik esan, ziur zela».

«Eta Jainkoa zerbitzen hasi zenez geroztik Jaunaren aurka bekatu asko egin zituela, baina ez ziola inoiz ere bekatu astun bati lekurik eman. Baita esan zidan geroago eta errazago Jainkoa aurkitzen zuela, eta orain zahartzaroan lehengo bizitzan baino errazago, eta beti eta nahi zuenean Jainkoa aurkitzen zuela».

«Eta orain ere ikuskari asko zituela, gorago esandakoen antzekoak, batez ere, Kristo eguzki antzera ikustea eta abar. Eta arazo larriak eskuartean zituenean hori askotan gertatzen zitzaiola, eta ikuskari hauekin indartu egiten zela».

«Eta meza ematean ere ikuskari asko izaten zituela. Eta bere ariman gertatzen ziren gauzak idatzi egiten zituela. Eta orduan paper pilo handi bat erakutsi zidan, eta handik gauza batzuk irakurri zizkidan. Gehienak ikuskariak ziren, eta batzuetan Jainko Aita ikusten zuen, bestetan Hirutasunaren hiru pertsonak, bestetan Ama Birjina bitarteko bezala eskatzen, eta bestetan sendotzen».

«Nik paper haiek ikusi nahi izan nituen, eta pisika baten uzteko eskatu nion, baina berak ez zuen nahi izan».

Paper pilo hartatik orri gutxi batzuk bakarrik salbatu ziren jabeak erretzetik; baina txoko batean 25 fofiodun bi koaderno ahazturik geratu zitzaizkion Iñigori, eta hauek, zorionez, gureganaino heldu dira. Guk koaderno hauetako aste bat bakarra, adibide bezala, hartuko dugu, Iñigok egunero meza ematean izaten zituen mistiko sentipenen berri jakiteko. Telegrafiaz bezala idatzita daude.

1544. urtea.

«Andre Mariaren meza. Otsailak 2. Larunbata».

«Mezatan debozio ugari, negar malkotan, Andre Mariarengan konfidantza handiz».

«Otsailak 3. Igandea. Berdin».

«Otsailak 4. Astelehena. Berdin».

«Otsailak 5. Asteartea. Meza aurretik, Mezatan eta Meza ondoren debozio ugariz, negar malkoak, barrengo eta kanpokoak. Eta hainbeste malkogatik begietako minez, eta Ama eta Semea nire alde Aitari laguntza eskatzen».

«Otsailak 6. Asteazkena. Meza aurretik eta Mezatan debozioz eta ez negarrik gabe».

«Otsailak 7. Osteguna. Meza aurretik debozio ugari, negar askorekin, eta egun guztian aski berotasunez eta debozioz gauera arte. Barrengo debozio eta eragite handiz Mezatan Jainko Aitari eskatzeko, bitarteko biak (Semea eta Ama) laguntza eskatzen, ikusiko banitu bezala».

«Otsailak 8. Ostirala. Meza prestatzean, baita Mezatan ere debozio handi eta ugariz, baita negarrez, ezin hitzik eginez. Eta gero Meza ondoren debozioz eta ez negar malkorik gabe. Nire eskariak Amaren eta Semearen bitartez Aitari aurkeztuz, aurretik Amari otoitz eginez bere Semearen eta Aitarenean lagun izateko. Aitarengana joaten edo eramaten ninduela nigan somatzen nuen, eta ibiltze honetan nire ileen jasotze eta gogo eragite aski handiak gorputz guztian sentituz, eta honen ondoren negar malko eta debozio oso bizia; eta gero hartutako grazia hauek azken oroiturik, debozio berria».

Ikusten denez, Iñigoren mistiko dohainak Hirutasun guztiz Santuarengandik datoz, eta harengana da-

ramate. Ama Mariaren bitartez Seme Jesusengana, eta honengandik Aita Jainkoarengana.

Meza santua zen Iñigoren eguneroko ekintzen indargilea.

Aita Nadalek aitortzen du: «Hirutasun guztiz Santua ikusi, eta misterio honetan atsedean hartzeko grazia berezia hartu zuen Jainkoagandik Aita Iñigok... Aita, Semea eta Espiritu Santua askotan ikusten zituenean, batez ere lur honetako bere bizitzaren azken urteetan».

Teologarien eritziz Loiolaren goi-dohainak «kon-tenplazio infusa» delakoaren antzeko dira, bada, kon-tenplazio honen bi ezaugarriak hauek dira:

1. Adimenaren lanik gabe jainkozko gauzak begiz-begi intuituz ikustea.

2. Arima geldi egonik jainko ezaguera eta maitasuna goi-ixuriz hartzea, Jainkoak nahi duenean eman eta kenduz, hartarako arimaren lanak alferrikoak izanik.

EZTABAIDAKETAK

(1539, Martxoa 24 - Ekaina ...)

Karlos enperadoreak Aita Santuari Ameriketarako misiolariak eskatu zizkion. Portugaleko erregek ere berdin egin zuen. Paulo III.ak Paskasio Broet beste lagun batekin Sienara joateko izendatu zuen... Hau hona, hori horra, eta bestea hara sakabanatu aurretik, denak talde bezala irauteko, ez al zuten norbait nagusitzat aukeratu behar, hari zinitzen bidez, obeditzeko?

Otoitz egin eta sakon pentsatu ondoren, arazo hau eztabaidatzeko honela jokatzea erabaki zuten:

Hamaika lagunek, eguneroko lanak utzi gabe, egun bakoitzeko bezperan gai bat aukeratuko zuten hurrengo egunean aztertzeko. Biharamunean mezatan arazo honi buruz Jainkoari argi egiteko eskatuko zioten... Gero egun guztian zehar bakoitzak, beste lagunekin hitzik egin gabe, gai hori bere barnean sakonduko zuen, arazo horretan berak zer ikusirik ez balu bezala, honela autonomia osoz bere eritzia hartu ahal izateko. Gero lehen eguneko arratsaldeko bileran gairen aldeko arrazoiak emango ziren. Hurrengo egu-

nekoan aurkakoak. Eta hirugarren eguneko bileran bi aldetako arrazoiak begiratu, neurtu, pisatu eta aztertuko ziren. Eta azkenez denen artean erabakia hartuko zuten.

Lehen txandan eztabaidatzeko gaia hau izan zen: «Bizitza osoa gure Jaunaren eta lurrean honen ordeko den Aita Santuaren zerbitzurako eskaini zutenenez gero, denak bat eginik jarraitzea hobe izango ote zen ala ez?».

Gai honi buruz erabakia hartzea erraza izan zitzaien, alegia:

«Jainkoak egindako batasun hura ez zela hautsi behar, indartu eta sendotu baizik».

Bigarren gaia zailagoa izan zen, alegia: «Pobretasun eta kastitate zinitzak egin ditugunez gero, nagusi bat ere aukeratu beharko ote dugu zinitzen indarrez hari obeditzeko?»

Lehen eguneko bileran obedientzi zinitzaren aurkako arrazoiak aztertu zituzten.

a. Obedientzia izena ez da gaurko egunean ondo ikusia.

b. Obedientzi zinitza egiten badugu, baliteke Aita Santuak, gure talde osoa gaurko eleizan dauden ordena batetara sartzera behartzea.

d. Zinitzen bidez obeditzera behartzen baditugu, baliteke, gure taldera etorri nahi luketen zenbaitek gugandik alde egitea.

e. Gure nagusia Aita Santua bada, hari obeditzea nahiko litzateke, beste nagusirik aukeratu gabe.

Hurrengo egunetan obedientziaren aldeko arrazoiak aztertu ziren:

a. Obedientziarik gabe bakoitza bere bidetik joango zen, sarriegi ikusi ohi denez.

b. Obedientziarik gabe, lehenago edo geroago, lagundia talde bezala, desegingo da.

d. Obedientzia birtute askoren ama da, obedientziaren baratzean egite herioko miragarriak loratzen dira.

e. Obedientziaren bidez harrokeriari muga jarri zaio.

Obeditu bai, obeditu ez, garizuma, aste santu eta pazko jaiak eztabaidatzen eraman zituzten. Azkenean: Jainkoaren nahia hobeto ezagutzeko, eta euren arteko batasuna ziurrago gordetzeko, nagusi bat aukeratu, eta hari obeditzea hoberena izango zela, erabaki zuten.

Erabaki honekin egiaz eta benetan Jesusen Lagundia sortu zen.

Orain Aita Santuaren baimena bakarrik behar zen.

Erabaki honen garrantzia Iñigoren lagunek argi ikusi zuten, eta horregatik apirilaren 15ean Pedro Fabrek meza eman eta besteak jaunartuz, agiri bat sinatu zuten: «Jainkoaren aintzarako eta Lagundiaren iraupenerako Nagusi bat aukeratu eta honi obeditzea hobe zela, uste zutela, eta aldi berean Lagundi honetan, baina oraindik zinitzik gabe, sartuko zirela, hitzematen zutela».

Joan Kodure, Diego Lainez, Alfonso Salmeron, Nikolas Bobadilla, Paskasio Broet, Pedro Fabre, Frantzisko Xabier, Iñigo Loiola, Simon Rodrigues, Klaudio Jay eta Diego Kazeres. (Azken hau ez da Lopez de Kazeres Iñigoren Alkalako laguna. Diegok ere hiru urte barru Lagundia utzi ezin zuen). Kazeresen ordezer Bergarako Araotz Antonio izan zela Lagundiko

hamaikagarren laguna esan daiteke, bada, urte hone-tan Iñigo bere osabaren lagunartean izena eman zuen.

Lagundi berria nolakoa izango zen zehaztasun ge-hiagoz asmatzeko, maiatza eta ekaina eztabaidaketan eraman zituzten.

Azkenez, gai handi hauetan denak ados jarri ziren: Lagundian izena eman nahi zutenak:

a. Pobretasun, kastitate eta obediencia zinitzez gain, Aita Santuari obeditzeko beste zinitz bat egin beharko zuten: Jainkoaren ordekoak agindutako edo-zein lurraldetara eta edonolako lanetara joateko zi-nitz berezia.

b. Umei dotrina irakatsiko zien.

d. Hilabeteko gogo jardunak egingo zituzten.

e. Ospitaletan gaisoei lagundu beharko zieten.

f. Lagundiak buruzagi bat izango zuen, bizitza guztirako aukeratua.

Eztabaidaketak amaitu, eta berehala Aita Santuak aginduta, Fabre Parma-ra, Lainez Piazentza-ra, eta gerotxoago, uztailean, Kodure Villetrina-ra, eta Boba-dilla Napoles-era irtengo ziren.

Aita Santuari aurkeztu behar zitzaion «Formula Instituti» idazteko lana taldeko lagunek Iñigori le-poratu zioten.

«Formula» honetako bost ataletan Lagundi berri-aren oinarriak finkatzen ziren:

1. Ordena berriak «Jesusen Lagundia» hartuko zuen izentzat.

2. Betiko hiru zinitz edo botoz gain Aita San-tuari obeditze berezia eskainiko zioten.

3. «Orduen Liturgia» koruan denak batera ez, baina bakarka errezatuko zuten.

4. Beharrezko penitentziarik ez zuten egingo, bo-rondatezkoak baizik.

5. Jesusen Lagundiko Buruzagi Nagusia bizitza guztirako izendatua izango zen.

FRANTZISKO XABIERREKOA MISIOLARI

(1540 - 1552)

Portugaleko errege Joan III.ak, Maskarenhas bere Erromako enbaxadariaren bitartez, Indiarako sei misiolari eskatu zizkion Iñigori. Loiolak erantzun zion: «Jesus! enbaxadari jauna, Indiara sei bidaltzen badituz, gainontzeko mundurako zer geratzen zait?»

Iñigok aurretik Rodrigues eta Bobadilla aukeratu zituen misiotarako, baina Bobadilla gaiso zegoenez eta Maskarenhasek presa izan, Xabier aukeratu zuen Indiarako. Iñigok Xabierri dei egin eta esan zion: «Badakizu, Frantzisko, Aita Santuak aginduta gure arteko bik Indiara joan behar dutela. Xabier, hau da zure eginkizuna», Xabierrek pozaren pozez erantzun zion: «hala bada, prest nago».

Galtzak eta sotana konpondu eta hurrengo egunean enbaxadariarekin Portugal aldera joan zen, handik gero Indiara itsasoz abiatzeko.

Indiako lurralde beroetan: Goa, Peskeria, Komorin, Zeilan eta gero Indonesiako irletan: Malaka, Anboino, Ternate eta abarretan Kristoren berri ona zabaldu ondoren, 1549. urtean Japoniaraino heldu zen.

Bi urte eman zituen Japoniako Kagosima, Iamagutxi eta Bungon predikatzen.

Eta Txinako inperio itxituan sartzeko prestaketak egiten ari zela, 1552. urtean Santzian irlako barkartadean hotzez eta gabezia gorrian, euskaraz otoizka, bere arima Jaunari eman zion... 46 urte zituen.



HIRU MILA MEZA JESUSEN LAGUNDIA SORTZEKO

PAULO III. AITA SANTUAK:
«JAINKOAREN ESPIRITUA DAGO HEMEN».
1540. urteko irailak 7.

«Formula Instituti» edo Jesusen Lagundiko «Sortze Agiria» Gaspar Kontarini kardinalak aurkeztu zion Paulo III. Aita Santuari. Honek Badia izena zuen dominikar bati eman zion azter zezan... Hiru hilabete barru Badiak bere eritzia eman zuen: «santuak eta onak» zirela, esanez.

«Formula Instituti» badiaren eritziarekin batean, Iñigok bere iloba gazte Antonio Araotz-koari eman zion lehenbaitlehen Aita Santuari aurkezteko.

Uda zen, eta Aita Santua Tivoliko gazteluan Kontarini kardinalarekin oporretan zegoen. Paulo III.ak Lagundi berriko Formula eta Badiaren eritzi ona irakurri zituenean, esan zuen: «Jainkoaren espiritua dago hemen». Hitz hauen bidez ahoz Jesusen Lagundia onartu zuen. 1539ko irailak 3 egun zituen.

Kontarini kardinalak Araotzen bidez paper bat bidali zion Iñigori berri pozgarri honen albistea emanez.

Aita Santuak Formula papera Ghinucci kardinalari eman zion behar zen dokumentua argitaratzeko. Baina kardinal hau Erromako kuriako arazoetan gizon jakituna zenez Formula haren garrantziaz berehala konturatu zen, eta horretarako «Brebe» delakorik ez, baina «Bulda» bat behar zela adierazi zuen. Eta gainera Formulako zenbait gauzekin ez zegoen ados. Eleiz-otoitzak koruko kantuan denak elkaturik ez egiteak, ez al zuen protestante usain gehiegi? Penitentziak egitera ez behartzea ere, ez al zen gehiegizko berrikeria? Baina batez ere zertarako Aita Santuari obeditzeko zinitz berezi hori? Ez al zeuden kristau guztiak horretara behartuak?

Aita Santuak orduan Bartolome Guidiccioni kardinalari eman zion formula parera honek azter zezan. Kardinal honek Formulako gauza guztiak zuzenak eta santuak aurkitu zituen, baina eleizan Ordena berri sortzerik ez zuen nahi. Lehenagotik ere, esaten zuen, Lateranense IV. konzilioak (1215) eta Lugdunengoak (1274) eskatzen zutenez, Ordena guztiak lau hauetan bildu behar ziren: beneditarrak, zistertarrak, frantziskotarrak eta dominikarrak. Orain Ordena berri bat gehiago?

Iñigo bere lagunekin kardinalarengana hitzegitera joan zen, baina honek oso haserre hartu zituen, esa-

nez: Aita Santuaren agindupean izan ez balitz ez zituela hartu ere egingo.

Iñigok ate hau itxita aurkitu zuenean Jainkoarengana eta gizonengana, biengana jo zuen. Aspaldiko Iñigoren esana zen: «arazo larri bat azaltzen denean, lehen Jainkoarengana jo behar da, dena Jainkoaren mende balego bezala; eta gero gizonengana, dena gizonen mende balego bezala». Jainkoarengana jo zuen asmo honen alde 3.000 meza eskainiz. Gero gizonengana, Italiako lagun beso-luzedunei Aita Santuari Lagundi Berriaren alde idazteko eskatuz.

Aita Santuaren eragitez Guidiccioni kardinala bigundu zen, baina Lagundi berriko profesoak 60 bakarrik izango zirela muga jarritz.

Paulo III.ak muga hau ontzat hartu zuen eta «Regimini militantis ecclesiae» buldaren bidez Jesusen Lagundia Eleizako Ordena berri bat bezala onartu zuen.

1540. urteko irailaren 7an, Jesusen Lagundia kanoniku legez ofizialki jaio zen.

Bai poz handia izango zutela Iñigok eta honen lagunek Jesusen Lagundia Aita Santuak ofizialki onartu zuela jakin zutenean. Xabierrek Indiako Kotxin hiritik Europako lagunei idazten die:

«Jainkoak nire bizitzan zehar egindako beste mesederen artean hau izan da bat, alegia: hil baino lehen nik hainbeste nahi nuen gure erregela eta bizitzeko era onartua izan dela jakitea. Eskerrak betiko Jainko gure Jaunari, bada, orain agerian azaldu nahi izan du, ezkutuan bere zerbitzari eta gure aita Iñaziori sentitzera eman ziona. Joan den urtean lurralde hauetatik idatzi nizuen zenbat meza eman nituen Guidiccioni kardinalarentzat. Zenbat diren ez dakit. Sinesiez adazue: ni bizi naizen artean meza guztiak kardinal agurgarri honentzat izango direla».

IÑIGO JESUSEN LAGUNDIKO BURUZAGI

Aita Santuak Jesusen Lagundia onartu zuen egunetan jesulagunak munduan zehar zabaltzen hasiak ziren: Xabier Indian, Rodrigues Portugalen, Fabre Ortiz doktorearekin Alemanian, Broet, Jai, Lainez eta Bobadilla Italiako hiri ezberdinetan. Erroman Iñigo, Kodure eta Salmeron bakarrik aurkitzen ziren.

Iñigok, Jesusen Lagundi berriari oinarrizko «lehen-legeak» emateko, baita betiko buruzagi bat aukeratzeko ere —ordurarte, bada, astero txandaka taldeko bat izaten zen buruzagi— Italiako hirietan lanean ari ziren lau lagunei Erromara etortzeko dei egin zien.

1541. urteko garizumarako Broet, Jay eta Lainez Erroman zeuden. Bobadillak, Aita Santuaren aginduz Bissignanon loturik, ez zuen etortzerik izan.

Iñigok eta Kodurek Jesusen Lagundiko «Lehen Konstituzioak» aurretik idatziak zituzten, eta Erroman zeuden sei lagunek onartu eta sinatu zituzten.

Hau eginez gero, Jesusen Lagundiko buruzagia aukeratu behar zen. Hiru egun eman zituzten otoitzean eta hausnarrean, eta apirilaren 5ean seirek euren

boto-paperak kutxatilan sartu zituzten, baita Xabier eta Rodrigesek Erromatik irten aurretik idatzirik utzi zituzten boto-paperak ere. Fabrek bere botoa Alemaniatik bidali zuen. Bobadillarena bakarrik falta zen. Botoak barruan, kutxatila giltzaz itxi zuten.

Beste hiru egun otoitzean ihardunez gero, apirilaren 8an kutxatila ireki, eta boto guztiak, bat ezik (Iñigorena), Iñigorentzat izan ziren.

Xabierrek Indiara joan aurretik bere botoa honela idatzita utzi zuen:

«Nik, Frantziskok, diot eta berriz ere baietz esaten dut, nire ustez, Lagundiko Buruzagi, denok obeditu behar dioguna, gure betiko eta egiazko Aita den Iñigo Jaunak izan behar duela, bada, honek, ez lan gutxiz, bildu gaitu, eta beronek gorde, zuzendu eta gehituko gaitu, on guztirako... Eta Iñigoren heriotzaren ondoren Aita Pedro izan dadila».

Iñigok bere botoa honela eman zuen:

«Jesus. Neu baztertuz, Buruzagi izateko botoa, boto-rik gehien duenaren alde ematen dut, denen onari begiratzuz, inor baztertua izan ez dadin».

«Erroman 1541 urteko apirilak 5».

«Iñigo».

(Hemen ere Iñigo sinatzen du).

Denen borondatea zein zen botoetatik argi ikus zitekeen, baina Iñigok ez zuen erabaki hori onartu. Bilduta zeudenei bene-benetan hitzegin zien, esanez: berak gehiago balio zuela obeditzeko obeditua izateko baino, eta bere lehengo eta oraingo hainbeste bekatu eta hutsegiteengatik kargu hori ezin zuela bere gain hartu, uste zuela, hori hartzera behartuta zegoela, behintzat, garbi ikusi arte. Horregatik bere lagu-

nei egun batzuk gehiago hartzeko eskatzen ziela gauza hori sakonago pentsa zezaten.

Lagunak, gogo onez ez bazen ere, Iñigoren eskarira jarri ziren, baina bost egun geroago egin zen boto-emateak ere ondorio berdina ekarri zuen.

Orduan Iñigok, arren eta arren, bere lagunei azken erabakia bere konfessorearen eskuetan uzteko baimena eskatu zien.

Joan zen, bada, Fray Teodosio Lodi frantzisko-tarrarengana, eta hiru egunez aitortza eginik, bere konfessoreari arimako makurrak eta gorputzeko gaisoaldi guztiak agertu zizkion.

Pazko egunean konfessoreak Iñigori bere erabakia argi agertu zion: «Buruzagitzat aukeratua izan zenez gero, kargu hori ez hartzea Espiritu Santuari kontra egitea zela».

Isildu zen Iñigo, eta fray Teodosiori bere eritzia paper batean idatzita emateko eskatu zion, eta honek hala egin zuen.

Iñigo Loiolakoak Jesusen Lagundiko Buruzagitza 1541. urteko apirilaren 19an onartu zuen.

Azken bilera hartan beste erabaki bat ere hartu zuten, alegia: Aita Santuaren buldak eskatzen zuenez apirilaren 22an San Paulo eleizan lekaide zinitzak edo profesia egingo zuten.

Egun hori etorri zenean, denak alkarrekin aitortu ondoren, Iñigok meza emanaz, lehenen berak eta gero besteek, Sakramentuko gure Jaunaren aurrean, euren Formula irakurri zuten: Jainkoari pobretasuna, kastitatea eta obediencia, bizitza guztirako emanaz, eta Aita Santuari, lurtean Jainkoaren ordekoari, menpetasun berezia eskainiz. Umeei dotrina irakasteko agintzaria ere egin zuten.

Mezatan denak, Kodure batez ere, debozio eta pozez gainezka negar malkoei ezin eutsirik egon omen ziren. Kodure hilabete geroago Jainkoaren zeruko pozetan sartuko zen.

Erroman egindakoa, beste lagunek ere bakoitzak bere tokian, berdin egin zuten. Fabrek Ratisbonan, Rodrigesek Portugaleko Evoran. Bobadilla luzaroan zalantzan egon zen. Loiola haren alde hiru egun ezer jan eta edan gabe otoitzean egon zen. Azkenean Erromara etorri, eta honek ere profesia egin zuen.

Xabier Indiarako Lisboan itsasoratu zenean —1541ko apirilak 7— Jesusen Lagundia ez zen oraindik onartua. Hamairu hilabete itsasoan egin ondoren Indiako Goara heldu zenean, ez zeukan Erromako berririk. Bi urte behar izan zituen Erromako albiste onak hartu ahal izateko. Xabierrek Goan 1543ko abenduan egin zuen bere Profesia. Eta Indiatik Europako bere lagunei honela idazten die: «Jakin behar duzue, anaia maiteok, zuek bidalitako eskutitzetatik zuen izenak moztu egin ditudala, eta nire profesako zinitzekin batera beti neure aldean daramatzadala. Hauekin poz handia hartzen bait dut».

«Zuen anaiarik txikiena.»
«Frantzisko».

Profesia egin, eta hurrengo egunean, 46 egun jarraituan, Iñigok umeei dotrina irakasten ihardun zuen.

IÑIGOREN EGUNEROKO BIZITZA

Bost etxe edo egoitza izan zituzten jesulagunek Erromako hirian:

1. etxea. Pintzio mendiko hegalean, Guirino Garzonik utzitako mahastian. Hiritik urruti egiten zen.

2. etxea. Ponte Sixtoren ondoan. Hemen lau hilabete bakarrik egin zituzten. Maiatza - urria, 1538.

3. etxea. Melangolo dorrearen ondoan. Antonio Frangipaniri akuran hartua. Etxe sorgindua omen zen. Bi urte t'erdi bizi izan ziren hemen. 1538 urria - 1541 otsaila.

4. etxea. Kamilo Astalli-ri akuran hartua. 1541 otsaila - 1544 iraila.

5. etxea. 1544 iraila... Estartako Andre Mariaren eleiza ondoan, erortzear zegoen etxe zaharra. Kapitolio ondoan, Erromako hiriaren erdian. Gaur «el Gesu» kokaturik dagoen lekuan.

Etxe zahar honetan Iñigoren gelak (gaur ere ikus daiteke) 5'50 metro zituen luzeeran, 3'50 zabaleran, eta 2'60 goieran.

Begira dezagun Iñigo idatz-mahaiaren aurrean patxaran eserita, eta idazteko tresnak, papera, eta Biblia eta Kenpis besterik ez mahai gainean. (Kenpis-eri liburuen «eperra» deitzen zion).

Apaletan liburu gutxi, baina egoki jarriak. Loiola ez zen liburu pila zalea. Gutxi baina mamitsuak maitatzen zituen. Gela pobrea zen, baina beti txukun eta garbi eukitzea nahi zuen.

Eguzki egunetan Iñigok bere lan-mahaia lagun baten baratzera ateratzen zuen, eta han zuhaitzen itzalean, lore eta barazki artean, lan egitea asko atsegin zuen.

Iñigo Erroman sartu zenetik heriotzeraino —19 urte— lau aldiz bakarrik irten zen hiritik: 1.º Montefiaskone-ra Paulo III. Aita Santuarekin hitzegiteko. 2.ºn. eta 3.ºn. Tivolira hango bizilagun eta Castel Madama-koen artean bakeak egiteko, eta hurrengo urtean jesulagunen ikastetxea inauguratzera. 4.ºn. Alvito-ra hango bi pertsona handikien artean bakeak egitera.

EGUNEROKO EGITARAUA

Loiolak bere semeak sei-zazpi ordu lo egitea nahi zuen, hori bait zen osagileen eritziz osasunerako onuragarriena. Baina berak lau-bost ordu bakarrik ematen zizkion loari.

Goizeko lauretan gutxi-gora-behera esnatzen zen, eta osagilearen aginduz goizeko lehen otoitza, ordu betekoa, ohetik jaiki gabe egiten zuen. Aita Santuak begitako minarengatik 1539. urtean «orduen liturgia» ahozko otoitzen ordeztatu zionez gero, goizeko ordu bete horretan bere deboziozko otoitzak egiten zituen.

Jaiki eta berehala meza emateko prestaketak egiten hasten zen. Iñigoren mezak, negar malkoz bustiak, gehienetan ordu bete irauten zuen. Meza ondoren bi ordu hartzen zituen eskerrak eman eta Jainkoarekin bakarrean egun hartako arazoak tratatzeko.

Garai hartan ez zen gosaltzeko ohiturarik, eta Iñigok berak ere ez zuen gosaltzen, baina osasunez malkal zebiltzanak baso erdi ardo ogi zati batekin lagunduta hartzea nahi zuen, «gero gogotsuago lan egin zezaten», berak zioenez.

Bazkaria neguan 10etan izaten zen, eta udan 11 etan. Astegunetan ez zuen komunitatearekin jaten, bere lantoki ondoan jangela txiki bat zuen lagun gutxirekin jateko. Jai egunetan guztiakin batera jaten zuen.

Gotzain edo beste gizon handiki edo lagunen bat hitzegitera edo zerbait konsultatzera etortzen zitzaiotanean, hitz hauekin bazkaltzera gonbidatzen zuen: **«penitentzia egin nahi baduzu gera zaitetz gurekin bazkaltzen».**

Joan Batista Anzola anaia sukaldariak, jateko gaiak arruntak izan arren, ondo maneatu eta gozatura mahaira ateratzeko agindua zeukan.

Eguerdian lehen barazkiak jaten ziren, neguan ego-siak eta udan gordinak. Gero gehienetan ahari haragia, edota bijili egunetan arraina. Mahai ondokotzat fruta edo gazta. Iñigok berak gutxi jaten omen zuen, baina besteak gustora jaten zutela ikusteak poz ematen zion.

Edateko beti ardo arrunta zuten, baina Iñigok beretzat, osagileen aginduz, ardo gozoa aparte zuen.

Bazkal ostean hizketan edo olgetan ordu beteko atsedena hartzen zuten. Ez zen orduan siesta egiteko ohiturarik.

Arratsaldez, egun ona bazen, lan-mahaia baratzerara atera, eta Polanko idazlari nekaezinak lagunduz, hartutako eskutitzei erantzuna ematen zien.

Afaria neguan 6etan eta udan 7etan izaten zen. Afaria bazkaria baino piska bat ugariagoa eta mardulagoa izaten zen: barazkiak, behi haragia, arraina, fruta eta gazta. Iñigok postretzat gaztainak jatea asko maite zuen «bere lurraldeko fruta zelako».

Afalondoan beste ordu beteko atsedena aldia, gaueko otoitzak, eta neke-neke eginik, ohearen altzo gozora.

Iñigok atsedena honen ondoren, hara-honaka ibiliz, errosarioa errezatzen zuen.

GORPUTZEZ NOLAKOA?

Ikus Ribadeneirak Iñigoren gorpuzkera nola agertzen duen:

«Bere anaiak gorputzez handiak eta lerdinak izan ziren arren, Iñigo ez zen handia. Hobe esango nuke, handira baino txikira gehiago jotzen zuela. Aurpegia agurgarria zuen. Bekoki zabala eta zimurrik gabea. Begiak sakonak. Betazalak, eten gabe negar malkoz bustirik zituelako, kizkurrak eta zimurrak. Belarriak tajuzkoak. Sudurra jaso eta kaketua. Larru azala kolore zurikoa zuen, baina ez gehiegi. Buru ile gabea kaska-soil agurgarria ikusten zitzaion. Aurpegia alai-agurgarri eta agurgarri-alaia zuen. Bere begitar-te bare eta baketsuak begiratzen zituenak alai jartzen zituen, eta bere aurpegi agurgarriak ingurukoak erabidera ekartzen zituen. Bizarra lehenaldian okozpean puntaduna zuen, baina gero hori aberatsen ohi-tura zela jakin zuenean, dena berdinean mozten hasi zen».

«Ibiltzean zango batetik errenka apur bat egiten zuen, baina ez itsuzki, bada, beti astiro ibiltzen zenez, ez zitzaion ia antz ematen. Oinazpiak hainbeste bide egin eta oinutsik ibiltzegtik gogor-gogor eginda

gailuz beterik zituen. Gaztetan indartsu eta osasun onekoa izan bazen ere, hainbeste gehiegizko penitentzia eta barauengatik makalaldi asko eta urdaileko min oso biziak jasan zituen».

Euskal idazle batek —Latiegi'tar Bizentek— Iñigoren barrengo irudia kolore egoki hauekin margotzen digu:

«Euskal umore gozoko gizona zen Iñigo, gure baserritarrak bezala patxadatsua, herri honetako apaizen antzeko bihotz samur zabalekoa, bertsolarien zorrotzasunaren ttantta bat ere bazuena, guztientzako lagun zintzoa, etsaienganako baretasunez betea, behin emandako hitzari balio handia erasten zion gizasemea, gauzak astiro pentsatzen zituen langile nekazaina. Euskalduna ez omen da apainkeria eta edergarri alperrekoen zalea, egokitasunarena baizik. Eta Iñigok moldatu zuen Lagundiaren ezaugarriarik nabariena hori omen da: egokitasuna».

«Ba zuen Iñigok jendea bereganatzeko grazia. Idazteko moduan ere —euskaldun izaki— hitz-labur-zalea zen. Euskaldun bezala hitz gutxikoa zela-eta, gizakume gogorra, latza, lehorra, bihotzeko sentimentuen itotzailea zela, diote batzuk; baina bere mendeko denak zoraturik bizi ziren euren irakaslearekin».

«Iñigo gizon argia zen, eta gizon-ezagutzaile zorrotza gainera. Arimako bizitzaren ezkutuki eta mixterio guztiak ere ederki ezagutzen zituen. Jainkoaren mirabe apal, gizadiaren zerbitzari alai, izadi osoaren maitale biguin, inori gorrotorik, eta ezertxori bildurrik ez ziona. Iñigok erakutsi nahi duen arimako bitzita ez da aszetika gogor, antzua, bateren batek esan ohi duen bezala; bihotz gozoko, Jainkoagandiko, egiatzko mistika ere bada. Bera ere benetako mistikua izan genduen».

«Idazlari guztiek aho batez esan ohi dute beti, Iñigo Loiolatarra, bere izakeraz, bere pentsa-moduz, bere lan egiteko tankeraz, aurren-aurrenik eta beste gauza guztiak baino lehenago Euskalduna dela, eta Jesusen Lagundia ere euskaldun baten ekintza dela».

Jantzia

Loiolak ez zuen nahi bere jesulaguntzat jazkera berezirik, bizi ziren tokiko apaizak bezala jantzi beharko zuten.

Iñigo beraren jantzia Erroman sotana beltza zen, kolore berdineko gerrikoaz lotuta. Buruan lau pikudun bonetea Erromako apaizak bezala. Oinetan etxean pantufla bigunak, eta kalean larruzko zapatak. Neguan barrengo lodia eta udan arina. Hotz egiten zenean sotana gainean manteo lodi bat jazten zuen berokitzat. Etxetik kanpora irteten zenean soin-gaineko arin bat jazten zuen, eta buruan larruzko kapelu hegal zabaleko bat eramaten, haizeak eramane ez zezan okospean bi lokarritik lotuta. Eskuan makila gisa kainabera bat. Oin bat bestea baino motzagoa zuelako zapata zorua lodiagoa zuen, bere errenka nolabait estaltzeko.

7.000 ESKUTITZ

Iñigoren Erromako txokotik egunero, uso zuri hegalari antzera, pilaka eskutitz mundu zabalera edatzen ziren: Jesusen Lagundikoentzat eta hauen adiskideentzat, eleiz-gizon eta herri-agintarientzat, jende handi eta xumeentzat, Europan, Ameriketan eta Indian Jainkoaren alorrean lanean ari ziren misiolari-entzat.

Baita Erromara egunero munduko lau alderdietatik Jesusen Lagundikoek euren «Aitari» bidalitako albiste jakingarriak etortzen ziren. Iñigok bere semeen eskutitzak bi eta hiru aldiz irakurtzen omen zituen, diote bere inguruan bizi zirenek, eta gero pozez beterik Jesusen Lagundiaren lagun eta ongileei erakusten omen zizkien. Eta behin esan omen zuen —zilegi bezaio behin behintzat gehiegikeria hau esatea— **«berak jakin nahi zukeela gauzez zenbat arkakusok hozka egiten zieten bere semeei».**

Iñigok, bere idazlari Polankoren bidez idatzitako 7.000 inguru eskutitz heldu dira galdu gabe guregainaino, baina askoz gehiago bidali zituela, ziur gara.

Eta eskutitzak aipatu ditugunez gero, merezi duela uste dut Iñigoren idazlari Polankoren berri zerbait ematea.

Joan Alfontso de Polanko (1517 - 1576)

Burgosen jaio zen, eta hamairu urte zituela Parisera ikastera joan zen. Gero Erroman Lainez ezagutu zuen, eta honekin gogo jardunak eginez, eta bere etxekoen eragozpen gogorrak gainditu ondoren, Jesusen Lagundian sartzea erabaki zuen, 1547 urte geroztik Iñigoren idazlari buru-argi, nekaezina izan zen. Zenbat lagundu zion Loiolari eskutitzak idazten, «konstituzioak» mamitzen, Jesusen Lagundiko arazoak konpontzen, ezin esaneko da. Iñigoren ondoren Lainez eta Borja Jesusen Lagundiko Buruzagi Nagusien idazlari izaten jarraitu zuen. Polankori zor diogu Jesusen Lagundiko sortzaile eta lehen lagunen berri txiki asko jakitea.

Eta Iñigoren laguntzaileen artean beste bi jesulagun ere aipatu beharrean nagoela, uste dut.

Jeronimo Nadal (1507 - 1580)

Mallorkakoa zen. Alkalan ikasi ondoren, Parisen Iñigo ezagutu zuen, baina Jaunaren deiari, aberatsa zelako, gorrarena egiten zion. Bere lurraldera itzultzea ez zuen bere barrenean bakerik aurkitzen. Erromara joan eta Jeronimo Domenech valentziarraren zaindaritzapean gogo jardunak egin zituen. Bere bokazioan bai-eta-ez zalantza askoren ondoren, Jesusen Lagundian 1545. urtean sartu zen. Nadali eman zion Iñigok Jesusen Lagundiko «Konstituzioak» Europan azaldu eta zabaltzeko eginkizuna.

Pedro Ribadeneira (1526 - 1611)

Mutil gazte bihurria zen. Hamalau urtekin Alejandro Farneseren zerbitzari bezala Erromara joan zen, baina hemen okerkeriaren bat egin zuenean, zigorraren beldurrez, Iñigoren atera jo zuen, baita honek maitekiro bere etxean hartu ere. Oso gazte zela Jesusen Lagundian sarturik 16 urtetan zehar Erroman Loiolaren ondoan bizi izan zen, eta gazte begi-zorrotz izanik, Iñigoren esan, egin eta gertakari asko guretzat paperean idatzirik utzi zituen. Ribadeneirari zor diogu latinez idatzitako Iñigoren lehen biografia.

KONSTITUZIOAK

Euskaldun bezala ez zen Iñigo Loiolakoa lege zalea. Jesusen Lagundiko semeentzat Jainkoaren maitasuna eta honen nahia beti egitea da Lege Nagusi Bakarra. Jesulagunak nonahi eta beti Jainkoaren aintzarik handienerako lan egin behar du...

Baina Aita Santuak hala agintzen duenez, dio Iñigok, eta beste eleiz ordenetako fundatzaileek hala egin zutenez, eta adimenak eta zuhurtziak ere hala eskatzen dutenez gero, Lege Nagusi edo Konstituzioak egin behar direla uste dugu, Jainkoaren bidean zuzenago ibiltzen lagun diezaguten.

Iñigok, Gipuzkoako Ahaide Nagusien odoleko izanik, agian ohartu gabe, Jesusen Lagundia «Elite» edo «Hoberen gutxi batzuen talde» bezala asmatu zuen. Jesusen Lagundian, beraz, hiru maila edo gradu izango ziren:

1. Lau zinitz edo botodunen profesoak.
2. Meza-dun laguntzaileak.
3. Anaia laguntzaileak.

Jesusen Lagundiko Konstituzioak asmatzea izan zen zalantzarik gabe Iñigoren Erromako lanik astun

eta garrantzitsuena. Hil zenean ia ia dena burututa utzi zuen.

Polanko idazlariak Iñigori, 1547. urtean hasita, asko lagundu zion beste ordenetako konstituzioak eskuratu, begiratu eta aztertzen, baita gero Iñigok esandakoa idatzi, zuzendu eta garbi jartzen. Otoitz askotan bustita, meza askotan Jainkoari argia eskatuta, eta Jaunaren agerkari gozoz onduta, egin ziren Jesusen Lagundiko Konstituzioak, dio ederki Mantzisoro euskaldun historilariak.

Loiolak nahi zuen Jesusen Lagundiko Konstituzioak izan zitezela:

Zabalak: edozein leku eta garaitan sortu zitezkeen gertakizun eta arazoei erantzuna emateko gai izan zitezen.

Argiak: zalantzak, eztabaida eta kezkek ahalik eta gehien kentzeko gauza izan zitezen.

Gozoak: ez legedi lehorraren antzekoak, Jainko eta giza-maitasunez bigunduak baizik.

Jesus da jesulagunen eredu eta gidari bakarra.

Jesusen Lagundian bizi nahi duenak Kristoren maitasunez zoraturik bizi behar du, munduak maite duena baztertu, eta Jainkoak maite duena bakarrik maitatzeko.

Jesusen Lagundiaren helburua ez da soilik bakoitzak bere arima salbatu eta santu egitea, baizik-eta era berean lagun hurkoari bere arima salbatzen eta santutzen laguntzea.

Jesusen Lagundikoak beti eta nonahi Jainkoaren aintzarik handienerako lan egin behar du, beharrik handiena den lekuan, fruiturik ugariena bildu daitekeen lanean, eta fruitu horrek luzaroen iraun lezakeen moduan. Gutxi batzuen onaren aurretik, askoren onari gehiago begiratu behar zaio.

Jesulagunak beti prest egon behar du Aita santuak bidalitako edozein toki eta lanetara joateko.

Iñigo Loiolakoak, Frantzisko Xabierrekoak bezaia, Jesusen Lagundia «maitasun lagundia» izan zedila nahi zuen, horregatik nagusiek buru-argiak, zentzudunak, baina batez ere bihotz onekoak izan behar dute.

Menpekoek nagusiei obeditu egin behar diete, ez agindutakoa ondo eginez bakarrik, baita agindutakoa alai eginez, eta hori dela hoberena pentsatuz. Hau zen Iñigok jesulagunei eskatzen zien benetako penitentzia: egitezko, bihotzezko eta adimenezko obeditzia.

Gauza guztietan jesulagunek erdi-bidera etorri behar dute:

Bizi tankera ez gogorregia osasuna galtzeraino, ezta bigunegia ere arimaren adorea makaldu ez dadin.

Jazkera lurralde hartako apaizak jazten diren bezalakoa.

Jana, edana eta lo egitea lurralde hartako osagi-leek osasunerako onena dela gomendatzen dutena.

Penitentzia eta barau nahitaezkorik ez da izango, baina bakoitzak jatean, edatean eta lo egitean norbere arimaren onerako litzatekeena gutxitu lezake, lan egiteko osasunari kalte egiten ez dion bitartean. Iñigok sarritan esaten zuen: «**barau eta penitentzietan beste eleizako ordenak gu baino aurrerago joan daitezke, baina obeditziak izan behar du jesulagunen ezaugarrikerik bereziena**».

Nobizialdia bi urtekoa izango da, eta ikasketak luzeak.

Jesusen Lagundiko buruzagia bizitza guztirako izango da, eta honek aukeratuko ditu Lagundiko beste nagusiak.

Jesusen Lagundian ez dira «liturgi orduak» koruan denak batera errezatuko, bakarka baizik, arimen alde lan egiteko aske-libreago egon daitezten. Loiola euskaldunak kantua asko maite zuen, eta sarritan esan ohi zuen, bere gogoan egingo balu Jesusen Lagundian koruan kantua jarriko zukeela, baina arimen onak beste gauza bat eskatzen zuela, iruditzen zitzaioela. Jesusen Lagundiak behar zuen izan, Iñigoren ustez, —gerrako alegi bat harturik—zaldizko talde baten antzeko, arriskurik handiena den tokira ahalik eta lasterren iristeko.

AITA SANTUAK

Loiola Erroman bizi izan zen bitartean lau Aita Santu ezagutu zituen: Paulo III.a, 1534-1550. Julio III.a, 1550-1555. Martzelo II.a, 1555. Paulo IV.a, 1555-1559.

Paulo III.a

Eleizaren Buru izendatua izan zenez geroztik gazetako arinkeriak utzi zituen, eta Eleizaren gorengo karguak eskatzen zuen bezala bizitzen hasi zen. Hala ere bere bi seme eta iloben aldera eleizako karguetan gehiegi makurtu zen. Baina eleizaren berritzea gogoan izanik kardinal kargurako gizon zintzo eta jatorrak aukeratu zituen: Gian Pietro Karafa, Gaspar Kontarini, Sadoletto, Cervini eta abar. Gizon hauekin Trentoko Kontzilioari hasiera eman nahi izan zion. Paulo eta Loiola beti alkar ondo aditu ziren. Aita Santu honi dagokio Jesusen Lagundiaren sortzea, eta gogo jardunen liburutxoaren onartzea.

Julio III.a

Trenton kardinal zela ezagutu zituen jesulagunak. Eleizaren Buru egin zutenez gero, Jesusen Lagundi-

ari asko lagundu zion. Eleiza eraberritzeko Trentoko Kontzilioari jarraipena eman zion; baina bere lau iloba bihurri kardinal eginik eleizari kalte handia egin zion. Pedro Kanisio gotzain eta Borjako Frantzisko kardenal egin nahi izan zituen, eta ez zitzaion gutxi Iñigori kosta Aita Santuari sines araztea, eleizaren onerako hobe zela goiko karguetan baino, humiltasunean Jainkoa zerbitzea. Julio III.ak Loiola asko maitate zuen, eta honek eskatutako gauza guztiak gogoz ematen zizkion. Jesusen Lagundiko Konstituzioak ere beronek onartu eta bedeinkatu zituen.

Martzelo II.a

Gizon santua benetan. Alderdikerietan ez erortzeko bere etxeok Erromatik aldendu zituen. Aurreko Aita Santuaren iloba kardinal bihurriak arrasto zuzenean sartu zituen. Kuriako gehiegizko gastuak behartsuei laguntzeko asko murriztu zituen. Hauxe dugu eleizak behar zuen Aita Santua, zioen kristau herriak... Baina kargua hartu eta 21 egun barru, 54 urtekin, hil egin zen. Martzelo II.a eta Loiola lagun mamiak ziren, biek eleizaren berritzea gogoko bait zuten.

Paulo IV.a

Martzelo II.a ustekabean hil zenean, berriz ere kardinalak Eleizaren Buruzagi berria aukeratzeko konklabean sartu ziren. Handik egun gutxira Erromako kanpaiak albiste alaia zabaltzen hasi ziren: Aita Santu berria dugu. Nor ote zen?

Ordu hartan Iñigo bere gelan lanean ari omen zen, eta Karafa izena aditu zuenean, barrengo bihotz ikaraz aurpegia ere zuri-zuri jarri omen zitzaion, eta gorputzeko hezurak ere dardarka hasi. Zutitu eta isilean kaperara joan omen zen... Ordu laurden barru, ezer ez gerta ez balitz bezala, aurpegia oskarbi eta bare, bere lanera itzuli omen zen. Hau zen Iñigoren susmo txarra: Karafak, Teatinoen sortzaileak, ez ote zuen, lehenago Venezian nahi izan zuen bezala, Jesusen Lagundia bere Ordenarekin bat egingo?

Iñigok behin esan omen zuen: «Jesusen Lagundia nire errurik gabe, gatza uretan bezala desegingo baltz, ordu laurdengo otoitza aski nukeela uste dut, berriro ere nere barrengo bakea eskuratzeko». Ez ote zuen hori gertaera honetan esango?

Baina Iñigorentzat eleizaren Buru Gorengana ez zen Paulo edo Julio edo Martzelo... Erromako Aita Santua Jesukristoren lurreko Bikario edo Ordekoa zen.

Joan zen, bada, Loiolako fededuna Aita Santu berriari oinetan musu ematera. Paulok oso maitagarri hartu zuen. Nolanahi ere biak ezpal berdineko jainkozaleak ziren. Bazekien Iñigok Aita Santu berriak koruan alkaturik eleiz otoitzak kantuan egitea asko maite zuela, eta horregatik igande eta jaietan jesulagunek, Iñigok agindurik, hala egiten hasi ziren... Gerago, Loiola hil zenean, Paulo IV.ak egunero «orduen Liturgia» koruan kantuan batera egitera jesulagunak behartu zituen... Baina, Paulo IV.a hil zenean, hurrengo Eleizaren Buru Pio IV.ak urak lehen-go errekarra ekarri zituen.

TRENTOKO KONTZILIOA

(1545 - 1563)

Errenazimendu garaian Erromako eleiza katolikuen egoera tristea zer-nolako zen jakiteko Utrech-ko Adriano kardinalaren hitzak ekarriko ditut. Geroago Aita Santu izango zen eleiz-gizon zintzo honek, 1522. urtean, Nurenberg-era bidali zuen bere «legatuari» honelako hau agindu zion hango bileran esateko:

«Esan ezazu: Jainkoak proba hau eleizari bidali diola kristauen bekatuengatik, batez ere eleiz-gizon eta eleiz-kargudun dunen bekatuengatik. Liburu Santuek sarri askotan erakusten digute herriaren bekatuen iturburu zikina eleiz-gizonen gaiztakerian aurkitzen dela. Erromako Aulki Santuan bertan ere aspaldidanik gaiztakeria nagusi izan da. Ez gaitezen, bada, harritu gaitza burutik soin-ataletara igaro bada. Guk guztiok zuzentasun bidea utzi dugu. Aspaldidanik ez dugu onik egin. Jainkoaren aurrean humiltasunez apalki jarri, eta bihotz berritu gaitezen».

Eleizaren bihotz berritzea egiteko bildu zen Trentoko Kontzilioa. Eleiz-biltzarre famatu honek hiru ekitaldi izan zituen: Lehena 1545tik 1547ra. Bigarrena 1551tik 1552ra. Hirugarrena 1562tik 1563ra.

Paulo III.ak lehen ekitaldira hiru jesulagun joan zitezela agindu zuen. Lainez, Salmeron eta Fabre izan ziren aukeratuak, baina Fabre Espainiatik Trentora bidean Erroman Iñigoren besoetan santuki hil zen. Jay aurretik Trenton zegoen Augsburgoko gotzainaren prokuratore bezala.

Lehen egunetan kontzilioko arduradunek, espainiarrek batez ere, jesulagunen itxura apalari begiraturik, gutxitzat hartu ziztuzten, baina Lainezek lehen agertaldian hitzegin zuenean, bere jakinduriaz batzarkideak txunditurik utzi zituen... «Justificatio» delakolari buruz Lainezek egindako txostena kontzilioko «Acta»etara oso osorik pasa zedila eskatu zuten hango gotzaiek.

Lehen ekinaldi honen azken aldera, Truchess kardinalak aginduta, Pedro Kanisius alemaniarra ere beste jesulagunekin alkartu zen.

Lau urte geroago egin zen bigarren ekinaldian Lainezek egin zuen «Mezako Opariari» buruzko txostena ere asko txalotua izan zen.

Maurizio Sajoniakoa luterotarren aldera pasa zenean, Karlos Enperadorearen etsaiek Trentoko hiria protestanteen eskuetan erortzeko arriskuan jarri zuten, eta kontzilioa egun hoberen zain desegin zen.

Hirugarren ekinaldia ez zen irekiko hamar urte geroagorarte. Baina orain jesulagunek beste lanetan ari ziren.

Beste ondorio on askoren artean kontzilio honek jesulagunentzat etekin pozgarri hau ekarri zuen: Jesusen Lagundia hango gotzainen artean ezagutua izatea.

Baita euskaldunentzat beste fruitu eder bat ere: Truchess kardinalak aginduta Martin Olabe arabarra, Alkalan ezagutu duguna, Trentora joan zen, eta gogo jardunak eginik, 1552. urtean Jesusen Lagundian sartu zen.

SANTA MARTA

Emakume galdu asko omen zeuden errenazimentu garai hartan Italiako hirietan. Erroman zituen 50.000 bizilagunen artean 3.000 «Mari bideetako» bizi omen ziren, eta hauen artean ba omen ziren «cortigiane onorate» esaten zieten emakume kulturadun gazteak, hiriko aberatsen artean ondo ikusiak. Gazte eder hauek euren zaldi gurdi ederretan, inoren lotsarik gabe, hiriko ibil bideetatik harro paseatzen omen ziren, euren miresleen begien aurrean.

Bergamon Jeronimo Emiliano santua, Venezian Gaetano de Thiene santua, eta Erroman Iñigo Loiolakoa gaitz hau garbitzeko ahaleginak egiten hasi ziren.

Bazen lehendik ere Erroman «via delle convertite»n halako emakumeentzat eraikitako etxe berezi bat. Larogei emakume bizi ziren bertan; baina gordeleku honetan gero lekaime izan nahi zutenak bakarrik hartzen zituzten.

Beste etxe bat behar zen arriskuan zeuden neskak ezkondu arte gordetzeko, eta bizi berritu nahi zuten eroritakoei laguntza emateko. Baina inork ez zuen holako lan arriskutsuan sartu nahi.

Jesulagunen eleiza aurreko enparantzaren lur azpitik antzinako Erromako etxe-oinarrien harri handi batzuk atera zituzten. Iñigok etxeko diruzainari harri haiek saltzeko agindu zion, eta salmentako 200 dukat-ekin «Santa Marta» izeneko etxea eraiki zuen, gal zorian zeuden emakumeen babesleku izan zedin.

Lan honetan Loiolari Aita Diego Egiakoak asko lagundu zion, baita Erroman Karlos V. enbaxadariaren emazte zen Leonor Osoriok ere.

«Gogoratzen naiz, «dio Ribadeneirak», halako «mari bideetako» ezagun bati, bere bizitza okerra utzi nahi zuenean, nola Iñigok Erromako kaleetatik lagundu zion, babes lekura eraman arte. Ikustekoa zen Iñigo zaharra aurretik, halako neska gazte ederra atzean zuelarik, Santa Marta etxera bidean».

«Eta norbaitek erasotzen bazion, esanez: halako lanak alferrikakoak zirela, bada, emakume horiek pekatuan gogorturik, berriz ere oker bidera erraz jotzen zutela, Loiolak erantzuten zion: **«nire neke eta lan guztiakin holako emakume batek gau bat soilik, pekaturik egin gabe igarotzea lortuko banu, aski litza-teke niretzat».**

Santa Marta etxe honek sei-zazpi urtetan zehar 300 neska erortzeko bidetik zaindu omen zituen.

JUDUAK

Iñigori Alkalako espetxean Figeroa epaileak, ea juduak bezala larunbata-zapatuak jai egiten zituen galdetu zionean, gipuzkoarrak haserre erantzun zion: **nire lurraldean ez da judurik.**

Baina gero zahartzaroan juduei buruz Loiolak bere pentsakera guztiz aldaturik zeukan.

Bermeoko Pedro Zarate Erroman Iñigorekin bazkaltzen ari zela, Loiolak esan omen zuen: **«nik Jainkoaren mesede handitzat hartuko nuke, odolez judutar banintz».**

Bermeotarrak hori entzunez lurrera txistua bota, eta harriturik «aitaren» eginez, esan omen zuen: nola judua? Eta gipuzkoarrak erantzun omen zion: Orain Pedro Zarate Jauna, entzun iezadazu: **Jesus gure Jaunaren eta Andre Mariaren ahaide odolez izatea, ez al da gauza handia?...**

Erromako juduak 500 inguru izango ziren, eta kristauekin harreman onak zituzten. Baina Kristoren fede hartu nahi zutenek oztopo handiak aurkitzen zituzten bidean.

Alde batetik beste juduek holakoak «traidore» bezala hartzen zituzten, etxeko ondorea, diruak eta beste eskubideak ukatuz.

Bestetik kristau zaharrak ez ziren konbertitu berriekin fidatzen.

Loiolak Aita Santuarengandik, 1542 urtean, «Brebe» bat iritsi zuen, kristau egiten ziren juduei laguntza emateko, eta gainera bi etxe prestatu zituen, bata gizonezkoentzat eta bestea emakumeentzat, bataiatu nahi zutenak onartzeko. Eta Inozenzio del Monte kardinala jarri zuen «kristaugaiien etxe» horren zaindari.

Kristoren fedea hartu zuten juduak, lehen tantoka zirenak, orain asko ugaritu omen ziren.

ERROMAKO IKASTETXEA

1551. urtean «Via d'Aracoeli» kaletik igarotzen ziren erromakoek hango etxe bateko atean honelako iragarki bat irakur zezaketen: «Schola de grammatica, d'humanita e dottrina cristiana». «Gratis».

«Gratis» hitzak harriturik josten zituen.

Laster bete zen eskola umez punta-puntaraino. Bost hilabete geroago jesulagunek beste etxe bat alokatu behar izan zuten hainbeste ikasleei toki emateko.

Eskola publikuetako maisuak haserre bizian jarri ziren «gratis» horrek kalte handia egiten ziela uste zutelako. Baina, oztopoak oztopo, eskolak ikasgaiez eta ikaslez goraka zihoazen. Hara joaten ziren ikas-tera jesulagun berri gazteak ere.

Irakasleak lurralde guztietakoak ziren, jakintsuak denak.

Martin Olabe, euskaldunak, teologia eskolastika irakasten zuen.

Baltasar Torres, kastilarrak, matematika eta fisika. Fulvio Cardulo, italiarrak, erretorika.

Andre des Freux (Frusio), frantziarrak, grekoa.

Baina irakasleak eta ikasleak gehiago, gastuak ere ugariago.

Frantzisko Borjakoak atera zuen Erromako ikastetxe hau zorren zulo ilunetik...

Geroago, urteak joanez, 1583an, Gregorio XIII. Aita Santuak Erromako ikastetxe apala gorengo mailaraino jaso zuen, gaurko izen handiko «Gregoriana Unibertsitatea» izatera iristeraino.

IÑIGO ETA LUTERO

Loiolak ez zuen Jesusen Lagundia Luterotarrekin borrokatzeko sortu, Jainkoa zerbitzeko baizik. Jainkoaren aintzarik handienerako.

Hala ere Iñigok, protestanteek Eleiza Katolikoari egindako kalteak, ondo ezagutu zituen.

Parisen ikasle zela —1534. urtean— mezako opariaren aurka agertu ziren «paskinek» katolikuen artean nolako amorruak sortu zituen, ezagutu zuen. Parisko lagunek Erromarako bidean, Suizatik igarotzean, luterotarrek hango eleizetan egindako kalte ikaragarriak Iñigok, noski, entzungo zituen. Erroman bertan ere luteru-zaleengandik eraso gogorrak jasan behar izan zituen.

Ondoegi zekien Iñigok Eleiza katolikuaren bihotz berritzea ez zela luterozale eta katoliku erromatarren borrokatik sortuko, kristau herriaren, eta batez ere eleiz artzainen on bihurtzetik baizik.

Alemaniarra bidali zituen Fabre, Jay eta Bobadillari protestanteekin nola ihardun jakiteko, kontseju hauek eman zizkien:

1. Otoitz egin. Fedea Jainkoak gratis emandako dohain bat da-eta.
2. Bizitza santua. Hitz ederrei baino jendeak hizlariaren bizitzari gehiago begiratzen diolako.
3. Maitasuna. Herexeak benetan eta bihotzez maitatu, haien gogo ona aurretik irabazteko.
4. Dotrina argia. Luterotarren dotrina makurra gezurtatzea baino, dotrina katolikoa zein den argi eta garbi erakustea, hobe da.
5. Bihotzak garbitu. Bihotz okerretik, fedean ere okertzea dator. Bihotz zuzenetik, fedea ere zuzentzea.
6. Ikastetxeak eraiki. Heziketa jator baten bidez gaztedi berria sortzeko.

HIRU EMAKUME JESUSEN LAGUNDIKO?

Bartzelonako Isabel Roser, Iñigori Alkalan eta Parisen hainbeste lagundu zion andrea, 1542an alargundu zenean, bere neskame Frantziska Kruiles-ekin Erromara joan zen Iñigoren agindupean Jesusen Lagundian sartzeko asmoz. Italian beste lagun bat, Lukrezia Biadena, alkartu zitzaion.

Isabelek Aita Santuagandik, guretzat gaur harri-garria bada ere, hirurak Jesusen Lagundian profesioa egiteko baimena lortu zuen.

Iñigok Santa Marta etxea izendatu zien bizitokitzat, han babesturik zeuden neska gazteei lagun ziezaieten. Baita gainera Anaia Esteban Egiakoa eman zien euren lanetan laguntzeko.

Gauzak ondo zihoazen, baina Isabelen iloba gazte bat Erromara etorri zenean, bideak okertzen hasi ziren. Iloba honek zioen, Iñigok bere izebari Jainkoaren zerbitzuaren aitzakiaz diru asko ateratzen ziola.

Loiolak gauzak garbi jarri nahi zituen... Eztabaida hau auzitara eraman, eta ikerketak eginez, gauzak honela agertu ziren: Isabelek Iñigori 144 dukat eman zizkiola, baina Iñigok Isabeli jana, jantzia, etxea eta abarretan 300 dukat.

Gauzak honela, Iñigok Aita Santuarengandik Jesusen Lagundia emakumeen arduratik betiko kentzeko agiri bat lortu zuen.

Isabel, Jesusen Lagundiko profesiotik aske, Bartzelonara itzuli zen, eta han frantziskotarren komentuan sarturik, santuki bizi izan zen. Handia izango zen, noski, Iñigoren bihotz mina bere ongilearekin honela jokatu beharrean aurkitzea, baina ez zuen Loiolak hori emakumeen aurkako zelako egin, bada, Manresa, Bartzelona, Alkala eta Salamankan emakume asko zituen bere inguruan. Emakumeen ardura hartzea Iñigori garrantzi gehiagoko jainko-lanetarako atzerabide izan zitekeela iruditzen zitzaion.

Joana Austriakoa bai Jesusen Lagundiko

Joana Austriakoa, Karlos V. enperadorearen alaba, Felipe II.aren arreba, hau izan zen benetan Jesusen Lagundiko emakume bakarra.

1535. urtean jaio, eta 17 zituela Portugaleko Errege Joan Manuelekin ezkondu zen. Seme bat izan zuen, Sebastian, Alkazarkibirko guduketa negargarri hartan bizitza galdu zuena.

Ezkondu eta bi urte barru alargundu zen, eta Felipe II.ak, Maria Tudor-ekin ezkontzeko Inglaterrara joan zenenan, Joana bere arreba, Espainian errege-orde edo regente bezala utzi zuen. Joana Austriakoa, Borjako Frantziskoren babespean hezia, emakume on eta zintzoa zen, Jainkozale benetakoa.

Espainiako regente zelarik Aita Santuari Jesusen Lagundiko zinitzak egiteko baimena eskatu zion, eta honek bere azken eritzia Jesusen Lagundiko lau jakintsuen eskuetan utzi zuen: Nadal, Olabe, Kamara

eta Polanko. Laukote honek, isilperik gordeenean «Mateo Santxez» zelakoaren eskabidea alde guztietatik zehatz-mehatz aztertu ondoren, zera erabaki zuen: «Mateo Santxez» pertsona hori (Joana Austriakoa), konfesioko isilpe-sigilopean bezala, Jesusen Lagundian hartua izan zitekeela zinitz arruntak eginez. Baina pertsona horrek ez zuela, ez jantzian, ez bizi moduan, ezta beste edozertan, bere aldaketaren agiririk inondikan emango.

Historialariek diote, Madrilgo Joanaren etxeak, errege jauregiaren baino, komentu baten antz handiagoa zuela. 1573. urtean Jaunaren besoetan hil zen.

BAZIREN BESTE SANTU BATZUK ERE...

Iñigo eta honen lagunak Erroman, Italian eta beste kristau lurraldeetan burututako lan harrigarriak irakurriz gero, bada zeru zabala zulotxo batetik bakarrik ikusteko arriskua, alegia: kristau herrietako apostolu bakarrak jesulagunak izan zirela pentsatzea.

Baziren, zorionez, garai hartan gizon eta emakume jator eta santu asko Jainkoaren eleizaren alde egoki, zintzo eta kementsu lan egiten zutenak:

Portugalen Joan de Dios, 1550; Espainian, Joan Avilakoa 1569; Teresa Avilakoa, 1582; Joan Gurutzekoa, 1591; Pedro Alkantarakoa, 1562; Inghaterran, Fisher kardinala eta Tomas More martiriak, 1535; Italian Antonio Maria Zakkaria, Milanen Bernabitarren ordena sortu zuena, 1539; Joana Merizikoa neskak hezitzekeo «ursulinak» sortu zituena, 1540; Gaetano Thienekoa, Karafarekin batera, Teatinoen ordena fundatu zuena, 1547; Felipe Nerikoa, «Oratorioko apaiz erregelagunak» sortu zituena, 1595... Baita santuen mailara, jasoak izan ez diren beste asko eta asko ere... Baina orain Loiolarekin zerbait harreman izan zuten lau santu bakarrik ekarriko ditut azalera.

Gaetano Thienekoa (1480 - 1547)

Vizenan jaioa. Txikitandik otoitz zalea. 24 urtekin Paduan doktore maila eskuratu zuen. Gero Venezian, Gian Pietro Karafarekin batera, apaizei santutasun bidean laguntzeko «Eleiz-gizon erregelagunen» ordena fundatu zuen. Apaiz talde honi Karafa Theateko gotzaina zelako herriak «teatinoak» esaten zion. Gauzak nahasirik Jesulagunak ere hasieran izen honekin ezagutuak izan ziren. Avilako Teresak ere jesulagunei «teatinoak» deitzen die... Gaetano santuaren kongregazio hau Venezian, Napolesen, Veronan, Vizenan, Erroman asko ugaritu zen, apaizei on asko eginez.

Goiago ikusi dugu, nola Karafak Jesusen Lagundia Teatinoekin bat egitea nahi izan zuen, eta nola Iñigok ahalegin guztiz gogo honi aurka egin zion.

Felipe Nerikoa (1515 - 1595)

Florentziar santu, gozo, alai honi «Pippo buono» esaten zioten bere herritarrek.

18 urtekin Erromara joan zen. Irrifarrerik gozotzen ezpainetan, edozeini laguntzeko beti omen zegoen prest. Pobre eta gaisoen laguntzaile, gau osoak otortzen ematen zituen. Apaiz eginik ez omen zuen sekula bere umore onik galdu. Gazteak erakartzeko dohain berezi bat zuen. Taldeka joaten omen ziren «Pippo buonorekin» dibertitzera. Humiltasuna eta maitasuna ziren bere santutasunaren helburuak. Feliperen hitzaldiak sakonak, baina edozeinik ulertzeko erako errazak omen ziren.

Apaizak batera biziz santuago eta lagun hurkoari emanagoak izan zitezten, «Oratorioko Kongregazioa» fundatu zuen, ospitaleak, gartzelak eta zaharrak zainduz, Jainkoaren errukia herrian zabal zezaten.

«Oratorio» izeneko beste festa batzuk ere antolatu zituen, soinugailu, abesti, hitzaldi eta irakurgai alaien bidez, erromatarrek euren asti aldiak anaitasun ederrean igaro ahal zituzten.

Felipe Nerikoa Erromako hirian oso ezaguna eta maitatua zen. Aitorlekuan bekatariei zeruko ateak zabaltzen ordu luzeak ematen omen zituen. Ehundaka gende xume baita 25 kardinal ere berarekin aitorzten omen ziren.

Iñigo Loiolakoa bere lagunekin eta Felipe Nerikoa bere oratoriokoekin, 50.000 bizilagun besterik ez zituen Erromako zikinkeria moralak garbitzeko bi iturri garbi ziren. Hala ere harritzekoa da bi santu hauek, beti oso ondo eraman arren, nola ez zuten euren artean harreman estuagorik izan.

Antonio Maria Zakkaria (1502 - 1539)

Milanen, beste bi lagun, Bartolome Ferrari eta Jakobo Morgia-rekin, «San Paulo apaiz erreguladun» ordena fundatu zuen, aitortzak entzun, dotrina irakatsi eta gaisoei eta gartzelatuei laguntzeko.

Italian, Alemanian, Frantziar, Belgikan, asko zabaldu ziren, eta Ipar-Europako katoliku fede makala sendotzen lan bikaina egin zuten. Gero Txina eta beste misio lurraldetara ere zabaldu ziren.

Iñigo hil zenean «Barnabitek», hala deitzen zaie Zakkariaren semeei, gutun samur bat bidali zieten Erromako jesulagunei, Aitaren galtzeagatik dolu-minak emanez.

Baita Zakkariak asko lagundu zion Luisa Torreli andreari ere, neska gazteak hezitzeko «Anjelikak» izeneko kongregazioa sortzen.

Joan Avilakoa (1500 - 1569)

Toledo ondoko Almodovar herrian jaio zen. Alkalan ikasi eta Meza eman ondoren, Andaluzia aldean herriz herri misioak ematen ihardun zuen. Bere bizitza santu eta hitzaldi sutsuekin makina bat bekatari bihotz berritzera, eta beste asko santutasun gailurrera jaso zituen.

Andaluziako jauntxoak bere hitzaldietan gogor jorratzen zituen, eta honegatik hauek, inkisizioaren bidez, gartzelan sartu zuten... Aldi luzean katepean egon ondoren, bere errugabetasuna azaldu eta aske geratu zenean, Sevillako herriak txaloka pozez zoratzten hartu zuen... Liburu mamiak ere idatzi zituen.

Gizon santu honek Jesusen Lagundia asko maite zuen, eta gazte asko Iñigoren ordenara zuzendu zituen. Behin baino gehiagotan aditzera eman omen zuen: «nik buruan nuen asmoa Loiolako Iñigok Jesusen Lagundia sortuz egia izatera eramana du». Bera ere lagundikoen artean bizitzeko asmotan ibili omen zen. Loiolak Avilari «Itun Zaharreko Kutxa» deitzen zion.

SANTUZ INGURATURIK

Iñigo bera santu izanik, gizon santuz inguraturik bizi izan zen.

Frantzisko Xabierreko Santua (1506 - 1552)

Gizaldi hartako misiolaririk ospetsuena, Jesusen berri ona India eta Japoniaraino edatu zuena. Nafar santu honen albisteak liburu honetan han eta hemen agertu dira. Orain erantsiko dena honetarako baka- rrik da: Iñigo eta Xabier zenbateraino maitasunez alkaturik bizi ziren erakusteko. Urrutiko lurralde haietatik honela idazten dio Xabierrek Loiolari:

«Neure egiazko aita: Japoniatik nentorrela zure eskutitz bat hartu dut, eta zure osasun eta bizitzaren berri jakinik, nire arima pozez bete da, batez ere eskutitzaren azken aldean honelako hau irakurri dudanean: «Guztiz zurea, inoiz ere zutaz ezin ahazturik. Iñazio». Hitz hauek negarrez irakurri ditut, eta orain ere negarrez idazten ari naiz, lehengo denboraz oroi- turik, nolako maitasun handia beti izan, eta orain ere didazun jakinik».

«Kotxin 1552 otsaila 29».
«Zure seme txikiena baina urrutian handiena».
«Frantzisko».

Pedro Fabre dohatsua (1506 - 1546)

Eskolaz Parisen Iñigoren maisua, baina espirituz honen semea. Dohatsu honi buruz ere zerbait baino gehiago liburu honetan esan dugu, baina, merezi du eta, zerbait gehiago ager dezagun. Gizon gozo honek bere biziera xalo eta tolesgabeaz santutasuna maitagarri dela erakutsiz, Alemania, Italia, Espainia eta Portugalen bere santutasunaren usain gozoa edatu zuen. Izadian eta gertakari guztietan Jainkoaren aurpegia ikusten zuen. Trentoko kontzilia bidean, ikusi dugunez, Erroman bere arima dohatsua Jainkoaren eskuetan bakez utzi zuen.

Pedro Kanisius (1527- 1587). Pieter de Hont

Pedro Fabrek Alemanian zegoela gizon jakintsu eta santu bat irabazi zuen Jesusen Lagundirako: Pedro Kanisius, Nimegan jaioa.

Gazte jator honek bere bizitza nora jo ez zuen asmatzen. Alde batetik bakartien otoitz bizitza bake-tsua maite zuen, baina bestetik Alemaniako eleizaren egoera tristea ikusirik, pena handia hartzen zuen.

Fabrekin gogo-jardunak egin, eta bere bizitzaren etorkizuna argi ikusten hasi zen. Teologia ikasi, eta 1545ean Jesusen Lagundian izena eman zuen. Trentoko Kontzilia Jayri laguntzera bidali zuten. Gero Erromara Iñigo ezagutu eta honengandik Lagundiko

espiritua arnas hartzera joan zen. Alemaniara itzulirik Ingolstadt-eko unibertsitateko erretore izendatu zuten, eta gero Vienako ikastetxeko buruzagi. Jakintsu handia zenez berriz ere Trentoko Kontzilia bidali zuten. Hiru aldiz eskaini zioten Vienako gotzain izatea, eta beste hiru aldiz ezetza eman zuen.

Loiolak Alemania guztiko jesulagunen buru jarri zuen, eta bera nagusi zela, Pragan, Ingolstadt-en, Munchen, Insbruk-en, Hallen, Dilingan-en, Vienan, gazteak ondo hezi eta hazteko ikastetxe famatuak eraiki zituen. Erroman ere Loiolari «Collegium Germanicum» eraikitzen asko lagundu zion. Ikastetxe honetan Alemaniatik etorritako gazteak fedean eta jakindurian jantziko ziren... Ikastetxe hauen fruitu onak laster nabaritu ziren.

Lan hauetaz gainera apaizei hitzaldiak, herriari mixioak, liburuak idatzi eta abar... Kanisiusen lana ikaragarria izan zen. Baina famarik handien eman zion lana, hiru mailatan: gorengo, erdiko eta beheko ikasientzat egin zuen «kristau ikasbidea» izan zen. Lan guzti hauengatik arrazoiz Pedro Kanisiusi «Alemaniako bigarren apostolua» esaten diote.

Frantzisko Borjako Santua (1510 - 1572)

Valentziar santu honek aldi batean Euskal Herrian lan egin zuelako, bere bizitza hemen luzetxoago agertzea merezi duela, uste dut.

Frantzisko Borjako, Karlos enperadorearen lagun mamia, Lombay-ko markesa, Gandiako dukea, Katalunyakoko errege-ordea, beti ere fededun zintzoa izanik, Karlos enperadorearen emazte gazte, ederra hilda ikusi zuenean, munduko huskeriak utzi, eta benetan santutasun bidean jarri zen.

Bartzelonan errege-ordeko karguan zegoela, Fabre eta Araotz ezagutu zituen, eta hauen bidez Jesusen Lagundiaren berri jakin zuen.

1546. urtean emaztea hil zitzaion, eta Fabrerren zaindaritzapean gogo jardunak eginez, Jesusen Lagundian sartzeko erabakia hartu zuen, eta hala adierazi zion Loiolari.

Baina Iñigok zioenez, «munduak halako kanoi-dunbadarik entzuteko ez zuen belarririk», eta isilean, Aita Santuaren baimenez, bere familikoekin beti bezala biziz, Jesusen Lagundiko zinitzak egin zituen.

Teologia ikasi eta bere seme zaharren Joanekin, eta Aita Araotz, Anaia Berastegi bilbotarra, eta beste hiru-lau jesulagunekin, hemeretzi zerbitzari gehiago zituela, Erromara joan zen. Eta han bertako gizon handikien etxe aberatsetan ostatu hartu beharrean, begi guztien harriduraz, jesulagunen etxe pobrean jarri zen bizitzen. Iñigo Loiolako eta Frantzisko Borjako, bi gizon santu hauek, han alkar ezagutu zuten.

Hiru hilabete egin zituen Borjak Erroman bere egiazko izaera ezkutuan edukiz; eta hango arazoak konpondu zituenean, Julio III. Aita Santu berriarengana aurkeztu zen, honi aditzera emanaz, nola aurreko Aita Santu Paulo III.ak isilpean eta bere etxean biziz, Jesusen Lagundiko zinitzak egiteko baimena eman zion. Orain Aita Santu berriari denen agirian Jesusen Lagundiko bezala azaltzeko baimena eta bedeinkapena eskatzen zion.

Harriturik geratu zen Julio III.a entzuten zuenarekin, baina bere bedeinkapen osoa eman zion.

Honetan Trentoko Kontzilioan aurkitzen zen Luko Kalagorriko gotzainak eskutitz bat egin zion Iñigori, euskaraz zekiten jesulagunak Euskal Herrira, arren, bidal zitzala eskatuz. «Zuk ba dakizu», esaten zion

gutun hartan, «zure lurraldea kristau dotrinaren zenbaterainoko beharrean aurkitzen den, eta lan hori euskaraz dakiten bertako apaizek bakarrik egin dezakete. Ez da munduan lurralderik, zuk, jauna, hainbeste zor diozunik».

Loiolak bere lurraldera bidaltzeko Aita Migel Otxoa, Erronkarin Ezkarotz-ko semea, eta Frantzisko Borjakoa aukeratu zituen. Honek euskaraz ez jakin arren Euskal Herriko jauntxo harroei apaltasun eta pobretasun bidea erakutziko zien, eta Aita Otxoak herriz herri predikatzen ihardungo zuen.

Itzuli zen, bada, Borjako Dukea Italiatik bere jaioterrira bere seme Joan, eta Araotz, Otxoa, Berastegi eta beste zenbait jesulagun eta zerbitzariekin, eta Loiolako dorre-etxean Iñigoren sendiari ikustaldi bat egin ondoren, Bergara eta Oñatiren tartean dagoen Santa Madalena ermitan jarri zen bizitzen. Erromatik ekarri zuen Aita Santuaren baimenaz apaiz egin zen, eta bere seme Joane lagundurik, bere isileko meza berria Loiolako etxeko kaperan eman zuen.

Baina agiriko Meza berria Bergarako parrokiari eman nahi izan zuen, eta hainbeste milaka lagun eleiza honek ezin harturik, Santa Anaren aurreko zelaiari, haize zabalean, eman behar izan zuen.

Jendea harriturik geratu zen hurrengo egunean «Duke Santua», Aita Otxoak lagundurik, zakua bizkarrean etxez-etxe limosna eskatzen ikusi zuenean.

Bi urte ondo beteak egin zituen «Duke Santuak» Euskal Herriko eleizetan predikatzen. Hiri handietan: Donostia, Bilbo, Iruñea, Gasteizen, erdaraz hitz egiten zuen... Bestetan: Bergara, Oñati, Arrasate, Zumaiako Parrokiari Aita Hernanik euskarara itzultzen zuen. Historialari batek dio: «Hango hizkuntza oso

zaila ikasten ere ahalegindu zen, jende xumeek uler-
tzeko moduan euskara lardaskatzen ikasteraino».

Portugalera, hango erregek eskatuta, joan baino
lehen, Frantziskok Loiolako dorre-etxean bere seme
Joan eta Loiolako alaba Lorentzaren ezkontza be-
deinkatu zuen. Honela Borja eta Loiola uztarturik
geratu ziren.

1565. urtean Lainez, Jesusen Lagundiko bigarren
buruzagia hil zenean, Frantzisko Borjakoa izan zen
Jesusen Lagundiko Buruzagi aukeratua. Gorengo kar-
gu honetan zazpi urte eginik, Erroman hil zen Jau-
naren bakean, 1572. urtean.

JESUSEN LAGUNDIKO LEHEN EUSKALDUNAK

Loiolarekin bizi izan ziren santuen bizitza agertu
ondoren, egoki dela, uste dut, (liburu hau euskaldu-
nentzat batez ere idatzia denez) Iñigoren inguru eta
garaian bizi izan ziren jesulagunen zenbait berri
ematea.

Araotz-ko Antonio (1516 - 1573)

Bergarako semea. Loiolako etxeoandre Madale-
naren iloba. Salamankan eta Parisen ikasi ondoren
Doktore maila lortu zuen. Gero Erromara bere osa-
ba Iñigo ezagutzeko asmoz joan zen. Garai hartan
Jesusen Lagundiarentzat Erromako giroa sargori tru-
moitsua zen: Mainardik sortutako ekaitza lehertze-
ar zegoen. Osabaren izen zikinak bera ere kutsatuko
zuelakoan Antonio beldurtu zen, baina ekaitza bare-
tu eta egiaren eguzkiak oskarbian argi egin zuenean,
gogo jardunak egin, eta 23 urtekin Jesusen Lagun-
dian izena eman zuen. Honela, 1538. urtean Antonio
Araotz-koa Jesusen Lagundiko 11. kidea izan zela,
esan daiteke.

Jesusen Lagundian sartu eta berehala Iñigok bere iloba Bartzelona eta Kastillara arazo batzuk konpontzera bidali zuen. Gauzak konpondu eta zazpi hilabete egin zituen bergaratarrak Euskal Herrian, Bergara, Azkoitia, Azpeitia, Elosiaga eta beste leku askotan predikatzen. Jendea erruz, baita 4.000 kristau ere, joaten omen zen halako sermolari sutsuari entzute-ra. Bergaran garai hartan bilduta zegoen Gipuzkoako Batzarre Nagusiak bere hizlaritzat aukeratu zuen.

Gero Erromara itzuli zen, baina ez bakarrik, Loiolako Emilian gaztea, Iñigoren anaia Martinen semea, berekin zeraman osabaren Lagundian sartzeko asmoz... Erroman Araotz apaiz egin zen, eta meza berria eman zuen.

Bigarren aldiz Erromatik Bartzelonara Diego Egiakoarekin etorri zenean, hiri honetan Katalunyak Errege-ordea Borjako Frantzisko ezagutu zuen, eta honek gogo jardunak Araotzekin eginik, isilperik isilenean Jesusen Lagundian sartzea eskatu zuen.

Araotz Iñigoren antzera ibiltari azkar nekaezina zen. Sei aldiz egin zuen, eginkizunak eskatuta, Erromatik Bartzelonara joan-etorria. Hauetatik bi itsasoz, baina beste laurak oinez eta zorroa bizkarrean etxez-etxe bidean limosna eskatuz. Bergarako seme jator honek Jesusen Lagundian egindako lan guztiak zehazki ezin aipatuz, handi handika, bederen, ager ditzagun.

Garai hartan Espainian eta Portugalen Jesusen Lagundia asko zabaldu zen, eta Iñigok Araotz Kastillako Probintzial edo Buruzagi egin zuen. Honen agindu-pean Felipe II.aren erreinuan jesulagunen 19 etxe eta ikastetxe eraiki ziren. Euskal Herrian geroago esango dugunez, Oñatiko ikastetxea ere zabaldu zuen.

Astrain historilariak Araotzegatik handiki-zalea zela, Erregearen inguruan bizitzea gehiegi maite zuela, eta holakoak esaten ditu, baina G. Vilosladak alde-rantzizko beste eritzi bat du.

Espainiako erreinuan Jesusen Lagundiak, baita eleiz-gizonen artean ere, etsai asko eta ahaltsoak zituen, eta gezur beltzak errazegi zabaltzen ziren. Honetatik Iñigok bere ilobari idazten dio: «gezur beltz horiek garbitzeko zu erregea bizi zen hirian bizitzea egoki da». Eta Loiola hil zenean, Lainez Jesusen Lagundiko Buruzagi berriak, berriz berdin idazten dio: «Dena dela, erregea bizi den hirian bizi zaitez, eta hau zuretzat gurutzeta dela esaten baduzu, jakin eza-zu, erregeak eta bere ingurukoek Jesusen Lagundiari buruzko albiste garbiak eukitzea oso beharrezko dela».

Araotzek Iñigori bost hitz euskaraz

Euskaldunentzat gauza bitxi bat. Aldi hartan Kastillan judu eta mairuen odolekoak «kristau zaharren» begietan oso gaizki ikusiak ziren, eta judu eta mairuen jatorriko izanik bataioa hartzen zutenei «kristau berriak» deitzen zieten, eta ez ziren hauetaz bat ere fidatzen.

Baina Erroman Polanko eta Ribadeneira, Iñigoren idazlariak, «kristau berriak» ziren, eta Araotzek Loiolari idaztean, erdaldun hauek uler ez zezaten, bi hitz euskaraz honela jartzen dizkio: «Hasta estar la Compañía algo más conocida y fundada en Castilla, parece muy conveniente mirar sobre recibir «jende berriak», porque para muchos solo eso es ya veneno».

Eta beste behin Portugaleko Simon Rodrigesi buruz hartutako erabaki bat zela-eta, Araotzek Loiolari idazten dio: «Aunque las causas principales «ez ditut eskribitzen», por justos respetos».

Gauzak honela izanik, ez dut uste gezurra esatea litzatekeenik, baten baino gehiagotan Iñigo eta Araotz euren artean euskaraz mintzatuko zirela, pentsatuko bagenu.

Emilian Loiolakoa

Iñigoren iloba. Loiolako jaun Martinen laugarren semea. Ezagutu zuten guztiek aingeru bat zirudiela, diote.

1541ean Loiolako sendia utzi, eta Araotzekin Erromara bere osabaren Lagundian sartzera joan zen. Parisen, Lobainan eta Kolonian filosofia eta teologia ikasi ondoren Meza eman eta Fabrerekin Lisboara joan zen. Biriketako gaitzez gaisotu eta bere osabak sendatzeko jaioterriko haizeak on egingo ziotelakoan, Loiolara bidali zuen. Azpeitiako parrokian abendu eta garizuma aldian hitzaldi sutuak egiten hasi zen, baina ez zion osasunari neurririk hartu, eta 14 hilabete barru 1547an Loiolako dorre-etxean zerura egan joan zen.

Migel eta Santxo Otxoatarrak

Erronkariko Uztarrotz herrian jaioteko bi anaia hauek Erroman bizi zirela sartu ziren Jesusen Lagundian, Migel 1548an eta Santxo hurrengo urtean.

Santxo Sizilian hil zen 1567. urtean.

Migel Bartzelonan ikasketak amaitu ondoren, aldi batean Erroman Loiolaren ondoan bizi izan zen. Iñigok Migelegatik «gizon ona» zela esaten zuen. Ez zen laudorio txikia Loiolaren ahotik entzuteko. Aita Otxoari «nafarra» esaten zioten, eta bere dohainik bereziena gaisoak sendatzeko ahalmen edo karisma zen. Erroman zegoela Polanko ere sukar gaiztoetatik sendatu omen zuen...

Napoles eta Tivolin bi urtetan, predikatzen eta gaisoak sendatzen ihardun zuen. 1551. urtean Iñigok aginduta Frantzisko Borjako eta Araotzekin Gipuzkoara etorri zen, eta Oñatiko ikastetxeko zuzendari izendatu zuten. Hemen zegoela Borjari Euskal Herriko hirietan predikatzen asko lagundu zion, eta hemen ere Italian bezala gaisoak sendatzeari ekin zion... Borja eta Otxoa predikatu ondoren zakua bizkarrean etxez-etxe limosna eskatzen ikusiz, jendea harri eta zur eginik geratzen omen zen.

Borja Portugalera joan zenean, Otxoa «nafarrak» Aita Hernani eta Ubilak lagundurik, euskal herrietan misio lanari ekin zion. Bizkaian Lekeitio, Markina, Ermu, Bilbo; Gipuzkoan Bergara, Arrasate, Oñati, Azkoitia, Azpeitia, Zumaia; Nafarroan Erriberri (Olite), Iruñea, Erronkari, Aita Otxoaren prediku sutuaren lekuko-testigu izan ziren, baita honen sendaketa harregarrien miresle ere.

1571an, ordea, nondik eta nola ez dakigu, Aita Otxoa Migel Sizilian azaltzen zaigu hango basoetako herri baztertuetan misioak ematen. Sirakusan hil zen, 27 urte Jesusen Lagundian egin ondoren.

Martin Olabekoa

Gogora ekar dezagun Iñigori Alkalara sartu berri zenean lehen limosna Martin Olabe ikasle gazteak eman ziola. Gero gasteiztar hau Parisen doktore gradua harturik, Karlos enperadorearen kaperau izateraino igo zen. Trento kontzilioan bere jakinduriagatik oso aintzat hartua izan zen. Hemen ezagutu zituen Iñigoren lagunak.

1552an Erromara etorririk Loiolari Lagundian sartzeko gogoaz azaldu zion. Ez zen gutxi poztu Iñigo bere ongile zaharra berriro ikusteaz, eta eraiki berria zen «Collegium Romanum»go erretore kargua eman zion. Geroztik Olabe Loiolaren kontseilari begikoa izan zen. Jesusen Lagundian hiru urte bakarrik egin zituen, bada, Iñigoren ondoren 18 egun barru Martin Olabe Erroman hil zen.

Eta zati honetan Martin Olabe aipatu dugunez gero, Iñigoren pentsaera nolakoa zen adierazteko gauzatzo bat kontatzea egoki litzatekeela uste dut.

Jakina da Gipuzkoako legeek Gipuzkoan «tituluak» erabiltzea debekatua zutela. Iñigo ere ez zen «titulu» zalea. Martin Olabe Jesusen Lagundian sartu zenean, hasieran Iñigok: «Olabe Doktore Jauna», deitzen zion. Gerotxoago «titulua» moztuz «Olabe Jauna»... Eta azkenean konfidantza hartu zuenean, «Olabe» soilik. Eta hola egiten zuen Iñigok Xabier eta konfidantzako beste lagunekin.

Diego eta Esteban Egiakoak

Alkalako Migel imprimatzailearen anaiak ziren. Diegok Iñigori, ikusi dugunez, hiri hartan bere limos-

naz asko lagundu zion. Geroago bere anaia alargun Estebanekin Jerusalemara joan zenean, onantzakoan Venezian berriz eta Iñigorekin aurkitu zen. Bi anaiek gogo jardunak egin zituzten, eta etxeko arazoak konpondu ondoren, Erroman Jesusen Lagundian sartu ziren, Diego mezadun bezala, eta Esteban anaia laguntzaile izateko.

Esteban Santa Marta etxean Isabel Roseren zerbitzari izan zen.

Diego, Parisen bere ikasketak amaitu ondoren, Erroman Iñigoren konfessore izan zen, eta bere konfesioko semea hain santu handizat zuen, sarritan esaten omen zuen: Iñigo baino ordu bete gehiago bizi nahi nuke, honen gauza harrigarriak jendeari konta ahal izateko. Baina, tamalez, Diego 15 egun Iñigoren aurretik zerura joan zen. Lizarrako seme zintzo hau hain gizon maitagarri eta apala zen, denek bihotz onez, «Diego Jauna» deitzen zioten. Triste zeudenak alaitzeko eta bokazio zalantzan aurkitzen zirenak sendatzeko balio handia omen zuen.

Loiolak Diego Jaunaren heriotzea jakin zuenean esan omen zuen: «**Diego Jauna zeruan hain gora egongo da, guk ezin ikusteraino**».

Joan Azpilkueta-ko. Nafarra (1522 - 1557)

Martin Azpilkueta Doktore Nafarraren iloba, eta Frantzisko Xabierrekoaren ahaidea. Bere lagunek beti «nafarra» deitzen zioten.

Portugaleko Koinbran 23 urtekin Jesusen Lagundian sartu zen, eta lau urte geroago beste lau jesulagunekin Brasilego indioen lurraldera joan zen. Euskal nafar hau izan omen zen indioen hizkuntza ikasi

zuen lehen misiolaria. Orduko historilari batek dienez: indioen hizkuntzak euskararekin antz handia duelako. (?).

Azpilkuetak berak asmatutako kantuen bidez erakusten omen zien indioei kristau dotrina. Gaztetan bertsolari izan ote zen?

Ez zuen lan makala hartu indioei mozkortze eta giza-haragia jateko ohitura makurra kentzeko. Berak kontatzen digu:

«Behin indioen auzo batera heldu nintzenean denak mozkor-mozkor eginda aurkitu nituen. Neska bat jateko hil berria zutela esan zidaten... Neskaren txabolara sarturik, haren haragiak egosten ari zirela aurkitu nituen. Nik gaiztakeria horren aurka gogor egin nien, eta haien arteko batek zera erantzun zidan: isiltzen ez banintz nirekin ere berdin egingo zutela... Beste txabola batean gizon baten zango eta buruak jateko prest zeudela ikusi nuen. Nik basakeria horren aurka gogor egin nien. Azkenean bai neskaren eta bai beste gizonaren haragiak, jan gabe, lurperatu egin zituztela, uste dut».

Orduko historilari batek dio: Frantzisko Xabierkoa Indiako eta Japoniako apostolu bezala, Joan Azpilkuetako Hego-Ameriketako apostolu egiazkoa izan zela.

Lanez akiturik Bahian (Brasilen) 35 urtekin hil zen.

Jose Antxietako dohatsua (1534 - 1597)

Jose Antxietakoaren aita Gipuzkoan Urrestillakoa zen, baina Kanarietara joanik, han ezkondu eta Jose han jaio zen. Koinbran ikasi, eta 17 urtekin Portu-

galen Jesusen Lagundian sartu zen. Bi urte geroago beste zazpi jesulagunekin Brasileko misioetara joan zen, eta han Azpilkueta nafarra maisu zuela indioen hizkuntza «tupi» ondo ikasi zuen. Honek ere (euskalduna beti kantari) Tupieraz kristau dotrina kantuan jarri zuen «bertako indioek Jainkoaren hitza gozoago onar zezaten».

«Tamoio» indioen eta portugaldarren artean gerra sortu zenean, Antxieta, bere borondatez, indioen eskuetan katibu bezala bahituran gelditu zen. Bere derrigorrezko geldi egon beharrean, alperkeriatik ihes egiteko, itsas ondoko hondartzan, makila lumatzat harturik, latinez Andre Mariari bertsoak asmatzen omen zizkion. Katibutza hartan arrisku handiak igarozituen. Berak dionez: «edozein ordutan indioek ni hil, erre, eta jango nindutela bildur nintzen».

Indioen eta portugaldarren artean bakeak egin zirenean, bere burua aske ikusirik, ikasi eta apaiz egin zen, eta berehala Jesusen Lagundian Brasilgo buruzagi izendatu zuten.

Antxietak itsaso zabala, mendi garaiak, lore politak, txori abeslariak, asko maite zituen. Sugeek, tigreek, piztiek ez omen zioten kalterik egiten. Denak Joserren lagun omen ziren. Antxietak itsasoko arrai-
nekin, basoko piztiekin eta gaisoekin egin zituen mirariak, hain dira harrigarriak eta bitxiak, guretzat sinisgaitz izateraino.

Bere indio maiteen artean hil nahi izan zuen. Antxieta hil zenean Brasilgo jesulagunak 140 ziren.

San Paolo hiriak Antxieta bere fundatzailetzat dauka.

1980. urtean Jose Antxietakoa dohatsuen aldarera jasoa izan zen...

Zilegi bezait Iñigo bizi izan zen bitartean Jesusen Lagundian sartu ziren beste zenbait euskaldunen biografia laburtxo bat hemen agertzea.

Joan Ubilakoa

Mutrikuarra. Oñatiko unibertsitatean teologia ikasi, eta gero Araotz eta Migel Otxoa «nafarraren» Euskal Herrietan miso-lagun izan zena. Santu fama handia zuen. Jendeak San Joan Ubilakoa esaten zion. Misiolari izan aurretik aldi batean Jesusen Lagundiko gazteen Aita Maisu izan zen. Durangon misio ematen ari zela 1570ean hil zen.

Aita Hernani

Zumaiako parrokoa. Frantzisko Borjakoa Euskal Herrira etorri zenean apaiz honek laguntzen zion Borjari honek erdaraz esandakoak herriak uler zezan euskaraz itzultzen. Gero Jesusen Lagundian sarturik herriz herri misio lanetan ihardun zuen. Lan honetan ari zela Lekeition hil zen, Aita Otxoa laguntzaile zuela, eta honen gorpua zumaiarrek Harritokietako Amaren eleizan hobiratu zuten.

Julian eta Martin Berastegi. Bilbotarrak

Julian 1546an Erroman sartu zen Jesusen Lagundian, eta handik Emilian Loiolakoari lagunduz Gipuzkoara etorri zen. Oñatiko jesulagunen ikastetxea erai ki zenean, hango unibertsitatean egin zituen apaiz ikasketak... Oñatiko etxe hartan Julianekin batera

bizi ziren beste hiru euskaldun ere: Pedro Zarautz Arabako Kanpetzukoa, Martin Ortuzar eta Andres Aulia. Lau misiolari hauek Euskal Herriko parroki-etan hara-hona ibili ziren luzaroan misioak ematen, eta kristau dotrinan herria eskolatzen.

Julianen anaia Martin, 21 urte zituela, Erroman Jesusen Lagundian sartu zen, Iñigo hil zen urte berean. Gero Indiara misiolari joan zen. Goa-ra heldu eta zortzi urte Kristoren berri ona fedegabeen artean zabaltzen jardun ondoren, 1572. urtean hango urrutian hil zen.

Alonso Zaratekoa

Arabian, Araia-Asparrena herrian jaioa. Jesusen Lagundian sarturik, Kordobara bidali zuten hango etxea eraikitza. Kordobako eta Baezako ikastetxeen erretore izan zen. Azkenean baita Oñatiko erretore ere... 1576. urtean hil zen.

Anaia Iñigo Otxandiokoa

Medina del Canpon abere tratolari zela 1552an jesulagunak ezagutu zituen, eta Iñigo ezagutzera Erromara joan zen. Gero Espainiako lurraldeetan Aita Araotzen laguntzaile eta idazlari izan zen. Bergaratarra gaisotu zenean otxandioarrak ama batek bezala zaindu omen zuen. Minbiziak jota ingurukoei pazientziatzko ikasbide oroigarriak emanaz hil zen.

Anaia Bernardo "bizkaitarra". Durangokoa?

Iñigo Erroman 1547. urterarte nobizio edo jesulagundian sartu berrien arimen arduradun izan zen.

Kargu hau zuenari «Aita Maisua» esaten zioten. Beste gazte askoren artean Bernardo «bizkaitarra» ere Iñigoren zaindaritzapean hazia eta hezia izan zen. Bernardok otoitzean eta penitentzian aurrerapen handiak egin zituen. Simankasko nobizio-etxera sukaldari izateko bidali zuten, hango gazteentzat santutasun ispilu izan zedin. Toledoko ospitalean gaisoei laguntzen 1559an bere arima dohatsua Jaunari eman zion.

Anaia Joan Frantzisko Aranakoa

Jesulagundiko ia bizitza osoa Andaluzian moriskoaren artean igaro zuen, beste zenbait jesulagunekin batean. Lurralde haietako jesulagunen etxeetan lan desberdinak egin behar izan zituen... 1577. urtean Trigerosko nobizio-etxean gazterik hil zen.

Anaia Martin Zornotzakoa

Teologia ikasketak egin ondoren diakonu ordenatu zen, baina apaltasunez ez zuen apaiz mailara igo nahi izan, eta Erroman anaia laguntzaile bezala etxe-ko lanak eginez bizi izan zen...

Badira Jesulagundiko beste euskaldun gehiago ere Iñigo ezagutu zutenak, baina oraingoz bego honetan.

IÑIGOREN OSASUNAREN URTEKARIA

Iñigok lur honetan igaro zituen azken urteak zehatz-zehatz agertu aurretik, bere osasunaren gorabeherak urtez-urte azalduko ditugu, honela, bada, Loiolakoaren Erromako bizitza hobeto ezagutu dezakegula, uste dut.

- 1539. Aita Santuak Iñigori hainbeste negar malkok eragindako begietako minagatik, «orduon liturgia» beste zenbait otoitzen ordeztatzen dio.
- 1544. Iñigo lau hilabetetan makal-gaisorik dago. Eskutitzak idazten Jeronimo Domenech-ek laguntzen dio.
- 1545, 1546, 1547. Erdi makalik.
- 1548. Osasunez hobeto, etxetik irteten hasten da.
- 1549. Berriz makalik.
- 1550. Urtearen azken aldean oso gaizki.
- 1551. Oso gaizki jarraitzen du. Lagundiko buruzagitzatza utzi nahi du, baina bere lagunek ez diote onartzen.
- 1552. Oso gaizki.
- 1553. Apirilean oso gaizki. Ekainean hilko zela uste dute. Iñigo berak kontatzen du:

«59 urte nituela (?), oso gaizki gaisotu nintzen, eta bai neure eta bai beste askoren eritziz azkena izango zela uste nuen. Garai hartan hil behar nuela-eta, heriotzean pentsatzen jartzen nintzenez, espirituko hain poz eta alaitasun handia sentitzen nuen, naizen guzti hau negar-malkotan urtu egiteraino. Eta hau hain eten gabe gertatzen zitzaidan, askotan heriotzean pentsatzeari utzi egin behar izaten nion, halako pozaldirik ez sentitzearren».

Garai honetan jarri behar dela, uste dut, Ribadeneirak kontatzen digun hau: «Udako gaueetan zeru zabala ikus zitekeen etxe-gainera igotzen zen, eta han zutik, burukoa kendurik, zerura begira begira geratzen zen. Eta gero belaunikaturik Jainkoa adoratzeko zuen, eta makalik zegoelako aulki apal batean eseririk, han egonean egoten zen burutsik negar malakoak tanta-tantaka begietatik isuriz, hain goxo eta isilik, ez zitzaion negar zotirik, ez hasperenik entzuten, ez eta gorputzeko zirkinik ere sentitzen. Eta askotan esaten zuen: «**Bai itsusia dela lurra, zerura begira jarrietz gero**».

«Landare bat, loretxo eta aberetxo bat aski zuen Jainkoarengana bihotza jasotzeko, eta bere kainaberazko esku-makilaren muturrak baratze loretzoak ukituz, esaten omen zuen: «**Badakit zer adierazi nahi didazuen**».

1554. Oso gaizki jarraitzen du. Aita Nadal ematen diote ordezko.
1555. Hobeto osasunez, baina laster gaizkitu egiten da. Ekainatik azarorarte aski ondo osasunez. Abenduan berriz gaizkitu egiten da, eta igan-

de eta jaietan bakarrik ematen du meza. Astegunetan entzun egiten du.

1556. Urtarrila. Hilabete oso gaizki etengabe urdailko minez, eta sukarbero handiekin.
- Otsaila. Ez du mezarik ematen. Egutero meza entzun, eta igandetan jaunartu ere egiten du.
- Ekaina. Makalean hobetotxoago dago.
- Uztaila. Paulo IV.aren eta Espainiako errege Felipe II.aren artean gerra sortu da. Paulo IV. ak, armarik gordeta dagoen ala ez jakiteko, Erromako jesulagunen etxea aztertze agintzen du. Hori egitera etorri zirenak, gain begiratu bat bakarrik egin nahi zutela esan zuten, baina Iñigok etxeko txoko guztiak begiratu, aztertu eta arakatzeko eskatu zien... Erroman ez da gerra-danbor, gudu-deiadar eta armen arrabotsa besterik entzuten.
- Uztaila 2. Bakean bizitzeko Aventino mendi hegoaldean Collegium Romanumek duen landetxera eramaten dute Iñigo. Hasieran osasunez hobeto sentitzen da. baina...
- Uztailak 28. Iñigo gaizkiago dago, eta Erromara ekartzen dute.
- Uztailak 29. Iñigok Aita Torres jesulagun osagileari esaten dio, beste gaisoak bezala bera ere zaintzera etortzeko.
- Uztailak 30. Hil hurren zegoela-eta, Iñigok Aita Polankori Aita Santuarengana bedeinkapena eskatzera joateko eskatzen dio.
- Uztailak 31. Goizeko seiretan Aita Madrid eta Aita De Freux bakarrik aurrean zeudela Iñigok azken arnasa ematen du.

IÑIGOREN HERIOTZEA

Loiolako Iñigok lur honetan egin zituen azken bi egunak zehatzago kontatuz, honela izan ziren:

Osagileek, Iñigo Aventinoko landetxetik Erromako etxera ekarri zutenean, ez zuten, egia esan, hain gaizki zegoenik susmatu. Egun haietan Iñigoren gela ondoan Aita Lainez ere oso makalik aurkitzen zen, eta osagileek gehiago kezkatzen ziren honen osasunaz Iñigorenaz baino. Aitaren «betiko gaitza» bazekiten zer zen.

Uztailak 29. Iñigok Aita Torres jesulagun medikuari eta Alejandro Petroni doktoreari, beste gaisoei bezala berari ere begiratzeko, eskatu zien. Eta hauek hala egin zuten.

Uztailak 30. Osteguna. Arratsaldeko 4etan Iñigok Aita Polankori dei egin eta esan zion: «**zoaz Vatikanora eta Aita Santuari esaiozu, ni lur honetan bizi-tzeko ia itxaropenik gabe azkenetan aurkitzen naizela, eta apal apalik niretzat eta Lainezentzat —hau ere arrisku berdinean bait dago— bere bedeinkapena eskatzen diodala».**

Polankok esandakoa egingo zuela, erantzun zion, baina egun hartan bertan Espainiako posta-korreoa irteten zen, eta harako eskutitzei erantzuna emateko oso larri zebilen, eta honegatik Aitari, ea hurrengo egunerako Vatikanora joatea berdin izango zen, galdetu zion.

Iñigok erantzun zion: **bihar baino gaur joango bazina nik nahiago nuke, eta gaur ere lehenbaitlehen hobe. Baina zuk uste duzuna egizu. Ni zure bozondatera jarrita nago».**

Polankok badaezpada ere Petroni osagileari, ea Aita halako arriskuan zegoela iruditzen zitzaion, galdetu zion. Eta Petronik erantzun zion: gaur ezin dizut erantzunik eman, bihar emango dizut. Erantzun honekin Polanko baketu zen, eta eskutitzak erantzuteari ekin zion.

Arratsaldeko 9etan Iñigok, bere betiko gutxi jaterako, ondo afaldu zuen, eta gero afalostean Polanko eta Madrid-ekin piska bat hizketan ihardun zuen. Gero hauek ezeren kezkarik gabe lotara joan ziren. Hala ere Tomas Cannizzaro anaia erizaina badaezpadaoan gaisoa zaintzen geratu zen.

Honek aitortzen du, gaisoak lehen gaualdia artegatsu eta urduri mugituz igaro zuela, noizean behin hitz batzuk esanez, baina gauerdi aldera baketu zela, eta tarteka «ene Jainkoa!» esaten zuela. Argi urratzean erizainak edari pizkorgarri bat eskaini zion, baina gaisoak erantzun zion: **«ez da horretarako ordura»**, eta ez zuen hartu.

Goizean jesulagunak esnatu zirenean Aita Iñazio azkenetan aurkitu zuten. Erizaina «eleizakoak» emateko Iñigoren konfessore Aita Rieraren bila azkar joan zen, baina ez zuen bere gelan aurkitu... Polanko ere azkar asko Vatikanora joan zen, eta hain

goiz izan arren Aita Santuak berehala hartu zuen, eta nahigabe handiz bere bedeinkapena eman zion... Baina Vatikanotik itzuli zenerako Iñigok bare-bare inolako dardararik gabe azken arnasa eman zuen. Aita Madrid eta de Freux bakarrik zeuden aurrean. Goizeko 6ak-7ak bitartea zen.

1556. urteko uztailak 31 egun zituen, eta Iñigok 65 urte.

Polankok ederki adieraziz zuenez:

«Iñigok, bere heriotzearen berri aurretik jakin arren, ez zituen, beste gizon santuak bezala, bere semeak azken bedeinkapena eta aholkuak emateko bere ohe ingurura deitu. Mundu honetatik beste edozein kristau bezala joan zen, bere heriotzean mirari edo harrigarririk egin gabe».

Eta Joxe Artetxe euskal historigileak sakonki esaten du:

«Hamasei gizaldiko fededun handiena ia bakarrik hil zen, inor konturatu gabe. Eleizakorik gabe Aita Santuaren bedeinkapenik gabe. Loiola bere azken orduan euskaldun jator bezala agertzen zaigu. Euskaldunak mundu guztian teatro-zale gutxienak gara, eta Iñigok ere ez zuen azken-agur ikusgarririk egin nahi izan. Hil beti bakarrik hiltzen da».

HILETAK

Lehen bihotz ikarak igaro zirenean, Erromako jesulagunak han bildu ziren euren Aita zenaren alde Jainkoari otoitz egiteko.

Arratsaldeko ordu biak inguruan Realdo Kolonbo kirurgo famatuak egin zion autopsia. Osagile honek dio: «Neure eskuz atera nizekion Jesusen Lagundiko Buruzagi Iñazio agurgarriari, birika, gibel eta bena-portatik ia ezin konta hala harri kolore askotakoak». Harri hauek, diote honetan jakitun direnek, gibela handitzen denean, behazunetik bena portara pasatzen omen dira, gaisoari ikaragarrizko minak jasan araziz.

Giakopino del Konte pintoreari ere dei egin zioten irudi on bat margoz egiteko, baita beste tekniko bati ere eskaiolaz aurpegiaren maskarila bat moldatzeko.


Hurrengo egunean, abuztuak 1, arratsaldeko bostetan Estartako eleizan, Polanko eta Olabek meza emanik, egin ziren hiletak, eleiza txikia jendez gainezka zegoelarik. Aita Palmio italiar gazteak egin zuen hitzaldia, «apalki eta debozioz» hitzeginez.

Iñigoren gorpuari Estartako Andre Mariaren eleizan bertan, altare nagusiaren ondoan, eman zioten lurra, eta geroago hilarrian hitz hauek jarri zituzten:

«Bere lana bete zuenean hil zen».

Iñigoren lau lan nagusiak hauek izan zirela, esan daiteke:

1. Jesusen Lagundia Aita Santuak onartu.
2. Gogo jardunen bihotz berritzeko indarra egiztatu.
3. Jesusen Lagundiko konstituzioak idatzi.
4. Jesusen Lagundiko semeak mundu lau aldeetara zabaldu.



JESUSEN LAGUNDIARI GAIN BEGIRATU BAT

Iñigo hil zenean 1.000 jesulagun inguru ziren mundu zabalean lanean ari zirenak. Erroman Iñigo «Aitarren» ondoan bizi zirenek esaten digute: bazkaltzen edo inork aipatzen bazuen, hain urte gutxitan jesulagunak zenbat ugaritu ziren, Loiolak lotsaturik aurpegia eskuekin estali egiten zuela, Jainkoari eskerrak ematen bezala.

Iñigoren azken urteetan honela aurkitzen zen Jesusen Lagundia mundu zabalean edaturik:

Portugal

Portugaleko errege Joan III.a izan zen, zalantzarik gabe, Europako agintari guztien artean Jesusen Lagundia gehien maite zuena. Lisboako portutik urtero Brasil, India eta Japoniara jesulagun misiolari talde ederrak irteten ziren.

Lisboan Simon Rodriguesek San Anton izeneko eskola ireki zuen. Honen ondoren Evora eta Koinbran ere Ikastetxe Nagusiak jaso ziren. Portugaldar gazte askok —300dik gora— Jesusen Lagundian izena eman zuten. Dena ezin hobeto zihoan, baina gazte buru-bero batzuk penitentzia arraroak egiten hasi ziren, adibidez: buru-hezurra eskuetan hartu, eta kaleetan deia-darka ihardun: «bekatariok, laster hil behar duzue, eta damu zaitetzte». Edota, erdi-bilutsik eta oinutsik kaleetan zehar zoroena egiten barragarri ibiltzen ziren...

Erromatik eskutitz bat egin zien Iñigok santutakuna holako penitentzia bitxietan ez dagoela adieraziz, eta arrarokeriak utziz, obeditzeko eskatuz... Asko izan ziren —90 inguru— obeditu nahi izan ez zutenak, eta hauek Jesusen Lagundiatik aldenduak izan ziren.

Ekaitz mingarri hau baretu zenean, berriz ere Jesusen Lagundia indartu zen, eta Portugalek sortalde-sartaldera eten gabe misiolariak bidaltzen jarraitu zuen.

India, Japonia eta Txina

Indiako lehen jesulagun misiolaria Xabier izan zela esan dugu. Portugaleko erregearen babespean Komorin eta Travankor Indiako lurraldeetan, berak dioenez, hilabete gutxitan 10.000 bataiatu zituen.

Gero eguzki alderantzago, Malaka, Amboino, Ternaten Jesusen berri ona zabalduz, Japoniaraino iritsi zen. Bi urte egin zituen Japoniako lurraldean kristau talde ederrak antolatuz. Bungo eta Yumagutxiko hirietan Jesusen Lagundiko etxeak eraikita utzi zituen. Xabierrek urruti haietatik bidalitako eskutitzek Europen misiolari izateko sua piztu zuten. Xabier hil eta bost urte barru 78 ziren eguzki aldeko lur zabal haietan lanean ari ziren jesulagunak... Baina laster hasiko zen Japonian Kristauen aurkako pertsekuzio gogor luzea. Milaka bertako kristau eta misiolari hilak izan ziren, ia lurralde hartatik Kristoren izena guztiz ezabatzeraino.

Xabierrek Txinara sartu nahi izan zuenean Erresuma zabal hartako ateak heriotz-zigorpean atzerritarrentzat erabat itxiak zeuden. Mateo Ricci italiarra izan zen 1583an Txinako Kanton hirira sartzeko bidea aurkitu zuen lehen misiolaria. Matematika eta astronomian oso trebea zenez, Pekinen Enperadorearen lagun egin zen. Riccik Kristoren fedeak txinatarren buru-bihotzak astiro astiro argi zitzala nahi zuen. Hark irakatsitako bidea gero jarraitu izan balitz agian gaur Txinako lurralde zabala zati handi batean kristau zitekeen.

Jeronimo Xabierrekoa

Eta India eta Xabier aipatu ditugunez gero, zilegi bezait, garaiz gerotxoagokoa izan arren, Jeronimo Xabierrekoari buruz zerbait esatea. Frantzisko Xabierrekoaren biloba zen, eta Nafarroako Beiren, Hiri-berri-Olite ondoan, 1549an jaioa.

Bere osaba Frantziskoren bideari jarraitu nahirik Jesusen Lagundian sartu eta Indiara misiolari joan zen. Garai hartan Indiako iparraldean «Mogol» erreinuko enperadore Akbar mahometarra zen. Jeronimo, Akbaren lagun handi eginik, enperadorea kristau egingo ote zen itxaropenez bizi zen.

Akbar hil zenean, honen seme Yahangirrek ere Xabierren adiskide izaten jarraitu zuen... Baina Kristoren legeak emazte bat bakarra edukitzea eskatzen du... eta azkenean, Jeronimok berak dioenez, «hogei urte mairuen artean igaro ondoren» osasuna eta itxaropenak galduta Goara itzuli, eta 1617. urtean hemen hil zen.

Brasil

Oraindik Iñigo bizi zela 140 jesulagun ari ziren lanean Ameriketako lur bero, zabal haietan. Hiru ikastetxe eraiki zituzten San Vizente, Piratinga (gaur Sao Paulo) eta Bahian. Baina, Joan Azpilkuetako eta Jose Antxietakoaren antzera, Lisboatik hara joan ziren jesulagun gehienek bertako indigenak zibilizatzen eman zituzten euren bizitzako urterik ederrenak.

Etiopia

Kristau fedea Etiopian apostoluen garaikoa da. Baina Kaltzedoniako Kontzilioaren ondoren —451an— hango eleiza, monofisiten dotrina onartuz, Erromakotik aldendu zen.

Gu orain historiatzen ari garen garaian, Etiopia-ko Enperadoreak, bere erreinuko mugetan zituen

mahomatarren beldurrez, Erromako Aita Santuari laguntza eskatu zion. Andres de Oviedo jesulaguna izan zen aukeratua hango Eleiza zismatikoarekin harremanetan hasteko. Baina itxaropen guztiak lurrera erori ziren Enperadore Klaudius hil, eta honen anaia Adamas Erromaren etsai agertu zenean. Andres de Oviedo neke asko jasan ondoren 1578an hil zen. Gerrogo Etiopiara joan ziren 56 jesulagunek ere ez zuten fruitu ugariagorik lortu.

Italia

Iñigok eta honen lagunek Italian zehar predikatzen eta dotrina irakasten egin zituzten lanak alde batera utzirik, Jesusen Lagundiak lurralde honetan ikastetxe hauek eraiki zituen: Padua, Bolonia, Tivoli, Venezia, Ferrara, Florentzia, Napoles, Perusa, Modena, Loreto, Sirakusa, Bivona, Catania eta Siena. Ikastetxe hauetatik asko etorri ziren Lagundira. Bost urteren barruan 137 gazte sartu ziren Iñigok sortutako Lagundian.

Espainia

Antonio Araotz izan zen Espainian Jesusen Lagundia sartu zuena. Lehen egunetik etsai gogorrak sortu zitzaizkion: Meltxor Kano, eta Silizeo artzapezpikua batez ere. Hala ere isilik eta pazientzia handiz Araotzek Espainian 19 ikastetxe sortu zituen, denak goi mailakoak ez baziren ere. Iñigoren heriotzean Espainiako jesulagunak 293 ziren.

Frantzia

Iñigok Parisko unibertsitatea asko maite zuen. Kristau lurraldeetan ez da hoberik, idatzi zion Loiola-ko bere anaia Martini, honek bere seme Emilian nola bidaliko zuen ikastera kontsejua eskatu zionean.

Enrique II. erregea jesulagunen aldeko zen, baina Parisko Parlamentu eta Unibertsitatea eragozpen handiak jartzen hasi ziren... Dena dela, Billon hirian, bertako gotzainak lagundurik, ikastetxe bat eraiki zen 10 jesulagun eta 800 ikasleekin.

Alemania

Fabrek, Jayk, Bobadillak eta batez ere Pedro Kanisius santuak lan handiak egin zituzten Alemaniako katoliku eta protestanteen artean, eta ez fruitu gutxi eskuratuz.

Nadalek lurralde hartako katolikutasuna zuzper-tzeko ikastetxeak zirela biderik onenak ikusi zuen. Honegatik Viena, Praga, Ingolstadt, Lovaina, Kolonia eta beste 15 hirietan jesulagunek ikastetxeak eta unibertsitateak eraiki zituzten, hauetan gaztedi berri bat sor zedin.

Inglaterra, Eskozia, Irlanda

Lurralde hauetan jesulagunen lanak ez zuten arrakasta handirik izan. Aita Santuak Broet eta Salmeron Nuntzio Apostoliku bezala Inglaterrara bidali zituen, baina hemen ez zuten harrera onik aurkitu. Gero Eskoziara igaro eta Jakobo V. erregearekin hizketatuz

fruitu handiren itzaropenik gabe, Erromara itzuli ziren.

Maria Tudor erregina Espainiako Felipe II. arekin ezkondu zenean hango arazoak zuzenduko zirela uste izan zen, baina Maria seme-alabarik gabe hil, eta Isabel erregin izatera heldu zenean, Erromarekin batasuna egiteko itzaropen guztiak galdu ziren. Geroago katolikuen aurkako pertsekuzio gogorra sortu zen, eta Edmundo Kanpion eta beste 10 jesulagun martiri hilak izan ziren.

Euskal Herria

Kalagorriko gotzain Bernal Luko Ilarratzak, Trentoko kontzilioan zegoela, honelako eskutitz hau bidali zion Erromara Iñigori:

«Ba dakit zure semeen bitartez alde guztietakoei on egiten ari zarela; baina beste guztiei baino gehiago begiratu behar diezu zure herritar euskaldunei; hemen jaio bait zinen, eta hemengoei on egitera behartuago zaude. Bidal itzazu, bada, Euskal Herrira zure semeren batzuk, baina euskaraz dakitenak behar ditugu, ez bait dago bestela hemengoen bihotzetan erakutsi onaren hazia ereiterik... Irakasle euskaldunen behar handia dago, batez ere; bada, eleiz gizonen artean euskaraz irakasten dakitenak, eta nahi dutenak, oso gutxi dira».

Iñigok erantzun zion:

«Euskaldunen aingerutza egiten oso egoki ari da berori, eta egia esan, gu ere euskaldunei beste edozeinei baino gehiago laguntzera, eta hauetaz erruki izatera beharturik gaude».

Oñatiko etxetik nola lau misiolari herriz herri ir-teten ziren euskaraz dotrina irakastera eta misioak ematera esan dugu.

Lan hauetaz gain Jesusen Lagundiak Euskal He-rrian ikastetxe hauek eraiki zituen. Eskola hauek den denak dohan gratis ematen ziren.

Zerrenda ez luzatzeko telegrafikoki idatziko dut. Oñati. 1551. Eskola hau Araotzek eraiki zuen. 1539an Bergarara aldatu zen, baina 1647an berriz ere za-baldu zen. Eskola honetan lehen letrak irakasten zi-ren, alegia: irakurri, idatzi eta matematikako lau erregela edo operazioak.

Bergara. 1593. Oñatikoa hiri honetara aldatua. Lehen letrak.

Iruñea. 1593. «La Anunziata» izena. Lehen letrak, hu-manidadeak, filosofia eta teologia.

Azkoitia. 1600. Lehen letrak.

Bilbo. 1604. Eragozpen handiak gainditu ondoren «Santos Juanes» eleizaren aldamenean ikastetxe bat eraiki zen. Lehen letrak, logika, fisika eta metafisika. 1732an neskentzat beste eskola bat eraiki zen.

Tutera. 1613. Lehen letrak.

Donostia. 1637. Hemen ere Bilbon bezala eragozpen handiak gainditu ondoren Antonio Okendok ikastetxe bat eraiki zuen. Lehen letrak eta abar.

Loiola. 1682. Eskolarik ez, baina Larramendi, Mendi-buru eta Kardaberatz euskal idazle ospetsuak hemen bizi izan ziren.

Lekeitio. 1688. Lehen letrak eta nautika.

Urduña. 1694. Joan Urdanegikoak eraikia. Lehen le-trak.

Gasteiz. 1751. Lehen letrak.

Baiona Jantsenistak aurka gogor jarririk ezin izan zen eskolarik eraiki.

Bermeo. Iñigoren lagun handi Zarate doktoreak bere jaioterrian jesulagunen eskola bat eraiki nahi izan zuen, baina ez zen burutu. Bihotz zabaleko bermeo-tar honek Jerusalem, Txipren eta Estanbullen jesu-lagunen ikastetxeak eraiki nahi izan zituen, baina urrezko amets horiek ez ziren mamitu.

GIPUZKOAKO ZAINDARI

1609. Paulo V.ak Loiolako Iñigo dohatsuen artean jartzen du.
Hamar urte geroako Aita Santu beronek baita Xabier ere.
1620. Gipuzkoako Batzarre Nagusiak Zumaian bildurik Iñigo Loiolakoa Gipuzkoako zaindaritzat hartzen du.
1622. Martxoak 12. Gregorio XV. Aita Santuak Loiola eta Xabier santuen aldarera jasotzen ditu.
Eta urte berean Gipuzkoako Batzarre Nagusiak, Tolosan bildurik, honela erabakitzen du:
«Hau da hainbeste nahi genuen zorioneko albiste, alegia: gure Aita eta zaindari den Iñigo Loiolakoa santuen aldarera jaso izan dela. Gipuzkoako herri honek sekula izan duen garai ospetsu honetan, gure herriko seme eta lehen santuari, Jesusen Lagundiaren sortzaileari, eta eleizaren ongile hain handiari, bere onginahia erakutsi nahirik, erabakitzen du:
1. Gipuzkoako udaletxe eta eleiza bakoitzean gure seme handi honen oroimenez, irudi bat jasotzea.

2. Iñigok sortutako Jesusen Lagundiko seme guztiak gipuzkoar bezala bere eskubide guztiekin ezagutzea.

Gipuzkoako Batzarre Nagusiak oso nekez eta tantaka ematen zien lur honetan jaio ez zirenei Gipuzkoako herritar izatea. Honegatik estimagarriago da jesulagunentzat honelako mesede eta ohore handia Gipuzkoako Gurasoen eskuetatik hartzea.

BIZKAIKO ZAINDARI

1680. urtean Bizkaiko Batzarre Nagusiak Gernikan bildurik zegoela, Elgezabal sindikoak batzarkideei adierazi zien, Aita Landaida Andonik, Bizkaiko semeak, Jesusen Lagundikoak, Bilboko jesulagunen ikastetxeko Erretoreak, Batzarre osoari Loiolako Iñigo Santuari buruz, hitzegiteko baimena eskatzen ziela.

Batzarkideek baimena eman ondoren, Iban Andoni Mentzetakoak eta Frantzisko Larreakoak lagundurik Aita Landaida Batzarre tokira sartu zen, eta han hitzegiteko baimena eskatu, eta hartu ondoren, hasi zen adierazten, nola Loiolako Iñigo Santua bere amaren aldetik Bizkaiko Ondarrukoa zen, eta honegatik Batzarreko jaun agurgarriei eskatzen ziela, Santu handi hau Bizkaiko Zaindari izenda zezatela.

Batzarre Nagusiko Korregidoreak erantzun zion, gai hori eztabaidatu ondoren, batzarkideek Santuaren ohorerako eta Bizkaiko onerako hoberena zena, erabakiko zutela.

Eta Aita Landaida irten zenean, Bizkaiko Batzarre Nagusiak, aho batez, Loiolako Iñigo Santua Bizkaiko Zaindari izendatzea erabaki zuen.

BIBLIOGRAFIA

- GURE PATROI AUNDIA. I. M. Manzisidor.
ERROMESAREN BIDEA. (Autobiografia). Patxi Olariagak
euskaratua.
- LOIOLAKO IÑAZIO BAKARRIK ETA OIÑEZ. J. I. Tellechea
Idigoras.
- SAN IÑAZIOREN DENBORAKO ELIZA. Latiegi'tar Bixente.
IÑAZIO DEUNA. (Bertsotan). Juan Basurko.
- LOYOLA'TAR IÑAZIO DEUNA, TA AURRENGO JESULA-
GUN MIXIOLARI EUSKALDUNAK EUSKALERRIAN.
Agirre'tar Jorke.
- LOYOLA'TAR IÑIGO DEUNAREN BIZITZA. Apalategi'tar
Frantzisko.
- BI SAINDU HESCUALDUNEN BIZIA: SAN IÑAZIO LOIO-
LAKOARENA ETA SAN FRANZIZKO ZABIERREKOARE-
NA. X.X.
- LA COMPAÑIA DE JESUS POR LA INSTRUCCION DEL
PUEBLO VASCO. José Malaxechebarria.
- SAN IGNACIO DE LOYOLA. José de Arteche.
- LA VIE DE SAINT IGNACE DE LOYOLA. Alain Guillermou.
- SAINT IGNACE DE LOYOLA. Paul Didon.
- EL PADRE MAESTRO IGNACIO. Cándido Dalmases.
- IGNACIO DE LOYOLA Y SAN FRANCISCO DE XABIER.
Pedro Basaldua.
- SAN IGNACIO DE LOYOLA. NUEVA BIOGRAFIA. Ricardo
G. Villoslada.
- OBRAS COMPLETAS DE S. IGNACIO DE LOYOLA. B.A.C.

SAN IGNACIO DE LOYOLA EN AZPEITIA. Juan Maria Pérez Arregui.
 VIDA DE SAN IGNACIO DE LOYOLA. Pedro de Ribadneira.
 EL JENTILHOMBRE IÑIGO LOPEZ DE LOYOLA EN SU PATRIA Y EN SU SIGLO. Pedro Leturia.
 IÑIGO DE LOYOLA. SU PERFIL HUMANO. Hipólito Pérez.

AURKIBIDEA

HITZ-AURREA	7
EUSKALDUNEN ERLIJIOA	9
Euskal Herriko Eleiza	10
Gipuzkoa	11
LOIOLA DORRE-ETXEA	13
Loiola izena	14
Gipuzkoako Gizartea	15
Ahaide Nagusiak	15
IÑIGOREN SENDIA	19
Aitaren aldetiko aitona eta amona	19
Amaren aldetiko aitita eta amana	20
Aita	20
Ama	21
Koinata Madalena	21
Senideak = neba-arrebak	22
1. Joan Loiolakoa	22
2. Martin Oñazkoa	23
3. Beltran Loiolakoa	23
4. Otxoa Loiolakoa	23
5. Hernando Loiolakoa	24
6. Joan Beltran	24

7. Pedro Oñazkoa	24
8. Iñigo Loiolakoa	24
9. Joaneiza	24
10. Madalena	24
11. Maria Beltran	25
12. Petronila	25
13. Santxa	25
Loiola Aberatsa?	26
Iñigo Loiolakoa	27
Iñigo gaztea	28
Euskalduna eta Loiolatarra	
AREVALO (1506-1517)	31
Iñigo bekatari	34
Velazkezen izarra itzali	36
NABARRETE, NAXERA, IRUÑEA (1517-1521)	39
Gipuzkoan bake-egile (1520)	42
Gerra giroa	44
IÑIGO BERE BIZITZA KONTATZEN HASI	47
IRUÑEAN ZAURITUA (1521)	51
Iruñeatik Loiolara	52
LOIOLAN (1521-1522)	55
ARANTZAZUN	65
Nabarretera	67
MAIRUAREKIN	69
MONTSERRATEN (1522, martxoa, 21-25)	73
MANRESAN (Martxoa 25, 1522 - Otsaila 17, 1523)	77
Lehen egoera: Pake gozo eta atseginezkoa	80
Bigarren egoera: barrengo kezak eta borrokak	81

Hirugarren egoera: goi argitasun eta pozaldi bi- kainezkoa	87
"Lehen puntua"	87
"Bigarren puntua"	88
"Hirugarren puntua"	89
"Laugarren puntua"	89
Kardoner ibai ondoko ikuskaria	90
"Bostgarren puntua"	90
Gaisorik	91
BARTZELONAN	93
VENEZIARANTZ	97
VENEZIAN	103
JERUSALENERA	105
LUR SANTUAN (1523)	109
TXIPREN BERRIZ (1523, Urriak 12-28)	117
VENEZIAN BERRIZ (1524)	119
Eta orain zer egin?	119
GENOVAN (1524, Otsaila)	121
BARTZELONAN (1524-1526)	125
ALKALA DE HENARESEN (Martxoa 1526 - Ekaina 1527)..	131
Lehen auzibidea: Alunbratuak?	135
Bigarren auzibidea	138
Hirugarren auzibidea	139
SALAMANKAN (1527)	147
BARTZELONAN HIRUGARREN ALDIZ (1527)	157

PARISEN (1528-1535)	159
150 KILOMETRO OINEZ EZER JAN ETA EDAN GABE	165
Ikasketak	170
INIGOREN EUSKAL ZUZTERRAK	171
Iñigo Parisen aurrezkua dantzatzen	171
Trukoka jolasean	172
Bekatariak bihotz berritzen	173
LEHEN LAGUNAK	175
Pierre Fabre	175
Frantzisko Xabierrekoa	176
Diego Lainez eta Alfonso Salmeron	179
Simon Rodrigues	179
Nikolas Bobadilla	180
GOGO JARDUNAK	181
EUROPAKO GIROA	185
Hamaseigarren gizaldia	186
MONTMARTREN (1534, Abuztua 15)	193
Klaudio Jay	195
Paskasio Broet	195
Joan Kodure	195
PARISEN AZKEN EGUNAK	197
Estudioek arima lehortu?	198
AZPEITIAN (1535, Maiatza, Ekaina, Uztaila)	201
Madalenako ospitalean	203
Eizmendi eta Elosiagan	206
Zer zen Iñigoren hitzaldi gaia?	206

Iñigok kontaktzen digu	207
Bake-egile	210
Pobreak	211
Iñigo penitentzi-zale	212
Zalditxoa	212
LOIOLATIK TOLEDO ETA VALENTZIARA OINEZ	217
Genovatik Veneziara	219
VENEZIAN (1535-1537. Bi urte)	221
Berriz ere pertsekuzioak	224
LAGUNAK PARISTIK VENEZIARA	227
LAGUNAK ERROMARA	233
INIGO ETA BERE LAGUNAK APAIZ (1537)	237
Jerusalenera joateko zain	238
JESUSEN LAGUNDIA	243
LA STORTAKO IKUSKARIA	245
ERROMAN (1537-1556)	247
Dena ondo zihoan baina	250
FRANGIPANIREN ETXEAN	257
Gosetuekin	258
MEZA BERRIA (1538ko, Abendua 25)	259
EZTABAIDAKETAK (1539, Martxoa 24-Ekaina...)	265
FRANTZISKO XABIERREKOA MISIOLARI (1540-1552).	271

HIRU MILA MEZA JESUSEN LAGUNDIA SORTZEKO ...	273
IÑIGO JESUSEN LAGUNDIKO BURUZAGI ...	277
IÑIGOREN EGUNEROKO BIZITZA ...	281
EGUNEROKO EGITURA ...	283
GORPUTZEZ NOLAKOA? ...	287
Jantzia ...	289
7.000 ESKUTITZ ...	291
Joan Alfonso de Polanko. 1517-1576 ...	292
Jeronimo Nadal. 1507-1580 ...	292
Pedro Ribadeneira. 1526-1611 ...	293
KONSTITUZIOAK ...	295
AITA SANTUAK ...	299
Paulo III.a ...	299
Julio III.a ...	299
Martzelu II.a ...	300
Paulo IV.a ...	300
TRENTOKO KONTZILIOA (1545-1563) ...	303
SANTA MARTA ...	307
JUDUAK ...	309
ERROMAKO IKASTETXEA ...	311
IÑIGO ETA LUTERO ...	312
HIRU EMAKUME JESUSEN LAGUNDIKO? ...	315
Joana Austriakoa bai Jesusen Lagundiko ...	316

BAZIREN BESTE SANTU BATZUK ERE ...	319
Gaetano Thienekoa (1480-1547) ...	320
Felipe Nerikoa (1515-1595) ...	320
Antonio Maria Zakkaria (1502-1539) ...	321
Joan Avilakoa (1500-1569) ...	322
SANTUZ INGURATURIK ...	323
Frantzisko Xabierreko Santua (1506-1552) ...	323
Pedro Fabre dohatsua (1506-1546) ...	324
Pedro Kanisius (1527-1587). Pier de Hont ...	324
Frantzisko Borjako Santua (1510-1572) ...	325
JESUSEN LAGUNDIKO LEHEN EUSKALDUNAK ...	329
Araotz-ko Antonio (1516-1573) ...	329
Araotzek Iñigori bost hitz euskaraz ...	331
Emilian Loiolakoa ...	332
Migel eta Santxo Otxoatarrak ...	332
Martin Olabekoa ...	334
Diego eta Esteban Egiakoak ...	334
Joan Azpilkueta-ko. Nafarra (1522-1557) ...	335
Jose Antxietako dohatsua (1534-1597) ...	336
Joan Ubilakoa ...	338
Aita Hernani ...	338
Julian eta Martin Berastegi ...	338
Alonso Zaratekoa ...	339
Anaia Iñigo Otxandiakoa ...	339
Anaia Bernardo "bizkaitarra" ...	339
Anaia Joan Frantzisko Aranakoa ...	340
Anaia Martin Zornotzakoa ...	340
IÑIGOREN OSASUNAREN URTEKARIA ...	341
IÑIGOREN HERIOTZEA ...	345
HILETAK ...	349
JESUSEN LAGUNDIARI GAIN BEGIRATU BAT ...	351
Portugal ...	352

India, Japonia eta Txina	352
Jeronimo Xabierrekoa	353
Brasil	354
Etiopia	354
Italia	355
Espainia	355
Frantzia	356
Alemania	356
Inglaterra, Eskozia, Irlanda	356
Euskal Herria	357
GIPUZKOAKO ZAINDARI	361
BIZKAIKO ZAINDARI	363
BIBLIOGRAFIA	365
AURKIBIDEA	367



Esku-liburuak GERO - BILBO - Ap. 73

1. *Jainkoaren Billa*. Orixe.
2. *Marxen Marxismoa*. G. Garate (agortua).
3. *Euskal Aditza*. P. Altuna (agortua).
4. *Izatearen Malura*. X. Azurmendi. (2gn argitaraldia)
5. *Euskal Herriaren Historia (I)*. Federiko Zabala (agortua).
6. *Euskalerriko Ekonomia (1955-1967)*. Gurutz Ansola (agortua).
7. *Ajea du Urturik*. A. Lertxundi. (2gn argitaraldia).
8. *Isolottoko Katekima*.
9. *Langileria Historian Zehar*. Martin Ugalde (agortua).
10. *Lehen Gizarteak*. Benentxio Otaegi (agortua).
11. *Marx eta Nazioa*. G. Garate (agortua).
12. *Hizkuntza eta Pentsakera*. Larresoro (agortua).
13. *Europako Ezker Berria*. X. Mendiguren (agortua).
14. *Mitxelena Idazlan Hautatuak*. (agortua).
15. *Zorion baten zainak*. Gorka Trintxerpe.
16. *Novela Berria Hego-Amerikan*. Mikel Lasa (agortua).
17. *Industria herri baten Azterketa*. Siadeko.
18. *Giza Zirriborroa*. K. Alkorta (agortua).
19. *Zenbait Hitzaldi*. Mitxelena (agortua).
20. *Pio Baroja*. Elkar lanean (agortua).
21. *Usa-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. G. Ansola.
22. *Itsasoa Ur-Bazter luzea da*. Martin Ugalde (agortua).

23. *Muga beroak*. J. M. Lekuona (*agortua*).
24. *Gatu Beltza*. T. Peillen (*agortua*).
- 25-26. *Lanaren Antropologia*. R. Garate (*agortua*).
27. *Txingo*. Sabin Irizar (*agortua*).
28. *Goiko Kale*. A. Lertxundi (*agortua*).
29. *Pedagogia Gaur*. J. Erzibengoa (*agortua*).
30. *Langilea Historian Zehar (II)*. Mikel Ugalde (*agortua*).
31. *Hiru Gizon Bakarka*. B. Gandiaga (*agortua*).
32. *Santa Kruz Apaiza*. Orixe (*agortua*).
33. *Marxen Ondoko Errebisionismoa*. G. Garate.
34. *Artegintza, Artista, Gizartea*. Edorka Kortadi.
- 35-36. *Bigarren poema liburua*. Xabier Lete (*agortua*).
37. *Antzinako sozio-ekonomia (I)*. Luis Maria Muxika.
38. *Ipui Antzeko*. Mikel Zarate.
- 39-40. *Industriagintza bidean*.
41. *Gizartea eta parasozialismoa*. Luis Maria Muxika.
42. *Iraultza sobietarra eta literatura*. J. Azurmendi.
43. *Euskal Herriaren Historia (II)*. Federiko Zabala.
44. *Oilarraren promesa*. Juan M. Irigoien (*agortua*).
- 45-46. *Jon Mirandere-*ren* Idazlan Hautatuak*. (*agortua*).
47. *Pertsonaia*. Karlos Otegi (*agortua*).
48. *Elurtzan dantzaten zuhaitz*. Jon Lariz.
- 49-50. *Maoren Marxismoa: Maoismoa*. Gotzon Garate.
51. *Testuak aztertzen*. J. M. Muxika (*agortua*).
52. *Perpau bakunaren sintasia*. Jose A. Muxika (*agortua*).
53. *Begia Begi truk*. I. Etxaide (*agortua*).
54. *Amaiur*. I. Etxaide (*agortua*).
55. *Domiku Garat*. I. Fagoaga (*agortua*).
56. *Muskilak*. Gotzon Garate. (*2gn argitaraldia*).
57. *Lehortean*. Gotzon Garate (*2gn argitaraldia*).
58. *Lenin eta Nazioen Autodeterminazioa*. Gotzon Garate.
59. *Urgull mendiko zuloa*. Imanol Zaldúa.
60. *Leninen Marxismoa: Leninismoa*. Gotzon Garate.
61. *Euskal Elaberrien kondaira (I)*. Gotzon Garate.
62. *Euskal Mitologia*. José Luis Arriaga.
63. *Herrimina*. Imanol Zaldúa.
64. *Lanaren Antropologia (II)*. (Lehen Atala). Roman Garate.

65. *Lanaren Antropologia (II)*. (Bigarren Atala). Roman Garate.
66. *Euskal Elaberrien kondaira (II)*. Gotzon Garate.
67. *Presondegiak, Gazteen gaizkintza, Drogak*. Antonio Beristain.
68. *Erromesaren bidea*. San Inazioaren oroitzak.
69. *Axularren teologia*. J. M. Balenziaga.
70. *Euskal Elaberrien kondaira (III)*. Gotzon Garate.
71. *Heriotz Zigorra*. Antonio Beristain.

KIMU SAILA

1. *Euskal Literatura (I)*. J. Erzibengoa-P. Ezkiaga. (*3gn argitaraldia*).
2. *Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta sendagile Maltzurra*. Lourdes Iriondo (*agortua*).
3. *Haurra Ipui denean*. Zarauzko Ikastolako Haurrak (*agortua*).
4. *Hego-Haizearen Ipuinak*. Lourdes Iriondo (*agortua*).
6. *Antso Garteiz*. Jesus M. Arrieta.
7. *Euskal Literatura (III*)*. J. Erzibengoa-P. Ezkiaga.
8. *Amaita*. I. Azkune-J. M. Arrieta (*3gn argitaraldia*).
9. *Euskal Literatura (III**)*. J. Erzibengoa-P. Ezkiaga.
10. *Izarren begietan*. Elgoibarko Ikastolako Haurrak (*agortua*).
11. *Eneko Haritza*. Iñaki Azkune (*3gn argitaraldia*).
12. *Buruntza azpian*. Lourdes Iriondo (*2gn argitaraldia*).
13. *Kattalin Erauso*. Iñaki Azkune (*2gn argitaraldia*).
14. *Gilen Tell*. F. Schiller (*3gn argitaraldia*).
15. *Goi menditan zehar*. A. Narbaiza.
16. *Harkaitz elurra ari zueneko*. Jesús M. Arrieta (*2gn argitaraldia*).
17. *Lurraren bihotzeraino*. Julio Verne (*3gn argitaraldia*).
18. *Moby Dick*. Herman Melville (*3gn argitaraldia*).
19. *Euskal Herriaren Historia (I)*. Luis Baraiazarra (*2gn argitaraldia*).
20. *Euskal Herriaren Historia (II)*. Luis Baraiazarra. (*2gn argitaraldia*).

21. *Belartzelaiko Mutikoteak*. A. Sarriegi (2gn argitaraldia).
22. *Hirugarren atalak*. Bitaña (2gn argitaraldia).
23. *Ipuinak (I)*. Bitaña (3gn argitaraldia).
24. *Elizondoko Eskutitzak*. G. Garate (5gn argitaraldia).
25. *Indieta beltza*. Julio Verne (4gn argitaraldia).
26. *Filatelia Vasca*. H. Antofiana.
27. *Ipuinak (II)*. Bitaña (2gn argitaraldia).
28. *Historia de Euskal Herria*. J. L. Arriaga.
29. *Nafarroako ezkurran*. G. Garate (2gn argitaraldia).
30. *Aldarte oneko ipuinak*. Gotzon Garate (2gn argitaraldia).
31. *Donostiarrok txantxetan*. Imanol Zaldúa (2gn argitaraldia).
32. *Ipuinak (III)*. Bitaña (2gn argitaraldia).
33. *Noni eta Mani*. Svensson.
34. *Mendiko Argia*. F. Weiser (2gn argitaraldia).
35. *Nafarroa zutik*. Imanol Zaldúa.
36. *Kriskitin kraskitin*. Imanol Zaldúa.
37. *Urola ibaian*. Imanol Zaldúa.
38. *Kazetari bat iheska*. Imanol Zaldúa.
39. *Bizidunen eboluzioa*. Imanol Zaldúa.
40. *Afrikako Herri Ipuinak (I)*. *Animaliak eta beraien mundua*.
41. *Afrikako Herri Ipuinak (II)*. *Animaliak eta gizona*.
42. *Afrikako Herri Ipuinak (III)*. *Gizona eta bere mundua*.
43. *Donostiako Zurriolan*. Imanol Zaldúa.
44. *Helen Kellerren Historia*. Lorena A. Hickok.
45. *Grimm Anaien Ipuinak (I)*.
46. *Grimm Anaien Ipuinak (II)*.
47. *Erregearen Postaria*. Rabindranath Tagore.
48. *Alegiak*. Agustín Paskual Iturriaga.
49. *Horrelaxe*. Ruyard Kipling.
50. *Peter Pan eta Wendy*. J. M. Barrie.
51. *Ipuiak*. Errose Bustintza.
52. *Martin Paz India*. Julio Verne.

EUSKARA IKASTEKO

Kilimiliklik. *Hemeretzi aletxo*. Bermeoko Eleizalde Ikastola.

Sei Ipuin. Bermeoko Eleizalde Ikastola.
Euskara hire laguna (I). P. Altuna (Agortua).
Euskara hire laguna (II). Patxi Altuna (Agortua).
Euskara hire laguna. Ariketak. P. Altuna (2gn argitaraldia).
Ikaslearen Esku Gramatika. Pello Salaburu (4gn argitaraldia).
Euskalherria. Geografia. Iñaki Goikoetxea (agortua).
Euskara Mailaka 0. S.E.I.E. (Agortua).
Euskara Mailaka 1. S.E.I.E. (7gn argitaraldia).
Euskara Mailaka 1. 120 filmina iru kazatan. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 1. 6 kazete. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 2. S.E.I.E. (6gn argitaraldia).
Euskara Mailaka 2. 185 filmina lau kazatan. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 2. 2 kazete. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 3. S.E.I.E. (5gn argitaraldia).
Euskara Mailaka 3. 201 filmina lau kazatan. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 3. 4 kazete. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 4. S.E.I.E. (3gn argitaraldia).
Euskara Mailaka 4. 146 filmina iru kazatan. S.E.I.E.
Euskara Mailaka 4. 2 kazete. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Ariketak (0-3). S.E.I.E. (Agortua).
Euskara Mailaka. Ariketak (0-1). S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Mintzabidea. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Hasierako Zikloa I. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Hasierako Zikloa II. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Irakaslearen Gidaliburua (1-24 ikastunitateak). S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Hasierako Zikloa. Karpetak I eta II: Diapositiba eta kazetekin. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa III. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa III. Karpeta: Diapositiba eta kazetekin. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa IV. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa IV. Karpeta: Diapositiba eta kazetekin. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa V. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa V. Karpeta: Diapositiba eta kazetekin. S.E.I.E.
Euskara Mailaka. Erdiko Zikloa. Gidaliburua (III-IV). S.E.I.E.

IRAKURGAIK

Mailaka 0

1. *2R2 eta Olagarroa*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (1-2 kap.).
2. *Naiara*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (3-5 kap.).
3. *Arranopola*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (6-8 kap.).
4. *Urki*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. 0 (9-11 kap.).

Mailaka 1

1. *Tzunpatzun*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. I (1-2 kap.).
2. *Espartarrak borrokan*. Xabi Kalbo. E.M. I (3-4 kap.).
3. *Eguzki-Lorea*. Xabi Kalbo. E.M. I (5 kap.).
4. *Herensugea*. Xabi Kalbo. E.M. I (6-7 kap.).
5. *WZX*. Aitor Zenarruzabeitia. E.M. I (8-9 kap.).
6. *Gau beltza*. Xabi Kalbo. E.M. I (10-11 kap.).

Mailaka 2

1. *Otzaurteko ezkilak*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (1).
2. *Sorgintxuloko Pikondoa*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (2).
3. *Izaro*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (3).
4. *Erbikumeak*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (4).
5. *Pontxe*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (5).
6. *Xabier*. Joxe Erzibengoa. E.M. II (6).

Mailaka 3

1. *Eguberritako ipuinak*. Periko Alkain. E.M. III (1).
2. *Ortzadarrerako bidea*. Periko Alkain. E.M. III (2).
3. *Antxon Eraso (I)*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (3).
4. *Antxon Eraso (II)*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (4).
5. *Alain*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (5).
6. *Karnaba*. Patxi Ezkiaga. E.M. III (6).

Mailaka 4

1. *Marrumak*. Jon Lezamiz. E.M. IV (1).
2. *Sirenotsa*. Jon Lezamiz. E.M. IV (2).
3. *Zapatarien aukera*. Jon Lezamiz. E.M. IV (3).
4. *Katalamundira*. Jokin Otaegi. E.M. IV (4).
5. *Hegoak banitu*. Jon Lezamiz. E.M. IV (5).
6. *Bulegari itxura zuen*. Jon Lezamiz. E.M. IV (6).
7. *Zurrumurruak*. Jon Lezamiz. E.M. IV (7).

KLASIKOAK

Abarrak. Evaristo Bustinza (Kirikiño).
Euskal idazlan guztiak III. Koldo Mitxelena.
Antzerkia. Esteban Urkiaga (Lanaxeta).
Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia.
Juan Inazio Iztueta.
Kili-Kili. Barre-Ipuiñak. Paulo Zamarripa.

HIZTEGIAK

Hiztegia. Gaztelera-Euskara. Placido Mujika (4gn argitaraldia).
Hiztegia Euskara-Gaztelera. (Bi ale). Placido Mujika.
Hiztegia. Gaztelera-Euskara/Euskara-Gaztelera. Jose Luis Arriaga (2gn argitaraldia).
Erdarakadak. (Euskaraz ongi mintzatzeko Hiztegia. Zazpi Probintzietako Adibideak). Gotzon Garate.
Afijos Vascos. Placido Mujika (2gn argitaraldia).
Orotariko Euskal Hiztegia. 1go Atala: A-Ama. Luis Mitxelena.
Orotariko Euskal Hiztegia. 2gn Atala: Ame-Asd. Luis Mitxelena.
Orotariko Euskal Hiztegia. 3gn Atala: Ase-Bapuru. Luis Mitxelena.

EUSKARAREN ITURBURUAK

Hiru libururik Decheparez. Trilogia Dechepariana. Patxi Altunak paratua.
1. *Versificación de Dechepare. (Agortua)*.
2. *Linguae Vasconum Primitiae. (2gn argitaraldia)*.
3. *Etzepareren hiztegia. Lexicon dechepariano (Agortua)*.
Manual Devotzioezko (I. zatia). Joannes Etziberri Ziburukoak. Patxi Altunak paratua.
Aita Sebastian Mendibururen Idazlan. Argitarabeak. (Bi libururik). Patxi Altunak paratua.

UNIBERTSITATERAKO LIBURUAK

Gauzaki, Izaki, Gizaki. Gaizka Barandiaran.
Etika Sarrera. Ez-Ta-bai-Dan. Román Garate.

LEKU BAT, GIZONAK, HISTORIA BAT **Bilduma**

- Historiaurreko ehiztarien egoitza bat: Rouffignac.* Louis-René Nougier eta Veronique Ageorges.
Burdin aroko babes hiri bat: Biskupin. Grègoire Soberski.
Greziar hiria Perikles-en garaian: Atenas. Georges Grammat.
Herriska bat erdi aroan: Luttrell. Sheila Sancha.
Gurutzatuen garaiko gotorleku bat: Zaldunen kraca. Phillippe Brochard.
Viking egoitza bat Groelandian: Brattahlid. Jean Ollivier eta Edoardo Coelho.
Mahomatar hiri-buru bat Soliman ilugarriaren menpean: Babylonia. Etienne Morin.
Hiri bat Mesopotamiam Nabukodonosor-en menpean: Babylonian, Etienne Morin.
Egyptiar artisauen herri bat Ramses IV.aren garaian: Deir El-Medineh. Viviane Koenig eta Michel Jay.

ERLIJIOA

- Itun Berria.* Itzultzaile, Olabide.
Itun Berria. Itzultzaile, P. Olariaga. (*agortua*).
Itun Zar eta Berria. Itzultzaile, Olabide.
¡Entzun! 7-11 urte bitarteko haurrentzat Biblia. A. J. McCallen. Itzultzaile, J. Goikoetxea.
Errekarte. Loiola ta Anai Garate. G. Intxaurrendieta.
Garate Anaia Dohatsua. Iñaki Goikoetxea.
Villancicos de Navidad/Gabon Abestiak. Felix Zabala.

BESTE BATZUEK

- Seksu Ezibidea.* S. Bigatelo.
50 años de pelota vasca. Equipo de Redacción Pal.
Estudios Vascos de Criminología. Antonio Beristain y otros. (*Agotado*).
Cine Vasco, ¿realidad o ficción? (Epoca Muda). A. López Echevarrieta.
Cine Vasco de ayer a hoy (Epoca Sonora). A. López Echevarrieta.
Biziaren Olerkia. Iratzeder.

EUSKALERRIKO LITERATURA SARIAK

1986 urte

- Novela: Hermanos mayores.* José Ignacio Nájera Nieto.
Novela: Los cenicientos. Ramón Eiroa.
Poesía: Anatomía de los sentidos. Julio César Vior y *Los otros reinos.* M.^a Felipa Maizkurrena.
Teatro: Memoria de aquella guerra, Andrés Ruiz y *David y el otro,* Ignacio José Berciano.

1987 urte

- Ensayo: La cárcel de las palabras,* Jesús M. de Miguel y Melissa G. Moyer.
Saiakera: Zergatik Lana?, Juanjo Dorronsoro.
Teatro: 1999 Ora pro nobis, Mikel Osoro y *Knokke Le Zoute,* Juan Luis San José.
Antzerki: Uzta ugari da, Josu Arkotxa y *Arranpan,* Imanol Elias.

BIBLIOTECA VASCA

- Lehen Euskalerrria* (Euskaraz, Gazteleraz eta Frantzesez). J. Altuna (*Agortua*).
El Misterio Vasco desvelado, Paul Arnold.
Ser Vasco, Jean Haritschelhar y otros.
La Segunda Guerra Mundial y los Vascos, J. M. Romaña Arteaga.
Asociaciones de Mocerías en Euskal Herria, Josu Erramun Larrinaga.
Vascos en el cine, Alberto López Echevarrieta.
Montañas y civilización vascas, C. Dendaletche.
Euskal Herria. Hombres, tierras, cultura, Equipo de Redacción PAL. (*Agortua*).
Literatura infantil vasca. Seve Calleja.
El carnaval vasco interpretado, Txema Hornilla.
Los héroes de la mitología vasca. Txema Hornilla.